

## OROITARO (Hitzaurre gisa)

*Gizonak, egun batez aurkitu zuen bere izanaren sena, herri baten erroetatik sortzen zen euskaldun jatorriarena, eta soinekoak urratuz, ordena edo lagundi jakin bateko loturak autsi zituen. Ez ordea goragoko zerbaiten zuen sinesmen sendoa utziaz, eta bertan aurkituko zuen ekaitz-aldietan abaro. Erabaki zorrotz haien ondorenez eskaini zuen bere lehen frutua; esanez: Tori nire edontzia. Baina ez uste ereinotzaren baitan loak hartuko zuenik, ez. Handik Euskal-ikurrinari arteraino doan bide luzea landu zuen gizonak,*

Zure esku begidunak  
dakarte goldea,  
nire lurrak senti du,  
Goiko Ereillea.  
Apatza bearrean  
zail nizun barnea:  
zure lanari esker  
badakart lorea.

*Bere ideien alorrean goldaketan, barne gogoaren eraginez, aldizkari bat biziaraziz eta nekez irauraraziz, hori zenez bere nahia: eusko-gogoa.*

Ara ardo-zatoak eta usai goxoak  
eta lasterregi zimeldu oi diran  
larrosa liraiñak ekarri-erazi!  
Gazte izaki, bizi-euna dukan arte.

*Gogotsua ez ezik, kasik gogo hutsa zen Iokin Zaitegiren izake-  
ra. Lanari gogoz heldu zion. Langiletasunez lortu zituen «amerikako»;  
baina indianoaren txanpon bilketa baino aisago lortu zuen eralgiketa.  
Bere herriaren kultur alorretan bazen non eralki. Nekez lortua, gogoz  
eman. Minik izatekotan, herri baten irauarazi nahiak ematen zion  
larri-mina izan zitekean. Baina, era berean, idea aberkoiaren aldeko  
eskaintzaren atsegina. Ekaitz garaietan burua zutik jarraituz. Ekin eta  
ekin, berriz ere goldaketan:*

Euskaldun erara itzetan laburra,  
goldean ari naiz lenago bezala:  
otadi-okuntzak labakitu-ala  
ereingiro daiten arbasoen lurra.

*Barne deiaren gogo-mina eta aberri-minez euskararen alde dena  
eman nahi zuen gizonak. Idazle eta pentsatzaileen lanak euskaratuz.  
Mendebaldeko kultur jatorria nahi zuen piztu gudan.*

\* \* \*

*Gizon maitagarri haren oroitzua dakar gaur Jose Mari Velez de  
Mendizabalek. Lehenago Sebero Altuberi bezala, orain beste herriko  
seme bati zor zaion biografia landuz. Bere oroimenez, bere gogoa  
irauararaziz.*

*Bere ideaz ezer azpimarratzekotan, berak sortu eta hamar ur-  
teren buruan irauarazi zuen denbora gaitzetako aldizkarian agertzen  
zituen atarikoak azpimarratuko nituzke. Han oretuz girotu bai zuen  
gerraondoko idazle euskaraganako maitasuna, hizkuntza larrekoa  
nahi zuenez noranahikoa.*

*Zein txikiak garan bere ondoan. Hala ere, har beza gure bo-  
rondatezko eskaintza:*

Eder bekizkizu nere aoko itzak,  
eta nere biotz-barneko gogoak.

*Zuk opa zenuenetik landuz joan nahi dugu eta oroitaroan, har  
beza adiskide gorazarrea.*

Juan SAN MARTIN

Eibar, 1981eko abenduaren 12an.

SORTZEZ ETA GOGOZ ARRASA-  
TEKO SEMEA NAUZUE, ERRI  
ZAARREKO ARTEKO KALEAN  
IAIOA, BIZITZEZ, ALABEARREZ,  
ETA ZUZENTASUNAREN ALDE IO-  
KATZEARREN, BIZITZARTE OSOAN  
ERBESTEAN BIZI IZANDA, EUS-  
KALDUN NON-NAITIAK GERTATU  
IZAN NAIZ. ZORIONEZ, ZAARTZA-  
ROAN BADA ERE, ETXERATU  
EGIN NAIZ.

Iokin Zaitegi

## SARRERA

1906.ko Uztailaren 26.an —goizeko hiru eta erdietan— Arrasaten jaio da, Erdiko Kaleko 17gn. zenbakian, «Txomin Txiki»-enean. Ez da bere etxea. Sendia apur bat goragoko beste batetan bizi da, 52 gnean., Iokin ipini diote izena.

*Zergaitik ez diguzu azaltzen, Iokin, zure sendiaren gorabeherarik?*

«Nere gurasoak Juan Zaitegi Ibarzabal eta Francisca Plazaola Martinez de Alegria izan ziren. Biak arrasatearrak. Aita eta amapontekoak, berriz, Floriano Plazaola eta Francisca Zaitegi. Erdiko Kaleko 52.gn zenbakian bizi ginen. Ez gintuzun aberatsak, langileak baizik. Nere aita —serrailari bera— Union Cerrajeran zebilen lanean, amak —orduko gehienek bezalaxe— etxeko beharretan ihardun ohi zuelarik. Lau anaia izan ginen guztira, ni hirugarrena, eta neu bakarrik jaio nintzen «Txomin Txiki»-enean. Beste hirurak gurean...»

Juan Zaitegi eta Francisca Plazaola 1903.ko Ekainaren 13.an ezkondu ziren. Juanek hogetahiru urte zituen (1879-12-27) bere emaztea hamar hilabete gazteagoa zelarik (1880-10-10). Bata zein bestea Arrasaten jaiokoak ziren nahiz eta heuren jatorriak kanpokoak izan. Franciscaren gurasoak Simon Plazaola Zabaleta eta Angela Martinez de Alegria Ortiz de Elgea izan ziren. Simon Leintz Gatzagan jaioa zen eta Simon «Gatzarra» esaten zitzaion bere jaiotetxearen izena erantsiz. Ezin uka, bestalde, Angelaren jatorria arabarra denik: Mendibiltarra genuen.

Simon eta Angelaren ezkontza hau bigarrena izan zen Simonentzat, lehenagoko emaztea Telesfora Mendizabal zuelarik. Lotura honetatik seme bat —Francisco— izan zuen Simonek eta beste sei seme-alaba Angelarekin: Floriano, Ignacio, Eugenia, Florencia (moja agustindarra),

Francisca eta Maria Juana. Francisco eta Ignacio Argentinara joan ziren gazterik, Azul hirian bizi izan zirelarik <sup>1</sup>.

Simon gizon ospetsua izan zen Arrasaten. Bere jakituria ez zen batiere arrunta eta arrasatearron fidantza osoa irabazi zuen, gizon leial eta zintzo azaldu baitzen beti.

Iokinen etxean gordetzen ziren Simonen paper zahar batzu arakatu ahal izan ditut eta haietatik Simonek —noizean behin eta zenbait jenderekin— Aurrezki Kutxa baten funtsa betetzen zuela jakin dut. Hobe esateko, diru gordelariaren betebeharra eraman ohi zuen. Zenbait lagunek dirua uzten zioten Simonek administra zezan.

Berak erabiltzen zuen kuaderno batetan urteetan zehar egindako operazioak azaltzen dira, bakoitzak xehetasun guztiak daramazkielarik. Ikus:

«El 31 de agosto de 1887 Josefa Mendizabal me dio para guardar asta que a ella le yciera falta la cantidad de 1.200 reales...

El 24 de Septiembre de 1895 le entregué los 4.300 reales que le debía pues tenía que casarse su hija Juanita; así que me quedo en paz».

Kuaderno horren orrialde berezi batetan Ameriketara dauzkan bi semeen —«Ignacio y Pachico»— gorabeherak jarri ohi zituen: haiei bidalitako eskutitzen egunak, erantzunak jasoak zirenetakoak, semeen ezkontzen berriak... Orrialdearen izenburua hauxe dugu:

«*De Ignacio Plazaola* (Advertencia Importante) Salió para las Américas el 17 de octubre y se embarcó el 20 de octubre de 1885 en Burdeos, a la edad de 12 años. Y como el gobierno decretó una Ley el 23 de julio de 1885 que todo mozo que quería pasar a Ultramar antes de sus 14 años de edad debería presentar una fianza para que a los 15 años de edad del mozo que haya ido a Ultramar tenga que presentar en Caja del Gobierno la suma de 3.000 pesetas. Y como ésto se decretó el año 1885 es preciso decir en todos tiempos, sea cuando le toque quinto o siempre que las autoridades reclamen, por el tener muy presente declarar que salió para las Américas el 20 de octubre de 1884, por cuanto en esta fecha, o sea el año 84, estaban libres del todo hasta los 14 años de edad.»

Ikus daitekeenez, Simonek ba zekien bere bizkarra gordetzen. Ondo gainera.

(1) Hiri honetakoa zen Gregoria Gangoiti, Sebero Altuberen andrea.

Ondoko gertaeran ere agertzen da argi Simonen izpiritu zorrotz eta zuhurra. 1877.an erosi zuen Simon-ek 1979 arte bere ondorengoek eukiko zuten etxea: Erdiko Kaleko 52gn. zenbakiko eraikuntza osoa.

1812.ko Azaroaren hamarrean Eibarko Manuel de Maguregik eta honen emaztea zen Maria Santos de Olabariak Arrasateko Antonio de Arzamendi eta Maria Vicenta de Arregi senar-emazteei saldu zieten gorago aipatutako etxea. Hauek, berriz, 1829.ko Azaroaren 25.ean Migel Garrori saldu zioten, Etxagibel eskribauak egindako idazkian irakur dai-tekeenez.

La berrogeitamar urte geroago Simonek du aukera etxeaz jabetzeko. Baina ez du erabakirik hartu nahi, Jabego Bulegoan nola dagoen ezarria jakin aurretik. Gaiaren berezitu baten eritzia eskatu zuen eta bere galderei honela erantzun zieten:

«Satisfaciendo a una pregunta que se me hace por D. Simón de Plazaola, vecino de Mondragón, relativa a la compra en proyecto de una casa existente en la calle del Medio de dicha villa, digo :

Que suscrita como se halla a nombre de Dña. Fabiana Izurrieta la posesión de la finca en el Registro de la Propiedad en legal forma, tiene indudablemente título suficiente para efectuar la venta y puede llevarla a cabo. Mirando, empero, el asunto bajo el punto de vista de los intereses del comprador, opino que no es prudente que verifique la adquisición, al menos pagando el precio al contado, pues según resulta de documentos que se me han exhibido, la casa fue adquirida durante el matrimonio de la Dña. Fabiana con D. Miguel Garro, señaladamente en 25 de Noviembre de 1829, y como quiera que alguno de los hijos pudiera pretender que se le de la parte correspondiente a su finado padre a título de gananciales, sería de temer que llegado el caso tuviera Plazaola disgustos y gastos. En tal situación y recordando de que los hijos del finado Garro y de la vendedora Dña. Fabiana son tres, uno que mandó hace muchos años a Ultramar y dos hijas de las cuales una está conforme en aprobar la venta, entiendo que para seguridad del Comprador debe exigir éste que la otra hija intervenga en la venta y preste su asentimiento personalmente por medio de persona autorizada en forma, o bien que queden reseñados en su poder, para tal evento, mil reales, sexta parte del precio convenido, que es lo que en su caso podría reclamar la hija ausente por su porción en bienes gananciales al padre.

Tal es mi dictámen, que someto a otro más fundado.

Vergara, diez y siete de Mayo de mil ochocientos setenta y siete. El licenciado José Joaquín de Egaña.»

Zernolako urratsak eman zituen Simonek etxea erosteko ez dut jakin ahal izan. Nolanahi ere, urte berberean hasi ziren bera eta emakume-saltzailea salerosketako harremanetan. Eta, dakidanez, ez zuten inoiz inongo tirabirarik izan.

Etxeak, urteetan zehar, berriztapen haundiak eta mota guztietakoak izan zituen. Konponketak zirela eta zazpi etxebizitzako eraikuntza honek diru dexente atera zion Simoni. Ikertu besterik ez da egin behar, Iokinenean gordetzen zen paper mordoa. Simon Plazaolak erosi zuenetikako faktura eta ordain-agiri guztiak hantxe daudela esango nuke.

1864.ko Urtarrilaren 29.an, hogetalau urte zituelarik, Arrasateko «Almacén de Cerrajería»-n jarri zen lanean, orduko zuzendaria zen Jose Maria Resustarekin egindako itunak azaltzen duen bezala. Eguneko hamasei erreale irabazten zituen Simonek. Gainera, partizipazio txiki bat ere eman zitzaion irabazpidean.

Eta Simonen lanak sari hori merezi zuela dirudi, kuaderno arteko batek adierazten duenez. Inoiz Serrailgintzako Erakustoki edo Museo bat idekiko balitz kuaderno honek toki berezia beharko luke, bertan agertzen diren marrazki, ideia, eritzi eta oharrek serrailgintzako historiaren aro bat adierazten baitute.

\* \* \*

Juanen gurasoak, ordea, arrasatearrak ziren: Pascual eta Dominica. Zortzi seme-alaba izan zituzten: Felipe, Manuel, Eusebio, Jesus, Juan, Francisca, Baltasara eta Romana.

Dominicak taberna bat euki zuen Arrasateko Magdalena kalean, gaurko «Aizkora» dagoen toki berean. Francisca eta Romana alabek kale berdinean zegoen kooperatiba-denda bat eramaten zuten eta Eusebiok Iturriotz Kalean beste janari denda bat zeukan. Dominicak bere taberna elkarte bihurtu nahi izan zuen. Honela irakurtzen da, 1894.ko Apirilaren 18an, Udaleko agiri batetan:

«Al gobernador:

La vecina de esta villa Doña Dominica Ibarzabal (Viuda de Pascual Zaitegui), tabernera habitante en la casa número 14 de la calle del Arrabal de la misma, me ha entregado el adjunto Reglamento por duplicado de la Sociedad de Recreo titulada «La Unión» que intenta establecer en dicha casa.»

Handik hilabete barru, Maiatzaren 12.an, osterata egin behar izan zuen eskabidea, elkartearen izena aldatuz, gainera:



«En la casa número 14 de la Calle Arrabal de esta villa, se trata de establecer una Sociedad de Recreo titulada «Mondragonesa», presentada por Doña Dominica Ibarzabal.»

Iokinen aitari Juanito «Ixurtza» esaten zioten Arrasaten. Eta zioa hauxe da: Dominicaren aita Bizkaiko herri horretan zen jaioa. Beraz, Arrasateko Zaitegitarrei ez zaie «Ixurtzatarrak» nahiz «Ixurtzenak» esaten Zaitegi abizenarengatik Ibarzabal direlako, baizik.

Ez dut, bestalde, aukera alperrik galdu nahi Ibarzabal abizenari dagokion puntu bat argitu gabe. Juan Letona historiegileak egindako zenbait ikerpeni esker, D. Toribio Agirre Ibarzabalek ez zuela zerikusirik Juanitorekin ezagutu ahal izan da. Oker hau batzuetan eman da Arrasaten, heuren arteko adiskidetasuna zela eta.

Iokinek noizean behin «Ixurtza» eta «Ibarzabal» gaitzizenak erabili ditu EUZKO GOGOAN-n. Hain zuzen ere, ba da beste euskal idazle bat ere Ixurtzan jaioa, Nikolas Alzola «Aita Berriotxo», halegia. Bada, azken honen aitona zena, Nikolas Soloeta Astarbe, Ceferina Gallastegi Ibarzabalekin zegoen ezkontuta eta Ceferina hau Iokinen berraitonaren se nitartekoa ei zen.

1966.ko Martxoaren 5.ean, Guatemalako DIARIO DE CENTRO AMERICA egunkariak Iokinen irudiari eskaintzen zion bost zutabetarako artikulua bat. Bertan irakurtzen dugu:

«El origen étnico de Zaitegui es de lo más interesante. Vasco auténtico de cuna, de sangre y de alma. Nació en Mondragón, pequeño pueblo industrial metido en la montaña, con bellos monumentos y ricas tradiciones. Sitio éste en Guipúzcoa, de rara coincidencia porque linda con las provincias de Vizcaya, Alava, y Navarra (sic); y de cada región, matemáticamente proporcional, arranca un abuelo. De allí la razón del alma, de la sangre y de la cuna.»

*Denbora gutxitan bizi izan zara zure gurasoekin, oso gazte joan baitzinen Durangora. Hala ere, edozein semek du gogoan gurasoen oroitzapena. Nolakoak ziren zureak? Nola hazi zintuzten?*

«Ama askozaz gogorragoa zen...»

Eta Zaitegik ez du luzatzen erantzuna. Ez du luzatu nahi. Orduko gogoetek ez diote une alairik ekartzen. Eta bere barneko infinitoari gelditu da begira, ixil, mutu. Zenbait egun behar izan dut, zinez, esaldi adierazkor eta mugakor batzu lortzeko.

«Aitak lantegitik etxera ekarri ohi zuen beharra; Union Cerrajeran serralak egiten irabazten zuen soldata eta diru apur

bat gehiago ateratzeko serraila-muntaketa etxean egiten zen. Guk, eskolatik irten ahala, etxerako zenbaki eta ariketak enparantzan bertan egin ondoren aitari laguntzen genion hantxe, beheko barrenean.

Ama gogorragoa, bai. Zu, baina zu (*Iokinek gehien erabiltzen duen adierazpide-formula*), adi zazu behin gertatu zitzaidana: Guatemalatik lehen aldiz etorri berria nintzen. Miarrizera joan aurretik Arrasaten eman nuen urtebete bat eta, noizean behin, lagunen batekin irtetzen nintzen afaltzera. Behin, Yosu Oregirekin afaldu ondoren gaueko 11.etan etxeratu nintzen. Ama, arruntki, iluntzeko 8.etarako oheratzen zen gauero. Etxera sartu... eta ama iratzarrik zegoen. Bota zidan erreto-lika! Eman nion berandu iristearen arrazoia baina berak berea aurrera.

Biharamonean, jaiki eta gero, goizeroko musua ematera joan nintzaiola «onda lo egin duzu?» galdetu zidan. «Ez» erantzun nion, «bart gertatua gogoan izan dudanez ezin nezakeen ondo egin.». Neu neure asmoetara ari izateko eskubidea orduantxe eman zidan amak. Nere ama amandrearengana ezkondu zen eta honen etxean bizi ginen danok. Amandrea arabarra genuen eta jatorriz ez zekien euskaraz baina ederki ondo ikasi zuen. Beraz, normala dena, etxeko giro euskaldun bizi genuen. Bestalde, ama oso erlijiozalea zen. Eta kristau bezala hazi gintuen lau anaiak.»

\* \* \*

Iokinek honela kontatu du eta ez diot ezertxo ere kenduko, egia baita. Baina ez du dena esan. Lehen aipatu dudan barneko indar ixiltarazten du. Ezin atera burmuinean dituen gogoetak, korapilo ezinikusiak eusten baitizkio.

Baina Zaitegik ez zidan sekulan eskatu puntu honetaz ez idaztea. Eta ene ustez, erabat interesgarria dugu Iokinen nortasunean apur bat sakonago murgildu ahal izateko.

Iokinen gurasoak, —berak aitortu digun bezala— Franciscaren amarengana joan ziren bizitzera. Aita, Juanito «Ixurtza» bezala ezagutua, oso ospetsu zen herrian. Beti parrandarako gertu. Etxerako «kalamidade» eta «desastre» bat zela esan didate Juanito oso ondo ezagutu zuten bi lagunek. Langile fina izan arren lantegia laga ondoren ahaztu ohi zitzaion zuzentasuna eta dena zen gutxi berarentzat. Lagun hoiek aipatu didatenez, diru asko behar zuen bere bizimodua sostengatzeko. Eta lana etxeratu beharra derrigorrezkoa zeukan, nahiz eta lantegian irabazitakotik etxean xemerik ez utzi.

Edariak eta gonek biziki tiratzen zuten eta normaltzat ei zuen emaztearengandik hiruzpalau egunetan aldentzea honi hitzik esan gabe. «Buru arina» zen hauzokideen eritziz.

Franciscak senarraren zama hau estoizismo eredugarriaz eramaten zuen. Lekukorik hurbilenak eta —nola ez!—, errukarrigarrienak lau semeak ziren. Berezko genioa omen zuen Iokinen amak, hasarretzean erabiltzen zuen hitza «Santoña» zelarik. Urduri eta genio bizikoa. Iokinek lehen esan duen bezala, berea aurrera ateratzea atsegin zutenetakoa.

Eguneroko lehen betebeharra Meza entzutea ohi zuen. Goizeko seietakoa. Arrasateko erretore izan zen On Jose Luis Iñarrak maiz esaten omen zion: «Francisca, Francisca... baina geroxeago ere ba dira beste Meza batzu...» Dena dela, lehenengoa entzun behar. Berezkotasun —ala terkokeria?— honetatik edan ei zuen Iokinek, idazkian zehar zenbait ereduk adieraziko duen legez.

Gauzak zuzen gustatzen zitzaizkion Franciscari. Alde honetatik, ezin ondo eraman bere semearen izakera, Iokin patxadazko gizona, trankila izan baita beti. Sarri —esango nuke— mundu berezi batetan bizi zela ematen zuena.

1927.ko Maiatzaren 14.an, 87 urte zituelarik, Angela —Iokinen amandrea— hil da eta Francisca uzten du etxalaba, bizirik gelditzen zitzaion beste seme bakarrak, Ignacio, 42 urte baitzeramatzan Argentinan. Gainera, aitak testamentua egitean Ignacio eta Franciscok (*Pachico*) heuren ukoa azaldu zuten «aurretik ere gehiago harturik baitaukagu» argumentatzen zutelarik.

Franciscak ezin ahala sufritu ei zuen bere senarraren portaera zela eta. «*Aita kalamidadea eta ama elizako kandela baino zuzenagoa*» mugaketa egin didate Iokinen gurasoen gaineko eritzia eskatzean urteetan zehar aldamenean bizi izandako Ignacio eta Sabina Aginagaldek, «Bata beltza eta bestea zuri» eransten dutelarik.

Giro txar hau zela eta senar-emazteak ezkontz-bereiztea eskatzen dute. 1932.ko Azaroaren 30.ean separazioa ematen da, Dibortzioaren garaiko legeen arauera. Ordurako urtebete bat baino gehiago zeramaten bata besterengandik urrunduak. Bergarako Epaitegiko Lehen Instantziako Epaolari zen Eduardo Tormo Garcíaren erabakian irakur daiteke:

«a.—Don Segundo Zaitegui, menor de edad, permanecerá bajo la potestad de su padre D. Juan Zaitegui Ibarzabal.

b.—En liquidación de la sociedad conyugal Doña Francisca Plazaola hará suyos todos los bienes existentes en el matrimonio y principalmente la casa número 52 de la Calle Arano

de la villa de Mondragón, respondiendo tan sólo de las obligaciones hipotecarias que pesan sobre dicha finca <sup>1</sup>.

c.—En compensación Doña Francisca Plazaola se compromete a entregar a su marido D. Juan Zaitegui la cantidad de ocho mil quinientas pesetas.

d.—Con dicha cantidad se compromete D. Juan Zaitegui a la manutención y gastos de su hijo menor Segundo Zaitegui Plazaola, hasta su mayoría de edad, obligándose a cancelar la hipoteca de diez mil pesetas que grava la citada finca y siendo de su responsabilidad cualquier otra obligación que pese sobre la sociedad conyugal por ser privativas del citado cónyuge D. Juan Zaitegui, y que no hayan redundado en beneficio de la familia ni de la sociedad conyugal...»

Esan den bezala, Juanitok urtebetea zeraman, gutxienez, andrearen etxetik agertu gabe. Lehendabizi, bere anaia Jesusenean egin zuen denboraldia. Baina bizimodu desorekatuaz jarraitzen zuen eta handik ere irten beharrean aurkitu zen. Azkenik, Arrasate Ibiltokiko etxe batetara —Franciscaren etxetik ehun metrotara— aldatu zen apupilo gisa. Eta hantxe eman zituen bere azken urteak.

Bereizketa ematen denean Iokin Belgikako Marneffen aurkitzen zen teologia ikasten. Gertaera honek biziki markatzen du ikaslearen izaera, honen ikaskideek diotenez, are serioago, bakartiago bilakatzen delarik.

Ama bakarrik bizi da beste semeek ere heuren bideak aukeratu baitzituzte. Gerrak Arrasaten hartu zuen eta Herriko Enparantzara izan omen zen eramana frankotarrek leku hori abertzalez bete zuten egunean. Irakur diezaiogun Sebero Altuberi gertaera honi buruzko aipamena:

«... Etsaien egazkinen bat, erri ortara, noizik bein etortzen zalarik, etorriko zan susmua zuten egun batean, eskarmenturako, ona emen zer asmatu zuten (*frankotarrek*).

Erriko Plaza-ingurua botatzen baitzituzten abioi-bombak, eraman, indarrez, Plaza ortara jende pilla (gizonak, emakumeak, batzuk beuren aurrekin); eta inor mugitu ez ziten, jarri, urrintxoagoko gorde-toki batean, garda-zibillak fusillakin apuntatuz» <sup>2</sup>.

Ekintza honek izutu omen zuen eta Pontevedrara doa Francisca denboraldi batez. Gauzak bigundu zirenean etxerako bidea hartu zuen ostera.

- (1) «Erdiko Kale» (Calle del Medio) izenetik «Calle Arano» izatera igaro zen. Gerra ondoren «General Franco» ezarri zioten eta orain, ostera ere, «Erdiko Kale».
- (2) «Laztantxu eta Betargi». Hordago Ed. 91 orr.

Urteak aurrera doaz eta Juanitok ez du bere etorkizuna garbi ikusten. Eta emazteari doakio parkeske. Baina andreak ez dio jaramonik egin nahi... 1946.ko Urriaren 20.an Juanito hil da. Albistea agudo zabaltzen da Arrasaten baina ez da hain azkar Franciscarengana iristen, inork ez baitzion berria eman nahi. Azkenik, hauzoko Sabina dela egokiena pentsatzen da eta hara doa:

- «— Amama, Juanito hil da...
- Juanito, zer Juanito?
- Hemengoa, Juanito «Ixurtza»...
- Etxera ekarri... ahalik eta agudoen...»

Sabinak dioenez, ez zuen Franciscak negar malkorik ixuri bihotza penak oskolduta baitzeukan. Iokinek, garai hartan, Guatemalako Unibertsitate Autonomoan erakusten zuen bere jakituria.

Geroxeago Iokinek berak esango digun bezala, 1955.ean honako bidea hartzea erabaki zuen, «ama bakarrik bizi zen eta». Eta agertu zen Arrasaten... amari noiz zetorren ezta zetorrenik ere abixatu gabe. Kanpotik ezagutu zuen Franciskak semearen etorri nahia. Hogetairu urte zeramatzaten elkar besarkatu gabe eta, agian, ezustean hartu nahi izango zuen ama. Honelakoxea zen Iokin!

Iritsi baino zenbait egun lehenagoko solasaldia, ama eta edozeinen artean:

- «— Ba datorrela esaten dabe.
- Baina berak ez daustu ezer abixatu?...
- Ez deust sekulan idazten.»

Heldu da Arrasatera. Ama, urduri, etxean itxoegiten dago. Hainbeste urte dira! Sabinak kontatzen digu:

- «Amarengana igo, musu pare bat eman eta... ba doa. Nora zoaz Iokin?, galdetu zion amak; Meza ematera, laster nator...; bost minuto ere ez zuen etxean egin...»

Urtebete inguru biziko dira elkarrekin Iokin Miarritzera aldatu arte. Elkarrekin bizi izandako azkenhurrengo aldia dugu hau, Iokin Ipar Euskal Herritik Guatemalara abiatuko baita berriz, 1962.ko hasieran.

Ama eta semearen arteko harremanak geroago eta urriagoak dira Guatemalako bigarren etapan. Irakur dezagun ondoko eskutitza nork bere ondorioa atera dezan <sup>1</sup>:

(1) Dagerren ortografiaz ematen dut nik hemen eskutitza. Hori bai, zenbait tokitan puntu batzu jarri ditut irakurketa eramankorra goa izan dadin.

«Arrasate, 24-10-71.

Nere seme maitea maitia Joaquin: Sembat dempora sure eser jakin bare baña tira acordau sara nire egunian. Esker asko ba estakisu se psik artu nuen nik. Estakit sembat urte diran larogeita 11 edo 12 eta emen triste ba S. Andres egunian urte bi datos mesatik natorrela escalleran jausi eta esin calera urten. Enas gausa, batek errekauek egiten dust. Segundo Plazentziako Ospitalean dago; oso gaiski egonda tension dauco; oiñ obeto dala esan leike.

Nire egunian eruan ninduen Udalara Meza Santua entzutera eta gero Arechabaletara baskaltzera Juan Mari, Segundo, Eduarne bere gisonagas, Arantza bere gisonagas eta nescatilla chikias benetan ederra. Eduarne eskon barri da junio 9 eskondusan. Echean komuneko tuvo goitik bera ipiñi dira ba apurtuta eusen eta oiñ contua pagatzeko falta. Juan Mari 9 milla baña gutzi da eta estakit nora juango nasen ba emen gausia oso garesti dago eta esgara alleguetan iñorabe. Suk eukiko baseu pagatzeko artuko nuke. Bueno Joaquin, esan dutsut dana orain suk erantzun aguro ba desietan nago serbait jakiteko. Negua gañean otzak eta atzera larri emen. Agur Joaquin bestebat arte edo ikusi arte sure amaren lastan aundi bat. Francisca.»

Eskutitz hau irakurtzean batek ez daki nola hartzen. Alde batetik, ama zaharraren bihotz hunkitua nabar dezakegu, azkenik semearen berri izan duen amarena. Adi daitekeenez, bi urte baino gehiago zeramaten bata bestearen berririk izan gabe. Larregi, bakar bakarrik bizi den gogorutzen ez duen zenbat urtetako emakumearentzat.

Bestetik, amaren kanta eskalea. Negua gainean dagoelarik hotzak berriro hartuko du etxea, bihotzak urrun, oso urrun, duen semearen itzulerara ixiltasunean itxaroten duelarik.

1972.ko Urriaren 28.an, eskutitza amaitu zenetik urtebete juxtu, Francisca mundu honetako oinazetatik askatzen da. Laurogei eta hamabi urte zituen. Bere azken orduan Iokin semea ere du lagun, behin eta betiko etxeratzea erabaki baitu arestian.

## IOKINEN LEHEN IKASKETAK

*Gizonak joera izan ohi du haurtzaroko urteak gogoratzera. Laket ditugu gehien batez, urte haiek. Nola ikusten dituzu, Iokin, heldutasunik umetango egunak?*

«Txikitango lagunak betiko direla esan ohi da sarri. Eta nere kasuan ere berdin gertatu dela uste dut. Lagun haundi eta zintzoak izan ditut baina beti datozkit gogora haurtzaroko izen haiek: Benito Axpe, Antonio Azkoaga eta Juanito Mancebo. Oso lagun minak ginen laurok.

Eta orduko jolasak...? A zer poza «txorromorrika» genbiltzenezan! Pilotaka ere aritzen ginen, eta futboleant...

Bost mila inguru biztanle eukiko zituen orduko Arrasatek. Guztiok elkar ezagutzen genuen, lagun arteko giroa euskalduna zelarik. Normala. Zer izan gintezkeen euskaldun baino?»

1976.an Donosti Aurrezki Kutxak Arrasateko Musakola auzoan bulego berria inauguratzen zuen. Hau zela eta, iragarki-txarteletan Iokin artikulua bat ageri zen, LEENGO ETA ORAINGO MUSAKOLA izenburupean. Bertatik atera ditut ondoko lerroak:

«... Nere aurtzaroan baserria zen Musakolako nagusi. Bertan eta Etxaluze ta Olandio aldean neregantatu zuen baserriaren ederra. Askotan ioaten nintzen igande-arratsaldetan txori-kabi bila, ango eskola lagun batekin erabakita gero: txorikume guziak il egiten zitzaizkidan damurik, umeak lumatu gabe egoten baitziren. Amaikatxo arrain ian nituen Musakola-ko erreketan arrantzan artuta gero: loinak, barbuak, amorrainak, angirak, zarbuak, eskailuak, arrain-leku bai-



Zaitegui encontrará durante los años de estudio en la Compañía de Jesús, profesores y educadores de alto nivel. Errandonea, Estefanía, Goikoetxea, Aguirreziaga,... son algunos de los que dejarán huella profunda en su formación.

Pero D. Elías Azpiazu y D. Francisco Urrutia, eran otra cosa. Sus primeros maestros. Sencillos pero enraizados en el Pueblo. Son los primeros que despiertan en aquel niño la curiosidad por el saber. Y esto es algo que Zaitegui no olvidará jamás.



tzen. Orain dena galdurik omen da erriko olen eta lantegien kutsuz zikinduta.»

*Gizon jakintsu zara, Iokin. Bizitzan zehar ikasi eta ikasi egin duzu, zure herriaren onerako. Eta ikasitako guztia besteei, kide nahiz ondorengoei, ezagutarazten ahalegindu zara. Baina nolakoak izan ziren hastapen haiek? Emaiguzu, laburki bada ere, haurtzaroko lehen ikasketen berri...*

«Hamalau urte bete arte eskolan egon nintzen Arrasaten. Garai hartan inor gutxi zegoen hamalau urterarte lanera joan gabe... Bai, Simon «Gatzarra» gure aitajaunaren Union Cerajerako akzioak saldu ziren... baina, zu, anaia guztiok izan genuen ikasteko aukera. Lauetatik bi maixu izan ziren: Juanmari eta Segundo. Ez da marka txarra!

«Bidalien Eginak» nere liburuari «Orixe»-k egin zion hitzaurrea eta berak esaten duenez «Kalekume xango xuri» izan omen nintzen haurtzaroan, eta «euskerarik ezin asko ikasi». Esaldi hauek honela aztertuko nituzke nik: kalekume xango xuri izatea ikasteko aukera eukitzea bada, orduan, bai izan nintzen. Baina, inolaz ere, «eta euskerarik ezin asko ikasi». Gure etxean euskara zen nagusi eta, lehen esan dudan bezala, baita lagunen artean ere.

Nere anaia Juanmari Arrasateko Ikastolan eta Donostiako beste batetan ere izan zen irakasle. Honek zerau adierazi nahi du: euskaldun hazi gintuztela.

Eskolan, egia esateko, beste modura zen. Baina, esaidazu, noiz izan da gure Herrian eskola etxeko giroaren jarraipena? Legearen arauera ibili gara euskaldunok eta, zoritxarrez, legeak arrotzak izan ditugu maizegi.

Arrasaten hiru eskola ziren nere haurtzaroan: Viterikoa, eskola nazionala eta herrikoa. Aurrekola bat ere ba zen, gaurko epaitegia dagoen toki berean, eta mojek ere klaseak ematen zituzten.

Viterin Arano maixu ospetsuak ziharduen eta berarekin eraman nahi izan ninduen hara, baina gurasoek herrikoa aukeratu zuten. Eskola hau Udaletxeko areto batetan zegoen eta «Txorten»-ena esaten zitzaion, izena irakaslearen baserritik zetorkiolarik. D. Elias Azpiazu zen irakaslea.

Gero beste bat ere izan nuen, D. Francisco Urrutia, Gara-gartzako abadearen anaia. Irakasle hauengandik oroitzapenik ederrena gordetzen dut. Azpiazu Aranoren jarraitzaile genuen eta honen bidetik ihardun ohi zuen. D. Francisco ez; D. Francisco herrikoia goa zen, herriko gauzak erakusten zizkigun lehenik. Esate baterako geografia gaia: lehendabizi Arrasateko

gorabeherak —mendiak, errekak, auzoak...—; gero ingurukoak, Gipuzkoakoak... eta honela hedatzen zen, poliki poliki, Europako geografia erakutsi arte. D. Franciscoren erakusteko era oso egokia zela iruditu zait beti, eta honela jakinerazi nion berari Guatemalatik lehen aldiz etorri nintzenean.»

Bi irakasle hauek beti iraungo dute Iokinen gogoan. 1979.ko Azaroaren 25.ean «Olerti Eguna» eskaini zitzaion Larrean Iokini eta bertan irakurri nuen hitzalditik honako lerro hauek atera ditut:

«... D. Elias Azpiazu eta D. Francisco Urrutia izan dira bere lehen irakasleak. Maixu apalak baina herriarengan errotuak. Ez ditu Iokinek hain errez ahantziko, ezta urrik ere! Urte asko emango du Zaitegik bere jaioterriatik aldendua. Lagundian goi mailako irakasle eta gidariak izango ditu. Errandonea, Estefania, Goikoetxea, Agirrezeziaga... berarengan jakintza-ezaugarria utzi zuten irakasle banaka batzu ditugu. Baina D. Patxi eta D. Elias beste gauza bat ziren... 1956.ko Uztailaren 26.an, Guatemalatik iritsi berria zela, bazkari eder bat eratu zuen Arrasaten, senide eta lagunak bere ingurura bildu nahian. Eskuin-ezkerretara ama eta D. Nemesio Etxaniz zituelarik, hantxe zeuden D. Patxi eta D. Elias ere presidentziako mahaian, euskal kulturari ez ezik beste arlo askotan ere arrakasta erdiesten ari zen gizonaren eskerrona adieraziz.»

D. Elias Azpiazu Gorosabel, Arrasaten jaioa, Arano maixuaren ikasle izan ondoren, Hospitaleko «Eskola Zahar»-ean izan zuen lehen lanpostua. 1908.ko amaieran Udalak Erdiko Kaleko 19.gn zenbakian, gaurreguneko epaitegia, sortutako Haur Eskolako zuzendaritza lortzen du. Hemendik —1912.ko Irailaren 1.ean— Udaletxean bertan gerturiko instalapenetara igaro zen, hogetamar ikasle zituelarik.

Sor Delfina Velez de Mendizabal-ak, Merced Ordenako lekaime, urte asko eman zuen Arrasaten irakaskintzan. Berak egin dit D. Eliasen mugaketa:

«Era un gran caballero, religioso, excelente maestro, con un trato delicadísimo con sus alumnos. Nunca se le veía disgustado; al contrario, siempre les trataba de «queridos míos» a sus alumnos. Te diré qué decíamos las que tratábamos con él: ¿de dónde ha salido éste? Los de Mondragón éramos unos zakarras, entre nosotros sobre todo, pero Elías se comportaba como uno de esos americanos finos y atentos; es decir, una persona educadísima.»

D. Francisco Urrutia Uribebarria, Aretxabaletako Gellano auzoan jaio zen. 1918.ko Irailaren 18.an irabazi zuen Arrasateko Udal-Es-

kolako izendapena, 1934.ko Urtarrilaren 1.ngo arte bertan diraelarik, Gazteluondoko eskola berriak inauguratu arte. «Ofizial Nagusia» tituluaz sartu zen Udaleko plantilan.

*Hamalau urte bete berri dituzu eta zure bizitzak zeharoko aldaketa izango du. Jaioterrria bertan behera uzten duzularik eliteko erlijios-ordena batetara sartuko zara. Mundu berri bat aukeratu duzu; Josulagundia. Zerk bultzatu zintuen erabaki hau hartzera?*

«Urtebete egin nuen elizmutil bezala herriko parrokian, D. Pacoren mutila, hain zuzen. D. Paco nere aita zenaren lagun handia nuen eta honexegaitik, nik uste, aukeratu ninduen laguntzaile<sup>1</sup>.

Elizako orduko serora —garbitasuna, gertuketak eta beste egiten zituen andrea— Axentxi zen. Honek ederki ezagutzen zuen herriko orduko gaztedia, seroraren lanetatik aparte neska talde bati jostuketa eta beste etxeko lanik erakusten baitzion. Eta honek aukera ematen zion gu gaztetxoak nondik nora eta nola genbiltzen jakiteko. Garai hartan sarri etortzen zen Arrasatera Durangoko Komentuan zegoen Aita Basabe josulaguna, Lekeitioko semea bera. Gogo-ihardunak ematen zituen bitartean, nolabait esateko, sarea botatzen zuen gutakoren bat bertan hartu nahian. Ordena guztiak egin dute beti hori eta josulagundiak ez zuen ezerगतik gutxiago izan behar.»

*Baina zeinek eman zuen lehen urratsa?*

«Neu izan nintzela uste dut. Josulagundiara sartzeko neure asmoa azaldu nion behin. Gero Axentxiren bitartez, berarengana deitu ninduen eta solasaldi txikia izan genuen asmo horretaz. Ene ustez, nirekin mintzatu aurretik nire izakerari buruzko azterketa eginda zeukaten Axentxik eta Aita Basabek.

Kontua gero izan zen, gurasoei berri ematean. Amak ezetz eta ezetz. Eta, nik uste, ba zuen bere arrazoia. Bere ahizpa Florenciak, moja agustindarra sartu zelarik, dotea eraman behar izan zuen lekaimetxera. Aretxabaletakoan bizi eta bertan ere hil zen, oker ez banago. Oso dote ona eraman omen zuen, amak esaten zuenez.»

Simon Plazaola hiltzean ama eta seme-alaben artean zatitu zen haren ondoretasuna eta Ignacio eta Franciscok heuren ukoa azaldu zutela esanda gelditu den bezalaxe, Florenciak ere —Sor Patrocinio de San

(1) D. Paco, D. Francisco Imaz, Arrasateko Parrokiako abadea. Oso gizon jator eta ona. 1958.ko Ostiral Sainduan hil zen.

Jose ordenan— berbera egin zuela aipatu beharra dago, zio berdinak agertzen zituelarik.

«Gauza zera da: amak ez zuela ni Durangora joatea nahi. Erliziozale haundia izan arren mojak eta fraideak diru bila etorri ohi zirela pentsatzen zuen. Nahiz eta Aita Basabe nere gurasoekin mintzatu ez zuen eragozpen hura gainditu ahal izan.

Nere aldetik, berriz, ez nuen beste asmorik eta honelaxe jakinerazi nien gurasoei eta Aita Basaberi. Hau, nere nahia ikusirik, handik zenbait egunetara ostera agertu zen etxetik eta amarekin hitz-egin ondoren honen baimena iritsi zuen. Nola? Nik ez nuen etxetik txakur txiki bat ere aterako. Ongile bat izango nuen eta honek ordainduko zituen Durangoko egonaldiko gastuak.»

*Arrasateko norbait ...?*

«Ez. Durangokoa zen ongile hori. Baina nik ez nuen urteak igaro arte zein zen jakin. San Salvador-en nengoela beste josulagun batek eman zidan berria. Victoria Larrinaga, Basaberen alarguna, izan nuen ongilea. Durangoko komentura iritsi bezain laster ezagutu nuen andre hura baina nor zen eta nerekin zernolako harreman izkutu eta ixilak zituen jakin ez dakite ezer Komillaseko egonaldi honetaz. Belgikako Marnette-n Santanderreko ikastetxe horretako zenbait irakasle izan zituen eta ba liteke okerra hortik etortzea.»

*Lehen ikastaroan garratzasuna dastatu ondoren Josulagungai bihurtu zara. Durangotik Loiolara zoaz eta hemen bost urte emango dituzu, geroko zure bizitzan garrantzi haundia izango duten urteak. Pentsamoldea iraultzen duzularik, Aberria ezagutzen basten omen zara...*

«Etxetik irten nintzenean, lehen ere esan dut, euskaldun ninduzun. Baina euskaldun izateak ez darama berarekin abertzale izatea, batez ere gaztaroaren urte gordin haietan. Arrasateko giro hartan —eta nik uste, Euskal Herri osoan ere—, irauñ egiten genuen, nor eta zer ginen galdera ezezagun zitzaiagularik. Eta hori, neurri batetan, nahiko normaltzat jo daiteke.

Durangoko komentura iristean *zerbait* falta zitzaidala nabaritu nuen, baina zer zen konturatu gabe. Atera kontua: Estepan Urkiaga «Lauaxeta» izan nuen lagun Durangon eta ez dut uste garai hartan abertzale zenik. Ez zuen ematen, behinik behin.

Loiolaratu nintzen eta nobiziagoko bi ikasturteak Durangoko hutsa nola betetzen jakiteke joan zitzaizkidan.»

## DURANGON ETA LOIOLAN

*Gurasoen ezetza atzean gelditu delarik Durangon zaude. Hantxe duzu bizitzan zeharko zure bidaiaren abiapuntua. Mundu berri bat zenuen zure aurrean ...*

«1920.ko Uztailean iritsi nintzen Durangora, ikasturtea hasi eta hamabost egun igaro ondoren. Nere irakaslea Aita Bitor Iriarte izan zen. Agian, sekulan izan dudarik bikainena eta berandu heldutakoei latera eta gerkerera erakusten zizkigun. Gogor xamarra zen hura «Txorten»-eneko bizimoduari atxikirik geundenentzat. Hala ere, irakasle honek bidea xamurtu egin zigun. Behin, gerkerazko hitzalditxo bat gertuarazi zidan. San Juan Krisostomo zuen gaia eta deun honen egunean bota behar izan nuen ikastetxeko jangelan <sup>1</sup>.

Giroa erabat erdalduna zen ikastetxe hartan baina, agian, azpikontzientziak eraginda, neure ahalegintxoak egiten nituen.»

1976.ko Abenduan Arrasateko herriak «Seme Kuttuna» izendatzen du Iokin. Hile haren 12.ko ZERUKO ARGIA.n «Iokin Zaitegi, euskaldun haundi hori» izenburuko artikulua idatzi nuen. Honatx lerro batzu:

«Beraren (*Zaitegiren*) definizio bat eman behar dela esanen balidate ez dakit nondik hasiko nintzatekeen. Gizon xehe batena ematea zaila izanik, nola ez bere bizi guztian lanari, Herriaren aldekoari ekin dion honena? Ez dut uste egokiena naizenik honelakorik egiteko; gainera, definizioaren mugak lantto honek dituen helburuetatik irtenen lirатеke. Dena dela, eta zerbaitto esatearren, honelaxe eginen nuke:

(1) Irailaren 13.an ospatzen da.

—Euskaltzale porrokatua: 1920-21gn. urteko ikastaroan, Durangon, beste zenbait eginkizunen artean, euskarazko bertsoak bota edo esan zituena bera izan zen. Eta hamalau urterekin pizturik zuen zuzia ez da oraindik itzali ez eta guttiagorik ere.

«Kaletik noala erdaraz hizketan ari den emakume... edo gizon talde batekin topo egiten badut, euskarara itzuliko da. Errukarriak...!»

Nahi duenak uler beza.»

Orain arte Iokinen gain idatzi diren biografia gehienetan oker batez ohar gaitzke. Ez dakit nondik datorkeen hutsa. Dena dela, bitez ondoakoak argibide. Iokinek bere ikasketak Komillasen ere egin zituela irakurri ahal izan du edozeinek. Nahiko harrigarri zitzaidan eta behin, badaezpada ere, Iokini berari galdetu nion honela ote zen jakin nahian eta ezetz erantzun zidan. Puntu honetaz sakondu guran Jose Maria Bollegi josulagunaren laguntza izan nuen:

«Zaitegik ez zuen inoiz bere karrerako ikasketarik Komillasen egin. Iokinek esaten du josulagungai zela «aipatu zure ikastetxeak» galdera egiten zaionean: Arrasatekoa eta Durangokoa.

Bere ikaskide izandako beste hiru josulagunek ere ez dakite ezer Komillaseko egonaldi honetaz.»

Iokin 1921.ko Uztailearen 27.an heldu da Loiolara. Latera eta heladera izan dira, gehien batez, Durangon kezkatu duten gaiak. Orain Tolosako Aita Martin Garmendia izango du nobiziagoko urteetan arduradun. 1923.ko Uztailean botoak egiten ditu eta aurrerantzean latera eta heladerazko klasikoak, oratoria, Espainiako eta munduko literatura... ikasten saiatuko da. Ikasketa hauei Giza-Elertia esaten zaie.

Giza-Elertiaren helburuak sofrosine griegoaz beterikako gizon orekatuak sortzea, etorkizuneko pentsalariaren luma askatzea eta oratorian lehen urratsak ematea ziren. Gizartean eraginik izan nahi duen edozeinek bere ideiak irudi bilakatu behar ditu, bihotzeko berotasunaz hornituriko irudiak. Eta klasikoak gizona hazten maixu dira. Honexegaitik, agian, Zaitegiren gogo-zabalkundea. Berak esaten digu:

«... Gero, Aita Garmendiak eman zidan halako batean bigarren urtean nengoela, Mendiburu irakurtzeko. Euskal girotxo bat sortu zen: 20-24 batek osatu genuen 60 bat irakasketik (*sic*); pentsa, gu dagoeneko 18 urteko mutilak ginen; eta donostiarra zen Aita Apalategik, Zubiri filosofoaren osabak, aditza ematen zigun. Hau izan zen eman ziguten euskara bakarra.

Baina gauzak nolabait behar eta Aita Apalategik zituen liburua aztertzeke baimena eman zigunez, egun batetan AMI VASCO aurkitu genduen Andima eta biok...

«Nere aita liburu hau dela-ta hil zen», «Ta, zertaz ari da, ba?» esan nion nik. «A, nik ez dakit»... Nik hartu nion liburua eta esan nion: «Seme batek jakin behar du zer dela-ta hil den bere aita.»

Hartu genuen liburutxoa eta Loiola ostean dagoen Txalintxo erreka hertzera joan eta sasipean jarrita goitik behera irakurri genuen. Eta bukatu genuenean hala esan nion: «Gu euskaldunak gera eta euskara sakon ikasi behar dugu». Zabaldu genuen liburutxoa gure artean eta denak erori! Salatari bat izan dugu tarteko. Deitu zidaten, eta berebizikoa! Halaxe ziren gauzak, orduan eta gerokoak... Begitan hartu ginduzten»<sup>1</sup>.

Ezagutu ahal izan du, azkenik, bere hutsaren arrazoia. *Zerbait* hartaz jabetu da... Eta hutsunea bete ahal izateko, lehendabiziz, bere burua hazi behar du, kontzientziara piztu den gizonari beharrezko baitzaio argia ilunpetara ostera jauz ez dadin. Eta Iokinek ez du iluntasunik maite.

Aita Placido Mujika ikaskide izan zuen Zaitegik Loiolako urte haietan. Honek euskaldunen artean, ixilpean, zabaldu zuen liburu hura Aita Placidoren eskuetara ere iritsi zen. Azken honen hitzak dira ondokoak:

«Euskaltzale sutsu 1924.tik aurrera agertu zan. Langile porrokatua zan eta euskerarekin maitemindua. Inoiz ere atsedetik hartu gabe, opor egunak eta urte osoan eguneroko tarte txikienak ere (satorra lurpean bezala) bere gela-zokoan sartuta, euskera sustrai-sustraitik ikasteari ekin zion.»<sup>2</sup>.

Zaitegik Lagundiaren bidea aukeratu du. Aurrerantzean, taiu burgoi eta hazkuntz sakoneko elitea osatzen beharreziko dute. Arau hestuak Konpainiaren haintzarako...

Baina josulagunek ez dakite oraindik zein den Zaitegi. Ezkutuan, gaueko orduak aprobeztatuz eta Loiolako Saindutegiaren horma garai bezain hotzak lekuko direlarik lehen saiakerak egiten dizkigu, bertan aurkitzen diren euskaldunen arima elbarrituari gogo berria sarreraziz.

Loiolako gazte multzo hartatik euskal idazle sorta zoragarria jaioko da. Begira, bestela, izen batzu: Andima, «Lauaxeta», Placido Mujina, Iñaki Goenaga, Argarate, Korta anaiak...

Giro eskolastiko hartan Zaitegiren joera ez da Lagundiaren ardura-

(1) DEIA, 1977.ko Abenduaren 8.an.

(2) 79.IX.29.ko eskutitzean.

dunen aldetik ontzat hartua izango. Hala ere, bost axola berari! Ba daki zein den bere helburua...

1923.ko Irailaren 13.an Migel Primo de Rivera diktadura hasten da. Sei urtetan zehar amorru biziak izango dira zigortuak Estatuko nazionalitateak. Loiolako gaztedi euskaldun harek bere haragian sufritu zuen jazarpenaren akuilu pozointsua.

*Gorago aipatu duzun euskal gaietarako gogortasunak ez du antzik ematen Lagundiaren ikusliarra zen Aita Boetok ezarritako hariekin. Nola uler dezakegu hau, Iokin?*

«Bai, Aita Boeto josulagunek garai hartan izan zuten ikusliar edo bisitadore ospetsua dugu; kardenala izatera iritsiko da. 1922.an Oñako barrutira etorri zen eta euskaldunentzat garbi utzi zuen bidea: euskaldunak euskararen alde jar zitezten<sup>1</sup>. Baina, askotan etxeoak bihurrienak etxeoentzat. Horra hor, esaterako, Aita Errandonea, beratarra, naparra. Gure irakasle zelarik izugarrizko oztopoak jarri zizkigun guk auke-ratutako bide hartan.»

Zaitegik ezin du joera hau onartu. Ez du Lagundian euskaltzaletasun-ikusten eta behin eta berriz azpimarratuko du, eskutitz nahiz artikuluen bidez. Loiolako josulagunak «Loiola» izeneko aldizkari bat ateratzen hasi ziren 1956.an, haien senide eta ongileen artean banatzen zelarik. 1957.ko Ilbeltza-Otsailaren «Euzko-Gogoa»-ren alean honela irakur daiteke, Iokinen lumatik idatzitakoan:

«...GAZTELERRI eguzki-aldeko barrutiaren aldizkaria omen da. Naiz ta Loiola'n egin eta argitarazi, euskeraz tautik ere ezta zar zoritxarrez. Euskaldunen artean seniderik eta ongilerik ez bide dituzte iesulagunek, antza. Edota argiago esateko: euskerazko idaz-lanak pozik irakurtzen dira bazterretan, eta euskerak burua iasotzea Jaungoikoak nai du, Kardaberatzek zionez. Loiola'n bizi izandako Mendiburu, Larramendi, Kar-

(1) «Hemos de estar ajenos e indiferentes a toda cuestión política, pero no a la lengua de la región en que residimos, pues la lengua de suyo no implica la defensa o la impugnación de ideas políticas, y además San Ignacio la recomienda pues tratando (Const. p. IV, cap. 8 n. 3) de los medios de ayudar a los prójimos dice: studeantque ad id munus obeundum linguam populo vernaculam bene addiscere. Por la misma razón, en la regla 10 de las Comunes se manda «que todos aprendan la lengua de la región en que residen».

Luego, según el espíritu de nuestra vocación también en las lenguas regionales debemos tener excelentes operarios, predicadores y escritores. Deber que resalta directa e inmediatamente del fin de la Compañía; pues para obtener la mayor gloria de Dios y la salvación de las almas, es preciso conocer la lengua de aquellos a quienes queremos salvar» (Memorial del R. P. Visitador Pedro Boeto a la provincia de Castilla).



daberatz, Olabide eta beste euskaldun iesulagun asko ta asko lotsatu egingo lirake erderazko aldizkari au ikusita».

*Olabide aipatu duzu josulagun euskaltzaleen artean. Eta, ene ustez, zure belamaldikoek Olabide izan duzue gidari, Loiolako urte haietan lagun izan baitzenuten. Zernolako eragina izan du zugan gasteiztar jakintsu honek?*

«Bai, 1921.etik aurrera Loiolan egon zen Olabide. Baina, beste galdera batetan garbi gelditu ahal izan denez, Olabide ez zen gugan euskaltzaletasunaren zuzia biztu zuena.

Dena dela, urteak eman eta eredutzat hartu genuen josulagun euskaldun jakintsu hura. Kontutan izan: 1918.an Eusko Ikaskuntzak sorturiko Euskaltzaindian lehen euskaltzainetakoa genuen aita Olabide. Nolanahi ere, hamabost urterekin ezin genezakeen bereiz nahia errealitatetik eta garai hartan gizon bitxi bezala hartzen genuen Olabide.

Gizon jakintsu zela, bai, ba genekien baina kontzientziarik ezak ez zigun bere mailan aztertzea uzten. Izan ere, ez zuen gurekin harreman zuzenik euki.

Olabideren idazkietan asko ta asko ikasi dugu gure belaunikoek. Aurreko josulagunen artean Mendiburu bakarrik izango da gehiena euskaraz idatzi duena. Beranduxeago, eta guztion gaintetik, Olabide.

Dena dela, guri dagokigunez, akats bat ikusten diot nik gasteiztar honi. Ez zuela bere inguruan inolako lan-talderik sortu. Hantxe geunden gu, nahiz eta gazteak izan, edozer lane-tarako prest. Ene ustez, aukeratu zituen laguntzaileak ez ziren egokiak izan.

Geroxeago ITUN BERRIA amaitu ondoren ITUN ZAHARRA itzultzen ari zelarik eladerazko liburuak neuk euskaratzea eskatu zidan bi mezulariren bidez: Oinatiko Gordoa eta Bordelen zeuden josulagun espainiarren buruaren bitartez. Ez nuen bere gogoia bete ahal izan.»

«BIDALIEN EGINAK» Iokinen liburuari «Orixe»-k egindako hitzaurrean honela irakurtzen dugu egilearen euskarari dagokionez:

«Olabide'renean ikasi du geienik».

Eta irakasleari gorasarrea zor zitzaiola deritzaiolarik, 1958.ko Iraila-Gabonilaren EUZKO GOGOIA ale osoa Olabideri eskaini zion Iokinek. Honek idatzitako «Atariko»-n hauxe dio:

«Olabide'k eta beste euskaldun iator ainitzek bezala, egungo egunean gure aspaldiko zina berritzen dugu gure erritar gu-

zien aurrean: eskutuan naiz agerian, ixilean naiz gorarik euskera besterik eztugula erabiliko, gure Euskelarriaren ezagun-garririk nabarmena, bait-da.»

*Dena dela, Loiolan emandako urteetan zenbait une txar bizi izan arren, etorkizuneko zure oinarria bertan eraiki zenuela esan daiteke. Astindu egin zenuen zure gainetik erosotasuna, indar berriaz abiatzen zinelarik. Gizarte itxi eta zurrun baten kontrako postura zen zurea...*

«Elade eta Erroma zaharreko klasikoak nahiko ondo ezagutzen genituen. Egia esateko, irakasle onak zeuden orduan Loiolan. Errandoneak —tesisa doktora Oxford-en Sopokelen gain eginda zeukana— Sopokel, Kikero, Platon, Euripides, Demostenes eta beste idazle, olerkari eta hizlari klasikoren lan ederrak erakutsi zizkigun.

Aita Estefania bizkaitarrak —Goetherengan berezitua— mundu guztiko literatura ezarri zuen gure aurrean: Trueba, Iturribarria, Etxegaray, Mistral, Verdager, Maragall, Goethe, Longfellow, Musset, Sully Prudhomme... ezagun genituen.»

PLATON.ENEKO ATARIAN liburuan honela dio Iokinek «Nere asmoa» titulupeko sarreran:

«Gure arteko ikasle gazteak zenbait urtez Eladeko ta Erromako giro osasungarri ta zoragarrian bizi izango ba'lira, oberenik lizateke: giro orri neronek zer zor diodan gogotik esan nezake, norbere buruaz mintzatzea ain itsusi ezipaliz. Nik neuk, beintzat, eztitut galdutzat irizten onetara igaro nituen gaztaroko urterik ederrenak.»

Adi dezagun Zaitetik orduko bizitzaz kontaktzen duena. Geroztik urte mordo eman da baina, nik uste, bere abiapuntua ez du inork nolako izan den hain errez ahanzten:

«Loiolan geundelarik hilerokoa zen josulagunen Bilboko JESUSEN BIOTZAREN DEIA-n idazten genuen sarri eta honek gure idazkietan erreztasuna lortzen laguntzen zigun. Lagun piloa batu ginen bazkun antzeko batetan eta euskararen bidez gure kulturaren alde ahaleginduko ginela erabaki genuen. Apurka, apurka Euskal Herriko errealitatea ezagutzen gindoazen.»

Iokinek aipatzen duen bazkun antzerako honek urte luzeak iraungo ditu fruitu onak ematen dituelarik. Loiolatik Oñara eta baita, Ameriketatik itzuli ondoren, Marneffe-n ere izango dute aukera elkarrekin lan egiteko. Honatx izen batzu bazkunaren garrantziaz jabe gaitzkeen: *Andima Ibinagabettia*, euskarak izan duen idazlerik gorenetakoa; «*Lauaxe-*

ta» gain-gaineko olerkaria; *Patxi Korta*, bere liburuxka EUSKAL ADITZA Oñan argitaratu eta ederki zabaldu zen josulagun euskaldun gazteen artean; *Placido Mujika*, hiztegi ospetsuaren egilea; *Iñaki Goenaga*, GILLERMO TELL euskaraz argitaratu zuena; *Hilari Gaztelumendi* eta *Aita Gordo*, euskaraz hizlari bikainak; *Erraimun Argarate*, olerkari fina eta idazle ona; *Gilen Larrañaga*, josulagunen ikastetxeetan berak irakatsitako gai guztiak euskaraz jarri zituen. Baita Andima Ibinagabeitia Saria lehenik irabazi zuena ere; *Iñaki Albisu*, Errezilgo Erkizia martiriaren bizitza euskaraz argitaratu zuena; *Sarobe*, Nafarroako idazle ona, Estrabon aztertu zuena; *Luis Arrieta*, euskaltzalerik onenetakoa; *Felix Korta*, *Segundo Azkue*, *Martikorena*, *Iñaki Odriozola*, *Koldobika Sagastume*, *Jesus Lasa*...

Baina jarrai dezagun Zaitegirekin:

«Klasikoetan genuen oinarri sendoa aprobetxatu nahian eladerazko eta laterazko idazleak euskaratu behar genituela erabaki zen bazkunean. Baita honela hasi ere. Dena dela, Andimak eta biok bakarrik iraun genuen lan honetan. Andimak Bergili aukeratu zuen eta nik Sopo kel.»

Bihotz barnean betiko gordeko duten adiskidetasunean lagundurik bide berdinetik abiatzen dira elantxobearra eta Iokin. Biok batera maitasun bakar batek gidaturik: euskararekikoarena, halegia.

Urteak emango dira gaztaroko kimu haiek lehen loreak eskaini arte. Iokinek zori hobea du Andimak baino eta lehenago argitaratu ahal izango ditu bere lanak. Honela, 1946.an, Mexikoko «Pizkunde» Euskal Argitaratzailean SOPOKEL'EN ANTZERKIAK I izeneko ateratzen du. Bertan *Eletere*, *Oidipu Bakaldun*, *Oidipu Kolono'n* eta *Antigone* itzulpenak ageri dira.

Hamabi urtebete geroxeago bigarren zatia dager Baionan. EUZKO GOGO A aldizkarian noizbehinka argitara emandako antzerkietaz osatzen duen separatan *Alatz*, *Pilotepe* eta *Trakingo emaztekiak* izenekoak biltzen ditu, SOPOKEL'EN ANTZERKIAK II titulupean.

Andimak ez zuen, ordea, 1966 arte gaztaroko bere helburu hura publikaturik ikusi ahal izan. Aita Onaindiarekin batera eman zuen argitara Bilbon Bergiliren lana. 1963.ko Apirilaren 30.ean Andimak Iokini Guatemalara bidalitako eskutitzean irakurtzen da:

«Aurten argitara nahi genuke Onaindia eta bion artean Bergili'ren lan osoak, aren Ebeida eta nere Unai eta Larre-Kantak. Ikusiko dut lan guztiori egin al baneza urteburua baiñolen, orrazketa ta guzti.»

Ez zen Ibinagabeitiaren asmoa hiru urte beranduago arte bete.

Bestalde, Iokini Loiolan piztu zitzaion olertirako joera. Eta Olerti sailari ekin zion gartsuki. Berak eta «Lauaxeta»k poesi ugari eta eder, mordoxka haundiak egin zituzten, oso olerki ederrak, duda izpirik ez.

Noiz hasi zen Zaitegi olerkigintzan ez da gauza jakina. Dena dela, zazpi bat urtetan Loiolako gazteek zuzendutako DEYA aldizkarian agertzen den Zaitegiren lehenengo olerkia DONOKIKO AMA da, Loiolan 1926-11-25.ean. Ondoren sarri xamar biribildu zituen poemak, «Lauaxeta», Iñaki Goenaga eta Argarate, batez ere, lagun zituelarik. Iokinen zaletasun honek urte luzeak iraungo ditu bere baitan, era batera nahiz bestera olerki-munduari atxikirik betiko aurkituko delarik.

Hurrengo urratsa Oñan emango du.

## **OÑATIK AMERIKETARA**

### **(Nahiago dut burugabekeriak jasan burugabekeriak egin baino)**

1926.ko udan Loiolako igaroaldia amaitu ondoren, Burgosko Oñara doaz josulagun gazteak bertako Filosofia eta Teologia Fakultatean beharrezko hiru edo zazpi urtetaz ikasteko, espezializazioaren arauera. Lagun gehienak daude Burgosko lurralde hartara bilduak. Filosofian ematen ziren gaiak hauexek ziren: Logika, Metafisika (Ontologia), Goi-Matematika, Fisika, Kimika, Psikologia Razionala eta Experimentalak, Etika, Kosmologia, Biologia, Teodizea, Mineralogia, Kristalografia, Geologia eta Pedagogia.

Eta Iokinek bertan bizi izandako hiru urteetan sakonki aztertu zituen gai guztiak, beste zenbaitetaz ere bere kontutik jabetzen zelarik, Filosofia ikasketetan arduratsu agertu bazen ere ez baitzen euskararen alde motelagoa izan.

Aita Olabideren GIZA SOIÑA-k txoratuta ei zeukan Iokin, eta Euskal Herriak horren antzeko idaztiak behar zituela eta, kemenez ari zen ixil-ixilean.

Kezka honen fruitua KIZKIÑA deritzan biologi-lana daukagu, 1933.an RIEV.en 27gn urteko XXIV idaztiaren Ingo. zenbakian argitaratua. Lan-txo honen bidez zelularen izana eta bere xehetasunak azaltzen dizkigu, sarrera bukoliko xamarra eginda gero:

«Uda bero ta sargoria da. Basetxe aurreko larriñoan lanean ari dira. Mutillak, oyuka, ta aiton kolko-beltz arnas estuak, ardo zatoa arinduaz, lanerako bizkortzen dira. Larrain bazterrean aurtxo txikia negarrez dago, gari mintzak yo dulako. Larrindu ostean, algotzez bilduta gelditzen dan gari alea artu ta zuregana urreratzen dan aiton orri galdetu egiozu:



En 1935 fue homenajeado en el entonces barrio aretxabaletarra de Bedoña el poeta vasco, natural de aquel lugar, «Loramendi». Acudió a la cita entre otros miembros de la vanguardia cultural euskaldun, el —para algunos— mejor poeta vasco de todos los tiempos: Esteban Urkiaga «Lauaxeta» (de pie, cuarto por la izquierda). Zaitegui, compañero de «Lauaxeta» en el noviciado de Loyola, ha comenzado también para esa fecha a despuntar en el campo de la poesía. Y gracias a su trabajo constante en busca de un estilo propio y elegante, consigue en 1934 el primer premio en el V Olerti Eguna celebrado en Zarautz, con su poema «Tori nire edontzia». Une de esta forma su nombre al de «Lauaxeta», «Lizardi», «Loramendi» y Patxi Etxebarria, ganadores de los anteriores certámenes.

En la lista de publicaciones de Zaitegui encontramos dos libros de poemas: «Goldaketan», México 1946; y «Berriz ere Goldaketan», Guatemala 1962, que recogen tanto producción propia como traducciones al euskera de poetas de distintas nacionalidades.

En la fotografía aparece el padre de Iokin, Juanito «Ixurtz», agachado primero por la derecha.

eskuetan daukadan gari-ale au nola deritzaizute? KIZKIÑA, esango dizu.

Beraz, kizkiña, algotzez jositako gari-alea duzu. Baña, nik izen au, oso egokia zait eta, doiztarrak «zelle» eta españarrak «célula» deritzatena adierazteko darabilket.»

Gai berbera delarik, honela erantzuten zion Iokinek Martin Ugalderi, 1977.ko Abenduaren 8.an DEIA egunkarian azaldutako elkar hizketan:

«Hemen (Oñan) euskaratu nuen Aita Laburuk idatzia zuen CITOLOGIA: nere KIZKIÑA (zelula) eta hara lehenengo poza: Julio Urquijo jaunari biali, eta honek RIEV.en atera! Kalteak ekarri zizkidan gero honek...»

Olerkariaren adimena zabaltzen duten Oñako mendi-tontor erdi basati haien artean Iokin arrastroak uzten ari da, berak aukeratutako euskaragintzako lasterkan. Baina, lehen esanda gelditu den legez, lasterka ixila egin beharra dauka, euskaldunen kontrako Loiolako giro harek areago zapaltzen baititu Oñako Fakultatean.

Iokinen ikaskide bat —bere izena ez dut badaezpada ere aipatuko— honela mintzatu zait, orduko giroari buruzko eritzia eskatu eta gero:

«Iokinek lan haundia egiten zuen, Batzar guzietan lan berriren bat azaltzen zigularik. Baina hoiiek egiteko oso bildur haundiagaz. Lehen, baita orain ere, gure artean asko dagoz eusko-ta-euskararen arerioak. Orain gure ondoko Nagusiak ez hain «gaiztoak», batzuk euskaltzaleak; baina euskara ikasten ari diranak, orain ere —lehen tutik ez— 100.etik bat, bi... Ezta «eguneroko gora-beherak»-etako hitzak. Tamalez... negargarria...!»<sup>1</sup>.

Iokinek aukerarik txikiena ere aprobeztatzen du berea aurrera ateratzeko. Ostegunak erdi-oporregunak ziren eta orduantxe saiatzen zen, gehien batez, euskara eta baita beste zenbait hizkuntza ere ikasteko.

Urte haietako Iokinen kuaderno batetan dagerrenak garbi utz dezake gazte haren barneko sentipena nolakoa zen: IZARRITZA-LUDIZTIA izenburupean era honetaz hasten da apunteak hartzen:

(1) 1980.ko Otsailaren 19.ko eskutitzean.

«Corrección de la paralaje:

$$Z_2 = Z_1 + p \quad \therefore \quad Z_1 = Z_2 - p \quad (\text{irudia ezarri})$$
$$\text{Sen } P = \left( \frac{R}{D} \right) 1 \frac{\text{Sen } P}{\text{Sen } Z_2} = P = \frac{P}{\text{Sen } Z_2} \quad \therefore \quad p =$$
$$= P \cdot \text{Sen } Z_2$$

P = table'tan datza; euzki, iretargi ta planetak paralaje bereziak dabe.»

Honela, euskara eta gaztelera nahasten duelarik, astro, planeta eta abarreko xehetasunak, ageri dira. Eta, holako batean, gaiak irudimeneko lehioak zabalduko balizki bezala olerki bat, erdi galdua, zientzi matematikaren bektor eta formula artean; zilegi bekit olerkia azaltzea:

«GOMUTA

Zugatz —orri— ikarak eragiten dauan  
surmur ezti orrek! Urrin, Aberriruntz,  
egazka zoiazen txoritxo maiteok!  
Baso ixiletako iturri gardenok!

Arren!, esan eidazue:  
Nun da nere Aberria?

Barriz nekusala gaur amets egin dot  
mendi orotatik agur egiten eusten:  
ai! negar eragin eustan agur orrek!...  
Atzerri onetan gizon ta iturriak  
arkaitz, zugaitz, basoko-otsa  
dana amesa yat neretzat.»

Iokinek Filosofiako ikaskizunak sakonki egin zituen, bere ikaskide batek dioen legez «oso azkarra zelako». Azkenengo urtean «Doctor in Filosofia» zen, titulu honen balorea goi mailakoa ei zeukalarik, izenaren ondoan Ph. D. hizkiak jartzen baitzituen. Arrasateko bere etxeko atean ere *Zaitegi eta Plazaola'tar Iokin Ph.D* irakur zitekeen.

Martin Ugaldek DEIA.n egindako elkar hizketaz jarraitzen dugu. Bertan irakur dezakegu:

«Hemen (Oñan) gaudela bidali gintuzten lehendabiziko Ameriketara...

— Zertara?

— «Zergaitik» galdetu izan bazenu... Euskal gaiak bihotzez hartzen genituenak beste bakar batzukin poliki nahasi eta hara bota gintuzten hiru urterako: Andima, Bucaramanga-ra; Muxika, Pastora, biak Colombian; batzu San Salvador-era eta



Guatemalara; ni Venezuelako Meridara; hor sakabanatu gintuzten. Ezer esateke. Hau 1929.an gertatu zenean, gu dagoe-neko 23 urteko gizonak ginen; ez haurrak baina esanetara jarriak, noski...»<sup>1</sup>.

Aita Boeto-ren izpiritu zorrotz eta bultzatzaileak ez zuen —itxuraz— josulagun buruzagien artean indartsuki sustraitu. Azalekoa bakarrik omen zen heuren nahia, barneko joera zeharo desberdina baitzekarten.

Iokinen lagun mina zenak —«Lauaxeta»— Lagundia utzi du 1928.an eta honek pentsarazten du arrasatearra. Goragoko Iokinen aitorenak une ilun haietako ondorioa besterik izango ez ote zen susmoz, Oñan egondako beste bi josulaguni zuzendu natzaie, zalantza argitu nahian. Hauxe dugu erantzuna:

«Aldi hartan, guri etziguten esan, baña Ameriketara zigortuta bezala bialduak izan ginen... euskaltzale eta euskararen alde zer edo zer ari ginanok. Iokin, Ibinagabeitia, Goenaga... Hori egiaztutzeko idazkirik ez duzu aurkituko: «Goikoek» heuren era ba dute, noski.»<sup>2</sup>.

\* \* \*

Oñako ikastaroa amaitzean Iokinek ariketak egin behar ditu Ikastetxe batetan eta Lagundiak Venezuelara bidaltzen du. Hogetahiru urterekin doa eta beste hiru eman beharko ditu Estatu hartako Merida hirian. «Venezuelako Suiza» deritzaioten herrialde hartan Iokinen bizitzaren unerik ezezagunenak izango ditugu. Irudi eta bazter desberdinak... bere jaioterrria eta Lagundiaren bizimodua besterik ezagutzen ez duen gaztearentzat.

Hilargi-gauean Iokinen begi-niniek zero urdin beltz hereniletsua fotografiatzen dute, Tropikoaren izar dirdiratsuek Andesetako erraldoi zuririk ederrenetakoaren ingurua marrazten duten batera: 5.000 metroko Bolibar mendia.

Gailur harkaitzdun gaineko elur iraunkorrek kañoi gisa luzatutako hibaiaren sakanarekin kontrastasun haundia dagite, kafelandetako margo ilunak eta azukre-kanaberadikoetako berde-horiek hiria inguratzen dutelarik, irudi exotiko bezain zoragarri batetan.

Iokinen gorputza hango bazterretako eguraldi-aldaketari ohituratzen ari zaio. Inoiz ez bezala sentitutako beroaldiaren atzetik betiko glaziareak

(1) 1977.ko Abenduaren 8.

(2) 1980.ko Otsailaren 19.ko eskutitzean.

ukituriko gaeko haize izoztuek bere gorputzaren tonifikazioa dakarte. Eta olerkigintzari jarraiki zaio zintzoki.

Ikastetxe behartsu bat da berea. Eta gogorra. Josulagunek Venezuelan zeukaten Ikastetxerik gaitzena zen Meridako hau, Lagundiako zenbait kideren eritziz. Ikastetxe honen sortzailea Aita Luis Zumalabe donostiarra zen, orduko beste bi Ikastetxe gehiago fundatuta zituelarik. Iokin iritsi zenean Aita Zumalabek berak zeraman zuzendaritza. Dena dago eginkizun arrasatear gaztea ailegatzean. Bere logelaren sapaiko xafla zinkatuetan euriak jotzen duen melodiak urrun duen Aberrirantz itzule-razten du gogo.

Bizimodu latza darama. Ikastaroak hamar hilabetez irauten du eta oporraldietan gogo-ihardunak egiten dira. Ikastetxea barneikaslego gisa daramate josulagunek eta logeletako ardura du Zaitegik beregain. Meridako sendi aberatsek heuren seme bihurriak Ikastetxe honetara bialtzen zituzten, josulagunek otzan litzaten.

Egunero bost ikasgai erakusten zituen Iokinek eta larunbat eta igandeetan zainketa egin behar zuen. Berari zegokion ikasgaiak ez ziren zailak baina, hala ere, ez zuen lanean atsedunik hartzen. Ikastetxeko kirol-sailaz ere arduratu zen bultzada ederra ematen ziolarik. Hango egonaldiaren azken etapan nagusien zuzendaritza eraman zuen Iokinek.

Arrakasta haundia erdietsi zuen Zaitegik Meridako Ikastetxe hartan. Ikasleak nahiz josulagunak pozik aurkitzen ziren Iokinen egitearekin. Eta honela ezagutarazi zuen, zazpi urte beranduago, Aita Zumalabek arrasatearraren nolakotasun pedagogikoak goraiatzen zituelarik.

Meridako egonaldi honetan irabazitako trebetasunak ederki lagunduko dio aurrerantzean Zaitegiri, batez ere Guatemalan irakaskintzan emango dituen urte luzeetan.

## **TEOLOGIA IKASKETAK MARNEFFE-n; «TORI NIRE EDONTZIA»**

1932.ko udan ekiten dio Iokinek Teologia ikasteari. Atzean utzi ditu Venezuelako urte zail eta gogorak, eta josulagun izan behar duela-koan dagoelarik Belgikako Marneffe-n Lagundiak daukan Teologitegira doa.

Espainiako Errepublikak josulagunak atzerriratuerazi ditu. Katalandar, aragoitar eta valenziarrak ezik Filosofia eta Teologia ikasten ari zirenak Marneffera biltzen dira, teologoak ehun eta berrogeitamar inguru direlarik. Egoitza euskaldunena zen, hauek diruaz erosita gastu gehienak euskaldunen lepora zihoazelarik. Etxe hartako instalapenak oro bikoiztuta zeuden: bi eliz, bi jangela, bi jolastoki... filosofo eta teologoen taldeen arauz. Komunitate bateko logelek etxearen albo bat osatzen zuten. Beraz, nahiz eta estalki berdinpean egon heuren artean ia harremanik ez izatea normalizat jo daiteke. Ikastetxean hogetamar josulagunek eta beste hainbeste laguntzailek ziharduten. Azken hauetatik bizpahiru kenduz gero gainerako guztiak euskaldunak ziren.

Belgikaratu aurretik Arrasaten egon da denboraldi batetan bere gurasoen kinka larriaz jabetzen delarik. Lehen irakurri ahal izan denez, harrezkero bereziturik bizi ziren Francisca eta Juanito eta Iokinen egonaldi hartatik hilabete pare batetara legezko bereizketa lortuko zuten. Honek eragin nabaria du josulagungaiaren nortasunean. Bakartiagoa egiten zaigu Iokin Marneffe-n, bere arazo honek ixilago eta —areago— langileago bihurtzen duen batera. Eliz karreraren azken etapa gainditzera joan da Marneffera, heziera bikaina daramalarik. Heladera eta laterazko klasikoak ederki baino ederkiago ezagutzen zituen Loiolako urte haietatik. Eta Oñako haitz basatiez inguraturik irabazitako pentsamolde filosofikoa geroko lorpenen ataria besterik ez zuen.

Baina, zer da euskaltzale gartsu harengandik gelditu? Udako ekaitzik ote? Egun bateko lorea?...

Belgikako Teologitegi honetara euskaldun pila bildu da. Loiolako Iokinen lagun batzu ere hantxe aurkitzen dira: Andima, Peli Korta, Luis Arrieta... eta beste batzuetaz lehen aldiz egiten du topo arrasatearrak: bere herkide den Gaizka Barandiaran, Patxi Etxebarria, Jose Maria Bollegi...

Euskal Herritik urrunduak —eta, apika, arrazoi honexagaitik— Belgikako erlauntza langiletsua abaraska ezti goxoaz osatzen ari da.

1979.ko Azaroaren 25.ean Zaitegiri «Olerti Eguna» eskaini zioten bere lagunek Bizkaiko Larrean. Egun hartako DEIA egunkarian honela idatzi nuen «Zaitegiren omenez Olerti Eguna Larrean, gaur» titulupean:

«Errepublika garaian soma daitekeen askatasun apurrak bideia errazten dio erdi elbarriturik bizi den gure kulturari. Orain dela 50 urte gure hazkuntza-arloak ba du aurretikako izpi herebetirik, hodeiertz zabalago batetara irten nahi izan dutenak.

Baina baratza ez da oraindik zeharo jorratu. Euskal Herriak, nolana ere, itxaropena ezarri du bere aurrean zabalitzen ari den sistema politikoan. Askatasunaren ordua iritsi omen zaio burujabetasunaren alde borrokatu duen Herriari. Eta askatasunaren eguzkipean loreak ederragoaz ohi ditugu. Euskal Literaturak zoragarritzko aroa ezagutzen du: bere berpizkundean gaude.

«Lauaxeta», «Orixe», «Lizardi», «Loramendi», Patxi Etxebarria . . . urte haietan euskarak dituen idazlerik haundienetakotzat har ditzakegu. Olerkigintzak goimailako gailurra iritsi du.»

Eliz ikasketak aurrera daramatza distiratsuki. Ez da superburutsua; bai —ordea— langile trebea, bere ikaskideek lan-makinatzat dutelarik. Erlijioso bezala onespren haunditan zuten Lagundiaren nagusiek: gogoihardunetarako bere zintzotasuna erabatekoa zen. Bestalde, ikasketetatik at lau ordu ematen zituen eguneroko otoitzetan, eta —hala ere— ba zuen oraindik astirik bere kuttunari, euskarari, aisitarteak oro eskaintzeko. Orduko bere lagunek, ostegunetan —opor eguna— aulkia gehien berotzen zuena Iokin zela diote. Joseba Intxaustik «Jakin» aldizkarian idatzitako lerroak dira ondokoak:

««Ipurtaundi» deitzen omen zioten filosofi-ikasleek, goizean goizetik eta eguerdirarte guztian eserlekutik jaiki ere egin gabe lan egiten zuelako. Honelako bi eseralditan burutu omen zuen Benaventeren LA FUERZA BRUTA-ren euskal itzulpena.

Saiatu zen, gainera, ikasle gazteagoei euskaltzaletasuna txer-  
tatzen; MIREIO erabiltzen zuen lanabes bezala euskal ikas-  
torduetan.»<sup>1</sup>.

Behin eta berriz saiatzen da Olerkigintzan. Garai hartako bere kua-  
demoetan hamaika olerki-zati ageri zaizkigu teknika eta estiloa etenga-  
beko eginahaletan zorrozten doalarik.

1932.ko Hazilaren 14.an eskutitz hau bidaltzen dio Zaitegik Tolo-  
san bizi den «Xabier Lizardi»-ri:

«Olerkari ori, agur: Arpegiz ez zaitut ezagutzen eta euskal-  
dun oro bezela lotsati-xamar izan arren, zuri idazten nago-  
kizu. Orren atsegingarri izan baitzaizkit zure olerkiak!

Arestian Ameriketatik etorri ondoren, zure olerkiak irakurri  
ta ausnartzeko ereti egokia arkitu det, Belgika txoko ontan.  
Bejondeizula! biotzez esaten dizut. Gure olerkarien zuzi argia  
baitzera! Jainkoari eskerrik asko dagizkiot zure buruan eza-  
rri dizun txirlarri ditzizdun burestunaren ordez.

Emengo beste euskaldunak ere txoratuta daude zure olerkien  
ederrez.

Nik ere, Ameriketara bizi izan naizen iru urte oyetan, txo-  
lartietan-edo, olerki antzeko zer-edo-zer idatzi izan oi det.  
Irakurri ditzazun bospasei igortzen dizkitzut. Euskel-oler-  
kari berri-zurrian ari bai-naitzaizu ta zure oarrak neretzat  
arau izango baitira.

Nere kabuz 50'ren bat olerki ditut; eta 25-edo atzerriko  
izkeretatik aldatuak.

Beste lan batzuk egiten ere ari natzaizu; oyen berri aurre-  
rantzean emango dizut.

Gaurkoz aski zait. Berriz ere nere zorian-agurra jaso. Zure  
aberkide dan, *Zaitegi'tar Jokin, S. J.*

Zuzenbidea: (Belgique) Par Huccorgne.

Chateau de Marneffe (Liege)

P. D.: Ala ba-deritzazu Arrese ta Labaien elertilariei ere  
erakutsi itzaiekezu. Agur.»

Teologitegiako euskaldunen artean euskara sakonago ikasteko tal-  
de bi osatu ziren: gaztegoena eta helduxegoena, zeuden filosofo eta teo-  
logoen arauera. Nork berari zegozkion gaiak erabili eta aztertzen zituen.  
Komunitate batek bestearekin harremanik eukitzea debekatua egon arren,  
noizean behin bildu egiten ziren biak «euskal batzoki» txiki hartako  
egoera eta biziera guztion artean ikertzeko.

(1) 1979.ko Urria-Abenduaren alean.

Iokin Teologiategiko taldearen zuzendaria izan zen. Aita Iñaki Odriozola azpeitiarrak, arrasatearraren logelakidea, behin ta berriz errepikatu ei zion: «*Har ezazu atsedetik*». «*Atsedena betebeharra aldatzea dut*» zuen erantzun Zaitegik.

Zaitegirentzat euskara ez zen inoiz ideiak helerazi ahal izateko birtarte solla, gure euskal-gogoaren odola berbera baizik. Paleolitiko garai-ko belaunaldiak eta gure egunetakoak bilerazten dituen katenmailarik berezkoena. Euskara euskaldunaren gogo, garai eta espazioan.

Aurreko eskutitzari «Lizardi»-k egindako erantzuna hilabete beranduxeago jasotzen zuen Iokinek:

«Agur adiskide ta yaun ezezaguna: Azketsi bein ta eundaka aldiz. Bearbada eskar-txarrekoztat jota naukazu, ta bidezko ustea zenduकेala aitor bearra naiz.

Baña, enazu, ez, eskar-txarrekoa. Biotz-biotzean arturik dauzkat zure itz pizgarriak, eta, zirigarriztat bitez noizik bein kezak uxatuz berriro amets-bideetan barna galdu nadin. Aspal-di antzu bainago. Zure gorapenak irabaziz oso gañezkakoak dira, baña nere eskuz kendu diot lau laurdenetatik iruterdi. Alaz guziaz ere, berriro nere eskarrik beroenak.

Zure olerkitxoak pozik irakurri ditut. Ez dakit irizlari ona aukeratu duzun: lanbide orretan motel-samarra ote naizelako susmoa izan det beti; baña, nere iritzia zerbaitetarako on ba-zenduka, or dijoakizu egi-egitia.

Biotzezko olerkiak bear duan barne ixuria ta goxotasuna ba dezu; bai-ta irudimenik aski; beraz, ezpál-jatorrekoa iruditzen zatzait.

Aolku bat eman nai dizut: nere aburuz, zure lan oietan neurtitz zabarrak edo erderaz «prosaismos» esango nukena aurkitzen da bear baño maizago. Ots: olerkari-arnasa izanik iruditzen zait lanari ez diozula ekiten bear aña astiz, biotzean dezuna laisterregi jalkitzen dezula, ots, neurtitza aski-landugabe, bitxitu gabe.

Ba diteke ori nere iruditu bat besterik ez izatea; zenbaitek utsartetzat jotzen didate; baña, nere iritziz, lirikan beintzat neurtitzak bitxia bezala bear du izan, geldiro ausnartua, norbere belarriari alik atsegin geienik eman arteraño.

Nere aolkua auxe da, beraz: olerki-gaia ongi ausnartu lenik, eta gero, geldi-geldiro, yalki, neurtitzak al dan osoen eta pitxién osatuz...»

Zaitegi Marneffe-ra heldu orduko Jose Aristimuño «Aitzol»-ek

Eusko Olerti Egunak eraturik zituen, zenbait ediziotan. Harek, 1950.eko Ilbeltzaren EUZKO GOGOAN-n esango digu:

«Iñolako olerkari-sailla sortu zuan «Aitzol»-ek Eusko-Olerti-Egunen bitartez. Geientsuenak ordurarte olerkari ez-ezagunak izaki, bizkorrenetakoak zirala adierazi ziguten.»

Lehen Olerti-Eguna 1930.ean ospatu zen Errenderin, «Jautarkol» xenaren omenez. MAITALE KUTUNA izenburupean «Lauaxeta»-k bidalitako olerkia irten zen garaile. Bigarrenengo saria Tolosan izan zen, Arreseren omenez, «Lizardi»-ren BASO ITZAL lanak irabazten zuelarik, 1931an. Hirugarrena, A. Iturriagaren omenaldian, «Loramendi»-ren BARRUNTZA LEYOAN izenekoia izan zen sariztatua Ernanin.

1933.an Iparragirre olerkari-kantaria omentzen zuten Urretxun eta Tolosako Patxi Etxebarriak jaso zuen lehen saria BOST LORE deritzan poemarekin.

Iokinek, bitartean, bere estiloa zorrotzu egin du, «Lizardi»-ren eta honen antzeko zenbait olerkariren aholkuz baliatuz. Zaitegiren olerkiek kalitatezko maila on bat iritsi dute. Eta, hain zuzen ere, «Lizardi»-ren omenez bere jaioterrian, Zarautzen, eraturiko Olerti Egun-ean lehen saria darama 1934.an arrasatearrak, Marneffe-tik lehiaketara bidalitako poema baten bidez. Honen titulua TORI NIRE EDONTZIA.

Zaitegiren barnea pozez lehertzeko zorian dugu egun haietan, bere lan ixilari goi-mailako onespena egin baitzaio, bere izena euskal idazlerik onenetakoen artean urrezko hizkiez ornitua jadanik aurkitzen delarik.

«Haritz adarra» zen irabazleei eskaintzen zitzaien saria. Euskal Herriko zuhaitzik errepresentagarrienetakoaren irudia euskarazko olerkaririk onenarentzat. Eta Zaitegik hoietako irudi bat zeukan eskuratua... Arrasateko Iokinen etxea behinola bisitatu duen edonork «Haritz adarra» ikusi ahal izan du, haren lan-mahai atzeko ormatik isekita. Zarautzko sariak haro bateko maixutasuna adierazten zigun. Zenbat gogoeta Iokinentzat adar gardingatsuren azpian!

Aita Bollegik, Marneffe-n Iokinen ikaskide, honela mugatzen du TORI NIRE EDONTZIA poemaren egilea:

«Zaitegi cuando redactó este poema era un hombre maduro en el pensar filosófico, en el conducir los hombres en equipo y amistad y en el percibir la belleza, Con todo, temperamentalmente, era más épico que lírico. Era un laborioso pensador, por esto su poesía es densa y aún algo áspera. A mí me recuerda mucho a Horacio.

El universitario Iokin trabajó con finos retoques su poema

en las umbrosas y largas noches invernales y en las interminables puestas de sol de verano.»

Aita Santi Onaindia era honetaz mintzatzen zitzaigun Iokinen poema hau zela eta:

«Olerki bete-betea dozu, irudi eder eta sentipen samurrez kuin-kuin. Ba daki bertsoak eta ahapaldiak borobiltzen artista legez.»<sup>1</sup>.

(1) 1979.ko Hatilaren 25ean, «Olerti Eguna» Iokini eskainia.



## «TORI NIRE EDONTZIA»; HITZ BI

Zaitegik, olerki honen bidez, artzaiek erabili ohi duten ezpelezko gopor, edontzi bat aurkeztu nahi izan digu. Zenbait artzai-belaunaldik, lautadako harkaitz berberetan eserita, haizto zorrotzez moldatzen joan diren edontzia, hain zuzen. Aintzinako ohitura, gure Herriaren ezaugarri nabaria, xehetasun honetaz du egileak adierazten.

Zurezko edontzian euskal bizimoduaren zenbait irudi daude marrazturik: artzaia artaldea bildu eta jeixtera gertutzen ari deneko iluntze paketsua; gaztez inguraturik dagoen bertsolari asmakorraren irudia bizia... gau luzea itsasoan eman ondoren arrantzaleek etxeratzean bizi duten goiz-nabarra. Hauetxek ditugu eguneroko bizimoduaren atal adierazkorrak.

Edontziaren moldaketa udaberri-hasieran amaitu da, pagadi bikainean. Pagoek heuren kimuak lehertzeko mineri sentitzen badute ere, ez da gutxiagokoa —izadiarekin batera eta bertan urtua— poetaren ememaitasunarekiko premia. Bi nahi hoiek une horretan zero urdinetik hegaz dabiltzan bi txorietan eratu ditu Zaitegik. Dena xehe eta apala, Iokinen begi gazte bezain zorrotzez hartua.

Honexegaitik bukaera: euskal bihotzean zuen haziari gunea ateratzen edontzia bete digu. Ixurketa hartan euskaldunaren odola dausakegu, gure izpiritu nazionalaren lurriñak ingurua betetzen duelarik.

Ikusten dezunez, edontzi onetan  
eusko-bizikera eden nai izan dizut:  
zure olerkien ordaiñez damatzut,  
edanzazun gogoz idatzi-aurrean.

Poemaren hamazortzi ahapaldietan zehar Iokinek bere obran jarri zuen arretaz ohar gaitzke. Olerkari lirikoaren ezaugarria.

## 1935.eko IKAKI DEUNAREN EGUNEAN JOSULAGUN OSO

Ez da olerkigintza urte haietako Iokinen betebeharrak bakarrik izango. Euskara maila garaietara jaso behar delakoan dagoelarik ezin daiteke astirik alperrik gal. Eta Zaitegi ez da geldirik egoteko jaio.

Loiolan egindako proposamenari jarraituz klasikoak itzultzen ari zen ere Iokin egun haietan. Urte batzu geroxeago liburu gisa argitaratuko dituen Sofokel-en antzerkiak zituen gai.

Txingurriarena du atsegin Zaitegik: lana. Bere lumatik sortzen ari diren idazkiak logelako mahaitxoan gordetzen ditu, bihar-etziko euskaldunen gose-intelektuala asetzeko gauza direlakoan baitago.

Aita Olabide Lagundira iritsi zenetikako urrezko eztaiak ospatzean, 1934.an, eskutitz bat bidaltzen diote hari Marneffe-ko komunitateko euskaldunek, zorionka.

Baina Marneffe-ko Telogiategi hartan ez zen dena poza eta zoriona. Euskaldunak, nola ez!, begitik hartuta zeuzkaten espainiarrek eta honek nahiko ixkanbila eta disgustu erakarri zion bati baino gehiagori, bi joera desberdin ziren eta: euskaltzaletasuna eta euskaldunen kontrakoa. Patxi Etxebarriak egun haiek gogoratzen dizkigu Pilipinasetako Ilo-Ilotik:

«... Neroni gaztegoetan nintzan eta, noizik bein, biltzen gitan, beste ikastekoetan txangoaldi edo genduenean bakarrik. Zerbait idatzi. Buruz zerbait esan: olerki edo beste nonbaitetik erakarria edo ta norberak idatzia. Orduan gurekin zan Endeiza gernikarra, eta orrek bein zizurkildar Otegi omen egin zion, izlari bikaina izateko ezpala bazuela eta. Otegi au gero Txinara baztertu zala eta orain bertan Formosa'n izaten da.



El 31 de julio de 1935, siguiendo la tradición de la Compañía de Jesús, celebra Zaitegui su primera Misa, en Marneffe. Había llegado a esta localidad belga en el verano de 1932, luego de dedicarse durante tres años a la enseñanza en Mérida (Venezuela), para realizar sus estudios de Teología. En Marneffe encuentra a sus antiguos compañeros de Loyola: Andima Ibinagabeitia, Peli Korta, Luis Arrieta... y conoce a nuevos como Gaizka Barandiarán, Patxi Etxebarria, José María Bollegui... con los que forma un grupo interesado en el desarrollo de la cultura euskaldun. Hecho éste que atraerá sobre ellos la animadversión por parte de sus compañeros no vascos.

En la fotografía podemos ver en el centro a Zaitegui, teniendo a su derecha a su hermano Juan Mari, llegado para la ceremonia, y a la izquierda al Padre Ortiz de Urbina, hijo de un médico habido en Mondragón. De pie, con gafas, el también mondragonés Padre Luis Arrieta y el Padre Aranguren, azkoitiarra, cuyo hermano ha sido durante años sastre en el pueblo natal de Zaitegui.

Gure talde bi oriek, espainarrek oso begi gaiztoz ikusten. Gertatu ere gertatzekoa alaxe gertatu zan: 1936.garrenean gudua sortu zalarik espainarrek gorrotoz euskaldunen idazti-tegitxo biak puskatu eta erre...

Neroni ordurako Txina'n nintzan eta gertatu zanaren berri askoz geroago ikasi nuan. Olako ezin-ikusia aspaldikoa zan. Olabiderena gertutzen nenbilela Oiartzabal tar Martin'ekin izketaldi izan gabe ezin aurreratu eta Ernani'ra ioan nintzaion: azpeitiar onek ikasketak Comillas'en egin zituan eta an espainarrak esaten omen: Oraindik ere eguna etorriko zaiguk eta, zuen landola eta aberastasun guztiak erreko dizkiagu ...»<sup>1</sup>.

Konpainiako garai hartako Etika Irakasleak heuren ikasgaietan honela zioten:

«Nazionalitateek ez dute inolako eskubiderik izango; osterantzean, munduan izango lirakekeen kalteek ez lukete haiei egindako justizia kitatuko, ordainduko».

Beraz, munduaren ordenak nazionalitateen eskubideak ukatzera garamatza. Estatuaren ordena da —Konpainiarentzat— gehiengo balorea, indartsuki defendatu behar dena. Alderdi batez bakarrik onartzen dira nazionalitateen eskubideak: etnia batek aintzinatik euki ditzakeen konzertu ekonomikoak.

Guzti honen ondorioak itzelezkoak ziren euskaldunentzat. Edozein Estatuk hizkuntza bat jazartzea —areago hiltzea—, HORI BAI!!!, diskretasun eta sotiltasunez, gizarteari egindako mesedetzat hartzen zen, itxuraz, hizkuntza-bikoiztasunak hiritarren arteko zatikeria baitakar, Estatuaren martxa triumfala geldiaraziz.

Aita Bollegik esaten digu:

«Un moralista jesuita de mucha fama en España me dijo en su cuarto que para él era pecado grave ser nacionalista vasco, porque se atentaba gravemente al bien común, al orden, al bienestar del Estado español.»

Josulagunek platonikoki maitea behar zituzten heuren sendiak. Ahalik eta sendiarengandik urrunago geroago ta perfektuagoa erlijiosoa. Ideia nagusi hau abertzaletasunari aplikatuz gero komunitate haietako giroaz jabe gaitezke. Nork bere burua euskaldun sentitzeak zerbait desordenatu eta naturala maitatzea adierazten zuen, eta, beraz, ezin naturgai-neko erlijiosoa izan.

(1) 1980.ko Otsailaren 14.ko eskutitzean.

Baina harrigarriena beste zerau dugu: edozein erlijioso estatualistak —frantsesa, inglesa, espainiarra...—, bere aberri-estatua maite ahal eta behar zuen, maitasun hau emaitza zintzotzat hartzen zelarik.

Intelektuala eta Kristorenganako lehiatsu zen Aita Leonzio Grand-maison-ek aholku interesgarriak zuzentzen dizkie Frantziako josulagun gazteei, Frantzia salbatu ahal izateko heuren irakurleei agertu behar dizkieten ezagupideak gaurkotzeko.

Zer gertatuko zatekeen Frantziako josulagunei zuzendu beharrean Bretania edota Ipar Euskal Herrikoiei egin balitzaie? Ziur asko, Kon-painiako Nagusien abisu gogorra hartuko zukeen.

\* \* \*

Ohitura duten legez, Teologiaren hirugarren urtea gainditu ondoren, 1935.eko Uztailaren 31.an, Lagundiaren Fundatzailearen egunean, josulagun oso bihurtzen da Iokin, lehen Meza ematen duelarik. Pozak hartzen du josulagun berria, bere anaia nagusia, Arrasatetik espreseki ospa-kizunetara joan dena, besarkatu duenean.

1936.an amaitzen ditu Teologia ikasketak Zaitegik. Eta Marneffe-ko lagunei agur egiten die, hurrengo urratsa Belgikako bertako Morialme-n eman behar baitzuen.

Euzkadi sutan dago eta Franco-ren tropek bultzatzen duten neurrira josulagun euskaldunen egoera zaildu eta gaizkotu egiten da. Marneffe-ko euskaldunen idaztitegiak nola amaitu ziren jakinahal izan dugu Aita Patxi Etxebarriak esanda. Morialme-n ez da egoera hobeaz Iokin topo egingo.

Morialme-n urtebete osoa eman behar du Iokinek nobiziadoa egi-ten. Josulagunek karrera amaitu ondoren denboraldi bat Lagundiaren xehetasunak ezagutzeari eskaini behar diote, haro honi «Terceronado» esaten zaiolarik.

Garai hartakoak dira Iokinek GOGO IÑARKUÑAK deritzan bere kua-dernoan idatzitako ondoko lerroak. Eredu bat besterik ez da, zeharo euskaraz idatzitako liburuxka hartatik ateratakoa:

«1937gko. eskeintza. Berrizkunde aurreko irurrena: Lenen-goan: A) *Yosu beartsu*<sup>1</sup>: 1) Yosu beartsu azaldu zan Bel-len'en, a) Nazaret'eko arroztegian, gero agerriko bizitzan (etxerik gabe, zerga ordaintzeko dirurik gabe t.a), eriotzean. 2) naiz ta bera aberatsa izan (Yainkoa danez, Irazale t.a bai-da) ta gizardia aberats-minez eria sendatzera etorri.

(1) Aurrerantzean agertzen diren zatiko azpimarrak Iokinenak dira.

3) Zergatik? Gu aberastearren Beraren bearraz: orain eta gero.

Christus egenus factus est cum dives esset, ut egestate ipsius nos faceret divites. Paul.en esana.

B) *Gu beartsu*: (Yosu'rekin izketan) 1) reliquimus omnia: a) geneuzkan eta geneuzkakenak oro utzi b) darabilgunak oro beartsuei dagokienez, nagusien baimenez c) nere esku daudenetan beartsuenera jo naiaz.

2) Zergatik? Zuri, Yosu, jarraitzearren: et secuti sumus *Te*, beti beartsu baitzakust.

3) Sariz quid erit nobis? a) *apal* biotzez egingo nauzu b) zure lagun, beti zurekin elkartu gogo nauzu c) zure *bidali* gizadiak sinetsi dezan: *testes*.

## SEI ILABETEKO AZTERKETA

A) gogo-iñarkunei buruz

1) *Yaupa eskeiñi* ostean, eskerrak egiten batuago egon bear dut.

2) *apaiz-otoiak* elizan egin, aldi aginduetan narerik.

*gogo-irakurketan*, batzuetan uts.

*otoi-azterketa*, *arren*, eta *mai-onespena* arduratsuago, zintzoago.

*gogarte-sailak atontzean*, sarri uts.

B) Nire buruaren ukoa.

a) *aragi-maitasuna*, politekikoak erabat aldera utzi; euskera bidaliaren izkilutzat erabili <sup>1</sup>.

b) *ludi-maitasuna*: egiteko apaletan areago yardun, mizkeri-aparretan ez bizi (komodidade), inoragabetasuna, esaneko ta ez nire buruaren yabe.

c) *sensualis*- maitasuna, zigorrak eta kateak eta arauak bete bearra.

C) Eskeintza gaiak. Beartsu, garbi begiz, biotzez, idurimezez, esaneko, Jainkoaren naia egitearren Aren ordekotzat, esana zeatz egin, naimenez ta iritzi batez...

Ixil araua, elkar-maitakuntza, eztabaidaka, gela txukunagotu, ekortu, mingaiña ezi...»

Hiri honetan, beraz, egin zuen Zaitegik ikastaro hau, bertako zuzendaria Antonio Arregi moralista delarik. Josulagun honen antieuskaltzaletasunak biziki markatu zuen arrasatearraren hango egonaldia.

(1) 1936.ko Azaroaren azterketan honela jartzen du Zaitegik: 1) Burruka zale izketaldian. 2) Inoren aztalak jaten. 3) labur: mingaiñaren ardurarik ez dut. 4) Abertzale-gaietan nire burua ez du saldu.

## OSTERA AMERIKETARAKO BIDEAN

Morialme-ko ikasturtea 1937.ko Uztailaren 15.ean amaitu ondoren josulagun osoa bilakatu zaigu Iokin. Atzean gelditu dira Durangoko Sarreratik Lagundiaren bizitza ezagutzen eman dituen egunak. Lagundiaren esanetara gertu da harek agintzen duena betetzeko prest dagoelarik. Eta bigarren aldiz Ameriketarako bidea hartzen du edo hartu behar du, hauxe baita Konpainiaren nahia.

*Ez al zen nahikoa Venezuelako esperientziaz, Iokin?*

«Bada, ez dakit. Itxuraz ez. Baina aukera honetan ere norbaitek begitik hartu ninduen. Begira: Morialme-ko «Tercero-nado» izenekoa bukatu rik nuela Lagundiak Rumaniako Iassira joateko izendatu ninduen, Euskal Herrian ez baitzen egi-terik.

Iassi-n apaizgaitegi bat dago eta bertan nere bi lagun zeuden Teologia erakusten. Bata A. Florentino Idoate nafarra eta bestea A. Andres Elustondo tolosarra.

Idoateri urtebeteko lana falta zitzaion baina nahiko larri zegoenez haren ordezko aukeratu ninduten. Hala ere, norbaitek Erromara jo zuen eta Idoate hantxe jarraitzea erabaki zen, ni —ordea— Ameriketarako bidean jarritz.»

Zear gertatuko zatekeen Iokin Rumaniako Ikastetxe horretan gelditu balitz? Honatx, inkognita, sekulan erantzunik izango ez duena. Gehienez jota, suposamendu hutsak besterik ezin dugu egin. Suposamendu merkeak, agian.

Nor izango genuke gaur Iokin? Eukiko al genuke bere izena euskal-dunik haundi enen artean?...

Utz ditzagun galderak eta goazen errealitatera, honetxek bakarrik merezi baitu, berau baita epaile bakarra. Eta errealitatea Ameriketara doan itsasuntzian dugu:

*Zein izan zen, Iokin, bidaia haren jomuga?*

«San Salvadorreko Apaizgaitegia nuen jomuga, haraxe izan bainintzen bidalia. «Flandre» izeneko itsasuntziz egin genuen bidaia, neurekin zetozen beste josulagunen buruzagi bezala egiten nuelarik.

Baina ez nintzen San Salvadorrera zuzen iritsi, nazio hartara sartu ahal izateko baimen berezia behar baitzen eta nik, oraindik, eskuratzeko neukan... Beraz, Panaman gelditu nintzen sei hilabetez, baimena lortu arte, halegia, inglesa ikasten ari nintzelarik. Hain zuzen ere, Kanaleko alderdian zegoen ikastetxe batetan aritu nintzen eta klaseak ere ematen nituen nik. Inglesezko nire ikaskizunak nola zihoazen igerri ahal izateko hilean behin inglesez ematen nizkien klaseak ikastetxeko haurrei. Batez ere, euskal ipuinak aukeratzen nituen gaitzat.»

Henry Wadsworth Longfellow-ren EBANGELINE izeneko elaberria euskaratzeko beste inglesa ikasi zuen Iokinek urte haietan. Eta sei hilabeteko esperientzi txiki honen ondoren San Salvadorreko Apaizgaitegira doakigu, bere bihotzean kezka daramalarik:

«Egun haietan gureak gerratean ziren eta itsu-itsuan jarraitzen genion handik hemengo ixkanbilari.»

1938.ko Uztailaren 15.ean hasten da ikastaroa «San Jose de la Montaña» deritzan Apaizgaitegi hartan eta ordurako bere jomuga berrian aurkitzen zen Zaitegi <sup>1</sup>.

Apaizgaitegi honetara Filosofia eta teologia ikasten ziharduten Erdiameriketako apaizgai guztiak biltzen ziren. Batxilerra ere ematen zen, baina hango bizilagunentzat bakarrik. Josulagunen eskutan zegoen zuzendaritza eta guztira berrehun bat apaizgai izango zen.

Zazpi urtetaz arituko da Iokin nazio hartan. Otsailean hasita Hazilean ematen zitzaion bukaera ikasturteari eta bederatzi hilabete hauetan arrasatearrak zenbait gai irakatsi bear izan zituen. Hauetxek dira, urtez urte:

(1) 1980.ko Martxoaren 24.an San Salvadorreko artzapezpikua zen Monseñor Romero gorpu gelditu zen, Meza ematen ari zelarik, suizkilo batez bihotzera disparatu ziotenean. San Jose de la Montaña Apaizgaitegiaren berri izan genuen orduan ere, bertan egin baitzion Artzapezpikuari San Salvadorreko Herriak azken omenaldia, hilotz-aurrean.



- 1938.an: «Idazteuna» eta Eliz-Historia.
- 1939.an: Idazteuna, Eliz-Historia, Frantsesa eta Inglesa.
- 1940.an: Idazteuna, Frantsesa eta Literaturaren Historia (Echevers izeneko Institutoan).
- 1941: Idazteuna, Teologia Dogmatikoa, Eliz-Historia eta Patologia. Inglesa eta heladera.
- 1942.an Idazteuna, Teologia Dogmatikoa, Eliz-Historia eta Patologia, Filosofiaren Historia. Inglesa.
- 1943.an: gai berdinak.

Lagundiak urtero barruti-katalogo bat atera ohi du, josulagunen jomuga eta heuren betebeharrak aipatzen direlarik. 1945.ekoan honela agertzen da:

«Seminario Sn. José de la Montaña.  
P. Zaitegui. Joachim. San Salvador (El Salvador).  
Profesor de: Sagrada Escritura y Teología dogmática; Patología.  
Enseña: Inglés y Griego.  
Confiesa a los seminaristas y en el templo a la gente; confiesa, además, en las aldeas.»

1946.an ez da bere izena ageri.

Ohar gaitezkeenez, hutsune bat ematen da 1945.ekoan, ikasturte hartarako Iokin Guatemalan aurkitzen baitzen, Lagundiatik irtenda.

Nola hutsune hau? Ulerterreza da: 1945.eko katalogoa atera ahal izateko 1944.ko Hazilerako egon behar zuen Bilbon eta horretarako, Ameriketatik itsasuntziz bidaltzen zenez gero, Abuzturako gertu euki behar zuten, itsasuntziratzeko prest. Beraz, Abuztuan idatzi bezala irten zen katalogoa. Bitartean, Iokinek Lagundiatik aldegiten zuen, Guatemalan.

Nolanahi ere, lan gogorra egin zuen Zaitegik Konpainiatik irten aurretik. Sumendi itzali baten oinetan emango du hogetamarreko haroa. El Salvador herrialde beroa izan arren hiriburuko inguruetan haize jarraitua izango du, bere gela txukun eta erosoan egunak joaten zaizkiolarik.

Izalko sumendia gar eta ketan dago behin baino gehiagotan Iokin bertako aintziretako uretan murgiltzen delarik.

Orduko fruitua dugu BIDLALIEN EGINAK (Hechos de los Apóstoles) izeneko idatzi mardul eta garrantzitsua. Zaitegik berak kontaktzen digu:

«San Salvadorren neukan liburutegi ederraz baliaturik idatzi nuen BIDALIEN EGINAK deritzana. Nahiz ta neuk esatea zatarra izan, liburu ederra da.»

Idatzia ez zen, liburu gisa, 1955.arte argitaratu. Eta orduan Nikolas Ormaetxea «Orixe» zenaren hitzaurreaz egin zen, aintzinsolasean honela irakurtzen diogularik:

«... BIDALIEN EGINAK. Lan bizkorra. Noiz egin du? Apaizgaien irakasle zelarik, latinez lendabizi, iakina, gero euskeraz ipintzeko. Oraintxe bai, euskera apaintzen asi da, zarpilkeriak erantzirik.

Griego irakurketa iatorrari dagokionez, Tischendorf, Von Soden, Nestle, Vogels, irauli ditu. Azalpenari dagokionez, Elizako Gurasoak, eta aiekin Tertulian eta Origine; oraingoetatik Knabenbauer, Lagrange, Prat, Lebreton, Vaccari, Boudon ta aiza, liburu ta iztegi. Gertaketari arrotzetan Takit eta Iosepu. Bere iruzkinean heber eta greko itz iratitotzen ditu. Egizko Irakasle-lan sakona. Ori da euskera lantzea eta apaintzea.»

Dena dela, nahiz eta hitzaurrean honelako lore-sorta polita aurkitu, ez zuen Iokinek «Orixe»-k idatzitakoa atsegin izan. Bere hitzak dira:

«Hitzaurrea irakur badezazu «Orixe»-k nere liburuari ez diola ezta urrik ere ematen ikusiko duzu. Liburuaz zertara doan ez duela igertzen ematen du. Liburuaz hartu, ideki alde batetik eta bestetik, oharkizunak apuntatu eta hitzaurrea egin... Honela aritu zen «Orixe».

*Zergaitik onartu zenion, beraz, hitzaurrea?*

«Guatemalan zegoen bera nirekin orduan eta besterik ez nuenez, nori eskatuko niokeen, bada? Egokiena zen horretarako baina huts egin zidan...»

Baina utz dezadan geroko liburuaren xehetasunak azaltzea eta noan orain hango giroa irakurleari ezagutaraztera.

Gorago aipatu dudan legez, josulagun euskaltzaleek bizitzen zuten mundu harek indartsuki hestutzen zuen Iokinen ezatarria. Geroago eta ilunago ikusten du bere etorkizuna giro garratz hartan, erabakiren bat hartu beharrean aurkitzen delarik: Iokin Zaitegi, baldintza guztietaz, ala Lagundia. Eta Iokinen euskal gogoaz irtetzen da garaile. Honela kontatzen zidan berak, 1979.ko Martxoaren 3.an, Arrasateko Centro Asistencial-ean zegoela:

«Lagundian, azken urteontan neuri oztopoak jartzen zizkidanenen hiru izen ditut gogoan:

No

Año



Pbro. Joaquín Lantegui Plazaola S.J.

Nació en Mondragón (Guzurcoa)

el día 26 de Julio de 1906

Hijo de Juan Lantegui ~~Lantegui~~

y de Francisca Plazaola

Bautizado en Mondragón

Confirmado en Mondragón

los estudios en Durango (Vizcaya) de Latín, en Logroño (Guipúzcoa) Humanidades y Retórica, en San Diego Filosofía en Namur (Belgium), Teología, en Namur (Belgium) Teología.  
 Recibió el Sdo. Orden del Presbiterado en Namur (Belgium)

el 20 de Julio

de 1935

de el Excmo. Señor Michael F. Herbigny, Episcopus Theon-  
sis

Actualmente domiciliado en San José de la Montaña, San Salvador.

Ha desempeñado los siguientes cargos: Profesor durante tres años en el Colegio que la Compañía de Jesús tiene en Atitlán (Guatemala). Actualmente es profesor en el Seminario Central de San José de la Montaña de Sagrada Escritura, Historia de la Iglesia, Dogma, Griego, Historia de la Literatura e Inglés.

La prescripción Joaquín Lantegui testarog se todo accipere  
 et tunc dimissionis a facultate que present

Guatemala 29 junio 1946

Joaquín Lantegui

— Lédochowski, Lagundiaren jenerala, Franco-ren alde irten zen gerratean, honen aldeko zabalkundea egiten zuelarik<sup>1</sup>.

— Ponsol donostiarra: Loiolan ikaskide izan ginen eta euskara ikasten ihardun genuen elkarrekin. Geologo zen eta Erdiameriketako josulagunen Nagusia genuen, Guatemalan bizi zelarrik.

El Salvadorreko Apaigategira azaldu ondoren nere gelako atean txartela euskaraz ipini nuen: Zaitegi ta Plazaola tar Iokin. Ponsolek kenduerazi nahi izan zidan, astakeria haundia zela argumentatuz... «Ni hori besterik ez naiz» erantzun nion eta geroztik gaizki hartu ninduen.

— Beriain nafarra. «Eguzkia nora zapia hara» moduko gizona. San Salvadorreko Apaizgategiko erretorea zelarrik 6 urtetan egon nintzen haren menpeko. Franco baino lehen euskaldunen laguna, gero frankozalea.

Nere arrazoiak ba nituen Lagundia uzteko...».

Iokin honela mintzatzen zaigu ondoko lerroetan:

«Nik Goi-Ameriketara joan nahi nuen eta baita honela eskatuta euki ere. Jose Antonio Agirre lehendakaria New York-en zegoen eta berari laguntzen lan polita egin nezakeela iruditu zitzaidan.

Baina Lagundiak hara bidali beharrean... entzungorrena egin zuen. El Salvadorreko Apaizgategian erresponsabilitate haundia neraman nere gain eta, itxuraz, ezin gelditu nere koolaboraziorik gabe. Beranduxeago hobeto pentsatu omen zuten nere nagusiek eta Idahora bidali nahi ninduten baina ni, ordurako, Guatemalako artzapezpiku zen Arellanorekin mintzatua nintzen. Beso zabalik hartu ninduen.»

(1) Joseba Intxaustik 1979.ko Urria-Abenduaren «Jakin» aldizkarian zerau idazten zuen:

«Ledochowski Aita Jenerala (1915-42) ez zen normahi. Wienn-eko Gorte-tik zertoren kontesemea zen. Urte luzeak eman zituen Nagusigoan, eta ez zituen maite herri tipien abertzale-mogimenduak (Katalunian eta Euskadin, bederan, ez zuen burubide zuzenik izan: Aita Jose Agirre - Zeziaga testigu). Ledochowski-ren eliz-politika ere aztertu beharko litzateke josulagun idazle multzo gaztearekin gertatutakoa ulertzeko. Lagundia Espainiatik desterrura bidalia izan zenean, euskal josulagun abertzaleen bizitza kontra esanez betea agertzen zen, Tournai edo Marneffe-ko etxeetan: jekide sentitzen zituzten beren buruak, baina jekideak ofizialki Errepublikaren alde zeuden. «Norekin zaudete, ba? Lagundiarekin ala Errepublikarekin?» galde ziezaieketen beren nagusi eta ikaskideek gure josulagun abertzale herbestetuei. Lagundiaren barutik begiratuta, onespen guztiak har zitzakeen Ledochowski-ren erabaki politikoak. Lojika honen barnean, Ameriketarako bidea ezarri zitzaizen Marneffe-ko euskaltzale gazteei.»

Aita Jon Goikoetxeak jakinerazi zidanez arrasatearrek 1944.ko Uztailaren 11.an utzi zuen Lagundia, honen Liburu Ofizialetan agertzen denez. Dena dela, Zaitegik 1944.ko Ekainaren 29.an sinatu zuen Konpainiarekiko harreman-etena.

Iokinek, «Orixe», Andima... eta beste euskaltzale askoren bidea aukeratu du, Lagundia ala Herri-kontzientzia binomioa azaldu zaionean. Konpainia izango da, agian, Euskal Herriaren izpirituren kontra gehien ihardun duen eliz-ordena. Sortzaileak euskaldunak izan zirela gogoratzen badugu are harriagoa zaigu oraindik portaera hori.

Mugimendu guzti honi buruzko ikasketa soziologiko eta —nork jakin!—, psikologiko egiteak ez lioke gure Herriaren historiari kalterik ekarriko. Aitzitik, argi apur bat emango liguke oraindik ilun xamar dauden hainbeste ta hainbeste punturi buruz.

Zaitegiren urratsaren garrantziaz jabeturik haren zenbait lagunen eritzia jaso nahi nituen, Iokinek esandakoarekin alderatu ahal izateko. Hona hemen, egun haietan Iokinekin bizi izandako Aita Arriolarena:

«Ezer gutxi dakit honetaz, baina ziurtasun osoaz hauxe esan dezaket: Zaitegik, beti, gizonki jokatu du. Erlijosio eta langile izan da eta, benetan, politiko zuhurgaberen baten aldetik izango da errua»<sup>1</sup>.

Hitz zorrotz eta argiak.

Nola irentsi zuten Iokinen lagunek —eta Koipainiak berak— haren erabakia? Batzuek —frankozaleak— harrotzat hartu zuten arrasatearra. Heuren eritziz, Konpainiak josulagunik onenentzat duen lau bototako profesaketa Iokini egiten utzi ez zitzaiolako irten zen Lagundiatik.

Baina ez dira denak hauen aburukide. Dirudenez, orohar, josulagunak Zaitegiren alde zeuden, onespén haunditan baitzeukaten. Dena dela, eta egiari zar gatazka, bere josulagunkideen onspén hori ixilean jaso zuen Iokinek, inork ez baitzuen bere alde oihurik jaurtiki. Aitzitik, Lagundiak bere mekanismoa martxan jarri du ondorioak Zaitegiren amaren-ganaino iristen direlarik: bere semearen ordurarteko kide askok aurre-rantzean baita agurrik ere ukatuko dio Franciscari.

(1) Aita Arriolaren baieztapen hau Aita Bollegiren bitartez ezagutu ahal izan dut.

## IOKIN GUATEMALAN

Iritsi da Iokin Guatemalara. Sakelean Euzkadiko Gobernuak eman-dako pasaporteak dakar, zeharo euskaraz idatzia. Atzerri Harremanetarako Ministraritzan egundoko nahasmena sortzen da ez baitago itzultzaile ofizialik pasaporteak dioenaz federik emateko.

Hau dela eta, sarri deitzen dute Ministraritzara pasaporteak alda dezan, Espainiakoa bihurtuz. Ezetz eta ezetz!! Eta bere postura honen-gatik Guatemalatik bidal zezaketeela ba zekien jakin, ondo gainera. Baina berak ez du Aberria salgai.

Azkenik, Guatemalako Lehendakariak berak —Jorge Ubico general ditadorea— deitzen du bere bulegora. Eta biok izandako elkar hizketa hartatik Iokinen nortasuna indarturik atera da, edozein Zaldun Ibil-kariri dagokion zintzotasun eta bitxitasunari esker.

Aurrerantzean, Guatemalara iristen den edozein euskaldun nahiz erdaldunek —lan, egoitza, edota moldaera arazoaz topo egitean— Zaitegirengana joko du: Zaitegi ahalduea, lagun dezakeena, Presiden-tziako Jauregira berezko eskubidez sartzen dena.

Jorge Ubico-ren erregimena beste ditadore batek zapalduko du, Ponce, hain zuzen. Ponceren agintzak ez zuen hiru hilabetez iraun, 1944.ko Urriaren 20. an egotzia izan baitzen, nazioa demokratizatze-ko egindako saialdi batetan. Juan Jose Arevalo Bermejo da hauteskunderen bidez aukeratutako lehendakaria.

Guatemalara heldu bezain laster Iglesia de la Merced izenekoan has-ten da Meza ematen, bertako parrokoa Isidro Iriarte josulaguna delarik. Gainerako erlijiosoak ere ordena berberakoak ziren.

Nolanahi ere, eta gorago esanda gelditu den bezala, Arellano Artza-



Zaitegui abandona la Compañía de Jesús en junio de 1944. Las continuas y cada vez más graves discrepancias con sus superiores, le han llevado a tomar esta decisión. Se establece en Guatemala, donde se dedica a la enseñanza en la Universidad de San Carlos y en el Instituto América. En 1951 inaugura su propio centro de estudios que constaba de Liceo —Landibar— y de residencia —Santa Mónica— en las afueras de la capital, para los alumnos internos.

Desde su llegada a Guatemala, Zaitegui ha demostrado ser poseedor de una personalidad especial. Entra en aquella nación centroamericana con el pasaporte de Euzkadi, y después de que el Ministerio del Interior intentara —infructuosamente— que Iokin cambiara su pasaporte por el español, es el Presidente de Guatemala, Jorge Ubico, el que llama a su despacho al mondragonés. No logrará cambiar la opinión de éste. Desde aquel día tuvo Zaitegui entrada libre en el Palacio presidencial y no fueron pocos los vascos que, conociendo este detalle, acudieron a Zaitegui en busca de intercesión.

Elegió para nombre de su Liceo el de un gran personaje guatemalteco, considerado poco menos que héroe nacional —Rafael Landivar— al que cambió la «v» por la «b», argumentando que en averiguaciones efectuadas personalmente, había encontrado el origen del apellido en un pueblecito navarro, donde se leía Landibar.

Ambas anécdotas denotan el carácter especial de Zaitegui. En la fotografía vemos a Iokin en Santa Mónica, rodeado de algunos de sus alumnos.

pezpikuak pozez beterik hartu zuen Zaitegi, Ciudad Vieja-ko San Jose Elizako erretorea izendatzen duelarik. Artzapezpiku honek ez zituela apaiz arrotzak gogoko kontutan badugu are erraldoiagoa egiten zaigu Iokin irudia Erdiameriketako nazio hartan.

*Nolakoa izan zen Guatemalako zure lehen abiadura hura, Iokin?*

«Ukan nuen lehen lana «Instituto America» deritzanean izan zen. Orduko zuzendaria Guatemalako lehendakari genuen Juan Jose Arevaloren idazkaria zen. Nahiko lotsagabe zelarik Institutoa lur jota zegoen eta nik Ikastetxea erosi nahi nuen. Baina ez ginen salneurrira heldu eta zuzendaritza eskaini zitzaidan. Bi urtetarako hitza hartu bagenuen ere sei urtetan irautu nuen lanpostu hartan.

Hirurehun inguru ikasle zituen eta benetako lan gogorra egin behar izan genuen egoera txar hurari bide emateko...»

«Instituto America» Seigarren Ibiltokian, 11gn. zenbakian zegoen kokatua, hiriburuan bertan. «Por la Cultura y la Unión Espiritual del Continente» zuen ezaugarria Institutoak. Iokinek zuzendaritza eramateko ipini zituen baldintzetako bat irabazpideak jabearekin, Monsanto jauna, erdibanaz egitea izan zen.

1945.en Guatemalako «Hispania» Irarkolan El Salvadorren euskaratutako Longfellow-en EBANGELINE deritzana inprimatuko du. Urte luzetan bildutako uztaren erakuspenari eman dio hasiera Zaitegik, EBANGELINE lehenengoetako fruitua delarik.

Ez zen liburuxka hau irakurle euskaldunentzat oharkabez igaro. Batez ere, jakintsuentzat. TORI NIRE EDONTZIA olerkiaren egilea osteratuz, kritikalarien esku-igurtzia sorterauzten duelarik.

Nolako itzulpena dugu EBANGELINE-rena? Niri dagokidanez, behintzat, hauxe esan dezaket: Iokinek 1979.ko Otsailean eskaini zidan liburu hau, beste batzuekin batera, eta berau aukeratu nuen lehen irakurgai, aurretik ezezaguna baitzitzaidan. Liburuxka ideki eta, ordu erdi batez edo, orrialdeetan barna ihardun nuen irakurritakoari ez niola antzik ematen konturatu arte. Liburuxka gau-mahai gainean uzten ari nintzela ez nenkien zeinena ote zen errua: itzultzailearena ala euskara kaxkarra besterik ez lekikeen ni bezalako irakurlearena.

Liburua laga eta ENCICLOPEDIA GENERAL ILUSTRADA DEL PAIS VASCO-ren IVgn. Tomoa zabaldu nuen 115gn. orrialdean. Nere harridura! Honela zioen «Orixe» haundiak:

«EBANGELINE irakurtzen asi naiz, zer ote dan, ingelesik ez baitakit, eta beste erderaz ez baitut irakurri. Egia esan, ezin pasa izan naiz 14.gn orri-aldetik. Maxioz *literatura* esaten dio-



ten ortatik bai bide du aski. Itzulpena, berriz, zuk egin duzun gogorrena.»

Orrialdea pasa eta Aita Lafitteren eritzia irakur daiteke:

«Nous avons sous les yeux EBANGELINE, traduite d'Henry Wadsworth Longfellow. Zaitegi a évidemment fait un gros effort, mais disons que cela se voit beaucoup trop: l'ouvrage, du reste, n'offre aucun intérêt pour la tres grande majorité des Basques, et il a beaucoup vieilli».

Ez dute eritzi hauek Zaitegiren hildoan oztoporik adierazten. Aitzitik, bultzagarritzat hartu dituela kontsidera dezakegu, hurrengo urratsak jarraian ematen baititu. 1946.an Mexikora doa gerturik dauzkan bi idazti argitaratu ahal izateko: GOLDAKETAN eta SOPOKELEN ANTZERKIAK I, hategia.

*Zergaitik Mexikora?*

«Guatemalan baino merketsuago egiten baitzidaten argitarapena. Horixe da arrazoi bakarra. Pizkunde izeneko euskal Argitaratzailean egin nuen inprimaketa.

Mexikon negoela Estatu Batuen enbaxadorea zen Mister Certestone.kin hitzegiteko aprobetxatu nuen. Certestone hau gure gerratean Bilbon bizi izandakoa zen eta ederki ezagutzen zuen euskal arazoa. Euzkadiko nere pasaportea ikustean honela esan zidan: *Europako edozeinek Goi-Ameriketam sartzeko sei hilabete behar ditu. Zuk bi bakarrik beharko zenituzke, Euzkadiko nazionalitatea baituzu.*

Mexikon ere Monzonek «Colegio de las Vizcainas» deritzana zuzentzea eskaini zidan, baina nik ba neukan nerea Guatemalan eta hitza bete behar nuen, nahi eta ez»<sup>1</sup>.

GOLDAKETAN Iokinen lehenengo olerki-bilduma dugu. Berrehun eta hamabost orrialdetako liburua 110 olerkik osatzen dute. Liburuaren azala Arteta zenaren lauki batek edertzen du.

Olerkiak Zaitegik berak eginda nahiz euskaratutakoak dira. Gehienak Marneffe-ko Ikastetxean zegoela biribilduak, gainerakoak Venezuela, San Salvador eta Guatemalan osatuak direlarik.

«Orixe»-ren eritzia dugu ondokoa, Zaitegiren lana aztertzen due-larik:

(1) T. Monzonek behin azaldu zidanez Ikastetxe hau euskaldunek eraikia da Mexikon, XVIIgn. mendean. Geroztik euskaldunek beti hartu ei dute parte zuzendaritzan.

«...Neurtitzetan ezagutu genuen lenbizi. Lensaria atera zigun ez makalen artean gero; baiña GOLDAKETAN deritzon liburuan ba du saritutako ori baiño ohea: EUSKO ARTZAIARENA. Poliki asi zan, oraindi gaztetxo baitzan; baiñan, euskaldun izaki, ots, berantazi, beti aurrera ari da. Oraindik aski gazte baita, umotzean igali obeak emango ditula uste nezake. Ba-du neurtitzetan alako atzerri usai bat, nik baiño geiago irakurriarena. Ortatik apur bat ez dago gaizki —Lauaxeta zanari esan oi niona— gure izkuntza edozertarako gai dala erakusteko. Ba-dira gure egunotan «olerti uts» zale batzuk —utsa da, agiz, oien olertia— bai ere dira «idaroki» zale batzuk, esaten baitute irakurleari idaroki (asmarazi) egin bear zaiola. Baiña zer gertatzen zaie? Agor gelditzen dirala. Erle antzo ibili bearrean, inguma antzo dabilta biluz bilu, garaz gara, ta ez digute ezirik ematen. Eztia irakurleak berak atera bear omen du. Bitxi da ori. Ezti-gaia bederen eman bear zaio beñipein, eta askok ez dute ori ere ematen. Ez al da obe irakurleari ezti egiña eman, gero irakurleak berak bere ezti atera dezan? Aburu berri oiek on aundirik ez diotela egin nago Zaitegi-ri. Beraren lana, alare, inguma-lana ez baiñan erle-lana esan diteke. Euskal tankera artzen dunean atseginago zait. Neurria ere goxoago du. Nola euskerara diteke obeki Longfellow-ren GEZIA TA ABESTIA? Zein izkuntzetan obeki Teopli Gautier'en PAGO-USOAK?»<sup>1</sup>.

Aita Santi Onaindia karmeldarrak hurbildik jarraitu ditu Zaitegi-ren urratsak. Euskaltzaletasunean anaiaturik elkarrekin ihardun dute behin baino gehiagotan. Beraz, ontzat eman ditzakegu Aita Onaindiaren hitzak, GOLDAKETAN liburuaen mamia azertzen duelarik:

«... Olerkariak ederraren zoko ezkutuez jabeturik, eder hori hizkera goxo, txukun eta dirditsuz adierazten dabe. Teknika lana sartzen da hemen. Eta teknika hau eztau edozeinek, ikasiz eta etengabeko egin ez lortzen dana dogu-ta. Iokin Zaitegi, barriz, berez genduan poeta, eta gaiñera, berezko horrek izate barrenean erne-azten eutsona hitz egoki ta apainez jazten ekianik ezin dogu ukatu.

... Ondorenez, ba, Iokin Zaitegi olerkari dogu, olerkari bete-betea. Bertsoz idazten ba daki sorpen eta pentsamentu bikainez barnea adierazten, baita arnasa berroz, sentipen-suaz pentsamentu horreik jantzi ta apaintzen be. Honela agertzen dira haren poesiak. Gaztetatik eukan horretarako berezkoa, egokitasuna, etorri ugari ta jarioa; gero, irakurri ta ikasiz,

(1) «Bidalien Eginak». Hitzaurrean.

teknikaz bere biziko ertilar, artista gertatu zan. Itxi eusku-  
zan olerki-lan txukunak lekuko, testigu.

... Pixkaka, pixkaka emoten jako edozeri era eta itxura; bai-  
ta olerkiari be. Olerki klasikoez eta harein estiloaz jabetu  
zen gaztetatik, eta klasiku horreik izan ziran gerorako be  
haren poesiaren oiñarri. Eta egia esan, olerki hauxe da, izan  
be, betiren beti irauten dauana»<sup>1</sup>.

SOPOKELEN ANTZERKIAK I berrehun orrialdetako liburua argitara-  
tzen du 1946.an Mexikon. Lehen bilduma honetan Greziako idazle  
haundi haren lau antzerki azaltzen dira: ANTIGONE, ELETERE, OIDIPU BA-  
KALDUN eta OIDIPU KOLONO'n.

Nahiz eta lan hauek Mexikon argitaratu aspalditik zeuzkan itzulita.  
ANTIGONE-ri dagokionez, behintzat, 1932.rako euskaratu zuen, Marneffe-  
ko Ikastetxean bertan itzulita, ziur asko.

Zaitegik berak ematen digu ondoko lerroaldietan Sopokeleren obren  
gaineko eritzi jakintsua.

*Zer ikusten duzu Sopokelengan bere antzerkiak euskaratzen jar-  
tzeko?*

«Dramaren berriztatzailea dugu Sopokel, bere antzerkia era-  
bat gizakioia delarik. Bere xehetasunek, pasioek, hainbat ña-  
bardura adierazten dituztelarik, tragediaren xarmantasunik  
ederrena erakusten digute.

Pinturan Rafael dena, marra egoki eta ederra, antzertian So-  
nokel azaltzen da, giza-arimaren zailtasunak agertzen ditue-  
larik.

Bere estiloa argia elkar-hizketan eta zaila koroetan da. Bikain  
bezain apala. Poetikoa nahiz naturala izan. Metaforaz abe-  
ratsa.

Antzerkiaren sarrerari dramatismoa eman zion lehenen-  
goa dugu Sopokel, hirugarren antzezleri sartu eta koroa be-  
netako antzezleri bezala kontsideratu zuen batera. Honexe-  
gaitik, bere tragediaren indarra ekintzaren prozeduran eta  
pertsoneien karakterizakintzan datza.

Sopokelen obrak gorentasun eta haunditasunez amaituriko  
ereduak ditugu, zorrotz eta sakonak, erlijiozale eta moralak.  
Aintzinako denboretako genio dramatikorik osoenaren beti-  
ko oroigarriak, halegia.

Sopokel pozez beteriko artista dugu. Bere ospea gure egune-

(1) «Olerti Eguna» Larrean. 1979.ko Hazilaren 25.ean.

taraino iritsi da kulturaren zeruan bere eguzkia diz-diz jarraian dabilelarik. Idazkietan ulerterreza, bere dramak mundu osoan dira ezagunak.»

Andima Ibinagabeitiak ederki ezagutzen zuen Zaitegiren hildoa. Klasikoak euskaratzeko zina egin zuten Loiolako urteetatik biok ekin zioten lanari, begiak bihar-etziko itxaropenean ezarrita zituztelarik. Elantxobearren ustea dugu ondorengo, SOPOKEL-EN ANTZERKIAK I idazkia aztertzean:

«Beraz, euskaldun maite, ez duzute nola naiko lana, gizon langille, kementsu, biotz aundikoak bete lezakena baizik. Benetako euskaltzaleak, izkera arrotzik ugari ezagutuarren, euskera bakarrik erabiliz burutu dezakeana. Erderaz idazten duten euskaltzale arrotzak, ez dute olakorik inoiz ere burutuko. Zergaitik? Kemenik, adorerik ez dutelako, ezta euskerarenganako maitasunik ere naiz besterik aitortu!»<sup>1</sup>.

Urteetan zehar Andima bere indar guztietaz borrokatuko duenaz mintzatu da aurreko lerroetan: sasi-euskaltzaleen tenpelkeriaz, halegia. Gogor salatuko dute, behin eta berriz, EUZKO GOGOAREN orrialdeetatik orduko «erdaltzale-vascongados» haien joera. Honela jarraitzen du esaten Andimak:

«Antzerkiok, gerkerazkoak aldamenka ditudala, irakurri ditut. Sopokel esakera sakon ta yakintsuz ugaria duzute. Zaitegi'k ordea, euskera eder, argi ta ulerterrezean irauli ditu. Sopokel itzez aberats, Zaitegi berriz, bestea bezin yori. Euskeratzalleak, gerkeraren biurgune ta korapillo guztiak barneraño aztertu ondoren, bere izkuntzara ezin egokiago itzuli ditu. Arlo ori ordea, gerkeraren ta euskeraren zaina ta muinaz yabetu ondoren burutu dizu»<sup>1</sup>.

(1) 1950.eko EUZKO GOGOAREN.

## LAFITTE ETA ORIXE-ren ARTEKO EZTABAIDA

1949.ko EUSKO JAKINTZA-n Vol. III Ingo. 94-95 orrialdeetan Aita Lafittek Zaitegiren zenbait lanen gaineko ustea ezagutarazten du, arrasatearraren balorea zalantzan jartzen duelarik. Ezin uka bere hitzak zeharo mamitsuak direnik, batez ere, urte haietako testuinguru apal eta behartsuan euskaltzale banaka batzuek beste inork ez zuela ezer gutxi idazten eta sortzen kontutan badugu.

Zaitegiren idaztankera ikertzen honela dio Aita Lafitte kalonjeak:

«C'est avec quelque timidité que nous risquons a parler ici de Zaitegi. Nous nous rappelons le concours de poésie qui le revela avec TORI NIRE EDONTZIA: Aitzol était radieux et nous annonçait la naissance d'une étoile nouvelle...

Depuis, beaucoup d'étoiles se sont éteintes et Zaitegi promene en Amérique ses pas de trouvere exilé. Loin du pays natal, il veut chanter tout de meme dans la langue de ses pères, mais nous avons l'impression que sa voix a changé: l'accent n'est plu le meme; il s'est fait un dialecte qui passe pour bas-navarrais en Biscaye et pour guipuzcoan chez les laburdins; c'est a dire que personne ne le comprend tout a fait.»

SOPOKELEREN ANTZERKIAK I izenekoaz ere ematen du bere eritzia, ondoko lerroetan irakur dezakegun bezala:

«Que dire alors des pièces de Sophocle? Nous sommes plusieurs a penser qu'il est plus simple de les lire en grec que dans la version basque: je me demande pour qui a été abattue une pareille besogne! Seul un lecteur au courant de la civilisation hellénique est capable de deviner de quoi il s'agit. Certes, il est curieux de voir comment l'eskuara pourrait ex-

primer certaines pages fameuses: mais inutile pour cela de traduire des tragédies entières. C'est gaspiller un talent qui serait mieux employé a éclairer les Basques on a les divertir sur themes plus proches ou plus captivants, quand meme ils seraient moins sublimés.»

GOLDAKETAN poema-liburuaz idaztean ez da atzean gelditzen. Gogor jotzen du Iokinen liburu hori eta amaiera ez dugu bat ere makala. Astinaldi ederra Uztaritzeko Apaizgaitegiko Irakasleak Guatemalako San Karlos Unibertsitatekoari eman dióna. Irakur dezagun:

«Dans GOLDAKETAN (Au labour), Zaitegi nous offre un recueil plus varié et plus lisible pour des Basques cultivés. Les 154 premières pages nous présentent 72 poemes personnels d'inspiration et des rythmes fort divers: élégant simplicité, images rapides et familières, formes généralement claires, on ne s'ennuei pas a les lire «a petits coups» comme un fine liqueur.

...Dans la seconde partie de GOLDAKETAN, nous avons beaucoup goûté les notices litteraires, vivantes et spirituelles, qu'il a consacrées en basque a Longfellow, Verdagner, Musset, Sully-Prudhomme, Th. Gautier, Baudelaire, Coppée, Horace: c'est sans aucun doute ce qu'il y a de plus neuf dans le livre: quant aux imitations de ces auteurs, elles sont dans l'ensemble, plutot pales; nous devons en dire autant des transcriptions basques de Guérin, Anacréon, Rodenbach, Rodriguez Maria, Trueba, Pompa, etc. Il est difficile, dans une langue de génie si different, de retrouver le rythme, la musique, le mouvement logique ou affectif des chefs —d'oeuvre francais, latins ou espagnols.

Remercions tout de meme Zaitegi d'avoir tenté l'aventure par amour pour notre vieille langue; mais souhaitons que, délaissant la solution de la quadrature du cercle, il cherche plutot a écrire directement en basque a l'échelle de ses compatriotes.»

Iokin mindu egin zen artikulua irakurtzean baina ez zion ezer erantzun. Baina zuzenki parte hartu mena «Orixe» dugu. Honek GERNIKA aldizkarian argitaratzeko ERRORES DE VASCÓLOGOS NUESTROS izeneko artikulua idatzi zuen. Lerro haietatik honako hauk dakartzagu:

«Yo no se qué cosa es poesía, ni si Zaitegi será poeta o dejará de serlo; pero la estrofa en cuestión es irreprochable...» *oro-gai eztiak utz... azken urrenari*»<sup>1</sup>. No ha enten-

(1) Lafitteren idaztiaz dagerren Zaitegiren olerki bati dagokio.

dido *sargori*, que es lo que en los Bajos Pirineos se dice *sapa* y en Nabarra usamos los dos. Si así entiende el griego lucido está. Antes leeré a Zaitegi y a otros neologistas que han intentado siquiera roturar nuevos terrenos que al Abate Lafitte, quien escribe encantadoramente, pero no arriesga mucho.»

Zaitegik berak azaldu zidan behin eztabaida honen izana eta baita kalonjeak egindako eraso gogorraren zioa:

«Lafitteri behinola aditu diodanez, kritika hura egitean ni bera eta «Orixe»-ren arteko gramatika-gorabeheretan ezjakinean eroria nintzela uste zuen.»

## LIZEO LANDIBAR

EBANGELINE, GOLDAKETAN eta SOPOKEL-en ANTZERKIAK I argitarapenean mila dolar eraldi zituen lokinek, bataz beste. Gogotsu egin zuen lana eta ez zitzaion axolik zeuzkan diruak horretan xahutzea. Mexikon argitaratutakoak hantxe utzi zituen salgai, baina ez zioten —itxuraz— laguntza haundirik hango euskaldunek eskaini. Zorrozki dio berak, gatzik falta ez zaiolarik:

«Ene ustez, idaztiak zabaltzeko argitaratzen dira, okerrean ezpanago, ez arduratsu gordetzeko»<sup>1</sup>.

Liburu hoiek ez direla hain errez saltzen ikusten duenean eskaini egiten dizkie, geroxeago, EUZKO GOGOIA aldizkariaren harpidedunei, 1950. eko Urria eta Hazilaren aleetan irakur daitekeen bezala:

«Iru idaztiotatik bat saritzat yasoko du, norberak aukeratua».

1955.eko Urtarrilean eskuetara zitzaizkion idazti hoiek Mexikotik. BIDALIEN EGINAK bere liburuak argitaratzeko zeukan Zarautzeko «Itxaropena»-enean, Antonio Maria Labaienek argitaldariarekiko gorabeherak oro zeramazkiolarik. Honela esaten dio tolosarrari Guatemalatik bidalitakoan, Mexikoko liburuak jaso eta bi egun geroxeago:

«Eundaka idazti dira; pixutan 1.002 libra, zortzi kutxetan. Gerturik dauzkagu zenbait, amar idaztiko paketetxoetan antolaturik. Or ari izan da Andima io ta ke.

Orain zeuk esan nori eta nola igorri bear ditudan idaztiak... BIDALIEN EGINAK obeki daude, ori ezin ukatu. Baina idazti onen babesean, besteok ere salgai iarri ditezabela deritzat.»

(1) 1947.ko Uztailaren 6.ko eskutitzean, Andimari.



Lehen Zaitegik esan digun bezala, «Instituto America»-n izan zuen bere lehen lana. Iokin erdal-ikastetxe baten buru!... Ez zen bere helburua baina bizibidea atera ahal izateko egoki zitzaion irabazpide hori.

1946.an Guatemalako San Karlos Unibertsitatean irakasle bezala dihardu Zaitegik, heladera irakasten duelarik. Baita klasikoak ematen ere aritu zen Unibertsitate hartan, bederatzi urtetan zehar. Honetatik at eta Unibertsitatean bertan, uda-ikastaroetako ekinaldietan ere hartzen zuen parte, denetarik gaiak ematen zituelarik: «Espainiako 98.gn. gizaldia», «Mundu osoko literatura»...

\* \* \*

1951.an «Instituto America» izenekoa utzi beharrean aurkitzen da. Zuzendaritza laga eta bere aldetik jarri zen lanean, erosi berria zeukan Ikastetxean. Irabazpidean abiatu ahal izateko San Salvadorreko bere lagun bati eskatu behar izan zion dirua, 1951.ko Urtarrilaren 16.an Andimari bidalitakoan azaltzen digun bezala:

«Ikastetxe berria dala-ta, dirua urtu bear izan dizut: dagoe-neko zazpi mila dolar xautu ditut: bearrik diruduna Salvador'eko adixkide bat dizut.»

Adixkide hori Rogelio Muyschondt de Langhe zuen, El Salvador-eko «Finca Miramar - Zaragoza» izenekoaren jabea. Soro honetan kafe eta azukrea erein ohi ziren eta bertan izango zuen, beranduxeago, «Orixe»-k bere egoitza, SAN AGUSTINEN AITORKIZUNAK idaztia gertutzen zuen bitartean.

*Nola otu zitzaizun ikastetxe berriari ekitea, Iokin?*

«Ordurako ezaguna nintzen ni Guatemalako sektore askotan. Unibertsitatean eta Instituto Nazionalean, hemen gutxi, klaseak ematen nituelarik bertako apaiz bakarra nintzen. Gobernuan ere nire harremanik ba nuen: garai hartan Jakobo Arbenz zen Guatemalako lehendakaria eta lagun minak ginen.

Guzti honek esperientzi berri bat bizitzera bultzatu ninduen. Bestalde, ez ahantzi, EUZKO GOGOIA sortua neukan eta, nola edo hala, entpresari eutsi behar nion. Eta Ikastetxe bat sortzea ondo etorriko litzaigukeela iruditu zitzaidan. Ez bakarrik ondo neri baita Guatemalako herri guztiari ere baizik. Ikastetxea hiriko bihotzean bertan zegoen, Jauregi Nazionalaren alboan, hain zuzen ere. Eta barneikasleentzat «Santa Monica» izeneko egoitza bat ere zabaldu nuen. Bazter zoragarri batetan. Ikasketak, haurrentzat, lehen eta bigarren mailakoak ziren. Jarraituz gero maixutza egin zitekeen. Esan du-

dan bezala, ikasleak bi motatakoak ziren: barne eta kanpo-koak.»

Zaitegik Jakobo Arbenz izena aipatu du. Arbenz hau Defentsarako Ministria izan zen Arevalo Bermejo lehendakariarekin. 1950.ean bera izango da lehendakarietzarako izendatua, 1954 arte irauten duelarik. Zaitegik maiz esaten zuenez, Arbenz honek nekazal-iraultza bat egin nahi izan zuen Guatemalan baina jauntxoan indarrak egiten zuen beti topo. Kontrako giro bat jasan behar izan zuen Arbenzek eta guzti honek drogazalea bilakatuerazi zuen. Egunak eta egunak igarotzen omen zituen Jauregitik irten gabe, drogatuta. Eta Zaitegiri lehendakariak berak aitortu zionez, CIA ei zen droga ematen ziona.

Baina jarrai dezagun Iokinekin, eta berari galdetzen diot:

*Zer gertatu zen, Iokin, ikastetxearen izenaz?*

«Rafael Landibar-en izena aukeratu nuen nere ikastetxeari jartzeko: Liceo Landibar. Landibar hau Guatemalako Pindaro duzu. Nazio osoan ongi estimatua. Baina bere abizena ez da «b»-z idazten «v»-z baizik.

Gizon honen jatorria aztertzen hasi nintzen eta Iruñea ondoko herririka batetik zetorrela jakin ahal izan nuera, sendiaren harmarrian «b»-z idatzita dagerrela konturaturuz. Beraz, nere ikastetxerako izena aukeratzean jatorriz den bezalaxe ezarri nion. Erabaki honek ixtilu eta eztabaida batzu sortera zi zituen Guatemalan baina ez nuen aldatu».

Irakurleak atera dezakeenez, Zaitegiren bitxikeri hauek —gogora Guatemalara sartzean Euzkadiko pasaporteaz gertatutakoa—, bere iza-kerak nolakoa den adierazten digute.

*«Orixe» eta Andima izan al zenituen laguntzaile ikastetxean?*

««Orixe» ez. Andimak, ordea, latina ematen zuen, Irakaslegoan euskaldun bakarrak geu ginelark. Belaustegi josulagun izandakoa ere hasiera batetan nerekin aritu izan zen. Irakasle guztiak berdinak ziren nere aurrean eta berdina ordaintzen nien.

Bestalde, Ikastetxean behar nituen materiala eta aparailurik gehienak Andimak bidaltzen zizkidan Paristik, guatemalarrera aurretik. Eskariak eskutitzez egiten nizkion eta gero itsasuntziz nahiz hegaluntziz bidaltzen zizkidan gaiak, berak ondo ezagutzen zuen denda batetan erositakoak.

Lyceoa saldu eta ona etorri nintzenez hantxe nituen zorrak garbitzen bi hilabetez gelditzea eskatu nion Andimari. Baita berak honela egin ere.

1951.ko Iibeltzaren 16.an Iokinek igorritako eskutitzean laguntza eskatzen zion Andimari:

«Bestalde, naiz ta lankideak emen izan, naiago nuke lankide Andima nere adiskide aundia. Beraz, zure ostera antola bear dizugu.»

Hilabete batzu beranduxeago, Abenduaren 24.koan, honela jakinerazten zion Iokinek:

«Dakizunez, Landibar Ikastetxea egiten ari nauzu. Ez larritu. Neuk igorriko dizut ona etortzeko dirua. Galde egizu Holland Ameritan Line Itxasontzi-etxean zenbatean etorri zaiten Cuba'tik zear turista edo bidazti-mailllean. Lankide on izango zaitut ikastetxean naiz aldizkarian. Cuba'ko euzko ordezkari Garai jaunari idatziozu Cuba'tik irazean sartu-irten egiteko baimena antola dezaizula.»

Beherago, eta agian, Andimaren egoera ekonomikoaz arduratuz, honela jarraitzen du:

«Eratzikita dituzu irureun dolar lurtamuok eta besteak ordaintzeko; geiago bear ba'duzu, esan. Gerotxoago igorriko dizut zure osteraren ordain-dirua.

Delako lurtamuen descuentoa zeuretako duzu ta eska iozu etxe orri zeu beren ordezkari emen izatea: zertxobait irabazi dezakezu bide ortaz.»

Andima ez zen Guatemalara 1954.ko Martxoaren 16.rarte iritsi. Liceo Landibar sortuz geroztik ederki lagundu zion elantxobearrak Frantziako hiriburuan egindako erosketetan. Eskaria haundi xamarra zelarik inportatzeko baimena lortu ahal izateko Iokinen izenean bakarrik eskatu beharrean beste lagun batzuen ere egiten zuten. Bestalde, irakasgaietatik at beste moduko materiala ere eskatzen zion Iokinek, *turutak, kornetak, tronpetak eta tanbor batzu mutikoen desfiletarako*, adibidez.

Guatemalako espainolen artean nolabaiteko zensuraz ikusten zen Zaitegiren portaera, honen euskaltzaletasunea neurrigabea zela eta. Dena dela, espainol hauen semeak, gehien batez, Iokinen Lizeora izan ohi ziren bidalita.

Lizeo honetan sortu zen, bestalde, Guatemalako Centro Vasco elkarteak. Zaitegik larunbat eta igandeetan batzarrak antolatu ohi zituen bere ikastetxean hango hiriburuan bizi ziren euskaldunentzat.

Eta batzar hauen ondorio bezala euskaldunen biltokia eraiki zen.

1955.ean Iokinek Arrasateko bidea hartzen duela, eta berak aurre-

ko erantzunean azaldu duen bezala, Andimari ematen dio kargua Guatemalako zorrak estaltzeko. Andima betebehar hori behin amaituz gero Venezuelara doa eta garbiketaren berri bidaltzen dio Zaitegiri. Honek, bere aldetik, Karakasera erantzuten dio, 1956.ko Martxoaren 16.an. Irakur dezagun:

«Adixkide on:

Guatemala'tik igorri zenizkidan gutun eta beste garbitasunak eskuetara zitzaizkidan, baita ortik egin dizkidazun bi eskutitzak ere. Eskarrik asko.

Zorrak iasotzen ere egin zenun lanaren aldera berebat eskarrik asko. Poliki iaso zenun, noski, ta ontan eskierrik nengoen zure onerako izango zala-ta. Beraz, angoak garbituta gelditu dira. Mameme'k eta etxekoek eztaukate asarre egotetik, domuaz beste, poliki irabazi baitute. Alare, berak oraindik ez dit idatzi, naiz ta nik iru bider egin: azkenengoz beraren egunerako: ezpadu erantzuten, ni ere ixildu ta kito.»

Zaitegik aipatutako Mameme hau D. Rogelio Muyshondt-en emaztea dugu. Barea ei zen Lizeoa eraikitzeke utzitako dirua, beste eskutitz batetik uler daitekeenez. Aurrekotik garbi gelditzen dena zerau da: Zaitegiren zorrak erabat estalita gelditu zirela Guatemalan, Andimak egingdako garbiketari esker.

## EUZKO GOGOA

EUZKO GOGOA du izena Iokinek Guatemalan 1950.ean sortzen duen aldizkariak. EUZKO GOGOA-ren bitartez itxaropenezko jariora bidali nahi izan zien gerra ondorengo euskaldunei; hauxe zuen jomuga. Urte ilun haietan Euskal Herriko etxe askotan izpirituzko gosez hartu ohi zuten Guatemalatik eta beranduxeago Miarrizetik erdi izkaturik iristen zen aldizkari hura. Bederatzi urtetan zehar noizbehinkako izpi zoragarritzat daukate EUZKO GOGOA bizi zutenak.

*Zergaitik atera zenuen Euzko Gogoa, Iokin?*


«Aldi hartan ez zegoen ezertxo ere aldizkaririk euskaraz. Ni aspertuta nengoen, egia esateko, erdarazko aldizkariak irakurtzez.

Gerra ondoren Euskal Herriaren giroa nahiko ahula zen; jendea ihes eginda eta beldurrik zegoen; hemen geratu zirenak ez zeukaten larregi egiteko betarik. Orduan bururatu zitzaidan euskal aldizkari soil bat beharrezko gurela. Horrela hasi nintzen.»<sup>1</sup>

Aldizkaria 1950.ean lehen aldiz kaleratu bazen ere lehenagotik ziztaion burbuil asmoa Zaitegiri. Honela jakinerazten zion Andima Ibi-nagabeitia bere lagunari, ideia eskainiz, 1947.ko Uztailaren 6.ko gutunean:

«Buru-belarri begira ta begira nabilkizu zuretzako zerbait arkitzen: nik uste, onena, Euzkadi'ko Yaurlaritzan zerbait iristea litzaizuke: adibidez, bearrezkoen euskera eustea dugu,

(1) «Zeruko Argia»-n, 73-6-24 eta 76-4-18.ko aleetatik.



«Euskal Irutasun Deuna» o la Santa Trinidad Vasca tituló Andima Ibinagabeitia esta fotografía en la que podemos ver al mismo Andima (izquierda), Zaitegui y Nicolás Ormaetxea «Orixe». Corre el mes de octubre de 1954 y la fotografía fue obtenida en la Residencia de Santa Mónica de la capital de Guatemala, en vísperas de la partida de «Orixe» hacia Europa. Zaitegui había llamado a Ormaetxea para que le sirviera de ayuda en sus tareas de redacción de la revista «Euzko Gogo» editada en euskera y fundada por Iokin en 1950. «Oyixe» aceptó la proposición y se dedicó durante seis meses a la revista, hasta que Zaitegui le ayudó a encontrar un lugar adecuado para que —sin otro quehacer— se dedicara a la traducción de las Confesiones de San Agustín. Tras atender, el mondragonés, personalmente durante cuatro años todos los pormenores de la revista, llega a Guatemala, en abril de 1954, el gran amigo de Zaitegui: Andima Ibinagabeitia. Los dos tratarán de dar un nuevo impulso a «Euzko Gogo», auténtico puente de unión entre dos generaciones de escritores euskaldunes sin posibilidades de publicar en el interior como consecuencia de la guerra. «Euzko Gogo» se publica desde 1956 en Baiona. Será en 1960 cuando vea la luz el último número de la revista, obligado a cerrar por motivos económicos.

baita atzerriak barna dabiltzan euskeldunen artean ere. Zergatik ez asmatu bideren bat ori burutzeko? Aspaldidanik asmotan nabilkizu, SELECCIONES antzeko aldizkari bat euskeraz, erderaz eta parantzeraz edo englanderaz sortzeko: Euzkadiko Yaurlaritzaren babesean edo baranoan, beintzat, obeer, nondinaiko eusko aldizkariak yasotzen baitira: zergatik asmo ori zeuk ez burutu?»

Andimak ez zuen eskaintza aprobetxatu ahal izan eta, beraz, Zaitegi ostera jarri zen lanean asmoa gauzatu nahian.

Eta 1949.ko Hazilaren 16.an lehenengo alea atera zuen irarkolatik artikulurik gehienak Zaitegik berberak idatzita zirelarik, nahiz eta iekian gezur-izenez azaldu. Lehen esanda gelditu den bezala, lehenengo ale hau 1950.eko Ilbeltzari zegokion.

Hilabete lehenago zabalkunde-orri bat bidalia zuen Guatemalatik laguntza bila. Izenburutzat ASMOA zeraman orria Euskal Herriko zenbait etxe eta erakundetara iritsi zen. Orri honen bitartez aldizkariaren helburuak zeintzu ziren jakinarazten zuen Zaitegik, euskal idazleei laguntza eskatzen zien batera, EUZKO GOGOAREN orrialdeetan heuren lanak argitaratu litzaten.

Baina zeintzu ziren helburu hoiek? Berak azaldu digun bezala, bat aipa daiteke garrantzitsuentzat, beste batzu —bigarren mailakoak— inguruan dituelarik, satelite gisa. Eta helburu nagusi hori euskara dugu, Euzkadiri aldizkariaren bidez eskainia. Honela irakur zitekeen ASMOA orriaren zati batetan:

«Arrezkero, euskeraz bakarrik idatzi nai dugu, eusko-gogoaren barnemuiñetaraño eldu gaitezen: azkatasunaren giltza galdu bai-dugu, euskera galdu ezker.»

Euskararen bitartez Euzkadirentzat askatasuna lortu nahian ziharduena Iokinek, lehen alearen atarikoan darakusen bezala:

«Aldizkari au zuri, Euzkadi laztana, eskeintzen dizugu, gure gogoko ametsen barnemuiña baitzaitugu: bai, gure aleginak oro eskeintzen dizkitzugu asmorik zintzo ta garbienaz: zure gorabide ta betiko askatasuna opaz.

Zure semerik maiteenak izan nai dugunok, Aberri laztana, lurretiko guziak baño aintzakotzat zaitugula ba dagi gure Yaungoikoak. Gure zaiñetako odol beroa eskeintzeko ere gerturik gaituzu, ala bear ezker. Ez baidugu azturik Arana Goirik agindua: *Gu Euzkadi'rentzat eta Euzkadi Yaungoikoarentzat.*

EUZKO GOGOAK literatura hildoa aukeratu zuen hasieratik. 1949.

ko udazkenean igorritako orriari euskal idazle askok eman zion baietza, Iokinekin lan egiteko prest agertzen zirelarik. Zaitegik kontatzen digu:

«Gutxi gora behera ba dira ehun eta hogeï, mundu guziko euskaldunak, erantzun zutenak. Olerkari, idazle... eta ez zedukan inork ere eragozpenik. Ni horretan oso bekoki zabaleko gizona izan naiz. Neri inork, ez dut uste, esan ahal izango didanik bekoki estuko gizon izan naizenik. EUZKO GOGOA-tik igaro diren idazleen numeroa haundia da. Idazle berri asko sortu zuen aldizkari hark. Alde hori izan ezik zerbait egin genuen. Antzerki, olerki, saiakera... mota guztitako literaturak zedukan tokirik aldizkarian. Bakoitzak nahi zuena idazten zuen<sup>1</sup>.»

Nork bere gainera loreak botatzea ez dela, askotan, egokiena gauza jakina da. Eta irakurri ahal izan dugun Zaitegiren baieztapena honen harrokeriaren fruitua litekeela pentsa dezake batek baino gehiagok.

Baina arrasatearraren aipamen honekin batera beste zenbait idazlerenak ere jar nintzakeen, gorago Iokinek esandakoa zuzen dagoela ezagutu ahal izateko. Era honetaz mintzatzen zitzaidan, esaterako, Txomin Peilen puntu honen gaineko eritzia eskatzean:

«EUZKO GOGOA-k idazle berri guziak atosten zituen eta gehienetan lan guziak publikatu. Orduko euskaltzale batzuen eskandalagarri ziren Jon Mirande eta F. Krutwig-en lanak ere. Hain zuzen ere, EUZKO GOGOA-n hastapenetik eta azkeneraino parte hartu nuen. Harreman errexak genituen; ba zekien ateu hutsa nintzela baina ez zitzaion ardura. Eliza gizona zela ahaztuerazten zuen. Ideiaz nahiko zabala zen eta ez zuen moraltasuna literaturasunarekin nahastutzen.

Hala ere, artikulu batzu ez zituela argitaratu nahi izan, aitortu behar dut...»

Idazleei laguntza eskatzea ez zen betebehar bakarra. Alea gerturik eukiz gero banatu egin behar zen harpidedun eta irakurleen artean, eta horretarako azpiegitura egoki bat behar zuen aldizkariak, bere helburua beteko bazen.

Hasierako ordezkariak hauexek aukeratu zituen Iokinek: Frantzian, Andima Ibinagabeitia, F. Irizar, Sebero Altube, Telesforo Monzon, Jose Antonio Agirre lehendakaria, B. Zapiain eta Joxemiel Barandiaran. Inglaterran, Gotzon Urrutia. Mexikon, Ertza apaiza. New York-en, Yon Oñatibia. Nikaraguan, Aita Segundo Azkue. El Salvadorren, Nazabal. Argentinan, Lopez Mendizabal eta Irazusta.

(1) ZERUKO ARGIA-n, 1976.ko Apirilaren 18-25.eko alean.



Dena dela, honek ez du esan nahi denok hartu zutenik heuren gainean ordezkariaren lana. Ordezkariaren izenak irakurriz gero, errez atera daitekeen bezala, ordezkariak Zaitegiren gogoan egon ziren gehiago aldizkariaren aldeko buru-belarriko lanean baino. Nahikoa zuten heurenekin...!

Iokinen aldizkaria, nola edo hala, aurrera doa. Bertan sartu ditu Ikastetxe Nagusian eta Instituto America-n irabazitako txanponak. Nolanahi ere, laster hasten dira eragozpen eta izerdiak. Entrepresa haundia da Iokinek aukeratutakoa eta zuhur jokatu behar du hondora ez dadin. Honela idazten zion Andimari Parisera:

«Emengo irarkolaren utsa duzu aldizkariaren atzeratzea: besterik ez. Gaia ba-dugu, ogetabost bat lankide ba ditugu, dirua ere oraindik ba dugu. Arpidedun gutxitxo orain arte. Bestalde, euskaltzale aipatuenak goraka ta txaloka; ala obe. Ezin burutu andia dut irarkolarekin. Atzerri-izkeraz dala-ta bi bidar geiago ordaindu bear eta oraindik ere lanik ez egin nai. Orrelakorik! Porrot egitekotan, irarkolakoek dukete erru: aleginak egingo ditut porrot iñola ere ez egiteko, Yainkoak onez»<sup>1</sup>.

Baiña Iokinek bidean aurkituko dituen langak ez dira kanpoan, atzerrian, bakarrik egongo. Irarkolarena ez da bat besterik izango. Eta ez, gainera, gogorrena. Euzkaditik etorriko zitzaizkion Zaitegiri zangarterik mingotsenak. Bere bihotzak sufritu egiten zuen, inork baino gehiago, aberkideen tenpelkeria eta, sarri, kontrajarrera ikustean.

Bonbardeorik haundiena Yosulagundiatik hartu zuen. Bost urte lehenagorarte kide izandakoek jarriko dizkioten oztupoak ez dira makalak izango. Ez du heurengandik laguntzarik jasoko. Oso txikia, Iokini egingdako mesedea. Irakurleak ondoko ereduetatik atera dezake ikasgaia:

Iokin eta Andimarekin Loiolan ikaskide izandako batek (ez dut ize-na aipatu nahi) egitamu eder bat borobildu ei zuen euskaraz eta Iokinek EUZKO GOGOAN argitaratu nahi izan zion, berak dioen legez «*orrelako lan ederrak gure illabeterokoa edertzen bai-dute*». Eskabidea egileari zuzen egin beharrene Ibinagabeitiari igorri zion Parisera, Iokinek ez baitzekien hura orduan non aurkitzen zen. Handik hilabetera egileak honela idazten zion Zaitegiri:

«Muy querido amigo:

Me he enterado de que aquellas excelsas cualidades que le dio el Señor no se han eclipsado todavía: el dominio literario y el ánimo indomable con los que, incluso en una Gua-

(1) 1950.eko Apirilaren 19.koan.

temala sin colonia vasca, ha obtenido Vd. una revista redactada totalmente en euskera. «El desierto floreció».

Pido al Señor que le conceda a Vd. un don todavía mayor, mucho mayor, el de renunciar, por su amor, y en favor de las almas por El redimidas a su sobrepujante maestría del euskera y al afecto *natural* a su pueblo vasco para consagrar toda su persona a la salvación eterna de dos millones de guatemaltecos casi del todo privados de sacerdotes.

Estas líneas que le dirijo han sido motivadas por una carta que he recibido de Andima: en ella me comunicaba que Vd. iba a publicar en su revista un trabajo mío. Le he contestado que soy hijo de obediencia y que de ninguna manera puedo ni quiero que se publique nada mío sin censura y sin autorización de mis superiores. Tal es la voluntad de Dios clara y manifiesta. A mayor abundamiento le remito una copia de la carta que le he escrito a Andima. Ruegue por mí como yo ruego por Vd. Siervo en Cristo. XXXXXX.»

Zaitegiren erantzuna jarraian irten zen. Egoeraren errealitatea nahiko ondo azaltzen duelako osorik doa. Luze xamarra baina argigarri. Hona hemen:

«Aspaldikoa:

Zure idazkia oraintxe bertan yaso dizut. Barkatu, euskeraz idazten ba'dizut, oituago bai-nago ortara egiten, eta len-bailen erantzutea erabaki dut, zure gogoaren bakerako.

Yaungoikoari esker, EUZKO GOGOIA aurrera doa. Irugarren zenbakia aterea dugu. Euskaldunen gogoak ez ote dituzu Yesukristo'ren odolaz erosiak? Nik baietz uste. Erbesteratuen alde ere zerbait egin bear dugulakoan nago, oiek ere Yaungoikoaganatzeko, orkoak baño bear gorriagoa baidute.

Yaungoikoaren alde dagidan apurra, nire Nagusiaren baimenez egiten dut, nire Artzobispo jaunaren baimenez, alegia, ori baitut orain nire nagusi bakarra, Erromako Elizpurua-ren mendean. Guatemalakoen alde zerbait egiten dudalakoan nagokizu: ikastetxe baten nagusi nauzu, naiz ta ikastetxea nerea ez izan. Beraz, diru-irabazterik ez dut opa, on egin baño. Ikastetxe Nagusian ere irakasle nauzu, apaiz bakarra bertan. Aurten, gañera, Instituto Nazionalan ere irakasle nauzu, or ere apaiz bakarra. Ta dan ori nire Nagusiaren erabateko baimenez. Egunero meza esaten dizut, naiz ta parroku edo kapellau ez izan. Zer geiago duzu Guatemalakoen alde egitea?

Orko euskotarren alde beste orrenbeste egiten ba'duzu, nik

uste, Yaungoikoak begi onez ikusiko lukela ta badakizu Elizaren agindua: Euskaldunei euskeraz. Zoritxarrez orko apaiz ta Lagundi aunitzek agindu ori ez dute betetzen, lureko agintarien beldurrez edo koipekeriz. Yardunbide ori ontzat ote duzu?

Zure idaz-lanari buruz auxe diotzut: nik dagidana nire nagusiaren baimenez egiten dizut, beraz, zuk ere orrela egiten zenula nik uste izan nuk bearrik, Andimak bidali zidan zure izenean argitaratzeko eske. Zer egingo nizun nik?, egin dudana ta kito. Argitaratu zure izen ta guzti. Bakoitzari berea, baita zuzenbidea. Egia esan: noizbait ikusiko duzu gogo onez egin nula, ez zuri gaitzik ekartzearren. Batez ere Lagundiaren alde yokatzearren. Uts egin ba'dut, ez da izan yakinaren gainean. Ez orixe.

Nondik ateratzen duzu, ostera, nire Euskalerrirenganako maitasuna naturala dala? Zergatik ez uste izan izatez goitikakoa danik. Berretarrak ez al zitun maite Paul bidali deunak? Ortan utsik yarri al dezaiokezu Bidali deunari? Ni gaiztoa izan-arren, Bidali aundi orren antzeko aleginka ari nauzu, nere txatxarkerian. Zergatik zapuztu Yainkoagandik iritxitako onaldeak? Zapuzte orrek zer onik ekarri lezake? Nik ez ikusten, itxuturik nago, nonbait, zure ustez.

Gure burua ta urkoenak gaizkatu, beste egitekorik ez dugu eguzkipean. Arritu zaitu Andima'ren esanak... *errukigabe gañera*. Zoritxarrez ala oldozten dute beste aunitzek. Nola, baña, oien gorrotoa suntsitu? Erderaz idatzita ez nik uste. Euskeraz oien biotzak errezago bigundu ditezke ta garbaitarra ekarri. Ez al deritzazu...? Nik baietz uste ta zu ere ortan zaudela uste dizut. Oroitu Andima ta lagunak bereak ta asto beltzerenak yasan bear ditutela gixagaixoak. Arrezkero, oiek ere onean iraun dezaten zerbait egin bear beren alde. Onbidean ez al nago?

«Orixe» Yaungoikoaren bideak barna dabil: lengoan, inolako olerki-mistikua bidali zidan argitaratzeko ta zure berri eskatzen zidan, idatzi bai-nion zure lan sakona argitaratzeko nintzala ta erabat pozik zegon, zuek oraindik euskaltzale ziñatela-ta.

Tamalgarria zuri gaitzik egin ba'dizut, ustekabean izaki. Dana dala, abagune ederra izan dizut zure berri yakiteko. Eskarrik asko zure otaien orde. Nik ere zure alde egingo, nitaz erabat astuta ziñala beldur bai-nintzan.

Lagundikoengandik gorriak ikusia nauzu, zoritxarrez. Ez da arritzekorik. Lagundia bat duzu ta lagunak beste. Iñori go-

rrotorik ez diot. Biotzez barkatzen diet neri ere Yaungoikoak barkatu dezaidan.

Oraingoz besterik ez. Goraintzi ezagunei, or ezagunik ba'dut, beintzat. Yesukristoren baitan zure otsein oni agindu *Zaitegi ta Plazaola'tar Iokin.*»

EUZKO GOGOAREN ale berria atera bezain laster euskaltzaletasun pixin bat ikus lezakeen helbide guztietara igortzen zuen aldizkaria. Hala ere, ba zituen bere susmoak Zaitegi, aleak iritsiko ote ziren beldurrez:

«Sarobe ta beste aunitzei ere bidali dizkiegu aurrengo zenbakia. Ez yakin, oraindik, Franko'ren morroiak zer egingo duten gure aldizkariari buruz; surtara yaurti ala bidalitakoei emango ote dien, alegia»<sup>1</sup>.

Baina, dirudienez, ez zuten Euzkadiko josulagunek Zaitegi pentsatutako erabakirik hartu. Peli Korta ere Loiolako laguna zuen Iokinek. 1937.tik bide desberdinak aukeratu zituzten, batak bestearen berriak noizbehinka bakarrik zituelarik. Pelik honela dio:

«Tamalez ni 1946.tik aurrera Iruñan bizi nintzan jesuiten buruzagi eta eliz-nagusiak Frankorekin alkartuta; oso bildurrez josita bizi gñan ordu artan, gure eskutitz baita errevisitak ere nagusien begiak aurretik ikusi bear zituzten.

«No comprometan Vds. a la Compañía, a la Iglesia, con manifestaciones euskéricas..., no reciban —y si no devuelvan— las revistas sobre o con contenido euskérico.»

Ordu ontan Iokinek azaldu zuan bere EUZKO GOGOAREN. Nik pozik jaso nuan berak bialdutako Ingo. zenbakia. Bigarrena neregana eldu zanean, «devuelva a su procedencia» eta berriaz arengana bialdu bear izan nuan, eta zuzenbidea nere eskuz eginda.

Nere izkia Iokinek ezagutzen zuan. Jaso zuanean, arkaitza bere gain erori bazan bezala, erdi-lertuta geratu zan. Beñere olakorik etzuan uste nigandik... Geroztik ixil-ixil bera nirekin. Oso minduta zagon. Urteak igaro-ta beñi batean Miarritz'en arkitu nuan. Beregana jo nuan besarkada egin naiaz. Oso asarre zagon. Berak garbi azaldu zidan bere barruko ekaitza. Pakeak egin gabe, beste bat arte esan eta agur egin nion. Bere barruan ezin siñistu ere nik esandakoak. Eta egiz: etzan errexa adieraztea gure larri-aldea egun aietan prankoren-zaleen ondean»<sup>2</sup>.

\* \* \*

(1) Andimari, 1950.eko Otsailaren 12.koan.

(2) 1980.ko Urtarrilaren 8.koan.

Edozein aldizkari pertsona batek bakarrik argitaratzea ez da gauza erreza. Aurreko eskutitz batetan irakurri ahal izan dugun bezala, Unibertsitatean, Instituto Nazionalan eta Instituto America-n ematen zituen klaseak Iokinek. Gehiegitxoa, nonbait, nazio hartan euskal-ugarte bezala ziharduen gizonarentzat. Ez zen bakarrik idaztea: Irarkolatik ateratako probak zuzendu behar ziren; harpidedun berriak egin behar zituen aldizkariak; kuotak garbitu behar... Lan harek zeharo gainditzen zuela berehala nabaritu zuen Iokinek. Eta laguntza bila hasi zen.

*Nora zuzendu zenituen zure ahaleginak, Iokin?*

«Aldizkaria sortu aurretik sarea botata neukan Andimaren aurrean baina honek ez zidan harako bidaia agintzen. Berak EUSKO DEYA-n idazten zuen euskarazko txatala eta nire lanek aipamen haundia aurkitzen zuten Euzkadiko Jaurlaritzak ateratzen zuen hileroko hartan.

Bestalde, egunero bidaltzen zidan OPE (Oficina de Prensa de Euzkadi) izenekoa eta honen bitartez jakin nuen «Orixe» Argentinan zegoela, Idatzi egin nion «Orixe»-ri idazlan-eske nere aldetik bere Misal-erako zabalkundea hutsean aginduz, baita diru apurren bat ere idazlan bakoitzaren ordain. Geroxeago, Ander Mirena Irujoren bidez, aldizkariaren idazkarima eskaini nion.»

«Orixe»-ren erantzunak ez zuen luzaroz itxoegin. Buenos Aires-en Maritxu Arana bere ilobarekin bizi izan zen «Orixe» hilabete eta erdiz. Hemendik Quitora joan zen hiri honetan arreba baitzeukan.

Quitarrantz abiatu aurretik Zaitegiri erantzun zion honen eskaintza onartzen zuela adierazten. Erantzuna noizkoa den ez dakit, ez baitut Zaitegiren paper artean eskutitza aurkitu. Baina, 1950.eko Maiatzaren 7.an baino lehenagokoa izan behar zuen, egun horretan Iokinek honela idazten baitzion Andimari:

«Beste berri andi bat eman bear dizut: «Orixe»-ri eskeñi nion etxea ta yanaria ta biderako txartela ona etortzekotan, EUZKO GOGOAN lan egin dezan.

Au erantzun dit: «Pozik joango nazu, ta lenbailen, Quito'tik Guatemalara. Nere euskal lanak EUZKO GOGOAN-erentzat utziko ditut emendik aurrera (artikulu, bertso eta olako). Egundoko Errebista atera bear dugu, Jainkoak nai badu. Non? eta Guatemala'n. Ez ote dira lotsaz gorrituko zenbait euskaldun *Directeur des Revues et des journaux*? Zure eskeintza ederki datorkit. Jainkoak bakoitzagandik zer nai dun, emeki emeki azaldu oi du, eta zerbait nai dula esango nuke ontan ere, Eskerrik asko Berari ta zuri.»

1950.eko Maiatzaren 25.ean iritsi omen zen «Orixe» Quitora eta handik hamabost egunetara hauxe zion Martin Oiartzabal jaunari bidalitakoan:

«Ez ote dakizu gaurgero Guatemala'ra noala Zaitegi jauna-  
rengana? Ni joaten ba nakio, ez omen du pota egin bildur-  
rik bere Errebistarekin. Agindu diot, bada, eta arako sarre-  
raren begira nago. Datorren astean antolatu banendi ara  
noake egaz. Ikusi al duzu EUZKO GOGOIA delako ori? Ba ditu  
lankideak, eta onak, jesuitak barne dirala. Ez dakit noiz  
itzuliko naizan Europa alde artara» <sup>1</sup>.

«Orixe»-k sei hilabetez iraun zuen Guatemalan Zaitegirekin, azken  
honek behin baino sarritago jakinarazi duenez. Eta honela dela esan dai-  
teke ziurtasun osoaz, 1950.eko Abenduaren 18.an San Salvador-etik bere  
lagun Oiartzabali bidalitako eskutitzari begira:

«Il onen 12.garrean iritxi nintzan onara, Erregenak igaro  
arte.»

Baina ez zen honela gertatu «Orixe» Zaitegiren lehenagoko adiski-  
de batzuen etxean, Finca Miramar delakoan, gelditu baitzen, bere ame-  
tsetako lana osotu ahal izateko: AGUSTIN GURENAREN AITORKIZUNAK, hain  
zuzen.

Zaitegik EUZKO GOGOIA-rako laguntza behar zuela garbi dago. Eta  
baita «Orixe» arrazoi horrexegaitik deitu zuela ere. Dena dela, Zaitegi-  
ren baitan ba zeuden beste asmo batzu ere, «Orixe»-rentzat, erredakzio-  
ko lanetatik urrun gelditzen zirenak: ILIADA edo ODISEA euskararazi nahi  
izan zion. Iokinek esan bezala, «*bazterrak arritu eta arrotu bear ditugu  
oraingoan*» <sup>2</sup>.

Dena dela, aldizkariaren antolaketa murgildu zen gehien batez  
orexatarra, ondoko lerroetan irakur dezakegun bezala:

«... Izan ere ainbesteraño zoratzen nau Aldizkari onek! Irar-  
kola dugu ezin-askatuzko korapilloa. Au genuen asmo: ur-  
tearen azkenerako atzeraldia berdintzea iru zenbaki bikoitz  
atereaz. Itza ematen prantsesak baño areago dira emen, eta  
itza jaten ez diteke aukerarik. Esan diot Zaitegiri mul-  
tikopistaz argitaratu bear genukela illean illekoa. Azkenean  
ori egin bearko. Bera lanez leporaño beteta dago, «Instituto  
Americas» (*sic*) orrekin eta nik ezin dezaket zotzik egin  
arantz-onantza. Bizkor asi giñan, baña «arrancada de caballo

(1) 1979.ko Apirilaren KARMEL aldizkarian «Orixe»-k Oiartzabali titulupean  
azaldutako artikulua interesgarritik aterata.

(2) Andimari, 1950.eko Maiatzaren 7.an.

andaluz, parada de burro manchego». Irarkola'ra kilometro osoa daukagu: yoan-etorri bi. Egunean lau bider egiten ditut oñez zenbait aldiz, bi aldiz gutxienik, iru aldiz askotan.

«Bus»-ez asi ginan, baña diruz gaizki xamar gabiltza iru ille-bete auetan. Gizajoak ez du kemenik ukatzeko eta eman dun dirua etzaio berriz etxeratzen. Españiar batek (igeseña ura ere, gu bezela) txarkeri aundi bat egin dio. Irten-bide polita daukagu. Ni Salvador-a yoan banendi (an egotea) argitara-gaiak poliki poliki kopiatu nezazke ta emen multikopiaz atera ditezke. An sendi bat dugu oso adiskidea. Ara eraman nai naute, beraien landaetxe batera (Itsasbegi edo Miramar). Bakartasun artan asi ninteke nere lan andia egiten»<sup>1</sup>.

Egoera ekonomikoa hasi zaio okertzen Iokini. Aldizkariak ez dauka berez finantziatu ahal izateko beste harpidedunik. Eta ordu larriak eza-gutzen ditu bikoteak. «Orixe»-k aurreko lerroaldian aipatzen duen gertaera bati buruz sakonduko dut apur batez, adierazgarri dela baiteritzait. *Españar batek txarkeri aundi bat egin dio...:*

Begoña Arregi andreak, Velascoren alarguna, ederki ezagutu zuen Zaitegi Guatemalan. Frantziatik harako bidaia antolatu zutenetik ba zekiten noren aurrean aurkeztu behar zuten. Zerua zeukaten aterpe Iokinengana iritsi zirenean. Honek berehala aurkitu zien lan eta ostatu. Urteak igaro ondoren Begoña izan zen Zaitegiren diruzaina eta bete-behar honek aukera guztiak eman zizkion haren nortasuna eta izakera aztertzeke. Begoñak kontatu digu espñiar harekin jazotakoa:

«Zaitegi no anduvo nunca boyante en el aspecto monetario. De vez en cuando y para poder salir del apuro momentáneo solía meterse en una serie de «negocios rápidos» que, la verdad, casi nunca le daban el resultado apetecido.

Vivía en Gautemala un coronel republicano, exiliado como nosotros, que en cierta ocasión le propuso a Zaitegi un negocio de sierras portátiles. Zaitegi estaba casi siempre bien predispuerto ante todo aquello que significara antifranquismo y el coronel entraba en esa categoría. El mencionado oficial republicano le pidió adelantado un dinero a Zaitegi dejándole en prenda piedras preciosas, a cuenta del negocio que iban a realizar. Zaitegi aceptó y cuál no sería su sorpresa cuando supo que aquellas piedras tenían más de vidrio de botella que de otra cosa...»

Zer moduzkoak izan ziren «Orixe» eta Iokinen artean seihilabete hartako harremanak? Denetarikoak, nik uste. Maritxu Barriolak behin

(1) Oiartzabali, 1950.eko Abenduaren 10.ekoan.

esan zuen bezala, *genio bizikoa* zen «Orixe». Bere aldetik, Zaitegi harro eta terko xamarra genuela ikusi ahal izan dugu. Beraz, bien artean sor-tutako noizbehinkako txinpartak normalizat jo ditzakegu.

Izatez, «Orixe» San Salvador-era joan aurretik bere neurriak har-tzen ari zen Zaitegi. «Orixe»-ren asmoak zeintzu ziren ba zekien Ioki-nek eta ez zion eragozpenik ezarri haiek bete orduan. Aitzitik, Muys-hondt sendiak landetxea eskaini bazion lan egin lezan Zaitegiri esker izan zen. Egia esan, erredakzioko laguntzaile garestia aukeratu zuen Zaitegik EUZKO GOGOArako, «Orixe»-ren kalitatezko maila gorengoa baitzen.

Zaitegi bere neurriak hartzen ari zela esan dudanean 1950.eko Ha-zilaren 8.an Andimari idatzitakoan oinarritzen naiz:

«Bearrik bideak oro erreztu zaizu nolarebait ona etortzeko. Orañaldia laño dago, ageri danez. Euskera ta euskaltzaletasu-na gainbera yoan doaz. EUZKO GOGOA-k arpededunik ez du. Zu etorrita nolarebait zuzenduko al dugu. Zuretako gela gerturik dugu ta zai-zai gera. Gaztigatu noiz ta nondik zatozen zure zai egoteko.»

*Iokin, «Orixe»-k ere galdera berdina egin zizun. Zergaitik EUZKO GOGOA «z» hizkia idatzita?*

«Begira; nik EUZKO GOGOA «s»-z idazten nuen beti. Garai hartako nire eskutitzetan, deia edo zabalkundeko orrian, esaterako, «s»-z agertzen da izena. Baita aldizkariaren lehen etapako zenbait oharretan ere.

Zer gertatu zen «z»-z hasteko? Urte haietan JAGI-JAGI-n ibi-litako batek nerekin egiten zuen jatordua eta askotan lagun-tzen zidan nere gauzetan.

Lehen alea ateratzear zegoelarik erabat lanpetuta nembilen eta lagun hori bidali nuen irarkolara noizko kaleratuko ote zen jakiteko. Ostera etxeratzean honela esaten dit: *Iokin, alea prest daukazu... eta ikusi dudan oker bat zuzentzeko aprobeixatu dut*. Zein izango zen oker hori eta Eusko-aren «s»-a «z»-z aldatuta irten zen lehen alean... Eta honela uz-tea erabaki nuen, ez baitzitzaidan egoki iruditzen aldatzea.»

«Orixe» San Salvador-en gelditzen da Iokin hasierako egoeran uz-ten duelarik. Lanak itota omen dabil Zaitegi. Muys-hondt sendiak diru-laguntza eskaini dio Ikastetxea eraikitzeko. Eta Iokinek nahi baino ordu gehiago kentzen dio Landibar Ikastetxearen antolaketak, aldizkariaren ibilaldia geroago eta neketsuago izanez. Kaleratzea ere atzeratzen hasi da.

*Hauxe al zen zioa Andima zure ondora eramateko?*

«Baietz esan dezakezu. Andimak ez zuen inoren bizkar bizi-



tzerik, nik etxe eta jateko lain neukan bitartean naroro egon zitekeen.

Herbesteko Arazoetarako Ministrari izandako Muñoz Meany lagun haundia neukan. Kargua laga eta Parisera izan zen bidalia, enbaxadore bezala. Gizon azkarra, gizabidetsua eta euskotarren adiskide bikaina.

Andimak Muñoz Meany-ri lerro batzu idaztea eskatu zidan Guatemalarako bidaiaren baimena lor lezaion. Honela egin nuen eta baita enbaxadoreak neri erantzun ere dena konponduta zegoela adieraziz. Baina erabat harrিতa gelditu nintzen Andimak ezetz esan zidanean. Parisen gelditu nahiago omen zuen.»

1951.an gertatzen zen hau. Enrique Muñoz Meany, Juan Jose Arevalo Bermejo lehendakariaren ministraria izan zen. 1944.an igo zen Arevalo agintaritzara nazioa demokratizatzeke egin zen lehen hauteskundeetan. Gobernu honek 1950.arte iraun zuen. Orduan Jacobo Arbenz izan zen aukeratua. Lau urte beranduago Comandante Castillo Arenas-ek, eskumatarren interesak zaintzen zituena, Guatemalako lema hartzen du indarreko kolpe baten bidez.

Muñoz Meany-ren osaba Guatemalako Iokinen Artzapezpikua zen: Muñoz Capurón. Arevalok irabaztean eskumatarrek matxinada bat antolatu zuten eta Artzapezpikua honen aldekoa azaldu ei zen. Ondorioz, Gobernuak herbesteratu nahi izan zuen eta Zaitegi Muñoz Meany-rekin mintzatu zen burugabekeria izango litzatekeela argumentatuz, katolikoek ez baitlukete erabakia ondo ikusiko. Nolanahi ere, handik laburrean Artzapezpikuak herbesteko bidea hartu behar izan zuen, bere loba erabaki honen kontra agertzen zelarik. Herbesteratze hau dela eta, Zaitegik Guatemalako apezteriaren kritikak bereganatu zituen, Muñoz Meany-ren laguna baita eta erabaki horretan partaide izatea leporatzen diote arrasatearrari. Guatemalako egunkaririk garrantzitsuenean artikulu bat idatzi behar izan zuen Zaitegik bere eta ministrariaren jokabideak zeintzu ziren azalduz.

Beraz, Andimak hara joateko baimena behin lortuz geroztikako porrota 1951.an izan zen. Ordukoa ere da ondoko zatiari dagokion eskutima, Iokinek elantxobearrari igorrita:

«Emen bakea ta giro ederra ta jateko lain izango duzu; baita euskeraz idazteko abagune ederra ere... wiski apur bat ere izango dugu atsekabeen aringarri: ez estutu.»

Urte bereko Abenduan hil zen Muñoz Meany, Iokinentzat kolpe haundia izanez. 1953.an berpizten zaio Andimari Guatemalarako gogoia. Jakina, Zaitegiren zirikadak ez ziren txikiak eta, azkenik, berea erdietsi zuen. Nola ez!

*Nola konpondu zinen Andima eramateko, mugak arrotzentzat itxita ba zeuden?*

«Bigarren aldiz honetan Gobernu berria genuen. Hilabete batzu aurretik baimena eskatuta neukan Ministraritzan baina ez zidaten eskuratzen. Azkenik, probitsionala lortu eta dei egin nuen Andima hara joateko.

1954.ko Apirilaren 16.an heldu zen hara. Hasteko, betiko baimena, muga-egunik gabe geratu ahal izateko, atera behar genuen eta Ministrariarengana joan ginen. Wiliam Palmieri zen ordukoa eta jauregiko bere ate aurrean ordubete batez egon ginen Andima eta biok. Urduri jartzen ari nintzela halakoren batetan honela esan nion Andimari: «zuek gizonak zenbat denbora egoten zarete neskatxa baten zai?»... Hartu besotik eta kalera irten ginen.

Palmierik hau jakin zuenean etxera deitu ninduen parkeske, biharamonean ostera joan gintezela erregutuz, berak ere nirekin hitzegi nahi zuela eta.

Biharamonean hara azaldu eta, ba al dakizu zer eskatu zidan?... Nuntziorekin hitzegitea, Gobernuaren joera zein zen azaldu niezaion. Honela egin nuen eta orduan..., ordain gisa, Andimarentzat baimena izan genuen.»

Zergaitik utzi zuen Andimak Pariseko bere egoitza Guatemalara joateko? Zergaitik lehen aukeran «ezetza» eta handik hiru urtetara itsasuntziratzea? Hainbeste aldatu zitzaizkion Frantziako hiriburuan bizi zituen baldintzak?

Iokinen esanetara bagaude, Andimak Parisen zeraman bizimodua ez zuen batere atsegina. Zenbait euskaldunen artean, gehien batez herbesterratu batzuen inguruan, ez zuen lanerako beharreko giroa aurkitzen. Hutsunea ere egin omen zitzaion behinola eta guzti honek barneko atsekabea ekarri ei zion.

Zaitegi, bere aldetik, ederki ezagutzen zuen Andima. Eta ba zekinen zernolako jokoak egin lezakeen aldizkarian. Heuren arteko harremanak hestua ziren aspalditik eta aukera zuen bakoitzean zirika botatzen zion Iokinek Ameriketarako bidea har lezan. Landibar Ikastetxean lana eskaintzen zion batera EUZKO GOGOIA-ren etorkizunaz mintzatzen zitzaion Zaitegi:

«...Beraz, ez zaite larritu, Andima: Euzkadi gurekin darماغu eta obe dugu gerorako lanean gure buruak gertu. Urrundik baikorrakoak gera, ta EUZKO-DEYA 'ren lana ez da iraungarria, gure aldizkariarena, bai, ordea» <sup>1</sup>.

(1) 1953.ko Urrilaren 7.an.

Etsitu al zuten Iokinen zio hauek elantxobearra? Ez dut uste. Ene eritziz, Andimak Ameriketarako bidea hartu ba zuen abaguneko egoera batek bultzatua izan zen. Agian, ez litzateke bat ere harrigarri izango, Iokinek une haietan sufritzen zuen krisisaz urrikaldua itsasuntziratzea. Nork jakin!

Hamaika testigantzak froga dezakeen legez Andima bihotz zabaleko gizona izan zen. Apala eta gozoa. Bere asmoetara erabat emana. Eta Andimak arrasatearrenak bezelakoak zituen helburuak. Lagun minak ziren. Ezin zuen, beraz, Zaitegiren entresa bertan behera laga bere aldetik ezer egin barik. Laguntzarik behar bazuen beraxek emango zion. Bion artean azaleraziko zuten hondoratzen ari zen aldizkaria.

Dena dela, ez bide zuen bere barnean zorion osoa sentitzen Paris-seko lana eta lagunak uztean. Ez zeraman hilabetea Guatemalan eta honela idazten zion Andimak Antonio Maria Labaieni:

«Oraintxe konturatzen naiz Paris'en urbillago bizi giñala Euskalerritik» <sup>1</sup>.

Are zorrotzago agertzen zaigu Labaieni ere bidalitako beste honetan:

««Orixe»-ri buruz ematen dizkiguzun berriak pozik irakurri ditut. Ni emen baiño obeto laketuko al da or. Eldu xamarroi gogor egiten zaigu lurraldez eta batez ere aiurritz aldatzea. Ez dut nere ezurkak emen uzteko usterik» <sup>2</sup>.

Beste hau Koldo Mitxelenari bialdu zion:

«Zaitegiren ondoan nago. Alare ezin dut Europa eder ori ahantzi. Euskadiko giroa aldetzekotan ez naiz ni izango emen erroak egingo ditutenekoa» <sup>3</sup>.

Zaitegik EUZKO GOGOA-ren lehen etapa garbitzean egoitza Miarritzera aldatu zuen. Andimak, ordea, Venezuelara zuzendu zituen bere urratsak Guatemalan ez aurkitutako ondorio eta segurantzta bila. Urteak eman eta Zaitegi ostera doakigu Guatemalara, aldizkariaren bizitza erabat itzalirik gelditzean.

Zenbait herritako erretore bezala ihardun zuen Erdiameriketako nazio hartan. Bereak jasan eta bizimodu latza eraman ondoren dolar batzu bildu ahal izan zituen. Andimak, berriz, gorriak ikusi ei zituen Venezuelan, bere egoera ekonomikoa aurrera atera ezinka. Bestalde, 1954.an Parisetik irten orduko amets eta asmorik gehienak hauts zituen bihurtuta. Bere bihotzeko oinazea haundituz zihoakion egunez egun. Guzti honen

(1) 1954.ko Apirilaren 10.ean.

(2) 1954.ko Abenduaren 21.ean.

(3) 1954.ko Apirilaren 26.an.

erruduna Iokin balitz bezala hauxe esaten zion On Nemesio Etxanizek Zaitegiri:

«Diruz berriro jantzi omen zera. Ni orrela ba-nengo, Andima artu ta onuntza etorriko nintzake. Gure burrukak langile asko eskatzen du. Emen dugu irabazi bearra burruka ori. Egin dezu zartzarorako bear zenduan dirua. Atoz luzatu gabe onera ta ekar zazu zerekin Andima gizajoa» <sup>1</sup>.

Andima Ibinagabeitia Idoyaga, euskaltzale handia, 1969.ko Hazilaren 2.an hil zen Karakas.en. Atzerrian utzi zituen bere hezurak, tamalez.

(1) 1965.eko Uztailaren 18.an.

## ALDIZKARIAREN ZENBAIT XEHETASUN

Iokinek aldizkaria argitaratzean noraino irits ziteken ba zekiela deritzat. Ez zeukan itxaropen haundirik orduko egoerako baldintzetan eta mugak garaiak eta ate hertsia aurkituko zituela ba zekien, ederki jakin ere. ASMOA izeneko deiari idazle askok erantzun zion, berak aitortu digun bezala. Mota eta adin guztietako idazleak izan ziren, jakina. Aldizkari hartan heuren barneko jarioari bide emateko aukerarik zuzenena ikusten zutenak idazlanak Guatemalara igortzen hasi ziren.

Joseba Intxaustik ikasketa bat dauka eginda JAKIN aldizkarian EUZ-EO GOGOAREN inguruaz aztertzen duelarik. Irakurleak sakonagotu nahi izango balu bertara jo lezake datu aberasgarriak aurkituko dituen ziurtasun osoaz <sup>1</sup>.

Egitamu horretatik atera dut aurrerantzean ezagutaraziko dudana xehetasun asko.

EUZKO GOGOAREN bizitza bi zatitan bana daiteke: Guatemalako eta Miarritzekoa. Lehena 1950.etik 1955.arte nahiz eta urte oso batetan, 1953.an, aldizkariak alerik ez atera. 1956.an igaro zen Miarritzera 1960 arte iraunez.

Hasierako idazle goaren batz besteko adina 46 urtetan dugu. Adin hau igo egingo da hurrengo urtean. Orduko idazle batzua hauek ditugu, kako artean urteak jartzen ditudalarik: Sebero Altube (73), Jemaine (65), «Orixe» (62), Leizaloe (54), Labaien (53).

Nolabait esatearren, goian aipatutakoak euskal munduan konsagratuak zeudenak dira, entzute haundikoak, hain zuzen.

(1) 1979.ko Urria-Abendua: ZAITEGI ETA EUZKO GOGOAREN. 1980.ko Urtarrila-Martxoa: HAMAR URTEKO LANAK.

Baina EUZKO GOGOIA-k arrakastarik izan badu bi belaunaldiren arteko zubia izan zelako da. Hasiera hartako eta bigarren aroko etapen artean, beraz, bi belaunaldiren nahasmena iger daiteke, idazle euskaldunak ugarituz baitoaz, zaharragoek gazteagoei bide emanez. Txomin Peilen, Miren Arrate Ibargutxi, Imanol Laspiur, Jon Mirande, J. Etxaide, S. Mitxelena, B. Gandiaga, J. M. Lekuona, Aita Villasante, J. San Martin, G. Aresti, Txilardegi, P. Altuna, L. M. Muxika, E. Erkiaga... Zaitegik ematen dizkigun ehun eta hogeitai hoietatik izen batzu dira. Gaurrengungo idazlerik gehienek argitaratu zituzten beren lanak Zaitegiren aldizkarian. Eta salbuespenen artekorik garrantzitsuenetakoa aipatzearren Koldo Mitxelenaren kasua jarri behar da, ez baitzuen honek inoiz EUZKO GOGOIA-ren zutabeetara lanik azaldu.

Jarraian doazen bi laukiek EUZKO GOGOIA-ren bizitzan urtez urte izandako maiztasuna eta aldizkarian erabilitako gaien ehunekoak adierazten digute <sup>1</sup>:

### EUZKO GOGOIA URTEZ URTE

<i>Urtea</i>	<i>Inprima-unea</i>	<i>Non</i>	<i>Emanaldiak</i>	<i>Orrialdeak</i>
1950	—	Guatemala	7	332
1951	Atzeratuz	Guatemala	6	324
1952	Urtebeteko atzerapena	Guatemala	6	252
1953	—	—	—	—
1954	Garaiz	Guatemala	5	210
1955	Atzeratuz	Guatemala	3	144
1956	Lau ale 1957.ko Martxoaz geroztik	Miarritze	6	720
1957	Atzeratuz	Miarritze	5	672
1958	Eguneratuz	Miarritze	4	708
1959	Atzeratuz: 1960.ko uztailean hil zen	Miarritze	2	296

### OROTARA

G: 5 urtealdi

M: 4 urtealdi

44

3.658

(1) HAMAR URTEKO LANAK artikulutik aterata.

## GAIEN PORTZENTAIK

SAILAK	%
Atarikoak .....	1,03
Aldizkarikoak .....	4,68
Literatura .....	57,48
Olertia .....	10,70
Kontakizunak .....	12,02
Antzertia .....	19,50
Kritika .....	15,26
Linguistika .....	14,43
Soziologia .....	4,15
Historia .....	5,86
Erljioa .....	4,71
Arte Ederrak .....	1,59
Filosofia .....	3,35
Etnologia .....	1,47
Natur Zientziak .....	0,94
Psikologia .....	0,26
Beste .....	0,05

Azken laukian dagerren bezala, EUZKO GOGOIA-ren joera Literatura-ren hildotik doala erres dakusakegu.

Azpimarratzeko da Joseba Intxaustik bere artikuluan dioena, aldizkaria erlijio-gaietatik nola aldendu zen nabarmena dela, halegia. Alde honetatik, duda izpirik ez, euskal kulturaren sekularizazioari zabaldu zizkion atea EUZKO GOGOIA-k.

Lehen laukian aldizkariaren martxa lehen urtetik atzeratzen hasia zela ikus dezakegu. Atzerapen hau ez datorkio idazle urritasunetik. Argitaragai ugari dzlgu, Jainkoak onez dio Zaitegik 1951.ko Urtarrilean. Dena dela, nahiz eta gaiak euki, batez ere olertiari dagokionez, ez dabil EUZKO GOGOIA bere sortzaileak nahi izango bezala. Banakoek irarkolan sufritzen dute atzerapena.

7-8gn. alea 9-10.garrenarekin dauka irarkolan 11-12.garrenak, *eskuz ari gera egiten*, Zaitegi lanez itoerazten duenean. Guatemalan ateratakoak kuaderno luze gisa dauka formatoa, 30 x 22/23 zm., denak ez baitira berdinak. Miarritzera igarotzean aldaketa bat ematen da neurrietan, 18 x 13 zmko. itxura hartzen duelarik. Aldaketa honen arrazoiak, aldiz-

kariaren aro berri honetan batzarkide izan zen Jaime Kerexetak ematen dizkigu:

«a) errazago jaso zeitekean korreoz, baita bialdu ere; b) errazago irakurri zeitekean; d) errazago eroan zitekean sakelean eta, beraz, edonon irakurri aal izan be bai; e) itxuraz be politagoa agertuko zan, egokiago, egunekoago...»<sup>1</sup>.

Andimaren eragina laster igertzen da aldizkarian. Honen arazorik larriena zein den nabaritu du Ibinagabeitiak eta irtenbide eman nahian lanean hasi da gogotik. Zabalkundea da ukitu behar duten lehen puntua. Lokinek gerturiko harpidedunen zerrenda aztertzen du elantxobearrak eta harri ta zur gelditzen da irakurleen urritasuna nolakoa den konturamean. Eta 1954.ko Maiatzean zabalkunde-kanpaina egin behar dela erabakitzen du, orri elebidun bat Guatemalatik igortzen duelarik.

Zaitegiren paper artean aurkitu dut idazki honen zikina. EUZKO GOGOIA gauzatzen zuen indar izkutuaren teoria lerro hauetan irakur dezakegula uste dut. Teoriaren laburpena, nahi baduzue. Irakur:

«Boskarren urtean sartuko da EUZKO GOGOIA. Boskarren urtean lurbira zabalean daukagun euskerazko aldizkari bakarra. Aldizkari au sortu ta zuzendu duenak soilik dakizki zer nolako lan nekeak izan dituen ateratzeko. Ala ere, neke ta eragozpen guztiak bakarrik gainditu ditu, bakarrik, irakurle, euskaldun eta euskotar guztiek izotza baño otzago aren dei gartsuari erantzuteke zirautelarik.

Euskaldunak, ezin dezakegu luzaroago izozkeri ortan iraun. Zaitegik egin dei gartsuari erantzuteko ordu dugu. Garaia da, bai, aren inguruan gure Aberria maite dugun guztiok biltzeko. Ez dugu gure euskeraren eriotzaren laidoa burugainera nai, euskeraren eriotzak Aberriarena ere berakin batera ekarriko luke ta!

Euskera dugu gure izkera, euskera dugu Aberriaren urrezko giltza, euskerak gure erriaren kateak ere autsiko ditu. Ez dago beste biderik. Norbaitek auxe zion: *Ikurrin gabe, ereserki* (himnu) *gabe aberri antola diteke, ez ordea izkera gabe*. Izkera da erriaren arima, izkera odola! Eta Euskadi'ren arima, Euskadiren odola euskera da, gure aberri-izkera.

Atzerritar iakintsu bat aurkitu genuen bein gure bidean. Gure izketa Euskadi'ren inguruko gertatu zen. Ez zuen ark geiegi ezagutzen gure aberria. Alako batean galdetu zidan: *eta nola ari dira euskaldunak beren izkerakiko?* Alper xamar, yardetsi nion. Ark orduan: *Zuek ez zerate erri osoa, erri er-*

(1) 1980.ko Otsailaren 16.koan.



*tuna baizik. Bere izkera yatorra lantzen ez duen erriak, ez du bizitzerik ere merezi.*

Euskaldunak: Guk bizi nai dugu, erri oso ta bakar bat izan nai dugu. Ortarako euskera xuspertu, pizkortu nai dugu, eta alegin guztiak egiten ari da EUZKO GOGOEA elburu ori iristeko. Aurrerantzean are lan garaiagoak egin nahi lituke gure aberri-izkera yasotzeko, goi mailalara eraikitzeko.

Aldizkariaren inguruan liburuak ere argitara nai lituke, EUZKO-GOGOAREN IDAZTIAK alegia. Urtero bost edo sei idazti gutxienez, burulan eta euskeraren aurrerapenari dagozkion gaietaz.

EUZKO GOGOEA'k idazlerik bikañenak bere inguruan bildu ditu, euskal arloa lantzeko gerturik dauden idazle aipagarrienak. Bainan euskaldun guztien laguntasuna bear du bere asmoak aurrera ateratzeko. Orra gure deiaren zergatia, ots, ortarako zuei laguntasun eske gatzokizue, bakoitzak aal dezakezuten neurrian.

Ukatuko ote diguzu euskotar maitea? Euskaldunok lurbira zabaleko erri guztiak baino kaxkarrago agertuko ote gera aberriaren gaizkabiderako darabilgun burruka gorri ontan? Guztien bearrizanean arkitzen da EUZKO GOGOEA, euskera eta Euzkadi'ri berean eusteko. Beraz ez du uste zuen laguntasuna ukatuko diozutenik.

Izkera baztertzen duen erria, ez da erria, eta euskera ukatzen duen abertzalea, ez da abertzale, Euskalerrriaren ondortzalea, baizik.»

Aldizkaria kaleratetik at ba zuen Zaitetik beste asmorik ere, aurreko lerroalde batetan irakurri ahal izan dugun bezala. EUZKO GOGOAREN IDAZTIAK sailari nagokio, noski. Euzkadin politika bideak hertsirik aurkitzen ziren garai hartan eta hari berean eutsi ahal izateko zen bide bakarra euskara genuen. Honela ikusi zuen Zaitetik eta beste sail berri bati hasiera eman nahi izan zion. Bat gutxi baitlitzan... Bere asmoa urtero bostpasei liburu argitatzeari zen urte gutxi barru euskal idaztitegi polit bat antolaturik izateko. Bostehun harpidedun behar zuen bilduma honek abiatzen hasteko. Entrepresa berri honen lehen titulua Zaitegiren beraren BIDALIEN EGINAK izeneko liburua izan nahi zuen.

Antonio Maria Labaien izan zen liburu honen irarri lana bere gain hartu zuena, argitaratu Zarautzen egin baitzen, «Itxaropena»-n, hain zuzen. Betebehar hau zela eta honela esaten dio Iokinek tolosarrari:

«EUZKO GOGOEA»-ren IDAZTIAK izenpuru iarriozu, otoi; gero, gure arpidedunak oiñarritzat artuta, alako idaztegi bat sortzeko asmo nabilazu. Orain arteko zenbait idazlan

artuta, idaztiño ederrak argitarazi ditzakegu: EUZKO GOGOARren itz-laua; E.G'ren olerkia; E.G'ren antzerkiak t.a. Argitara gabe, ere, amaikatxo gai ditugu. Ametsok burutu al izango ditugun, geroak esango»<sup>1</sup>.

Andima Guatemalara iritsi bezain laster zabalkundea egiten saiatzen da. Era berean, eta irarkoletako kostoak hain haundiak zirela ikusirik, irarkola propio baten asmoari ekiten dio. 1954.ko Apirilaren 26.an hamar egun zeramatzan Guatemalan, Francisco Miangolarrari idazten dio Karakas-era:

«La lengua, el euskera, redimirá la Patria y no la verborrea hispanizante de nuestros politicastos. Es un hecho histórico: todas las patrias oprimidas cimentaron su redención en la lengua nacional y nosotros no podemos establecer una excepción en ese camino histórico.

... Pero necesitamos, imperiosamente, una imprenta en propiedad. Tengo entendido que por ahí sobran algunas linotipias; qué bien nos vendría una con su correspondiente imprenta. Sueños dirás; pero sueños que hay que realizarlos para que podamos llevar, sin cesar, nuestra labor a feliz término, si término ha de tener alguna vez».

Miangolarraren ezetzko erantzunari hauxe kontrajartzen dio Andimak, urte bereko Maiatzaren 10.ean:

«Sobre la imprenta, dices que Guatemala no es el sitio ideal para montarla, Pero lo cierto es que aquí en Guatemala es el único sitio donde se hace algo real y palpable en pro del euskera. Todo lo demás es verborrea y cuento, cuando no publicaciones perjudiciales, que dan un lugar vergonzante a nuestra lengua nacional que es el euskera. Nosotros aquí hacemos una labor vasquista integral única y exclusivamente euskérica. No es Guatemala el sitio ideal, pero es aquí donde se hace algo positivo.

Nuestra intención no es la de mantener la imprenta a expensas de los vascos de América. Nosotros nos encargáramos aquí de encontrar suficiente trabajo para cubrir sus gastos y dando primacía a las publicaciones euskéricas. No puedes hacer una pequeña idea de las dificultades con que tropezamos para imprimir la revista y otras cosas por parte de los linotipistas en imprentas de aquí.

Son inteligentes pero nos retrasan el trabajo de una manera desesperante y tenemos que luchar como leones para sacar

(1) 1954.ko Otsailaren 4.koan.

la revista. Todo esto se evitaría con una imprenta en propiedad. Sé perfectamente que esta petición, que ha coincidido con la visita del Lendakari, ha llegado en la peor época. Sin embargo, creo que no la podemos descuidar y debemos hacer todos los posibles para cumplimentarla cuanto antes. Me he enterado que alguien de ahí se ha gastado 60.000 bollos en pro del foot-ball. No soy enemigo del deporte pero más amigo del euskera y de Euskadi. Preparar piernas, a tanto precio, para que nos den un puntapié, cualquier día, en los, no creo que tenga gracia ninguna.»

Andimaren hasarrea hobeki uler dezakegun atzeruntz jo behar du gu urteetan. Hain zuzen ere, 1951.ko Urtarrilean zazpi ziren EUZKO GOGOIA-ren Venezuelako harpidedunak. Kepa Olariaga, Mikel Aierdi, Martin Ugalde, Mikel Pelai «Olarso», Joseba Oñatibia, Ilari Burgaña eta Andoni Arozena, azken hau —nolabait esateko— aldizkariaren ordezkari bezala ziharduena.

Karakas-eko «Euzko Etxea»-k Zaitegiren publikapenaren alde hilerro 50 bolibar emango zituela agindu zion arrasatearrari. Baina hila-bete bat eta beste igaro ondoren hango diruzainak ezin dut... ei zeukan beti ezpainetan. Azkenik, gauzak hobegotuz ez zihoazelarik, «Euzko Etxea»-ren lehendakariak dirulaguntza kentzea erabaki zuen.

Asma ezazue Zaitegi eta Andimaren harridura nolakoa izango zen bi urte beranduxeago gizon honek «Deportivo Vasco» futbol taldearen alde 60.000 bolibar jarri zituen!

«Tropikoak sortu duan diruzalekeriaren berri bazenekizu arrituta geldituko ziñake. Emengo amets bakarra orixe da: dimu egin. Oietako asko urretan ustelduko diran bildur naiz.»

Hitz hauek Iokinen lagun batek garai hartan esandakoak dira.

Nahiz eta zabalkunde kanpaina aurrera eraman, euskaldunek nahiko motel zirauten ordaintzeko orduan, adizkariaren dirukutxa geroago eta hustuagoa gelditzen zelarik. Ondoko ereduak adierazgarri xamarrak ditugu:

Mexikora bialtzen zituen hogetalau aleetatik bi bakarrik kobratzen ziren. *Txintxo ordaindu du* jartzen die Iokinek izen aldamenean harpidedun guztiak agertzen ziren zerrendako bi hoiei.

Beste batek, irabazpideak Filipinasetan euki arren bizitza New York-en egiten zuena, honela idazten dio Zaitegiri:

«He recibido durante los años pasados EUZKO GOGOIA y lo he

leído con interés y con admiración por todos Vds., por llevar a cabo una obra tan meritoria para el bien y el porvenir de Euskadi. Sin embargo, hasta hoy no les mandé ninguna ayuda económica, más bien por descuido que por otra cosa.»

Edo beste harena, Estatu Batuetako Boisetik igorritakoan:

«Dos líneas con giro de 30 \$ para pago de 3 años.»

*Zenbat diru galdu duzu zuk, Iokin, euskaragintzan?*

«Euki ahala eta irabazitako guztia euskararen alde xahutu nuen.»

Erantzun honetatik, jakina, ezina zaigu zenbaki zehatzik ateratzea. Eta ez dut uste sekulan atera ahal izango denik. Dena dela, zenbaki gehiago ere jar dezaket. Dakusagun, beraz.

Hain zuzen ere, Andimak Pariseko ordezkaria zen Erramun Agestari bidalitako batetan honela erantzuten dio, harpidesaria bostehundik mila frankotara zergaitik jaso duten galderari argia emanaz:

«Zergatik arpide saria iaso genuen galdetzen zenuen aurreragoko idazkian. Ona emen kontuak argi ta garbi:

Aldizkariaren zenbaki bakoitza 150 franko kostatzen zaigu, beraz

Urteko Sei aldizkariak . . . . . 900 franko.

Korrio ta beste zerak . . . . . 200 »

Beraz, guri kostatzen zaigu . . . . . 1.100 »

Ez da asko 1.000 franko, alaere guk ez daukagu bat ere irabazirik, galtzea baizik. Argi ikusi dezakezunez urteko 500 franko lotsagarria zan, eta guretzat kaltegarria.»<sup>1</sup>

Aldizkariaren prezioak hauexek ziren, 1952.an, bataz bestekoa egi-tearren:

Frantzian urteko 500 franko, diru-hartzailea Peli Irizar zelarik.

Espanian urteko 60 pezeta, diru-hartzailea Iokinen ama zelarik.

Argentinan urteko 150 peso, diru-hartzailea Ander-Irujo zelarik.

Venezuelan urteko 33 bolibar, diru-hartzailea Andoni Arozena zelarik.

Eta gainerako nazioetan 10 \$ Guatemalako EUZKO GOGOA-ren helbidera bidali behar zirelarik.

(1) 1954.ko Maiatzaren 26.koan.

1954.an, berriz, «Españi ta menderrietan 60 laurleko. Frantzi ta menderrietan 1.000 libera. Amerika ta beste lurraldeetan 10 \$.»

Iokinek behinola esandakoari jarraiki Guatemalako aroan EUZKO GOGOĀ-k 500 ale botatzen zituen. Hauetatik 400 harpidedunentzat izaten ziren. Andima iristean harpidedunen artean garbiketa bat egiten du, ordaintzen ez zutenak fitxategitik ateratzen. Hirurogei eta bat izen kendu zituen zerrendatik, Ipar Amerika, Mexiko eta Venezuelakoak gehienak.

Ondorengo laukian aldizkariaren harpidedunak laterriz eta kopuruz nola banatzen ziren azaltzen dut. Zaitegiren paperetatik ere jaso ditut oharrak:

NON	ZENBAT	OHARRA
<b>EUZKADIN</b>		
Araba .....	2	—
Bizkaia .....	70	—
Gipuzkoa .....	76	—
Nafarroa .....	8	—
Laburdi .....	24	—
	<hr/>	
	180	
<b>ESPAINIAN</b>		
Errioxa .....	3	—
Oska .....	2	—
Kordoba .....	2	—
Kastellon .....	1	—
Madrid .....	1	—
Salamanka .....	1	—
	<hr/>	
	10	
<b>EUROPAN</b>		
Frantzia .....	27	—
Inglatera .....	4	Batek ordaintzen du
Irlanda .....	1	—
Italia .....	5	Ez dute ordaintzen
Alemania ... ..	2	Ez dute ordaintzen
Txekoslovakia .....	1	—
Noruega .....	1	—
	<hr/>	
	41	10.ek ez dute ordaintzen

## AMERIKETAN

Argentina .....	19	Ez dute ordaintzen
Kolonia .....	5	—
Kosta Rika .....	1	—
Txile .....	6	Ez dute ordaintzen
Kuba .....	6	—
Guatemala .....	14	5.ek ordaintzen dute
Mexiko .....	10	—
Panama .....	2	—
Peru .....	5	—
Uruguay .....	6	Ez dute ordaintzen
Venezuela .....	7	3.k ordaintzen dute
Ipar Amerika .....	25	15.ek ordaintzen dute
Filipinas .....	2	—
	108	54.k ez dute ordaintzen
DANETARA .....	339	64.k ez dute ordaintzen

Zenbaki hauetatik atera dezakegunez Europa eta Ameriketan zuen Zaitetik arazorik larriena. Kopuru guztiaren 18,8%.a da ordaintzen ez zuena. Europatik, berriz, 24,4%.a zen kobratzeko gelditzen zena eta Ameriketan ez zuen Iokinek erdia gehiagorik eskuratzen.

Gehien harri gaitzakeen eredia Guatemalako da. Nahiz eta aldizkaria bertan atera eta harpidedunak Zaitegiren ondoan bizimodua eraman, 35%.ak bakarrik betetzen zuen ordain beharra.

Honek eta baita irarkolaren atzerapena gaindiezinak ere EUZKO GO-GOA-ren argitarapena Mexikon egitea pentsatzera bultzatzen zuten arrasatearra. Ez zen gutxiagorako! Nolanahi ere, aldaketa ez zen asmo iza-tetik igaro.

Atzerapena nolabait arintzeko bi irarkolatara bialtzen ditu lanak. Baten jabea «*euskaldun motza*» —Iokinen hitzak erabiltzen ditut— ei zen eta, dirudienez, ez zuen aurrerapen haundirik lortu, zuzenketak egi-teak buruhauste aski ekartzen baitzion.

## ETXE ALDAKETA

Hauxe zuen titulua Guatemalan aterako aldizkariaren azken alearen atarikoak. 1955.eko Maiatza-Abenduaren iekian etxe-aldaketaren arrazoiak ematen zituen Andimak atal horretan. Bide batez, sei urteetako historia txikia bezain ederraren laburpena azaltzen zuen, adierazgarriak dirrelako hemen jartzeke utzi nahi ez ditudan hitz hauetaz:

«Zer egin du, ordea, gure aldizkariak bide ortan? Bildumari gain-begiratu bat eman besterik ez daukagu zer egin duan ikusteko. Lenik eta bein euskerari inolako esirik iarri ez. Ez du esparru extuetan erabilli aberri izkera; orain arte amestu ere ezin zituen zabal-uneak iriki dizkio eta euskerak ederkizki erakutsi du zabalune ez-oitu orietatik edonungo izkerak bezin txairo ibilli zitekela. Lan zoragarri ortarako euskal-urregin argienak bildu dira. Luma bikaiñenak antxe ari izan zaizkigu euskeraren barne-ondasunak azaleratzen eta bidena-bar gaitasunak nabarmentzen.

Irurogeitamar urregin batu ditu aldizkariak bere orrialdeetan. Nungo beste aldizkarik alkartu ditu ainbeste euskal idazle? Orain arte, behintzat, guk dakigula, batek ere ez. Eta gerorako ere, lurralde ontan agertzen dan azken banakoan beren euskal-maitasunaren neurria erakutsi nai dute idazle azkarrok. Olerti saillean, gure batzaldian sarituak izan ziran olerkari goitarren poemak agertzen ditugu. Sari bakarra BIZI NAI Mitxelena-tar Salbatore olerkariaren poemak eraman zun; oso osorik irakur zenezakete orrialde oietan. Dedu-aipua Etxaniz, Onaindia eta Aurraitz'ek ukan zuten. Oien poemak ere, guziak izan ez arren, geienak beintzat ementxe arkituko dituzute. Benetako antologi zoragarria inoiz gutxitan



Zaitegui no olvida jamás Mondragón, pueblo que le vio nacer el 26 de julio de 1906 y donde residió hasta los catorce años, que es cuando ingresa en el Convento de Jesuitas de Durango. Sale de la península a los veintinueve, para no volver hasta justo cumplir el medio siglo. Precisamente, ese día reunió en un restaurante mondragonés a familiares y amigos a los que no había visto en años. Zaitegui es para entonces una verdadera institución dentro del mundo cultural vasco, principalmente por la labor que viene desarrollando en favor de la literatura euskérica a través de su revista «Euzko Gogoa».

Vuelve a su patria chica con la intención de establecerse en ella definitivamente, pero la situación política del momento le hace cambiar de idea. Y se dirige a Biarritz, donde encontrará un ambiente más adecuado a sus intenciones, que no son otras que continuar con la tarea divulgadora —sea por el medio que sea— de todo lo que signifique base cultural para nuestro Pueblo.

En la fotografía puede apreciarse a Iokin, que tiene a su derecha a su madre —Francisca— y a su izquierda al buen amigo —y tantas veces consejero— Nemesio Echániz.



euskeraz ikus ditekena. Ar bezate olerkari maiteek eskerro-  
nik beroena. Elerti-sailla, or ikusiko duzute zeñen aberats  
datorren. Iakintza-sailla ere gure maisu aundien argitasunez  
gaiñezka datorkigu. Antzerti-saillan LUR IKARA euskeraz  
egin dan antzerti ederrena bearbada, argitaratzen dugu. Ira-  
kurleek erabakiko dute.

Orra EUZKO GOGOIA-k gure gizaldiari egiten dion opari ede-  
rra.

Agur luze bat ar beza Guatemala'k. Euskerak zor andia egin  
du lurralde eder onekin, aberrian arnasestuka, itomenean zeg-  
on bitartean, atzerriko egurats ederra eskeñi diolako.

Agur zuei ere, irakurleak, agur laburra ordea, gure aldizka-  
ria, ahal bezin usu, zuen artean izango baita berriz ere.

Axularrekin amaitzeko: *Orai bear dugu perrzatu; orai bear  
derauegu eskuei eragin*, eta ORAIN orri aurrerantzean ere  
sendoki eutsiko dio EUZKO GOGOIA-k euskera laztana irozo-  
tzeko.»

*Zergaitik hartu zenuen, Iokin, honarako erabakia?*

«Hona etortzeko asmotan nengoan. Ama bakarrik bizi zen  
eta honek pentsatzera behartzen ninduen. Amari idatzi nion  
behin baino gehiagotan asmoa jakineraziz. Baina amak ez zi-  
dan inoiz zuzen erantzun. Pablo Urrutiak, nere lehengusua,  
Jaime Kerexetarengana jo zuen ni hona etortzeak okerrik  
ekarriko ote zuen galdezka. Bere erantzuna «ezetz» izan  
zenez batbatean azaldu nintzen Arrasatera, Madritetik nen-  
torrelarik, amak ezer jakin barik. Nire amaren poza!»

Hauxe Zaitegiren erantzun soila. Erositako prezioan saldua. Dena  
dela, Iokinek sorterrira itzultzeko ba zuela beste ziorik uste dut. Eritzi  
bat besterik ez da. Baina Iokinen erabakia hobeto ulertu dut aldaketa  
honen ingurua aztertu ondoren. Begira dezagun:

1954.ko Abenduaren 21.ean honela idazten zion Andimak Labaien  
jaunari:

«Zuk diñostazuna (dio'ren ordeiz Bizkaiko diño sartzen ari  
gera Orixe'n aolkuz) beraxe ziñostan Nemesio'k ere, Labur-  
din argitara bear genukela gure aldizkaria, merkeago ta na-  
nagarriago dedin. Baiñan orrek ere, bere koxkak eta kezkek  
ditu. Zuzendariek, zuzendari oso izan oi nai dute geienetan,  
eta gureari ere orixe gertatzen zaio; ori alde batetik. Eta bes-  
tetik aldizkariaren nekeak iasoko litukenik nun arki? Zuk  
ondo dakizu aldizkari bat bear bezela eramatea zail xamarra  
dala, euskera utzeko aldizkaria batez ere, eta eramango lu-

kenak euskalzale gartsu ta kementsu bearko luke, bestela kito. Baita biotz zabala ere, idazle ez galtzeko. Euskal editorial aundi bat bear genuke mundu guzirako, irarkola ederrez ornitua. Ni ere ortan nago, baiñan orrelakorik ez dugu iri-txiko gure agintariengandik. Beste bide batzuk arkitu bear-ko genituke.»

Eskutitz berberean, zalantzarik geldi ez dedin —agian— zorrozki azpimarratuz, zerau aioen Zaitegik:

«Non argitarazi asmaketan aldirik ez dut lorrindu nai. Bizi ta ogibidea emen daukadan ezker, oraingoz emen argitarazi-ko dugu aldizkaria.»

Baiña aldizkariaren zorrak haunditzen zihoazen eta Iokinen egoera ekonomikoa —hainbeste bider aipatu dudan bezala— ez zion buruhauste besterik ekartzen. Harpidedunek nekez ordaintzen zuten. Gehienek Eusko Jaurlaritzari hilero horrenbeste ematen ari zitziola zuten aitzaki-maratila. Eta, nolabait, ez zitziaren arrazoirik falta. Begira; hauexek ziren Ameriketako nahiz Europako euskotarrek, bataz beste, ordaindu behar zituzten suskribapenak: Paris, Buenos Aires eta Mexikoko EUZKO DEYA; EUZKADI; HERRIA; EUSKO YAKINTZA, GERNIKA; EUSKO GAZTEDI, O.P.E.... Bestalde, elkarteetako suaro edo kuotak izaten xiren: Eusko Etxea, Euzko Alderdi Jeltzalea... Eta azkenik, gutxi baitlitzan, Euzko Jaurlaritzari ere lagundu behar zitziaren honen betebherrak arintzen joan ahal izateko.

Beraz, honexegaitik ei dator EUZKO GOGOIA Jaurlaritzaren babesean ateratzeko euskaldun askok sarri emandako aholkua. Eta, ene ustez, Iokinek babesa hori Jose Antonio Agirre lehendakariari eskatu zion. Baita honek, era erdi-ixil batez, agindu ere.

Zaitegi 1955.eko Hazilean iritsi zen Arrasatera eta EUZKO GOGOIA non argitaratu izan zen hemengo bere lehen kezka. Baina ez zuen Guatemala agindutako laguntza eskuratzen:

«Ezina danik oraindiño enizuke esan nai, baiña bai Guatemala'n argitaraatea eun bidar errezago zitaaigula emen baiño ta emengo ainitz ta agitz okerrean zirala gure lanari buruz. Oien esanetara makurtuaz etorri nintzan: zer egiteko? Ezta-ki, naiz ta inor baiño zoliago ari izan bai eliz-agintariekin, bai erriko nagusiekin»<sup>1</sup>.

Euzkadiko Gobernuak, Jose Antonio Agirrerri esker, aldizkariaren banako oso baten kostoa bere gain hartu zuen. Gainera, eta lehendaka-

(1) Andimari, 1956.ko Ekainaren 14.koan.

riaren esanetara, Ameriketako euskaldunen ordainez atera ei zuen beste ale bat. Bestalde, Iokinen buruan aspalditik zebilen «Euskal Idazleen Etxea»-ren asmoa aurrera atera ahal izateko Jaurlaritzak etxearen alo-gera ordaintzeko hilero honenbeste eskaini omen zion Zaitegiri.

Baina, nahiz eta laguntza hoiek euki, Iokinen lanak une txarrak eza- gutzen zituen, bere barneko egoera ere iluntzen zelarik. Eta Zaitegik Guatemalara itzuli nahi izan zuen, hemengo giroak ez ziola zama batere arintzen nabaritu zuenean. Irakur:

«Orain arte egin ditudan lanak, euskal lanak, alegia, auxe izan dute bide: dirutan nere buruaren iabe izaki, dirua erre al izan dizut, irabazpiderik ez, ordea. Lendakariarekin egon naiz: ioan diran Gabonilari, Ilbaltzari ta Otsailari dagozkien etxearen eraenarena ordain dizkit, baita 1956.gko bigarren iekiarena. Etxeak akura ordain-bearra bakarrik eztu. Epai- lari, Iorrailari ta Orrilari dagozkien etxearen eraenarena ordaindu nai omen dit ilabete ontan. Berak ere orixe diraust, ez itzultzeko Ameriketara, ez egiteko orrelako astakeririk»<sup>1</sup>.

Beraz, Zaitegiren hona etortzeak ba zuela amaren ondoan egotetik kanpoko beste helbururik, uste dut. Agirre lehendakariaren laguntza hori heriotzako orduan amaitu zen, Jesus Maria Leizaolak, haren jarraitzailea Jaurlaritzaren lehendakaritzan, horrelako kapituluetarako dirua aintzin- kontutik kendu ei zuen eta.

Nolanahi ere, eta esanda utzi dudan bezala, 1955.eko Hazilaren amaieran iritsi zen Iokin bere jaioterrira. Guatemalako kontu guztiak garbitu ondoren hirurogei mila dolar zekarren sakelean. Ez zen gutxi or- duko egunetarako eta, ziur asko, dolar hoiek erosotasuna eskainiko ziz- kiekeen edozein indianoren hildoa aukeratu balu. Baina Zaitegik ez zuen indianoren itxurarik ematen. Kixote izateko jaioa zen.

*Etxean zaude eta aldizkaria atera nahi duzu ostera. Baina ez dut uste hura gauzatzea erreza izango zitzaizunik...*

«Guatemalatik iristean EUZKO GOGOA ateratzeko asmoa ne- karren. Baina ez nenkien nora jotzen. Euskaltzain zen Arrue karlatarekin mintzatu nintzen eta Madrileko ministrari ba- tekin hitzegingo zuela agindu zidan.

Joxemiel Barandiaran eta beste zenbaitekin ere izan nuen ha- rremanik eta hasteko esan zidaten. Giro baikor hau ikusirik aleko gutxienez 2.500 ieki ateratzea erabaki nuen. Dena dela, laster hasi ziren «bainak».

(1) Andimari, 1957.ko Abuztuaren 8.koan.

Bilboko gotzaiarekin, Gurgide zen orduan, egon nintzen bi bider. Eskabidea eraman nion aldizkaria atera ahal izateko baimena eman liezaidan.

Aita Arriola ondarrutarrari erakutsi nion aurretik idazkia. *Hau irakurriz gero ezin du ezetzik eman baina ezetz esango dizu* izan ziren nere lagun horren hitzak. Baita honela gertatu ere. Agintarien esku ei zegoen aldizkariak atera ahal izatea eta eliz-gizon haundiok ezer ezin omen zuten horretan.

Hemengo fruitua zein zen ikusirik Salamankara jo nuen, Tovar jaunarekin hitzegiteko. Larramendi irakas-aulkiaren babesean ele-eder gehigarri bezala edo eman ote litekenentz ikusteko. Tovar-ek Madrilera bialdu ninduen harrera ezin hobea egin ondoren. Nahiz eta bere erreferentzia eta Aita Arriolari Bilboko alargun haundiki batek emandako txartela sarbide bezala eraman hitzak hitz gelditu ziren.

Zazpi hilabete itxoegiten emanda gero aldizkariaren argitarapena Baionara eramatea erabaki nuen»<sup>1</sup>.

*Gogorik den tokietan aldaparik ez* zioen Iokinek aro berri honen lehen alearen atarikoan. Eta eredia eman nahi izan balu bezala EUZKO GOGOAREN bersorketari ekin dio 1956.ko udan, aldizkaria Baionako «Inprimerie Darracq» izeneko irarkolan, ateratzen dutelarik. Egitamuz, aurreko batetan jarri dudana bezala, sakelerako neurrikoa zen.

Baina ez da 2.500 aleak ateratzen ausartzen. Gehiegitxoa izango zelakoan mila ieki kaleratzen du. Noski, zabalkunde egin beharrean aurkitzen da berriro eta hasieran ez zaio hain gaizki joaten. Aldizkariak leku on bat zeukan irabazita bere tankerakoen artean eta honek idazle eta irakurle askoren atek idekitzen dizkio.

(1) Iokinek Miarritzen hartzen du etxea. Neskame bezala Parisen zegoen Pelikene Arrese lemoarra joan zitzaion, Andoni Urrestarazuren eskabidea onartu ondoren. Pelikenek esan digunez, hauxe zen-gutxi gora behera- Iokinek Miarritzen zerraman bizimodua: goizeko 8.etan jaiki; 9.etan Meza ematen zuen; etxeratzean egunkaria zekarren eta gosaldu ondoren irakurraldi bat egiten zuen. Jarraian, lanean aritzen zen bazkaldu arte. Bazkalostean, egunero, sei-jokoaldi egiten zuten Iokinek eta Pelikenek briskaka. Larunbat eta igandeetan Manu Sotaren etxeko aroma etorri ohi zitzaion partidana parte hartzeko.

Arratsaldeko 2 1/2.etan siesta apur bat egin eta ostera lanera afaldu arte. Afalostetan ere jarraituko zuen bere idazki artean.

Afaltzera sarri Villa Izarra-ra joaten ziren, Arrasateko seme den Ander Barrutiarengana, Hantxe ere, Peru Ajuria lagun zutelarik, briskan arituko ziren, zentimoka, Bizkaia-Gipuzkoa Txapelketa antolatzen zutelarik: Ander-Iokin, Pelikene-Peruren kontra.

Bestalde, ia egunero etortzen zitzaion norbait bazkaltzera nahiz afaltzera Iokini. Eta hau poztu egiten ei zen gonbidaturik eukitzean. Baita Iokinen ama ere egon zen etxe hartan denboraldi batzu emanez. Pelikeneren esanetara noalarik, beti hasarre ei zebiltzan ama-semea, «biak oso harroak, handikiak» baitziren.

Argitaratu orduko Iokinek berak ehun baino harpidedun berri gehiago egin ditu. Hego Euzkadin zeuzkan ordezkariak ere ekintza honetan saiatu ziren eta laster zenbaki haundiagoa lortu zuten Gutemalako baino. Zenbat?

\* \* \*

Zaitegiren esanetara noalarik, bigarren etapa honetan ale bakoitzeko 1.000 ieki ateratzen zituen. Beraz, Guatemalan izandako harpidedunen kopurua gehitu behar izan zitzaioala dirudi, bestela ez baitzitekeen lojiko izango hainbeste ateratzea, aldizkariaren banaketa, gehien batez, ixilpean egiten baitzen.

Datu batzu aurkitu ditut eta, nahiz eta zuzenenak direnik ez jakin, ideia bat ematen dutela deritzat eta honek bultzatu nau ontzat ematera. Hauei jarraiki, 874 izango ziren harpidedunak honela banatzen zirelarik:

NON	ZENBAT	OHARRA
EUZKADIN		
Araba . . . . .	14	
Bizkaia . . . . .	167	
Gipuzkoa . . . . .	297	Arrasaten 26
Nafarroa . . . . .	24	
Iparraldean . . . . .	52	Gehienak herbesteratuta.
	554	
ESPAINIAN . . . . .	21	
EUROPAN eta		
AMERIKETAN . . . . .	299	Gehienak, Hego Ameriketan. Gero: Suiza, Polonia, Suezia, Portugal, Noruega, Madagaskar, Kanada, Txekoslovakia, Austria, Belgika, Australia, Alemania, Estatu Batuak, Ingalterra, Italia, Irlanda, Japon...
DANETARA . . . . .	874	

Guatemalako harpidudenei buruz egindako laukiaz alderatuz, 535 izen gehiago aurki ditzakegu zerrenda berri honetan. Izen hauen artean ondoko hauek dauzkagu: Harvard, Columbia, Stanford, Idaho eta Oregon Unibertsitateetako Liburutegiak; New York-eko Liburutegi Publi-

koa; Eskoziako St. Andrews, Austriako Dozent, Italiako Bolonia eta Pragako Unibertsitateak; Pariseko «Estat Catalá»; Bresteko «Jeune Bretagne»; Salamankako Unibertsitatea; Italiako «Corriere del Libro»; Bizkaiko Diputazioa...

Denok ordaintzen al zuten? Hori beste lelo bat da eta datu zehatzik ezin eman. Dena dela, aro honen aleetan sarri irakur ditzakegun oharretatik, kobratu orduan Guatemalako hutsak berdinak ematen zirela iger daiteke.

Alerik gehienak muga pasatu behar zituztenez gero —postaz nahiz gaueko lanez— ez zen gauza ziurra zenbaki guztiak helbide zuzenera iristea. Dozenaka konta daitezke Zaitegik jasotako eskutitzak irakurleen kexa-oharpenez, aleak beren eskuetara ez heltzeagatik. Suskripzioa ez bazegoen aurretik ordainduta Zaitegik galdu egiten zuen ez ailegatutako ale horri zegokiona. Begira Zaitegik idatzitakoa:

«Aldizkaria bera arpededunek ez tute ordaintzen: 1.500 babilira eta guziak ordaindu, irarkolara doidoi ordaindu al izan-go lukete; obeki esan, naiz ta guziek ordaindu galdu egin bear. Dagoneko, zortzireundik gora edatzen ditut eta uda ontan beste gorakada bat egingo dugu, nik uste»<sup>1</sup>.

Ikusi ahal izan dugunez, EUZKO GOGOAREN tiradak haundiagoak izaten ziren harpededunen kopurua baino. 1979.ko Apirilaren 2.an Arrasateko bere etxea erre zitzaion Iokini. Suhiltzaile batzuen laguntzaz liburu mordoxka atera ahal izan nuen Udaletxeko behetara eraman genituelarik. Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekaren arduradun den Jose Antonio Arana Martija laguna deitu nuen liburu haiekin zer egin litekeen erabakitzeko. Jose Antonio bera eta Rikardo Badiola etorri ziren handik egun pare batetara furgoneta baten bidez liburuak Euskaltzaindiaren al-mazenetara eramateko. Baina hau gertatu aurretik Jose Antonio Aranak ba zuen harremanik Zaitegirekin. Hain zuzen ere, Sebero Altuberi egin nahi zitzaion mendeurrenaren lehen urratsak eman ahal izateko, Donostiako Diputazioan izan genuen bilera bat 1979.ko Otsailaren 2.an. Bertan Zaitegiren gaixotasunaz hitzegiteko aukera izan nuen, bere liburu eta eskuizkribuetaz zer egin litekeen guztion artean erabaki ledin.

«Aurrera» jabetxean bazkaltzen ari ginelarik Jose Antoniok honela esan zidan: Goazen Arrasatera l'okinekin egoteko. Eta honela, Jose Antonio, Jose Mari Satrustegi eta hirurok Zaitegiren aurrean azaldu ginen.

Biziki pozik hartu gintuen Iokinek. Jose Mari Satrustegik proposamena egin zion: Etxean eta Baionan zeuzkan liburu eta eskuizkribu guztien klasifikapena egitea. Egin ondoren, salgai jar litezkeenak liburu-

(1) 1957.ko Uztailaren 2.an, Andimari.

-banatzaile bati uztea. Eta, azkenik, argitaratzeke gelditzen zitzaizkionak Euskaltzaindiak berak aterako lituzke.

Iokinek, Satrustegiren eskaintza neurtu ondoren, bere onarpena eman zuen, Euskaltzaindia zela bitartekorik egokiena iruditu baitzitaion. Klasifikapenaren arduradun bezala Jose Antonio Aranak ihardungo zuen. Eta laster hasi zen lanean. Hain zuzen ere, Otsailaren 26.an karta bat bidali zidan Aranak, PLATON-en eta EUZKO GOGOIA-ren bildumetako Arrasaten zeudenen zerrendaz. Kopia bat Iokinenzat zetorren.

Ondoko laukian EUZKO GOGOIA-ri dagozkion liburuak zeintzu izan ziren eta zenbat atera zen ikus daiteke:

	NOIZKOA	ZENBAT
1956		
	Ibeltza-Otsaila .....	83 ieki
	Epaila- Jorraila .....	54 »
	Orrila-Garagarrila .....	201 »
	Uztaila-Dagoenila .....	41 »
	Azila-Gabonila .....	20 »
		399
1957		
	Ibeltza-Otsaila .....	62 ieki
	Epaila- Jorraila .....	86 »
	Orrila-Garagarrila .....	35 »
	Uztaila-Dagoenila .....	90 »
	Iraila-Gabonila .....	84 »
		357
1958		
	Epaila- Jorraila .....	247 ieki
	Orrila-Dagoenila .....	18 »
	Iraila-Gabonila .....	13 »
		278
	DANETARA .....	1.034 ieki

Aleen kostoari buruz ezer gutxi esan daiteke. 1950.ko Iraila-Gabonilaren ale osoa Olabide zenari eskaini zitzaion, itxura aurrekoek baino lodiagoa zuelarik. Zenbaki honen kostoa mila dolar izan zen.

Ez du Zaitegik aldizkaria Gipuzkoa nahiz Bizkaira inongo eragozpenik gabe sartzeko asmoa baztertu. Zortzirehun baldin badira harpidedunak are gehiago egin daitekeela pentsatu du. EUZKO GOGOIA-ren bizi-tza jokoan dago eta ez du arriskurik nahi. Aldizkaria hondora ez dadin bitartekoak jarri nahi ditu eta, berak dioen legez,

«Prankotarren oin kiratspean ibili gabe»<sup>1</sup>.

Aldizkaria hegoaldean saldu nahi du.

Eskabidea Madrilgo agintariei egin zien Zaitegik erantzuna, luzaroz, ixilunea zelarik. Azkenik, Donostiako prentsa-arduradunekin mintzatu eizzen hauen bitartez zerbaiz lortuko zuelakoan baitzegoen. Eta honela izanzen baina erantzunak ez zuen Iokinengan bozkariarik sortu. Bi baldintza jartzen omen zizkioten aldizkaria muga pasatzen uzteko:

a.—EUZKO GOGOIA-ren izena aldatu, «sabindiar kutsua» omen zuen eta.

b.—Irarkolara baino lehenago erdaraz aurkeztu beharra Madrilgo agintariei.

Lehen baldintzari jaramonik eginez Iokinek EUSKAL GOGOIA izena aurkeztu zien. Baina bigarrenari proposamena ezina zela kontrajarri behar izan zion.

Espainiako gobernuaren ezetza jaso zuenean «Consejo Nacional de Prensa» delako elkartearen kide zen Mostaza jaunari zerau galdetzen zion arrasatearrak: Frantziako aldizkariet (Paris-Match, Les Jours de France e.a.) eskatzen ez zitzaiena ia zergaitik bai euskarazkoei. Galderak, jakina, ez zuen sekulan ihardespenik izan.

1959.an gaude. Lau urte eman ditu Euskal Herrian Iokinek Guatemala utzi zuenetik. Nazio hartako herritasuna zuenez gero eta egoera berdinean jarraitu ahal izateko Guatemalan bertan berriztatu behar zituela agiriak jakinarazi zioten. Guatemalako pasaporteia zeukan bitartean Espainiako agintariet paketan utziko zutela uste zuelako, Guatemalara abiatu zen, beraz, erdi-ixilean, bere egoera legezkatzen zuen batera hango lagunei bisitaldi bat egin nahian.

1959.ko Urrian egin zuen bidaia eta hara iritsi orduko nazionalitateia galdua zeukan. Baina bertako legegizon baten kakomako bihurritz bideagiriia atera ahal izan zuen. Haraino joan behar ondoren gaitz-erdi, ezperen, herritasuna galduz gero Guatemalan gelditu beharko baitzukeen berriro hartu ahal izateko.

(1) Andimari, 1957.ko Abenduaren 20.an.



Guatemalatik itzultzean itxaropentsu agertzen zaigu Zaitegi. Hango euskaldunen artean diru apur bat batu ahal izan du, harpidedun berriak ere egiten zituelarik. Bat bateko euforia honetan, EUZKO GOGOIA egunen batetan egunkaria bihurtuko dela esaten dio Andimari, lankide-buruza-gitza eskaintzen dion batera.

Baina aldizkariaren bidea geroago eta bihurriago egiten ari da. Betiko leloa: dirulaguntzarik eza. Lokinek ahalegin guztiak egiten ditu EUZKO GOGOIA-k Hegoaldean irakurle gehiago irabaz dezan. Mozkin guztietaz baliatzen da. «Gauezko lana» beharrezko zuen hemengo aldean irakurleago ugaltzeko eta bide honetatik ere ibili zen. Laguntzaile batzu izan zituen mugausleek igarotakoa hartu eta irakurleen artean banatzeko. Antonio Maria Labaien, Yon Etxaide, Jaime Kerexeta... «sare sekretu» haren izen batzu ditugu. Lan horrek bere arriskuak ba zituen, zer esanik ez! Baina ez zuen beste aukerarik Hegoaldean sarrera debekatua baitzeukan, gorago ikusi dugun bezala. Poliziak paketeak hartzen bazituen Iokinek ez zuen xemerik ikusten. Honela dio berak:

«Sartu ditut 250 kilo E.G.tan bestekaldera: arpidedunen bildumak osotu eta arpide sariak, zordunenak, alegia, irixten ditudan. Parregarria da gure erritarren iokabidea: artu nai lukete, baiña, ezer ordaindu bage»<sup>1</sup>.

Beste honetan ere kezka berdina darakusa:

«280 kilo sartu ditut gau-lanean dabiltzanen bitartez, kiloko 40 laurleko ordaindu bear ditut. Barnera sartuta gero Bizkai'koa ikusi dugu: emen ataratako zenbaki guztiak arpidedun batek eztitu artu. Madril'koen lana agerian dago: E.G. ito ta zapaldu nai dute. Zer dala-ta, eurak iakin bide dute. Aurrera iarraitu nai nuke, baina, diruaren auzia ariltzekorik ez da ageri gure artean, zoritxarrez»<sup>2</sup>.

Aldizkariaren azken taupadak dira 1960.koak. Apirilean eskutitz bat jasotzen du Zaitegik Arantzazutik. Bertan EUZKO GOGOIA hilda dagoenez gero harpidedunen zerrenda eskatzen diote. Iokinen erantzuna aldizkariaren azken alea bialtzea da, oraindik bizirik zirauela ikus lezaten.

Andimak, bitartean, Venezuelan jarraitzen zuen. IRRINTZI izeneko aldizkariaren sortzailetarikoa izan zen nazio hartan eta bertatik ere ematen zituen bere fruituak euskal alorrerako. Aldizkari hau ez zuen Zaitegik estimu haunditan, Andimaren kideen joera ez baitzuen garbi ikusten. Noizean behin, baina, ados zetorren hauekin eta baita honela

(1) Andimari, 1960.ko Apirilaren 11.koan.

(2) Andimari, 1960.ko Maiatzaren 15.koan.

jakinerazi ere, 1960.ko Maiatzaren 15.eko eskutitzean Andimari azaltzen dion bezala:

«Eskerrik asko egin bear dizuet, ala ere, IRRINTZI'koei, Villanueva'k E.G.ren alde egin duen lana dela-eta, egi-egia baitio. E.G.k ezin lezake iraun diru-ezagatik. Alare, inondik ez da ageri diru ori: urregoko zenbakia ere egina dut; nere us-te kaxkarrean lengoan baino ohea; bertan dator Shakespeare'n EKATXA Larrakoetxea'k euskeratua».

Hau idaztean ez zekien Iokinek aipatutako ale hori EUZKO GOGOAREN historiaren azkena zenik. Honela, bere sortzailearen bihotza erdi urraturik genuelarik, mututu egiten zen gerra ondorengo lehen euskal aldizkaria.

## «EUZKO-GOGOA»-ri BURUZ, SOLASEAN

Zaitegiren EUZKO GOGOA-ri buruz orainarte egin diren azterketa guztien artean Joseba Intxaustirena izango da, beharbada, gehien sakondu duena. JAKIN aldizkariaren 12 eta 13.gn aleetan, EUZKO GOGOA-ren LANKIDEAK eta HAMAR URTEKO LANA izeneko artikuluak argitarazi ziotuen.

Haietan esandakoa gehi litekeela iruditu zitzaidan eta, honexegaitik, Josebari zenbait galdera egin nizkion. Ondoko lerroetan doa elkar hizketa.

\* \* \*

*1949.an EUZKO GOGOA-ren (E.G.) sorkundea ematen da. Zernolako lotura dateke garai hartako Zaitegiren eta hogetamar urte lehenago Loiolan bizi izandako gaste euskaltzale haien artean?*

«JAKIN-en egindako azterketatik, ene ustez, argi geratu da hau: E.G. aldizkaria, asmoz eta lankidez, hogeitamar urte lehenagoko josulagun-talde haren kumea da. Idazlanak ere, lehenengo aleetan, maiz beren jesuita-ikasketen garaikoak ziren. Aita Goikoetxeak hala dio, behintzat, eta itxura guztia dute. Zaitegik bildu egiten omen zuen ikaskideen zenbait idazlan, eta, egokiera sortu zenean, kalerako bide bat eskaini zien haiei» .

*E.G. kaleratzean bide kultural berri bat ematen zaio euskaldunari. Abiapuntu hau aztertzean, zein da —zure eritziz— Iokinen asmoa: Euzkadi barman eta euskal diasporan sakabanaturik eta lo-ixil behartuan zeuden euskaltzaleak aldizkariaren inguruan biltzea, ala orduan hazten ari zen gaztedia Unibertsitate Euskaldunaren atarian jartzea?*

«Aldizkaria egitean, Zaitegiren asmoa espreski agertua izan zen. Bere helmuga jende sakabanatuaren lanak biltzea eta, gorputz batean, elkartua ematea izan zen. Baina bere aldizkariaren eginahalei Unibertsitatea ematen zien azken xedetzat. Horretarakoxe nahi zituen bildu, bai larriak eta baita luma gazte berriak ere. «Utopia» horren bihozkadak eragiten zion gizonari. 80.ko hamarkadatik begiraturik, benetan Kixote bat bezala ikusenez orduko Zaitegi ameslaria. Euskal Unibertsitate hori gaurregun ere hain urrun ikusten baldin badugu, euskarazkoarekin ari naiz hemen, garai haieran ez zegoen, noski, hurbilago.»

*Zaitegi jeltxide, Zaitegi abertzale, Zaitegi euskaltzale. Honatx, gure Herrian gutxitan eman den formularen hiru aldagarriak. Hiru nolakotasun hoiek biziki erabili zituen Iokinek E.G.-n, batzuen eta besteek haserrealdia sortera zuten dituelarik. Zer ordenatan jarriko zenituzke aldagarriak, heuren pisu espezifikoei dagokienez, E.G.-aren formulatan?*

«Hiru balio hoi ordena Zaitegirentzat hauxe zela esango nuke: euskaltzale, abertzale, jeltxide. Lehenengo, hura; eta haren zerbitzutan beste biak. Abertzaletasuna, seguru, euskararen defentsa zen, batez ere. Naziotasunaren gainerako balio guztien gainetik, eta erro-erroan, hizkuntza zegoen Zaitegirentzat. Ez zuen, dakidanez, horretaz teoria zabalik egin, baina, Euskal Herrira begira, hori horrelaxe ikusten zuen: Euskal Herriaren nortasun nazionala berezi-bereziki bere jatorrizko hizkuntzan mamitua dago. Geroago batzuren ezpainenetan gaiztotu ere egin den hitz batez esateko, Zaitegi hizkuntzaren «esentzialista» zen. Hala ere, esan beharra dago, Zaitegik ez zituen hiru balio haiek berez kontrajarriak ikusten, elkarren osagarri bezala baizik; baina abertzaletasunaren eta jeltxidetasunaren aurrean euskaltzale kritikoa zela uste dut. Hau da, euskaltzaletasunetik pizten zitzaion kritika ez zuen ixildu, zenbait abertzale eta jeltxideren aurrean. Beren euskaltzaletasun epela salatzen zien Iokinek. Iritzi horren frogak ezagunak dira, eta berehala bil litezke haren idazkietatik.»

*1955.ean Guatemalatik Miarritzera aldatzen du lanlekua Zaitegi-k, berarekin E.G.-ren egoitza dakarrelarik. Gizon haunditza dauka bere burua eta aldaketak Guatemalako goi-mailako bizimodua galarazten dio.*

*Atzean gelditzen dira Erdiameriketako nazio hartan egindako haizka urteko lanak. Bestalde, hantxe unte du bere lagunik minena, E.G.-aren zutaberik sendoenetakoa: Andima.*

*Bat batean, hango bere ogibidea bertan behera uzten duelarik, Euz-*

*kadiratzen da, hutsetik hasteko asmoz. Ez duzu erabaki honetan ixilpeko beste adierazpenik ikusten? Ez zuen Iokin beste inork bultzatuko —agintza bidez, esaterako— etxera ledin?*

«Ba dut susmorik alderdi jelkidekoek deitua ez ote zen etorri. Beharbada eta seguruenik, Eusko Gobernuak deituta izan zen, baina ez dut datu zehatzik. Hain zuzen, orduko da, gainera Pariseko Euskal Kongresua, eta aitzaki ederra zen etxez aldatzeko. Hogeitabost urte geroagoko ikuspidetik begiratuta une-uneke egokiera zen hura, urte huraxe baita gerrateondoko bihurtuenerik nabarrena: Euskaltzaindiaren biltzarra, klasikoen argitalpen berriak, EGAN-en indartzea, EUSKERA-ren berritzea, eta abar. Inork etortzeko esan baldin bazion, ez zebilen oker: mementorik onena zuen Zaitetik hemen lanean hasteko; baina horrek ez du esan nahi une ona eta erraza zenik, laster ikusiko zenaren arabera.»

*Zein da, zure ustez, E.G.-ren lorpenik haundiena?*

«E.-G.-aren lorpenik haundiena zera da: Herri euskaldun xumearen gainetik zegoen, eta dagoen, kultur aldizkaria osorik euskaraz ematea. Aldizkari hartatik Zaitetik egindakoa ez da gaur daukagunetik epaitu behar, haren aurretik eginda zeudenetatik baizik. Dakidenez, E.G. izan da kultur mundu unibertsala eta jaso osorik euskaraz ematen saiaturako lehen aldizkaria. 1950-60.ko urteetan euskal irakurle jaioberriak ginenontzat aldizkariaren zenbaki-agerpen bakoitza gertakari pozgarria zen. Askorentzat garai haietako gure euskal kultur bizipenik finena izaten zen E.G.: orrialde haietan aurkitzen genituen guretzat kasik mitikoak ziren izen sonatuak: «Orixe», Andima, Salbatore Mitxelena, Altube eta abar. Aldizkaria zetorkigun bakoitzean etxeago genituela sentitzen genuen. Aldizkari hura izan genuen gure eskola eta kontra-eskola: asko ikasi genuen handik, eta maitekiro ikasi ere, gerora aldizkari idazkera nagusitxoaren hizkuntz mugak salatzen joan ginenok ere. E.G.-rik gabe funtsezko zerbaiten falta izango genuke gaur gure baitan. Ni, behintzat, eskerronez beterik nago aurreko belaunaldi eta aldizkari harekin.»

*Eta —baldin bada— alderdirik herrenena?*

«Alderdirik herrenena? ... Hitz batean labur bilduko nuke E.G.-ren hutsunea: modernotasuna falta izan zitzaion aldizkariari. Baina, kontuz, ez naiz ari, esate baterako, klasiko haundiek beti izan ohi duten itxurazko zaharkidurarekin, hoiek betidaniko modernoak baitira. Ez. Platon-ek gisa askotako modernotasuna du, baina posible ere ba da horrelako

autoreetat modu ezmodernoz hitzegitea. Horrelako zerbait gertatu zitzaion E.G.-ko zenbait idazleri. Descartes, Kant, Hegel edo Marx ez ziren E.G.-ren mundukoak. Neoeskolastikatik hurbilegi agertzen da aldizkaria. Zientzia modernoek ere ez zuten aurkitu luma treberik.

Dena den, irekitako ildoak orduan lortu gabeko modernotasunera iristeko segida zabal eta handiago bat beharko zuen, eta 1956-64. etako zenbait aldizkari apalen eginahala izan zen hori; ondorengo jarraipena falta izan zaigu alor batzuetan, eta hutsune horren ondorenak sumatzen dira oraindik.

Mamiaren aldetik ez ezik, E.G.n erabiltzen zen euskara-moldean ikuten dut nik beste aje bat; bere osoan hartuta, hizkuntzari modernotasunak eskatzen dion zaulitasuna ez da aurkitzen, ene ustez, aldizkarian. Horregatixe etorri zen 1960-aren inguruko etena ere. Hala ere, orain —berriz ere— iturri haietara itzuli beharko genukeela uste dut, izan ere, idazle haiek baino dexente euskara gutxiago baitakigu gaur lanean gabiltzanok. Gaurko belaunaldi gazte-heldua pobregoa da, orohar, ordukoa baino, euskararen aldetik.»

*E.G.k bere inguran gizaldi berri bat sortu zuela zioen behinola aldizkariaren zuzendaritzak, Euskal Herriaren auzi-mauzi guztiak euskararen bitartez garbitu nahi zituen gizaldia, halebria.*

*Zer uler dezakegu. «Gizaldia»-z, E.G.-aren betebeharrak garrantzitsuenetako bat gerra aurreko eta ondorengo euskal idazleen artean zubi egitea baldin bazen?*

«Hitz horrekin, «gizaldia»-rekin halebria, zer esan nahi den jakin behar lehenengo, erantzuna eman aurretik. Nik ez dakit, benetan, belaunaldien arteko segida-legea ongi betetzen zuen ala ez, baina jende-multzo berri bat ere hasi zela han lanean, hori seguru da. Ez ziren denak berriak: Azkue, «Orixe», «Jautarkol»..., baina berriak ere han zeuden: Salbatore Mitxelena, Andima, Zaitegi bera eta abar. 1.936.an, gerraren eztandaekin lanean hastera zihoazenak E.G.n aurkitu zuten, 1.950.ean, beren plaza: San Martin, Etxaide, Mirande ... Gerra aurretik zerbait idatzita zutenek ere hartu zuten parte. Orohar, E.G, zuzendaritza eta beronekin bat zetorren giza-taldea, talde gisan proposamen praktiko berri batekin zetorrela uste dut. Alde horretatik, «Lizardi»-ren ametsa (*Baña nik izkuntza larrekoa...*) belaunaldi-talde baten eginkizun bezala eskaintzen du Zaitegik.»

*E.G.-ren 1955.eko epaila-iorrila-ren banakoan ANAI BERRI titulupean ongi etorria egiten zaio Donostian jaio berria zen EGAN aldizka-*

riari. «Danok bat euskeraren alderako» hitzez amaitzen dute atarikor emkogogotarrek. Egia borobila eta —duda izpirik ez— bihotzaren erditik ateratako nahia.

*Dena dela, ba dakite aldizkari berri horrek lehiaketa haundia egingo diona Guatemalan sortuari. Ez bakarrik irakurleagoari dagokionez, baita idazleen aldetik ere, baizik.*

*Zernolako harremanik izan zen E.G. eta EGAN eta- beranduxeago-plazaratutako beste aldizkari euskaldunen artean?*

«EGAN eta E.G.ren arteko harremanak nolakoak izan ziren? ... Zaitegiren aldetik bihotz zabala zegoela ez dut dudarik: oso gaizki ez banago, euskararen onetan izatekotan prest zegoen hura edozein kultur lehiaketa galtzeko ere. Eta gero, E.G. itzaltzean, arrazoin horrek balio izan zuela uste dut, Zaitegirengan. Bi aldizkariaren arteko harremanak nolakoak izan ziren jakiteko adina argibiderik ez dut. Bi aldizkariaren arteko eztabaida ezaguna da, JAKIN aldizkariaren 13.gn alean diodan bezala. Eztabaidaren azpian zeuden arrazoin historiko-kulturalak zeintzuk izan zitezkeen ez dut ikusi ahal izan garbi.»

*Urte haiek joan zaizkigu eta bizitzaren gurdiak aurrera darrai. Gau-  
rreguneko baldintza soziologiko eta politikoak kontutan izanez gero,  
justifikagarri izango al litzateke E.G. berri bar sortzea? Ala, aitzitik,  
garai konkretu bateko lore hilkorra izan al da aldizkari hura?*

«RIEV aldizkariaren antzekoa dela, uste dut, E.G.ren kasua ere. Bere moldaera hartan ematea, garaiz kanpo agertzea litzatekeela esango nuke. E.G-ren heriotzetik pasa dira hogeitau urte; handik hona euskarak bide haundi bat bete du: Ikastola, euskal prentsa, argitalpenak... Harez gero astekari finkoak izan ditugu, kultur aldizkariak ere bai.

E.G.-an gairik ezberdinenak agertzen dira: literatur sorretako lanak (olerki, ipuin.. .) Natur Zientziekin nahastuko zaizkizu eta abar. Gaur, ez dago zalantzarik, euskarak behar ditu kultur aldizkari berriak, baina gaien aldetik barruti jakinagoak beharko lituzkete eduki. Nik ez dakit izen harek gaurregun balioko lukeen; dena den, izanak, mamiak, beste gisan moldatua izan beharko lukeela uste dut.

## E.K.A.ren LEHENDAKARIA

Lehenengo Euskal Gobernuaren hogei urteak betetzen zirelarik, Pariseko «Palais Quai d'Orsay» deritzan hotelean Ludiko Euskal Batza Orokorra ospatu zen, 1956.ko Irailaren 23.tik 29 arte.

Batzar honetara alderdi politiko, sindikal eta gure kulturaren ordezkariak nabarmenetakoak azaldu ziren, barnekoak nahiz herbestean zihardutenak. Batzarraren jomuga Euzkadiren iragana, oraina eta etorkizuna aztertzea zen, Jose Antonio Agirrek Euskal Gobernuaren Ordezkaritzetara, zenbait elkartetara e.a bidalitako Arautegi Orokorrean irakur zitekeen bezala.

Lau sail eratu ziren Batzarraren Mahaia osatzeko: Politika, Sozial, eta Ekonomikoa, Kulturala eta Ludiko Euskaldunena. Sail bakoitzaren arduradunak Batzarrera agertuko ziren txostenak kontrolatu behar zituen. Kultur Saileko buru Xabier Landaburu izendatu zuten euskarazko arazoetan Iokin Zaitegi lagun zuelarik <sup>1</sup>.

Ez dut Batzarreko gorabeherarik aipatuko, ez baitator harira. Baina Kultur Sailean gertatutakoa eta bertatik sortu zena ezagutaraztea egoki dela deritzat, Iokinek parte zuzena hartu baitzuen.

Duda izpirik ez, Sail honen partaiderik garrantzitsuenak euskara izan zen. Xabier Landaburu eta Jose Azpiazu mahaiko buru zirelarik txostenegileek heurenak irakurri zituzten, euskaraz nahi erdaraz, itzultzailea Telesforo Monzon izanez. Euskararen Batasuna eta Ikastolak sortzea izan ziren punturik erabilienetakoak.

(1) Batzar honen gaineko xehetasunak 1980.ko Uztai-Abuztuaren MUGA aldizkarian aurki daitezke, Koldo San Sebastian-en artikuluan.





Del 23 al 29 de septiembre de 1956 se celebra en el Hotel Palais Quai d'Orsay de París el Primer Congreso Mundial Vasco, con motivo de cumplirse el vigésimo aniversario del Gobierno Vasco. Fruto de este Congreso es la Comisión de «Euskal Kulturaren Alde» (E.K.A.), grupo que debería organizar, dentro del cuadro general del fomento de la cultura vasca, y con carácter de prioridad, un programa efectivo para la salvación de la lengua vasca. Formaban parte de la Comisión: José Miguel Barandiarán, Jesús María Leizaola, Josu Solaún, Telesforo Monzón, Joseba Rezola y Manu Sota como vocales, Gonzalo Nárdiz tesorero, Andoni Urresarazu secretario y Iokin Zaitegui como presidente.

Mientras Zaitegui permaneció en Biarritz, las reuniones se celebraban en su domicilio para —a partir del año 1962— realizarlas en el de los Sota.

En la fotografía superior podemos ver a Iokin con Ramón Sota.

Hizlarien artean Iokin Zaitegi, Telesforo Monzon, Jesus Maria Leizaola, Txomin Peilen, Mendiola, Aranburu... jaunek hartu zuten parte.

Batzar honetan hartu zen erabakia ondokoa dugu. Erdaraz doa, egin zan bezala, kontraesana dirudien arren:

«Al considerar la situación crítica que la vida del euskera atraviesa en la propia Euzkadi, debida en parte a la desidia de quienes más interés debieran tener en conservarla, y, dándose cuenta de lo urgente de la preparación de un plan de defensa rapidísimo de nuestra lengua, la Sección Cultural recomienda la inmediata constitución de una Comisión que, reuniendo las iniciativas expuestas en este Congreso, organice dentro del cuadro general del fomento de la cultura vasca, con carácter de prioridad, un programa efectivo para la salvación de la lengua vasca. Esta Comisión, una vez formada, debe tener vida autónoma en razón exclusiva de su mayor eficacia».

Erabaki honen ondorio bezala «Euskal Kulturaren Alde» (E.K.A.) Batzordea sortuko da, urte bereko Hazilaren 30.ean.

Baina ez dezagun oraindik Batzarra utz, egun haietan Sorbonako Unibertsitatean Axular idazle haundia zenaren heriotzaren laugarren mendeurrena ospatzen ari zen. Bertara zenbait naziotako filologo eta euskalari azaldu zen eta, era berean, Kultur Sailekoek ere zuten parte hartu.

Euzkadiren izenean Zaitegi mintzatu zen, Axularen izakera eta honen GERO lan nagusia gai zituelarik. Era berean, On Jose Migel Barandiaran eta Piarres Lafitte kalonjea ere izan ziren hizlari, euskaldunen ordezkari bezala.

Egitarauan ziren ekintzetatik at Zaitegik ez zuen astia alperrik galdu nahi eta, bere aldetik, beste batzu ere eratu zituen, ondoko erduek darakusten legez:

«Euskal Kongresu Orokorrean ezagutu nuen Zaitegi. Ba zuen sei urte EUZKO GOGOAN-n idazten hasia nintzela. Euskadiko ordezkartizan izan zen Kultur Bilera batean, euskararen gaitasunaz eta landu beharraz hitzegin zigan eta mintzaldiaren ondotik, harekin eta Sorbonne'ko Possompes irakasle lapurtarrarekin eztabaida luze bat izan 'genuen; biologia ikertzaille hori, jakintza euskaraz egin zitekeela onartzera bildu genuen.»<sup>1</sup>

(1) Txomin Peilen.en hitzak.

Bestalde, zenbait lagunek adierazi didanez Batzar hau Euskal Idazleen Etxea-ren asmoa aurrera ateratzeko aprobetxatu zuen. Hain zuzen ere, idazlerekin ez ezik euskal gobernuren ordezkari batzuekin ere mintzatu zen ideia honetaz. Eta, dirudienez, plangintzari ekiteko hitz itxaropentsuak eman zizkioten. Gero gerokoak.

Gorago esanda gelditu den bezala, 1956.ko Hazilaren 30.ean, Jose Antonio Agirre lehendakariak deitutako gizonen artean, Baionan Eusko Jaurlaritzak daukan ordezkartzan eta Agirre jauna bertan buru zela, Euskal Kulturaren Alde batzordea behin-betiko eratu zen. Hauexek dira egun hartan Batzordean sartu zirenak: Iokin Zaitegi lehendakari bezala, Jose Migel Barandiaran, Jesus Maria Leizaola, Josu Solaun, Telesforo Monzon, Gonzalo Nardiz diruzaina bezala, Joseba Rezola, Manu Sota eta Andoni Urrestarazu «Umandi», idazkaria <sup>1</sup>.

Euskalgintzan ia beti gertatu den bezalaxe, kasu honetan ere diru-iturriak agortuak zeuden hasieratik. Irakurri, bestela, Iokinek Andimari esandakoa, 1957.ko Urtarrilaren 28.koan:

«...oraindik eunekorik eztu batzorde orrek. «Euskeraren aldeko dirutza» ere asmatu bear dugu, non-naiko euskaldunek lagun egin dezaten».

Batzordeak hilero bilera berezia egiten zuen. Lehenengo urteetan Miarrizteko Iokinen etxean eta hau berriro Guatemalara joan zenean Sota jaunaren etxean. Azkenik, bilera Eusko Jaurlaritzaren ordezkartzan bertan eratu ohi zen.

Nahiz eta bilerak hilero maiztasuna izan ez dirudi aurrerapen haundirik egiten zutenik. Honela dio Zaitegik Ibinagabeitiari bidalitako batetan, 1.957.ko Uztailaren 2.an:

«...ezer eztugu egin, ezta egingo ere Errezola'k lan aundi bat egin digu, bere asmoa azaltzeko; ots, aur-aldizkaria. Asmo ederra, benetan; nola, ordea burutu?»

Umeentzako aldizkari hau argitaratu ahal izateko zenbait ate jo zen baina, azkenik, PIN-PAN izenekoa, E.K.A.-ren babesetik kanpo atera zen.

Dena dela, Batzorde honek zenbait ekintza antolatu zuen. Hain zuzen ere, Euskal Ipuin lehiaketa bat ezagutzera eman zuen, lehen saria Jean Etchepare jaun gazteak irabazten zuelarik, MENDEKOSTE GEREZIAK ETA BESTE bere idaztiz.

Bestalde, 1960.an Bruxelasetan egiten zen «Izkelgitzaren Batzar»-era E.K.A.-k bere ordezkari bidali zuen. Era berean, 1959.ko udan hi-

(1) Azken honi zor dizkiot hemengo daturik gehienak.

tzaldi batzu antolatu zuen Baionako Euskal Erakustetxean, hiru egune-  
tan zehar <sup>1</sup>.

Batzordeak hainbat harreman izan zuen Munduan zeharko zenbait  
erakunde eta pertsonekin. Baionako Euskal Erakustetxea, Eskualdunen  
Biltzarra, Ikastaldea, Euskaltzaindia, Kardaberaz Bazkuna, Nevadako  
Unibertsitatea, Buenos Aires'eko «Laurak Bat» bazkuna, eredu bat dira  
zerrenda luze batetan.

E.K.A.k iraun zuen bitartean Batzordearen egipenik nagusia  
«Agirre Saria» irastea izan zen. Saria hiru urtetik hiru urtera emana  
izan zen, dirutza 1000 \$.ekoa zelarik. Euskaraz ongienik idatzitako eta  
argitaratutako idaztiari eman ohi zitzaion eta lehiaketa bost bider ospa-  
tu zen, ondoan doazen xehetasunek agertzen diguten legez:

1963.an argitaratutakoen artean, irabazlea Bitoriano Gandiagaren  
ELORRI idaztia izan zen. 1966.koen artean, Aita Santi Onaindiaren  
BERTSOLARIAK. 1969.an publikatutakoetatik Imanol Lekuonaren buru  
zelarik talde batek euskaratutako LITURJIA BERRIA aukeratu zen. 1972.  
koetatik «Orixe-ren» JAINKOAREN BILA izan zen saritua. Eta, azkenik,  
1975.an Jaime Kerexetaren ELIZ GURASO APOSTOLIKUAK hautatu zu-  
ten irabazle.

Azken liburu honi Zaitetik egin zion hitzaurrea.

«Euskal Kulturaren Alde» Batzordeak 1976.arte iraun zuen, hiru  
batzarkide hil eta beste hiru guztiz eri geratu zirenean.

(1) Hitzaldi hauetan Jauregiberri eta Malharin andereñoek, Dassance, Lafitte,  
Goienetxe, Labagerie, Narbaitz, Etxeberri-Antziart, Irigarai, Larzabal, Monzon... eus-  
kaltzaleek hartu zuten parte. Ihardunaldiko arratsalde batetan Eppherre Kalonjea-  
ren Euskaltzaindian sarrerako hitzaldia izan zen.

## EUSKAL IDAZLEEN ETXEA

Goiago aipatu dut Iokinen «Euskal Idazleen Etxea»-ren asmoa. Zer zen hau? Etxearen xedeak zeintzu ziren ezagut dezagun Iokinen beraren hitzak aldatzen ditut hona. Andimari azaltzen dio:

«Etxe honen egitekoak:

- 1) Euskal idazle alkartasuna sorterazi, idazle bakoitza, berari dagokion lanean ipintzeko.
- 2) Udako euskal ikastaroa ilabetez Arantzazu'n edo Loiola'n, edo onelako lekaidetxe batean, gogo-iardunak bailiran. Egitarau zabal zabal bat eginik dizut, izlari bakoitzak bere gaia azaldu dezan, euskal-ikastetxe nagusiaren asikin bezela-edo; ontarako erri-agintarien baimenik ezkenuke eskatuko.
- 3) Euskal-idaztiak antola ta alik eta geien argitarazi; ileko bi argitaraziko genituke, dirurik ba'genu.
- 4) Aldizkaria aurrera eraman.»

Jose Antonio Agirre eta Txomin Jakakortajarena izan omen ziren etxea idekitzera gehien bultzatu zutenak. Diruaren beldurrik ez zuela euki behar esan ei zioten Iokini, Argentinatik edo Venezuelatik etorriko zela eta. Bestalde, Jakakortajarenari andre aberats batek eskaini omen zion etxearen alderako dirua. Baina hiru urtetan zehar ibili behar izan zuen andre horrek senarrak utzitako ondare-auzia garbitu arte. Bitartean xahupiderik gehienak Iokinek ordaindu behar izan zituen.

Zabalkundea egiten hasi zen euskal idazleen artean zernolako giro aurkitzen zuen jakiteko.

«...Barda Zaitegiren ikusta ukan dut: zure ezagutza egin omen du Euskal Batzar Orokor handi hortan. Asmo ede-

rrerz beterik etorri zait, euskal idazleen etxe bat eraiki behar duela Baionan.. . baina diharua bildu behar hortarakotz...»<sup>1</sup>.

Ondoko hitzak Aita Lafitterrenak ditugu:

«Bere xedeak salatu zauzkitan. Nahi zuen hemen nunbait eraiki euskal idazlarientzat etxe nasai bat, gelaz, idaztegitz eta liburutegitz ongi hornitua. Euskal idazlariak hor elgarrekin biziko ziren anaitasunean, liburu berri eta aldizkari berri ateratzeko. Bainan ez zuen nehor ere atzeman komentu edo falansterio hortan sartu gogo zuenik»<sup>2</sup>.

Alfonso Irigoien euskaltzainak honela idazten du SORTERRIAREN ALDE bere liburuan:

«Arantzazun Euskaltzaleen Biltzarra egiten da. Arrakasta handia duenez beste txiki bat egin zen handik laster istiluak sortu zituena. Lehengoan izaniko batzuk ea Euskaltzaindiaren itzalpean edo egin ote zitekeen idazle elkargo bat eskatu zuten eta bilera bat egitea pentsatu zen. Orduan Zaitegi Euskal Herrira etorria zen eta hemendik ibili ondoan bere aldizkaria Baionan argitaratzea erabaki zuen eta jakin zuenean gu biltzekoak ginela elkargo hori bere inguruan bildurik kanpotik zuzentzea pentsatu zuen, hemen listak gordetzea arriskugarria izango zela esanik, eta han agertu zen»<sup>3</sup>.

(1) Jon Mirandek Txomin Peileni, 56-10-4.koan (MIRANDEREN IDAZLAN HAUTATUAK).

(2) 1979.ko Urriaren 24.koan.

(3) Aipatutako liburuan, 43gn. orrialdean.

## «BIDALIEN EGINAK»

Aurreragoko kapitulu batetan irakurri ahal izan dugunez BIDALIEN EGINAK du titulua Iokinek San Salvador-en gerturiko liburu batek. Hitzaurrea «Orixe»-rena daramalarik, liburuan Erdiameriketako Apaizgaitegi hartan emandako ikasgaiak bildu ditu Zaitegik.

Liburu honen lehen aipamena 1947.an ematen digu Zaitegik. Andimari bidalitako kutun batetan ordurarte gerturik zeuzkan idaztiak bialdu zizkion Iokinek Parisera, Andimak eritzia eman liezaion:

«Gerora, diru apurtxo bat daukadanean BIDALIEN EGINAK bidaltzeko asmotan nagokizu, or argitara dezazun: aldakiak argi ta garbi daude. Eladerazko ta eberkerazko eltzak ere bear dituzu irarkolan ortarako. Ene ustez, or obe litzake Mexiko'n baino»<sup>1</sup>.

Urteak eman eta Labaienekin jartzen da harremanetan liburua «Itxaropena» argitaldarian ateratzeko. 1953.ko hasieran igortzen dio Zaitegik orijinala irarkolako gorabeherak tolosarraren esku uzten dituelarik. Irarkolari ordaindu ahal izateko zenbait dolarretako aurrerapena ere egiten dio Zaitegik. Liburua argitaratzen zen barrutian bertan atera behar zen eliz-baimena eta hau ahalik eta lasterren erdiesteko Iokinen hango artzapezpikuak Gipuzkoako gotzaiaren ordezkariari idatzi zion delako «Nihil Obstat» horren eske.

Bitartean, EUZKO GOGOIA-ren bitartez azaltzen ditu noizean behin idazkiaren atalik nagusienak.

1954.ko Otsailaren 4.an aginduak ematen dizkio arrasatearrak tolosarrari.

(1) 1947.ko Uztailaren 6.koan.

«BIDALIEN EGINAK: 1.000 ieki agindu itzazu: paper obeaz naiz zertxobait geiago io. RR gangarduna, al balitz, obe: bokal-artean bakarrik, r itzaren azken elatz gertatzen danean ez, ezta konsonante artean ere, alegia. Adibidez. *ba-kar*, *artitz* ta onela. Idaztiaren neurriak ez al lirake obe izango 18 X 24 1/2? Zuk ikus. Idaztiaren azkenean, aurrenik, 1) erabilitako idaztien zerrenda, gero 2) euskal iztegiñoa ta azkenik 3) gaiak sailka iarriko nuke, edo index materiarum dalakoa. Aurreneko biak, idaztien zerrenda ta iztegiñoa, neronek igorriko dizkitzut: gaiak sailka praileren batek egin nai ba'lu, obe; ortarako, baiña, argitarazi ondoren egin bear, gai bakoitzari dagokion orrialdea izendatze-ko. Arrezkero, aurkeztu ezazu irarkolara len-bai-len, salgai iartzeko. Salketa ta zabalkundea Garmendia'k bere gain artuko ba'lu, ederki baino ederkiago legoke».

1955.eko hasieran kaleratuko diote liburuia Iokini. Eliz-baimen osoa euki arren agintariena falta zaio. Liburuak ez darama «pie de imprenta» delakoa eta arrazoi honengatik eragozpenik izan zuen sal-orduan.

Liburu honen aipamena egitean honela mintzatu zen Aita Iturria 1955.eko 5-6gn. EGAN aldizkarian:

«Zaitegi'k oraintsu liburu berri bat eman digu, bete-betea, sakona, euskeraz orain arte ia parekorik izan ez duan liburuia, mamiari bagagozkio beintzat: BIDALIEN EGINAK du izena. Liburu Santuetako ederrenetako bat du gaitzat. Baiña ezta liburu orren euskeratze utsa (ain zuzen ere, Olabide zanaren itzulpena dakar itzez-itze euskeratu bear duanean, noizean bein zerbait aldatuxea), goi-jakintzari emanak daudenak latinez «commentarium» deitzen dieten oietakoa bai-zik; Liburu Santu orren azalpena, esate baterako. Ta ja-jintzari dagokionez, bear dan bidez azaldua, au da, gerkera ta ebraikera ta aramaikera bera ere laguntzat artzen dituala, aldiz-aldiz beste izkuntzetara ere joaz gauzak bear bezela tajutzeko. Ta Liburu Santu orri buruz beste izkuntzetan bere aurretik idatzi diran azalpenen berri osoa ere badu. Itz gutxitan esanda, beste izkeratan agertzen diran bezelakoxe azalpena degu Zaitegiren au. Eztiola liburu onek Eskritura Santuetako jakintzari aurrerapenik emango? Eztula gauza berririk esaten?... Esan dutenak badira, ta egia izan-go da bearbada. Baiña... utikan olako gizonekin! Oien bidez ezta euskerak aurrera joko. Kemena bear zan gero euskeraz alako liburuia idazteko ta Zaitegi'k kemen ori izan du. Ta orri esker, ez besteai; besteak egiten dutena gutxiesten dabiltzan ajolakabeei.»





La fotografía está obtenida el 19 de diciembre de 1976, día en que Iokin fue nombrado Hijo Predilecto de Mondragón. En sesión pública celebrada en la mañana de ese día, la corporación mondragonesa adoptó —por unanimidad— el acuerdo del nombramiento, en razón a los méritos contraidos por Zaitegui en su lucha por la cultura vasca. Se tuvo en cuenta su labor como helenista, en la que demostró profundo conocimiento de los clásicos griegos: Platón, Sócrates, Eurípides...; la importancia de su obra poética: «Goldaketan» y «Berriz ere Goldaketan»; y el magnífico trabajo de entronque generacional realizado a través de la revista literaria «Euzko Gogo», evitando así para nuestra cultura una ruptura que pudo en aquel momento haberle sido mortal.

## «PLATON'ENKO ATARIAN»

Izen honetaz ematen zion hasiera Iokinek Greziako filosofo haundiaren idazlanen itzulpen-lasterkari. Lasterka ixil bezain lama. Epe motzerako saritugabea. Aurreko kapitulu batetan klasikoenganako Zaitegiren joeraz ohartu ahal izan gara. Loiolako urte haietatik zetorkion zaletasuna barnean zeraman sakonki erroturik, enborraren adaxkak eskal gizarteari beren osotasunean eskaini ahal izateko kanporatu nahian zebilelarik.

*Zer izan da Platonen lana euskaratzea?*, galdetzen nion behin Iokini <sup>1</sup>.

«Ba dakizu, lehen sarrera bezala PLATON'ENKO ATARIAN argitaratu nuela. Hura sarrera bezala. Eta gero, orain, ahal-egintzen ari naiz elkarrizketa bakoitza banan banan euskaratzen; euskaratzen eta argitaratzen, hain zuzen. Platon gizon handia zen. Askok dio aintzinako gizona dela; nere ustez, aintzinako, oraingo eta betiko gizona da.

Eta Platonen lana euskaratzean nere aberriari laguntzen ari natzaiola uste dut. Dakigun bezala, Euskal Herrian Neandertal gizona eta lehenago Homo Erectus agertzen da; geroxeago Homo Sapiens. Magdalenienise denboretan oraingo euskaldunaren izaera mamitu zen. Orain hirurogei eta hamabost mila urte gutxi gora behera. Eta ordutik hona euskalduna bizi izan da eta bizi da. Eta euskara ere hauxe da: bakarra. Eta hau zerbait da. Zu, eta orain arte iraun duen hizkerak ez al du iraungo gehiago? Ez uste ni gehiegizko baikorra naizenik. Alde onak eta txarrak ikusten ditut.

(1) 1976.ko Apirilaren 18-25.eko ZERUKO ARGIA-n.

Lotsagarria da, alde batetik, beren hizkeraren alde euskaldunek egin dutena. Gure Herria gauza askotan oso atzertua da. Dirua irabazten, hori bai, lehenengoa, baina ikasten eta ikaskizunak euskaraz emateko, orduan, ez gara inor. San Ignaziok izan zuen zerbait gizadi osoari esatekoa. Ez zekien erdararik errukarriak, baina, hala ere, erdaraz eman behar. Hori ez al da negargarria? Gero izan ditugu gure egun hauetan Unamuno, Pio Baroja... Hoiiek euskaraz egin izan balute, barruan zekarten garra euskaraz eman izan balute... Baina ez; erdaraz eman behar... Gure Herriaren zoritxarra! Herri bat sortu nahi dugunok, nahi eta nahi ez, zustarrak tinkotu eta indartu egin behar ditugu. Hainbeste gauza ditugu guk, euskaldunok, guregana oraindik iritsi ez direnak! Benetan euskaldunak bagara Herri bezala irauin behar dugu. Ni ez naiz politikari, baina gure lanak izan behar luke euskararen alde. Erantzuna luzetxo xamar izan bada ere, nahiko garbi gelditu dela uste dut. Platon euskaratzea nere aberriarendako lan bat, besterik ez da izan.»

*Zer edo nor da Platon I. Zaitegirentzat?*, jarraitzen nuen galde-tzen:

«Gaztetandik hasi ginen gu klasikoak ikasten. Beharrezkoak ziren gure ikasketetan. Eta heladeraz edo griegoz irakurri behar izan genituen filosofo guztiak: Homero, Pindar, Sofokles...

1946.an Guatemalan aurkitzen naiz eta Unibertsitateko irakasle bezala ihardun dut. Klasikoak ematen aritu nintzen Unibertsitate hartan. Eta lehen aipatu ditudan filosofo guz-tien teoriak eta gorabeherak irakasteko aukera izan nuen. Eta gauza batez ohartu nintzen: heladerazko idazleen artean ere alde handia dago, bata bestearengandik. Orduan planteatu nuen handik aurrera izanzen zen neure bidea: *Platonekin hasiko naiz*. Platon gizon handia zen eta ezagutu nahi nuen, ordurarte ez baitnuen ezagutzen. Platonek zer esan nahi zuen oraindik inork ez daki. Askok esan ohi du zer esan nahi zuen Platonek, bere esanahia zein den ez baitaki inork.

Honela Parisa eskatu nituen heladerazko testuak eta zehatz mehatz aztertu nituen. Eta era honetaz etorri zitzaidan euskaraz lanean hasteko egokiera, berriro euskaraz idazteko».

Hildo honetatik jarraituz eta itzulpenaren izugarriko lan neke-tsua hartzera zerk bultzatu zuen hobekiago ezagut dezagun, Iokinen txosten bat irakur dezakegu ondoko lerroetan 1973.ko Abenduaren

28.an Euskaltzaindiak Donostian izandako batzarrera azaldua. Osoa ematen dut:

«Nik neuk Euskaltzaindiaren azken batzarrotan entzun didudan txostenak azterketa-txosten zoragarritzat iritzi ditut geien bat: zorrotz, ximen, sakon eta iakingarri.

Nere txosten au ezta orrelakoa izango, apalagoa baizik. Enator inori ezer irakastera, deus eztakidala iakitera eldu bainintzen aspaldidanik eta egunero asmo orretara ikasten baitiardut.

Platon-en elkarrizketak euskeratzen ari naiz. Dagoneko argitarazteko gerturik dauzkat amabost elkarrizketa. Lenengo liburuan *Eutifron*, *Sokrate'ren Apologia*, *Kriton* eta *Jaidon* ematen ditut, nolarebait Sokrate-ren eriotzari buruz ari diranak, alegia. Bigarreanean, *Ifia Txikia* eta *Alkibiada*. Irugarreanean, *Karmida*, *Lake* eta *Lisi*. Laugarreanean, *Ifia Nagusia*, *Oturuntza* ta *Jaidor*. Boskarreanean, *Protagora*, *Gorgia* ta *Menon*, eta aurrerantzean ere Platon euskeratzen iarraitu nai nuke, buka badezat beinik-bein.

Zer dela-ta aukeratu dudan Platon galdetuko balit norbaitek, auxe erantzungo nioke: bearrak ortaratu ninduela, alegia. Guatemalako San Karlos Ikastola Nagusiak eladera irakasteko dei egin zidanean, eladerarik etzekitenei irakasteko zein idazle aukeratu? Gaztetan guk Esofo-ren alegiak itzultzen asi ginen. Etzitzaidan eder irizten Ikastola Nagusian Esofogandik asterik. Gogoan nituen Xenofonte eta Platon, Loiolan erabili nituen eladerazko idazleak. Unibertsidade bertan Filosofi-saila ere zenez gero, Platon egokiagotzat io nuen:

Paris-a eladerazko liburuak eskatu ta orrela asi nintzen Platon itzultzen. Egia esateko, Platon ezaguna nuen aldez aurretik, leen erantzun dudanez. Loiolan iru ilabeteko epea eman nion Platon itzultzeari: baina, oraindik Filosofi-kouretan erraza baino errazagoa zela argi ta garbi ikusi nuen, batez ere, Omer, Sofokel eta Zukidibe-ren eladeraren aldean.

Bederatzi urtetan edo Platon eta Sofokel itzultzen ari izan nintzen Guatemala-n: ordurako, SOFOKEL-EN ANTZERKIAK, lenengo liburua argitarazia nuen, Mexiko-n. Platon ezagunago ta laztanago egokitu zitzaidan: bertan asi nuen PLATON-ENEKO ATARIAN, eta Miarritze-n bukatu. Alabearrik nere burua Platon-en menpetik atera nuen, idazle oso itsaskorra baita, izan ere. Nere iritzia Platon-i buruz or daukatzute, beraz, PLATON-ENEKO ATARIAN, alegia. Labur esate-

ko: Platon, gizadiaren barnean izan diren lauzpabost filosofilarien arteko dugu, nik baino obeki dakizutenez.

Liburu arekin Platon-ena egina nuela uste izan nuen. Etorri zetorren euskal gazte mordoia Platon euskeratzen iarriko zela uste izan nuen ez-iakinean. Bai zera!

Gerora, bakarrean bakar, Platon euskeratzen ari izateko egokiera izan nuen Guatemalan.

Platon euskeratzeko eladera ta euskera iakin bear ditugu, nolabaiteko neurrian beinik-bein.

Menendez Pelayo-k dioenez, urte anditan eta oraindik ere erri askotan beinik-bein, erderaz irakurtzen diren Platon-en itzulpenak eladerarik etzekien Azkarate-k eginak izan ziren, frantsesetik itzuli ta kito. Egia osorik esateko, Platon eladeratik erderatzen asiak dira erdaldunak ere. Nik neuk eztut uste Azkarate-nik egin bear dugunik. Bada, izan ere, euskaldunen artean ainbeste eladera dakienik: baina, eztira oraindik ausartzen. Bein Krutwig-ek esan zidanez, Erkiaga-k Platon-en Parmenide elkarrizketa euskeraturik zuela. Etorri ta galdetu nion oni: erantzun ezezkoa eman zidan Erkiaga-k, Nola asi eladerarik iakiteke, eratziki midan. Azkarate-k burutu zuena egin gogo zukeen Krutwig-ek: ortan eta beste gauza askotan enintzen gure Krutwig-ekin irizkide gertatu, naiz-eta luzaroan ia egunero elkar ikusi, ta elkarrekin ari izan.

Eladerazkoa Frantziako Ikastola Nagusiek onartu eta *Gaillaume Budé* elkarteak argitarazia erabiltzen dut.

Ezta aski eladera iakitea: euskera ere iakin bear dugu iakin. Platon euskeratzeko. Euskeranto deritzan euskera mordoioa ezpaitut uste eder izanga litzatekenik. Zenbait lan irakurri dut damurik, euskeraz ain zuzen, eta oriek ulertzeko erdera nai ta nai ez iakin bear duzu, ta ez edonolako erdera, oso ikasia baizik. Ez aal dira bidea galduta ari? Baiezkoan nago.

Ta zer-nolako euskera ote darabilt Platon euskeratzekoan? Neuk dakidantxoa ta kito. Ezpaitaukagu oraindik guziontzat euskera batua daitekenik: ekinaren ekinez zerbaitetara el gaitetze, ori geure aukeran dago-ta.

Urliak nere euskera garbizaleegizat iotzen du; besteak eztu orrenbestekorik uste. Sandiak nere euskera alemantzat dauka; Berendiak, alderantziz, euskera iatorrenetzat du. Eztut uste ez bata ta ez bestea egia ditekunik. Bakanka egia ertz-ertzetan arkitu oi da, ez-ustekotan agertzen omen baita, Erakleitok dioenez. Alare, gutartean, atseginetan oilaskoei

gangarra monten ari izaten direnak badira izan ere, naiz-eta gero oilaskokirik iaten ez iakin. Belaunburuetaraino eltzen etzaizkidan txakurtxoan zaunkadak gora-beera, zakur zaunkatu-arren, aurreruntz io oi dut, sail berriak eta zailak urratuz.

Teknikazko itz gutxi darabil Platon-ek alabearrik: orrelakoetan daudenez daudenean uzten ditut geien bat eta orretan adierazi oi dut aien esan-naia.

Esanaldi laburra dadinetan erraz ematen da euskaraz, ez-baina esanaldia luzetan dabilenetan. Alare, egin-aalak egiten ditut esanaldi luzea ere dagoenez ematen, euskera geiegi biurritu gabe aal dadinean. Besterik ezinean, orrelakoetan bi, naiz iru esanalditan, naiz geiagotan eman bearra izaten dut, Platon-i aalik eta zeatzenik lotuta: frantsesez eta erderaz bezain zeatz, eta eskuarkiro zeatzago, naiz eta neuk esan. Argitarazi baino leen, nere adiskide iakitun batek onartua bear izango du nere buruari ezarri diodan neurriaren arabera, ortan *Guillaume Budé* elkartearen araudiari iarraiki. Erakusburuz, onatx Protagora euskeratu berriaren zenbait zati, labetik arako ogi erre berria, naiz surtatik arako saiesketa bezala.»

PLATON'ENKO ATARIAN liburua 1962.an kaleratu zen. Eliz-baimena askozaz lehenago lortuta ba zeukan ere, agintariena falta zitzaion Iokini salgai jarri ahal izateko. Baimen hau 1962.ko Otsailean eskuratu zuten, Iokin ostera Guatemalan aurkitzen zelarik. Madrilgo baimena lortzen Arrue euskaltzainak lagundu omen zion. Donostiako «Izarra» irarkolan atera zuen Zaitegik liburua.

Gogora ditzagun aurrerago batetan azaldu ditudan P. Lafitteren hitzak, SOPOKEL'EN ANTZERKIAK I liburuaaren kritika egitean:

«c'est gaspiller un talent qui serait mieux employé a eclai-  
rer les Basques on a les divertir sur themes plus proches  
ou plus captivants, quand meme ils seraient moins sublimes».

Urteak emanda, PLATON'ENKO ATARIAN liburuari hitzaurrea ezarri ziona Aita Lafitte izan zen. Eta aukera honetan ez zuen kalonjeak eritzi berbera erabili. Aldaketa nabaria izan da, PLATON'EN HIRUR ARPEGI deritzan titulupean irakur dezakegun bezala:

«Zaitegi adixkide jaun apezaren liburuari aintzin solasa ematekotan, batera gezurrik gabe erran nezakeen haren jakitate zabal-sakona, haren eskuara jori, nasai, ederra, haren ausartze harrigarria holako sail berri bati lotzeko; aitor neza-

keen eskuarak ez duela behin ere erabili orai artean hain ekai gora eta zailik, eta gutik uste izan dudela gure mintzaira on zitakeela kukulu hortarat eta hedadura hortarat heltzeko; nola ez erakuts sort-herriak Zaitegi jaunari dion zor handia eta zertako ez errepika: «Gora zu, adixkidea, eta denen partez, eskerrak milaka!»

Hamar orrialdetako eritzi sakona eskainita gero beste hitz hauetaz ematen dio bukaera aintzinsolasari:

«Zaitegi jaunaren lanak Platon'en alhor aabal joria zabalduko dautzu, irakurle maitea! Harek eskutik hartuko zaitu eta taulenez-taulen lagunduko; hemen laburzki, goratik eta hegaldaka bezala, doi-doia jastarazi dautzutan bazter xoragarria, harek zehar-nabar emanen dautzu begien aintzina, ez baitzaitu behin ere ahantziren bidatzale argi eta goxo horrekilako atsegina».

Eritzi-aldaketa honek Lafitterengana hurbilarazi ninduen hitzauzua zergaitik egin zion jakin nahian. Hona hemen bere ihardespena:

«Platon'ez askotan solastatu ginen eta iduritu zitzaion nik ere guti edo aski irakurri nuela filosofo zahar hori, eta horrela galde egin zautan zerbait idaz nezon, bere atariko aintzinsola edo hitz-aurretzat.

Gogotik egin nion, atsegin hartuko zuelakoan, bainan, zinez, ez nuen uste irakurlerik ukanen zuela.»

Dena dela, liburuak beste motako kritikak ere jaso zituen; agian, Lafittek SOPOKEL'EN ANTZERKIAK I liburuarentzat izan zuen hildo berberatik jarraiki. Esaterako, HERRIA aldizkarian «Irrintzina» izengoitúz izenpetua 1961.ko Otsailaren 1.ean agertu zena:

«Badakit gure mintzaira ikertzen duten jaun sabantek gustu hartuko dutela liburu hortan... eta arrasoinekin. Bainan gure etchealdetan bizi diren laborariek?... eskoletan diren haurrek?...

...Ageri den bezala, hobeago da bermatzea, liburu euskaldunen egiterat edo denek irakurtzen ahal duten zerbaitzen itzultzerat gure mintzairarat... Gero josta daiteke Platonekin!

Orhoit, Jaun eskualzaleak, Eskual Herrian ez direla denak hogoita bost urtheak artio eskoletan ibili! Nehor kolpatu gabe; hean zer diozuen ene idaietaz?»

Zaitegik berak erantzun zuen, aurrean irakurritako planteamenduari berea kontrajartzen ziolarik:

«...oraingoan eskola liburuak bear omen ditugu ta erria euskeraren alde berpiztu dezaketen liburuek: ni neu, orrelako irizpide estuak irakurrita asper-asperturik nago ta obeki katxikelen artean aztuta: euskera euskaldunen aotan eta gogoan ezarriko al dute, besteok porrot egin baitugu erabat. Gogoan ar bezate, ordea, Euskadi'n erri xea eta erri ikasia bear ditugula, euskerak izkera bezala iraun bear ba' du, gure aberri-euskera bezala, alegia» <sup>1</sup>.

Baina, orohar, Zaitegiren liburu honek sortzaile beraren beste bati ez egindako harrera ona jasoko du garaiko euskaltzale gehienengandik. Nonahitik iristen zaizkio Iokini kutunak zorionka, euskal komunikabi-deetan ere kritika ezin hobea eskaintzen diotelarik. Eredu gisa doaz ondokoak. Honela zioen Jose Azurmendik ARANZAZU aldizkarian, 1962.ko Irailean:

«Etzen gutxi liburu onen gainean entzunik nuena ikus nezan aurretik. Eta ez dut izkutatuko zein irritis eta gogo amorratuz espero izan dudan argitaraturik noiz eskuetaratuko. Bai entzundako guziengatik eta baita ere Platon beti delako Platon. Bere originaletan irakurtzeko gauza ez geranok pozik irakurtzen ditugu itzulpenak eta ari buruzko istudioak. Ta oraingoan, alako promesaz eta itxaropenez ematen zitzaigun liburuan, nola ateratzen ote zitzaigun gure Platon zaar beti berria? Ta ez dut izkutatuko ere poztu egin naizela ikustean.

Ekin dio ba ekin badio inork euskera gaitze-lanari, eta beste gusto ta eritzien jarraiki Greziako munduan murgildu zaigu Zaitegi. Bestelakoak aaztu gabe noski, Greziaren espiritu paregabeak kreaturiko frutuak eskeini dizkigu.

...Ikasi-min ezin-ase faboregarriak mindurik dagoenak (bai baidira alakoak ere oraindik) emen du liburu berri bat. Euskeraz oso gutxi egiten direnetakoa. Trinkoa, ez dotoreziarik sobera, gai interesgarriko, nekez egindako: ta esportzuz irakurtzeko. Ez da Zaitegi-k «nere asmoa»-n salatu dituen jakintsu-usteko alfer nagi aizeentzat.

...Beraz, arro senti diteke gure Zaitegi langille trebe porrokatua Platon gure artean presentatzen, aurkezten eta jendarteratzen leenengoa izan delako. Ta nai ta oi duen bezala egin duelako. Berak bakarrik daki zer kosta etzaion... 'Ezertarako eztanik ezta' —dio egilleak— eta irakurleak, begi bien gainean bekokia ta entelegua duen irakurleak laister ikas dezake liburu onen lezioa...»

(1) 1962.ko Irailaren 22.koan, Andimari.



Pariseko EUZKO DEYA aldizkariak ere egiten zuen bere zenbaki batetan liburu honen aipamena. Egilea Jesus Maria Leizaola zen, 1963. ko Maiatza-Ekainaren alean honela mintzo zitzaigularik:

«Dans l'ouvrage de Zaitegi, nous nous trouvons en présence d'un livre en euskera traitant de la philosophie pure. Son objet essentiel est de présenter la pensée du philosophe grec par rapport à celle des penseurs qui l'ont précédé et aux problèmes en face desquels il se trouvait. Naturellement, une partie de ses oeuvres, la POLITIQUE étant la plus largement utilisée et traduite par notre auteur: les fragments littéraires qu'il nous donne en langue basque occupent une quarantaine de pages. Mais il en est d'autres, dont il reprend le texte: la version du dialogue connu sous le titre HIPPIAS MENOR figurant dans son intégralité. Le titre INTRODUCTION À PLATON est donc parfaitement justifié.»

Koldo Mitxelena-renak dira jarraian doazen hitzak. ENCICLOPEDIA GENERAL ILUSTRADA DEL PAÍS VASCO bildumaren Literatura IV liburitik jasoak:

«Platon'en mirari arrigarria azaldu nai digu Zaitegi'k, onengan loratu baitzen bete betean Greziako filosofia. Ez, noski, aurrekorik izan etzuelako, bai ordea aieruz bezala besteren esamesen bidez ezagutzen ditugulako. Ain zuzen ere, aurreko oriez mintzatzen zaigu luzaro Zaitegi, Platon'en bizitzarekiko berri zeatza eman ondoren.

Sarri aski, eta eskertzekoa da ori, Platon'i berari utzi dio itza egilleak, era orretan ain merezi onez entzutetsua den idazlearen prosa euskal idazleak dasta dezan bitartekorik gabe. Eta, gaiñerakoaren gain, eraskin modura, PLATON GURE ARTEAN aurkeztu digu, ots, Platon'ek euskal literaturan izan duen oiantzuna. Urrutikoa da, noski, oiantzun ori, baiña ez ote ziren zear-bidez etorri Platon'en irakatsiak San Agustin batengana ere?

Egiñaalean saiatu zaigu emen Zaitegi euskera garbian Platon'en gogoetak aalik argien azaltzen. Alde orretatik, bestetan egotzi izan zaion ulerkaiztasunaren igesi, oztopo gogorrik gabe mintzatu zaigu Zaitegi, gaiaren sakonak adierraztasunari uzten dion neurrian. Goragarri da, nik uste, alde orretatik, euskal-irakurle nagiarri ezpaitzaio biderik eman bear are geiago nagitzeko eta ajolakabetzeko»<sup>1</sup>.

(1) EGAN aldizkarian idatzita dago aipamen hau.

Andimak ere jakinerazi dio bere ustea, arrasatearrari bialtzen dion kutunaren bidez:

«Euskerari eraiki diozun monumenturik aundiena eta ederrera auxe duzu eta bidenabar gure Ikastola Nagusirako oñarririk sendoenak iarri dituzu. Eztakit zer esango duten euskera-mordollo zaleak, baiña kostako zaie mordollokeri ta guzti, zurea bezelako lan bat euskeraz ontzea.» <sup>1</sup>.

Pariseko EUZKO DEYA-n ere, 1962.ko Hazila-Abenduaren alean, hauxe irakur zitekeen, artikulua anonimo batetan:

«Lana, ordea, zailla zeukan Zaitegi jaunak, baiña azkartasunez beterik bere yakitea ta euskal zaletasun aundiaz ongienik burutu digu liburu au, euskerari batez ere uzta ederretakoa eskeintzen.

Lan onezaz Zaitegi jauna gaurko euskal-idazle onenetakoa bezela agertzen da; lendik ere ba-zituen beste liburuak argitaratuta, baiña oraingo onetan agertzen da oso euskal idazle egin-egiña.

Pozaren pozez sarturik gaude liburu onen orrialdeetan barna; gure euskaltzaletasunak eraginda ta esker onez, onar bitza Zaitegi jaunak gure goresmen biozkorrenak.» <sup>2</sup>.

(1) 1963.ko Apirilaren 30.ean.

(2) Garai hartan EUZKO DEYA-n agerturiko izenpetugabeko artikulurik gehienak Andoni Urretarazu «Umandi»-k eginda ziren. Berari galdetu eta PLATON 'ENEKO ATARIAN liburuari egindako aipamen hau ere berak idatzi zuela aitortu digu.

## PLATON-en ELKAR HIZKETAK

Donostian irakurritako txostenean Zaitegik dioen legez, Platon euskaratzen jarriko zela gaztedia pentsatu bide zuen. Baina, tamalez, ez omen zuen bere arrastroa hartzeko prest egon litekeen inor aurkitu. Eta, beraz, ATARIKOAN-ez hasitako lanari jarraipena eman behar izan zion.

Platonen elkar hizketak hogeta bederatziz dira eta Zaitegik hamabost euskaratu ei zituen, gehienak Guatemalako bigarren etapan.

1975.ean argitaratu zuen lehen liburua, PLATON I titulupean. OTURUNTZA, PROTAGORA, eta MENON elkar hizketak zekartzan ale honek, ondorengoak bezala «Izarra» Irarkolan inprimatuta. Bere saketetik ordaindu zuen edizioa, mila ieki ateratzen zituelarik. Zenbat saldu?...

Iokinen etxea erretzean lehen zenbaki honen 807 ieki atera genituen. Beraz, nahiz eta ziurki ez jakin, kontua ateratzean ez dugu 193.ko baino erru haundiagorik egingo.

Zaitegik ba zuen, ene ustez, huts nabari bat, liburu-munduari dagokionez. Azaletik bakarrik planteatu zen liburuak saltzeko beharrezko den azpiegitura. Esan nahi dut, ez ziola sekulan garrantzirik eman liburu-banaketari eta honek zailatasunik frango ekarri zion. Idazlearen bete-beharrak, soil-soilik, nik uste, idaztea da eta banatzaileari utzi behar zaio liburua irakurlearen eskuetara hurbiltzea. Nork berea. Iokinek ez zuen hau bereizten eta Platon-enak, gutxienez, berak zabaldu nahi izan zituen, ondorioa txarragorik ezina zitzaiolarik. Iokini berari jakinerazi nion nere eritzi hau, honela erantzun zidalarik:

«Baionan eta Arrasaten daukat nik nere liburutegia. Honetatik kanpo oraindik salgai dauden EUZKO GOGOAREN bildumak ere. Ni ez naiz sekulan saltzaile ona izan. Alderantziz,

irabazpideetan nahiko gaizki mugitu naizela uste dut. Gaurregun EUZKO GOGOIA-ren bildumarik ez da dendetan aurkitzen eta neri ez zait kaleratzea otu»<sup>1</sup>.

PLATON I ateratzean ahalik eta lasterren 600 ale saltzea jarri zuen Zaitetik helburu bezala, zenbaki hori eginez gero aukera izango baitlurke bigarren tomo bat ateratzeko. Baina, gorago ikusi ahal izan dugun bezala, urruti xamar gelditu zen helburutik.

Salmentaren urritasunaz ohartu bide zen eta bere jaioterriko Udalarari ondoko eskabide hau egin zion:

«Begirunez agurtzen zaituet Arrasate-ko Endore iauna ta erri-ko Zinegotzi goragarriok. Ona emen dakarkizuedan nere burubidea:

Izan ere iaioz ere erri ontako semea nauzue ta bizibidez burulangile, euskaltzale ta olerkari, nolarebait.

Urteotan Platon-en elkarrizketak euskeratzen ari natzaizue, dagoeneko aren erditsua bukatu dizuet, ots, guzitara 29 elkarrizketa idatzi zituen Platon'ek eta amaboskarrena euskeratzen ari naiz.

Oraintsu elkarrizketa itzulien leengo idaztia argitarazi nuen: lau urteetako lana ta 218.000 laurleko ordaindu bear izan nuen. Bost-sei liburu argitaratzeko gerturik ditut.

Ba dakit pozarren Udaletxeak kulturaren aldeko lanak laguntzen dituen: ikastola, kulturaren aldeko klub eta orrelako. Nerau ere kultuaren alde ari naiz. Nolabaiteko laguntza eskuratu aal dezaket?

Estornes-Lasa-ren Literaturaren euskal enziklopediaren III eta IV liburutan nere lana aintzat armen dute. Bizi diren erriko seme bizien artean bakar-bakarra aipatzen nau enziklopedia horrek. Gainera, orrelako ikaskizunetan ikasiak direnak nere lana aintzat artzen dute.

Zure erantzunari begira, begirunez zuen erritar laztana. Zaitegi tar Iokinek.»

Dei honek bere ondorio baikorra izan zuen herriko lehen erakundeetan. Hain zuzen ere, geroxeago zehazkiago irakurri ahal izango dugun bezala, Arrasateko Udalak aurrerantzean argitaratu zituen liburuentzat ehuna mila pezetako dirulaguntza eskaini zion Iokini.

Baina goazen PLATON I honi egindako harrera nolakoa izan zen ikustera:

(1) DEIA, 1979.ko Otsailaren 24.an.

Honela ematen zuen bere eritzia Mikel Lasak liburua aztertzean:

«...Jatorrizko hizkuntzan obra honek ukan dezakeen adiera-  
-indar eta tankeraz aparte (ez baitezaket horretaz deus esan),  
itzulgileari dagokio aipatu sentipen horiek irakurlearengan  
oztoporik gabe eta bortizki sortarazteak duen meritu izuga-  
rria. Eta esan behar da, beti ez bada ere, pasarte gehienak  
aisa irakurri ahal izan ditudala, nekerik gabe eta bai atsegin  
handiz. Zaitegiri ez zaio gaindi ahal ezineko gertatu ez tokian  
tokiko Platonen pentsamenduaren iluna edo alderantziz ze-  
hastasun trinkoa, ez eta esaldiaren egitura luzea eta bihurria,  
maiz liburu honetan aurkitzen dugunez. Itzulgileak ez dio,  
oztopoaren aurrean itzulminguruka ibiliz, hizkuntzari iruzur  
egiten.

Hala eta guztiz ere, (eta irakurle soil naizenez kritikilari pro-  
fesionalen «aparato»-rik gabe mintzo naiz) inun astuntasu-  
nik nabari bada, elkarrizketa sarri berri-tanquera duten pa-  
sarteetan ageri da.

...Zenbaiteraino du gaurko euskal kulturak beharrezko Pla-  
tonena bezalako obra? Zorionez, ba dirudi gure kultur poli-  
tikaren planteamendu, kultur modernu orok darabilzkian oi-  
narri zabalak onartzen direla, errazkeriaren aitzaki lirerateen  
reduzcionismoak baztertuz. Horretaz konturatutik gaur egun  
(ditugun indar eskasak kontuan harturik) izugarrizko ahale-  
ginak ari gara egiten didaktismoaren bide lehorretatik zehar,  
bihar edo etzi itomenik gabeko kultur bizitza eroso bat izan  
dezagun.

Hain zuzen, Zaitegiren-eta belaunaldia gaurko etapa honen  
aintzindari bezala dakusat, euskal kulturgintzan diharduten  
gure anaia zaharrak bailiren. Orainarteko euskal literatur  
kondairetan ez zaio belaunaldi honi, belaunaldi bezala duen  
meritu hau onartu, ene ustez.

Ez dut zalantzarik gaurko gazteriak onartu egingo duela bai  
Zaitegi (benetako zubigilea) bai beronen Platonen itzul-  
pena»<sup>1</sup>.

Etxabe batek izenpetuta beste aipamen hau ere irakurtzen genuen:

«Benetan laudagarria Zaitegi jaunak ukan duen inizatiba  
Platon heladetar filosofariaren elkar-hizketak euskarara itzul-  
tzerakoan. Bijoakio lerro hauen bidez gure esker on leialena.  
Laudagarria diogu bi arrazoinengatik. Lehenik, eta Zaitegiri  
zuzenki dagokionez, itzulpen honek suposatzen duen lan ba-

(1) ZERUKO ARGIA, 1976.ko Apirilaren 11.an.

liosia eta ikaragarriagatik. Ikaragarria ez baita xantxetakoa neurri horietako obra bat itzultzea, eta baliosa, direktoki, bigarren eta hirugarren eskuño itzulpenek duten akatsak bazterturik, heladeratik euskaratu digulako. Bigarrenik, filosofia izeneko diskursu horretan Platonek betetzen duen lekua-gatik. Gaurtik —liburu hau argitara zenetik, bederen— badugu euskaldunok filosofiaren fundatzailearen izkribuak etxe-ko mintzairan irakur ahal izateko posibilitatea»<sup>1</sup>.

Esanda gelditu den bezala, elkar hizketarik gehienak Guatemalan gertu zituen Zaitegik, Covan herrian zegoela, hain zuzen. Berak behin-ola aitortu zidanez mutil bat zeukan eskuz idatzitakoa makinak pasatzen ziona.

Dena dela, zenbait pasarte osteria ukitu behar izan zuen Iokinek, dirudienez, bere gustora ez baitzetozen. Honela PLATON IV 1978.ko San Ferminetan eta Etxarri-Aranazen ematen du bukatutzat, tomoaren 137gn. orrialdean irakur daitekeenez. Nafarroako herri honetan Iokinen anaia Simonen alarguna bizi zen eta denboraldi batzu ematen zituen harek koinatarenen. Baina KRITON eta FAIDON elkar hizketak, laugarren liburu hau osatzen dutenak, Covan.en zeuzkan borobilduta, 1968.an, orijinaltan irakur daitekeen legez.

Gero aipatuko dudan bezala, Iokinek elkar hizketa hauen orijinalak idaztean H.a erabili zuen. Eta irarkolara eraman aurretik denak kendu zituen. Baina zehazkiago itzuliko gara puntu honetara.

Zaitegiren etxea erretzean lehen alearen zenbat ieki atera ziren jakinarazi dut lehen. Bigarrenaren tirada berdina izan zen eta hauetatik 429 zeuzkan etxean. Hirugarrenak izan zuen tiradako 500.etatik 297 atera genituen. Laugarrena, 500 aletakoa, ia osoa saldu barik gelditu zen eta bostgarrena —den-dena— zuzen etxe partikular batetara joan zitzai-gun.

Honako elkar hizketa hauek osatu dituzte bost liburuak:

PLATON I: «Oturuntza», «Protagora» eta «Menon». 1975.ean argitaratua.

PLATON II: «Gorgia». 1977.an argitaratua.

PLATON III: «Eutifron» eta «Sokrateren apologia». 1978.an ka-leratua.

PLATON IV: «Kriton» eta «Faidon». 1978.an publikatua.

PLATON V: «Ipia Txikia» eta «Alkibiada». 1979.an argitaratua.

Bost liburuak «Izarra» irarkolan izan ziren inprimatuak.

(1) ZEHATZ, 1977.ko Urtarrila-Otsaila.

Platon.en liburu hauen inguruan ba da, ene ustez, egoera soziologiko bat irakurlearen aldetikako harrera, nolarebait, baldintzatzen duena. Alde batetik, eta aipatuta dago, Zaitegiren ikuspegi komertzialarik eza dugu. Ez zuen ahaleginik egin liburuei inolako zabalkunderik emateko. Berak atera, berak saldu —hobeto saldu nahi— eta, eserita, kritikalariren baten eritzia iritxi... Bestalde, 1975.ean atera zuen lehen liburua eta urte horretan zenbait gertaera izan zen, euskaldunen aditasuna mezezi zutenak. Eta, sárri, oraindik egoera berdinean gaudela dirudi. Tamalez. Izan ere, gaia nahiko lama dute liburuek. Beraz, aldagarri hauetaz osatutako formulak ezin ondorio onik ekarri. Jazo den bezalaxe.

Kapitulu oni amaiera emateko, Platon.en liburu guztiak bere irarkolan inprimatu zituen gizakumearen eritziak azaldu nahi nituzke. Felipe Alkorta, arras ezaguna euskal alorrean, dugu erizlaria. Berak ere ederki ezagutu zuen Iokin eta arrazoi honek bultzatu ninduen arrasatearraren gaineko inprimatzaile den aldetikako bere ustea eskatzera. Pozarren eskaini zidan laguntza. Beraz, Alkorta jaunarekin uzten zaitut, irakurle:

## IOKIN ZAITEGI, BEZERO LEIALA

Inprimatzaile naizue, ez idazle, baina hala ere, liburu honen arduradunak egindako eskariari gogo onez erantzun nahi diot. Zaitegirekin, bere liburuen argitaralpenak zirela-ta, izan nituen harremanen berri batzu azaldu nahi dizuet. Horretan bait datza egin didaten eskaria.

1960ean, Miarritzen, nire lagun on baten bitartez, ezagutu nuen Iokin PLATON<sup>EN</sup> ATARIAN liburua argitaratzeko asmo-tan zebilela. Orduan, noizean behin arnasa estutzen bazitzaion ere, lanerako sasoi onekoa zegoen.

Aipatutako liburu hau 1962an bukatu genuen, eta garai hartan Guatemalara joana zelako, Legazpin bizi zen bere anaia-rekin bukatu nituen liburu honetariko harremanak.

Hamar edo hamabi urte joan ziren berriro Zaitegirekin harremanetan jarri nintzenerako, eta orduz gero, Platon saila-ren bost ale argitaratu ditugu:

PLATON I - 1975an

PLATON II - 1977an

PLATON III - 1978an

PLATON IV - 1978an

PLATON V - 1979an

Azkeneko ale hau argitaratu zenerako, nahiko makal zegoen Iokin Oiñatiko «Residencia San Martín» deritzan zahar-etxean.

Nola agertzen zen Zaitegi bere idazlanak prestatu eta zuzentzeko garaian?

Berekiko zorrotza zenez, besteentzako ere nahiko zorrotz jo-



— Baina, nik neuk deritrat, beinik  
 — bein, esan xuen Kriton-ek, egurkia  
 oraindik mendien gain dela ta ertela  
 inola ere sartu. Berbat bada kit bes-  
 teek ere erabat berandu edaten dutena,  
 adierazita gero, oso ongi ian eta edan  
 eginda gero, ta batzu irrikar opa xu-  
 tenekin ixketan gelditu izan dira.  
 Baina, er estutu, laster da oraindik.  
 — Ori, noski, aiputan artzen dituzunok  
 ego ki egiten dute, beinik-bein, ori e —

katzen zuen. Honek ez du esan nahi, inola ere, gizon zaila zenik, baizik eta bere lanetan ahalmen guztia jartzen zuenez gero, asko mintzen zela inon akats bat ikusten bazuen, eta aitortu beharra dago hori bidezko dela. Liburu bat bukatu eta eskuratzen zuenean, begiratu zorrotza egiten zion, eta baita azkar asko esan ere non-zer akats aurkitu zuen. Nire aldetik saiatu nintzen lan horretan eta alde honetatik oso ondo konpontzen ginen.

Osasunak lagundu zion bitartean, orijinalak txukun asko prestatzen zituen, hori bai, bere lan denak eskuz idatzita eskuratzen zizkigun, baina bere idazteko tankera oso argia zen, astiro astiro egindakoa. Hemen azaltzen den «facsimil» delako honetan; garbi ikus daiteke bere idazkera nolakoa zen.

Azkeneko bi aleak argitaratzeko garaian, eskuek aurreko segurantzirik ez zutela igartzen zitzaion, eta bere idaztiak konprenitzen nahiko lan izaten nuen.

Probak zuzentzerakoan ere berdin gertaten zen. Berez lan neketsua denez gero, lehenengo aletan zuzenketak nahiko zehatz egiten zituen baina azken aldian, lagundu behar izan nion lan honetan.

Diru aldetik berriz, ez dut Zaitegi baino zintzoagorik inor ezagutu. Gehiegikoa ere bazen. Liburuak eskuratu aurretik jakin behar izaten zuen zenbat ordaindu behar zuen, eta Arrasatera edo Oiñatira liburuak bidaltzen nizkionean, hantxe edukitzen zituen txanponak prest, bere zorra ordaintzeko. Nonbait ez zen zorretan bizitzeko jaioa.

Gertatutakoa da, ez daukat gogoan, hirugarren edo laugarren liburuarekin. Arrasatera bidali eta fakturarik eraman ez zuelako, mutila amera bidali nahi izan zuen, zeren ez zuen liburuaren jabe egin nahi txanponik prestatu ez zuelako. Hainbestearinokoa zen gizon honen zuzentasuna. Gaur egun ez dugu horrelakorik asko ezagutzen.

Azkeneko alea bukatu zenerako, oso makal zegoen, eta hala ere, ale horren ordainketak kezka haundia ematen zion. Donostiako gaixo etxera ekarri zutenean, nahiko estu gizajoa, ikustera joaten nintzen bakoitzean, ahal zuen moduan, hizketako gauza ez bait zen, bere kezka adierazten zidan, nik lasaitzeko esaten nizkion hitzak alferrikakoak zirelarik.

Azken aurreko eta azkeneko aleak argitaratzeko, Arrasateko Udalak lagundu zionez gero, hara jo nuen Zaitegiren larrira agertu nahian, eta bai azkar asko arazo hori konpondu ere hango agintariek.

Zaitegi hil zorian zegoelarik, berri hau eman nionean, hartu

zuen lasaitasuna zenbaterainokoa zen aurpegian nabari ziztaion. Horrelakoa zen Iokin.

Berak esanda dakidanez, Platonen lanak bukatzeko beste bost ale prestaturik omen zeuzkan, eta hau diot: Ez ote litzateke lotsagarria izango hainbeste lan egin ondoren, lan horiek argitaratu gabe gelditzea? Ez dakit noren egitekoa izango den baina Zaitegik, hainbeste urte pasa, hainbeste txanpon bere patrikatik jarri, hainbeste maite zuen Euskarari lan eder hau eskaini eta ez al du harrera hoberik merezi? Galdera hor dago, nork erantzun?

Agur Iokin, nire bezerorik zintzoena.

\* \* \*

EUZKO GOGOAREN ibilaldiak Miarritzen izan zuen azken geltokia. Aldizkariari buruz mintzatzean honen azken urrats latz eta neketsuak nolakoak izan ziren ezagutarazten ahalegindu naiz.

Baina Iokinek ez zuen, heriotza hau zela eta, Miarritzeko egoitza aldatu. Bertan bizitzen jarraitu zuen, nola edo hala aurrera irtetzeko asmoz.

Platon-en elkar hizketak euskaratzen ihardun zuen denboraldi batez. Baina, gehien batez, bere bigarren olerki-idaztia gertutzen ematen ditu eguneko orduak. BERRIZ ERE GOLDAKETAN deritzanari nagokio, jakina. 1961.eko Otsailean borobilduko du guztiz idazti hau.

Era berean, Guatemalako lehen etapan itzulitako Euripideren «Medeia» lanari berriztapena ematen saiatu zen. Jakin ahal izan dudanez, lan honen orijinala Andimak ipini zion makinaz. Geroxeago, gorago irakurri dugun bezala, Guatemalako mutil batek Platon-en elkar hizketak makinaz pasatzen lagundu zion bezala, Andimaz ere baliatu zen betebeharrori egiteko. Laguntzailerik ez zuenean, Felipe Alkortak kontatu digun legez, eskuz idatzitakoak bidaltzen zituen irakorlara.

Euripide-ren «Medeia» lana EGAN aldizkarian azaldu zuen, 1963.ko 4gn. eta 6gn.aleetan, hain zuzen. Baita separata bat ere kaleratu zen, obra osoa zeramalarik.

Bestalde, Miarritzeko Iokinen etxea euskal idazle eta jakintsuen bil-toki izan ohi zen, bertan bizi zen bitartean. Asko ta asko zen bere proiektuak eta asmoak azaltzen zizkietenak, gehienak aholku eske ziohazelarik. E.K.A. Batzordeak ere hileroko bere batzarra Zaitegirenean egiten zuen.

Iokinek ez zuen sekulan muga igarotzeko eragozpenik aurkitu. Den dela, 1961.eko Aste Sainduan ez zioten Hegoaldera etortzen laga. Berak kontatzen dio Andimari, gatz eta piperrik falta ez zaion gutunean:

«Aste gurenez etzidaten beste aldera ioaten Espaiñiko gure adiskideek utzi. Mugako buru dan Ortega'k Baiona'ko Kontsul españarari adierazi dionez, Espaiñiko Seguridadeko buruak ixileko agindua eman omen dio, nerau bestekaldera ioaten eragotzi dezaten. Gu koitauok beti ta edonon gaizki ikusiak gera alabearrik. Dakidanez, Arias Salgado Oña'ko gure lagun eta orain Espaiñi'ko Ministre d'Information dalakoaren ustez, nerau ta beste bat omen gera 339 apaizek izenpetutako gutunaren egile, berak idatzi duenez. Olakorik! Izan ere, «norbaitzu» gera, gure etsaien aurrean»<sup>1</sup>.

Baina laster joango zitzaien iokini aurreko Ierroaldian erakutsitako humore ona. Zorrek janda zegoen eta ez zuen burua jasotzerik. Kixote euskaldunak bere «Rocinante» bera ere galdua zeukan.

Guatemalako Arce lagunak bisitaldi bat egiten dio Miarritzera eta egun hartako afarian dirulanguntza eskatzen dio Zaitegik Erdiameriketako nazio hartara itzuli ahal izateko. Era berean, ate asko jo zuen asmo berberak eraginda, Andimari ere pasatu zion eskabidea. Dakusagun ondoko Ierroaldian gizakume baten oihu mingotsa:

«E.K.A.koen azkenengo batzarrean auxe esan bearrean aurkitu nuen nere burua: ikusiak ikusi, esanak esan, iasanak iasan, ni neu Guatemala'ra ioateko erabakia artua dudala, euskal gaiak utzita apiaz lanetan ari naiten ango gotzainburuaren esanetara. Erabaki gogorra, benetan, besterik ordea enukean. Ezin E.G. argitarazi, dakizunez: Agirre il zan ezkerozko etxe-alogera ordaintzea Leizaola'k bere gain artu arren, ez tut txakur txiki bat oraindik iaso ortarako: mila dolar-edo dira. Enoa besterik aipatzen, negarti naizen uste eztezazun. Esan dizudan ori ere bego gure arteko. Beraz, auxe eskatzera auzartzen natzaizu. Badakit zu ere estu ta larri zabiltzana. Nondik edo andik 500 edo 1.000 dolar aurreratuko dizkidan inor arki al zenez? Gero ordaintzekotan ordea: euneko onenbeste irabaziz ba'dadi ere, berdin zait. Len-bailen bear baititut, emengo zenbait zar ordainduta, nere osterari antola dezadan. Nai ainbateko astakeriak esan ditzakezu nere aurka. Asmoz eta gogoz lengoa nauzu eta euskaltzale eta abertzale bezala edonorekin nere burua alderatzeko gertu, bai baitakit edonor aiñako naizena: baiña besterik ezin dut erabaki.

*Len-bai-len* erantzun eta eskatua igor ba zenezai zure adiskide oni, alde-aurre egingo nizuke eskerrik asko»<sup>2</sup>.

(1) 1961.eko Maiatzaren 29.koan.

(2) 1961.eko Urriaren 13.koan.

Lehen aipatutako Arce lagunak Guatemalako euskaldun batzu deitu eta guztion artean 2.000 dolar bildu zituen. Iokini bialdu zitzaion herengo zenbait zorrak estali eta harako bidaia-txartela eros lezakeen. Geroroxeago, poliki-poliki, joan zen estaltzen lagun hauekin hartutako zorra ere.

1962.ko Urtarrilean irten zen ostera Ameriketarantz. Bere bizitza osoan euskara eta euskal kulturaren aldeko ihardunketan murgildu da. Baina gizarteak, euskal gizarteak, ez dio berak itxadoten zuen bezala erantzun. Eta, nolabait, bere Herriarekiko fedea galdu egin du. Nahiz eta Baionako HERRIA astekariak «*Zaitegi jaun apheza Guatemalalarat itzuli*» titulupean «Laguna» izenordez idatzitako artikulu hau azaldu:

«...Zaitegi jauna ez da gure eskual sail arruntean artzen... Ba daki ba APOSTOLUEN EGINTZAK 'esplikatu dituen liburua ez dela artzaintzat eta mariñelentzat egiña, eta behin ere ez zaio burutik pasatu jende cheheak harrapaka erosiko ziola. Gauza bera erran dezaket Platonez agertzerat doan lan mirregarriaz: ez da epizerietan saltzekoa. Zaitegik uste du arrazoinekin frantses artzain eta mariñelek ere ez dutela orenik ez minutarik galtzen Bergson edo Pascal-ekilan. Baina frantses argituek atsegin dute idazle handien gogoeta sarkorretan pulunpatzea.

Zertako euskaldun argituek ez lukete nahi eskuaraz atsegin bera hartu? Eta egun batez idek baledi eskualdun «uniberzitatea» ez othe litake egoki eskuaraz erakats ditzen bai Platon, bai Jondoni Paulo, bai Bergson, bai Aristoteles, bai Sartre, bai Unamuno, bai Lavelle, bai Kant, bai San Tomas, bai Zubiri?

Lan zaila, nahi dut; bainan zertako egon haiduru, gerochagoko peskizan? Zaitegi jaunak bidea idekitzen du, eta mementoan hainitzek ez badute konprenitzen nora doan, nork daki egun batez Eskualdun eskola handietan ez dutenez eskualdun jakitatearen lehen arbasoa bezala goraiapatuko?

Esker mila, Zaitegi adichkidea, zure etsenpluaz! Eskual-herriak gu bezalako langile peon chumeak errechkiago atchemanen ditu, zure heineko, zure hedadurako, pentsazaleak baino. Emazu aintzina zure ildoan: ez barka!

Lavoisieri lepoa moztu zioten Pariseko basek erranez: «La République n'a pas besoin de savants»! Eskual-herriak jakintsuak ere behar ditu»<sup>2</sup>.

(1) BIDLALIEN EGINAK, noski.

(2) 1962.ko Otsailaren 1.ekoan.



Desengañado, en gran medida, por el comportamiento de muchos de los que había considerado sus amigos, decide Iokin volver a Guatemala y dedicarse en aquel país a la labor apostólica. Está viviendo un momento de auténtica crisis interna e —incluso— parece decidido a abandonar sus actividades literarias. En enero de 1962 emprende rumbo a aquella nación centroamericana? poniéndose a disposición de su Obispo. No hay que olvidar que Zaitegui conservaba la nacionalidad guatemalteca, que había logrado en 1948 y conservaría hasta septiembre de 1978, en que renunció a ella por motivos puramente circunstanciales.

La ejemplar labor desarrollada en beneficio de los habitantes de las tres parroquias a que fue destinado le gana el afecto de todos sus feligreses. Y este contacto con la gente sencilla actúa en Zaitegui como bálsamo que cura las heridas abiertas durante su estancia en Euzkadi. Recuperada la esperanza en su Pueblo vuelve a pensar en la posibilidad de continuar con su labor a favor de la cultura vasca. Comienza la etapa, denominémosla. de Platón.

## GUATEMALAN OSTERA

Zacatepequez departamenduko San Antonio Aguas Calientes izeneko herrira bialtzen du gotzaiak Iokin, Guatemalara iritsi bezain laster. Beharrik gorrietasan bizi omen ziren hango eliztarrak eta Iokinek eredu eman behar du txairorik haundiena bailitzan.

«Oraingoan bai munduaren ipurdian nagoela»

idazten dio heldu eta handik hilabetera Andimari <sup>1</sup>. Gizarte aurrerakoiak hain beharrezkoak dituen egunkari eta irratia ez ziren, itxuraz, indiatar haien artean premiazko gaiak eta Zaitetik isolamendu gordinean ematen zituen egunak, inongo berririk ez zuelarik, noizean behin adiskideek eskutitzez bidalitakoak ezik.

Nolanahi ere, Zaitetik ezin hiriburuko lagunak ahantzi eta maiz bertaratzen da haiekin ordu pare batzu emateko. «Bar Isaias» izenekoan gelditzen zen hirira joatean. Taberna hau Barakaldoko Isaias Rebolleda Ortiz de Zarate-rena zen eta nahiz eta CNT.ko militantea izan ederki ondo eramaten zen Iokinekin.

Bestalde, adiskide hiritarrak ere hurbiltzen ziren noizbehinka arrastearrengana. Futbol partidua antolatu ohi zuten goizetik San Antonio Aguas Calientes.eko ekipoaren kontra eta bazkal ostean musean nahiz Euzkadiko egoerax mintzaten iharduten zuten.

«Nere errikoak pozik lotu dira eta arriturik, ezpaitute inor ordirik ikusi».

kontatzen zion Andimari, 1962.ko Aberri Eguna ospatu ahal izateko

(1) 1962.ko Martxoaren 22.koan.

izan zuten euskaldunen-bileraren berri ematean. Indiatarrak euskaldunen portaera eredugarriaz harritu ei ziren.

Guatemalara heldu eta «Hispania» irarkolan utzi zuen BERRIZ ERE GOLDAKETAN deritzan idazkia. Gehien batez, Miarritzen idatzitako olerkiek osatzen dute liburu hau. Hauetatik gehienak Zaitegik asmatuak gainerakoak itzulpenak direlarik. Hain zuzen ere, Joachin du Bellay, Sully Prudhomme, Pascoli, Eichendorff... e.a.en olerkarien zenbait lan euskaratu zuen Iokinek liburuxkarako. Hirurogei eta bi olerki azaltzen da ehun eta hiru orrialdeetan.

Liburuxka *Patxi'ren menpeko Euskalerrira* <sup>1</sup>bialdu baino lehenago herbesteko euskaldunen artean zabaldu zuen. 1,70 dolarretan jarri zen salgai, garesti xamarra, irarkolako lanek asko garestitu baitzuten salneurria.

Ondokoak, olerki-bilduma honek izan zuen harreraren eredu batzu ditugu:

Koldo Mitxelenak zioen:

«Formaren betea erakusten dute nonnai Zaitegi'ren olerki oek, bere baitakoek adiña itzuliek. Orien edertasuna ezta axalekoa: estalki soilla, bitxi nabarmenik gabea, daramate aragi billuziaren gaiñean. Irakurle ausnarkorra bear bi soiltasun orien egokitasuna ezagutzeko eta dastatzeko».

Andima Ibinagabeitiak era honetaz idazten zion Iokini, gatz eta piperrik ez zitzaiola falta ikus dezakegarrik:

«Zaitegi eta Plazaola'tar Ioakim Aba Guztiz Agurgarri, Bentsu, Kementsu eta Suartsuari. Guatemala Erreinu zabaleko Katxekel-uri Urberoetako Andoni Deunean Elizpuru, Apaizpuru ta Erripuru: kriskitin, eta kraustikitiñak!

Zure igorpene BERRIZ ERE GOLDAKETAN luzaro eztala eldu aan nere eskuetara ondo bildu tá zildaitua. Bilkun ta zildaiak erantzi niozkanean, liburuño polit bat arkitu nuen lerro-motxetan idatzia. Ain lerro motxak ikusirik bapatean iari nintian irakurtzera eta lerro-motx aien artean olerkari andi baten arima egan zebillala nabaitu nuen. Ezin utsiz, amaitu nuen idaztiñoaren irakurpena eta auxe izan zan biotzetik ialki zitzaidana: urteak ez diote gure antxinako goldekariari irudimena kamustu, ezta biotz berotasunik epeldu ere. Aitzitik, aberri-lana goritik, iñoizko olerki bikaiñenak atera

(1) Iokinek dioen bezala.



erazi dizkio adiñ-oparoak. Oparoa bai, gure adiña ezpaita oraindik lekaripean estaltzekoa, ez orixe. Alda ditezken lerro motz batzu arkitu nituen, baiña utsa besterik ezpaitira, ez nioakizu emen aipatzera. Bestalde, itzulpenak, bikaiñak irudi zitzaizkidan»<sup>1</sup>.

Patxi Etxeberria S.J.k, Zaitegi bezala Euskal Olerti Egunean, 1933.-an, saritua izan zenak honela ematen zion eritzia arrasatearrari:

«Zure olerkiak irakurrita, orixe gogoratu zitzaidan. Bai!! Gure Zaitegi bizkorak azia utziko du olerkietan. Alegia: geroak ere zure itz-neurtu yaukalak irakurriko ditula. Bakarrik, euskerarik geyago ez danean gertatuko litzake zurerik ez irakurtzea.

Bilduma ere txairo eta guztiz eramangarri ondu diguzu. Oraindik ez det egin. Bañan, alakoren batean idaziñoa eskuetan, alderdi auetako oyan itzaltsu batera yoango naiz. Berriz eta berriz orraze garbietan ixuri diguzun ezti aberatsa txasta dezadan»<sup>2</sup>.

Baionan ateratako ALDERDI aldizkariak hauxe zioen, «Ederbera» izenburupean E. Tolosak idatzita:

«Zaitegi jaunaren olerki-xorta auxe eskuetaratu zaidalarik, idaziñoaren orrialdetara maiz-maiz noa. Ango olerkiak bein irakurri izanaz ez det aski. Nere-nere biurtu nai nituzke. Irakurle: ludian idazti eta osteko geitxo dituzu, bein irakurritz aspertzen zaituztenak. Guatemala'tik datorkigun au ez da orrelakoa»<sup>3</sup>.

Aita Santi Onaindiaren hitzak dira ondokoak, Iokini Larrean 1979.ko Hazilaren 25.ean eskainitako «Olerti Egun»-ean esandakoak:

«Bigarren liburu ontan be jatorrak eta itzuliak ditu, 62 olerki guztiz, maixuki onduak danak; ez dau akatsik; Orati'ren lorratzez ibilli nai izan eban, itxura danez. Zer asko ditu kantagai, barezko danez; baiña euskal gauzak zoratzen ebe-la dirudi: euskerak, aberriak, euskaldun gizaseme errimeak, euskal idazle jatorrak eta olakoak.

Idaztean, pozik diardu noizka, baita itunik be ez gitxitan. «Neguan lore» deritxonean, esate baterako, leen-aldia illun datorkio gogora; geroa, barriz, gaupen erdizka baiño ez ikusten. Bera, alan be, gaztetan lez, bertso barri laburrak

(1) 1962.ko Urriaren 9.koan.

(2) Formosatik, 1962.ko Urriaren 8.koan.

(3) 1963.ko Otsaila-Epaila (190-191 zenbakia).

egiten saiatuko? «Olerkari zar onek/ barnean izotza...», diño. Zelan, ba, bertsoak gartsu eio? Negulilia agertu yako, ta onek edur artean irripar dagien lez, berak be biotza argitan, bertso barri laburrak osotuko.

Biarritzen kezkaz ebillen, Aberriaren geroa illun bai ekusan; arnas estuka gure euskera, laiño baltzetan gure lurra; ibaie-tan izotza ta garaiak edur; ez txori-txiorik alaikor, ezta el-txorik be baztarretan. Bizia ixilik! Baiña negu larri onetan be, baikor, itxaropenez beterik ikusi nai eban euskalduna. Onela diño:

«Negu-minpean dugu Aberri osoa  
gogorik ez urritu, euskaldun zintzoa!  
Liliz, txoriz ta zituz beterik geroa,  
ba-datorke euskaldun zindoen aroa.»

Eritzi-azalpen honi amaiera emateko «Jautarkol» zenarena ekarri nahi dut zuregana, irakurle. Bera ere goi mailako olerkari izan genuenez ontzat eman dezakegu Iokini igorritakoan emandako epaia:

«Zuk ez duzu gazte denborako erreztasunik galdu. Bertsoa ariñ eta borobi! irten zaitzu. Baiña, ez dezu orduko irudi bizi usaitsurik, ez da orduko ugaritasunik ere. Orduko erara idazten dezu, ez gaurko olerkarien tankera-ra. Guk onezkero gure moduan jarraitu bearko. Gaur bertsoari, dakizunez, etzaio ajolarik ematen eta olerkariak diotenari ez zaio antzik ematen. Euskeraz ere orrela asi zaizkigu batzuek. Ez zaitugu zu orrelako olerkaria. Bertsoari garrantzi aundia eman oi diozu, eta benetan, ederki borobiltzen mutilla zaitugu. Jarrai bide ortatik modernismu parragarriei jaramonik egintzeke. Gaiñerakoan, liriku-sua somatzen zaitzu, baiña TORI NIRE EDONTZIA.n eta garai artako beste zure olerkietan azaltzen zenitun irudi ta sentipen bizi ta xamur aiek zuzan ere agortu ez ote zaizkitzun bildur naiz. Ez bai-dira alperrik urteak joan oi»<sup>1</sup>.

«Urberoetako Andoni Deuna», Andimak bataiatu duen bezala, herrixkan darama bizimodua Iokinek. Iristean bihotza nahigabetua badu ere laster hasten zaizkio zauriak pixkat gozaten eta arintzen. Ahaztu al du iragana? Ez. Zaitegi moduko gizon batek ezin aurreko bizitza osoa gogotik bazertu. Baina orain, indio haien zainketa izpiritualaren lema esku artean duelarik, ez du beste helburuk kezkatzen. Berak aukeratuta daukagu helburu hori. Eta betebehar horri ekin dio, gogoz.

(1) 1963.ko Uztailaren 12.koan.

Ahantzi bide duena janari europearra da. Jakina, bertako bereiztasunei lotu behar eta Guatemalako lehen arotik hain atsegingarri zituen idar-prejituak eta platanu egosiak arroz txuriarekin dauzka orain ere gogokoak.

1964.ko hasieran parroki honetatik Chimaltenango departamentuko San Martin Jilotepeque izenekora da destinatua. Nahiz eta hiriburutik urrunago egon aldaketa honek igoera adierazten du, bitarte haundia baitago bi parrokien artean.

Andimak aldaketaren berri izatean Zaitegi ez dela biderdian lotuko dio, humore zorrotzaz, barrutiako gongotzai edo artzapezpikua-makila eskuratu gabe.

Eta egia esateko, herri honetan ere jo eta ke ihardungo du bertako bizilagunen egoera hobegotzen.

«Ni berriz emen ari nauzu apaiz-lanetan parroki zabal onetan: irugarren bidea irikitzen iari ditut bertako kristauok. Orain arte poliki nabil: datorren urtearen asieran-edo banatu edota laguntzaileren bat bidaliko didatelakoan nago, edota lekaideen eskuetan utzi bear izango dudala susmatzen dizut. Alare bi urtetan poliki aurreratu dizut. Gutxitan oi dana eman dit gure laungoiko onak: zartzaroan bizi al izateko bigarren aukera. Eliz-agintariak ba dakite nola ari naizen lanean; beraz, erri au utzi bearra izango banu ere, antzekorik emango lidakete, nik uste.»<sup>1</sup>

Ondoan datorren eskutitzaren zatia, Venezuelan gorriak ikusten egon arren, Andima zenaren humore fina adierazten digu. Karakas-etako bere senideengan bizi zelarik zenbait nahigabe eta ezbehar eza-gutu zituen elantxobearrak. Baina barnean zeraman indar eragile harek harritu egiten nau, nekez galtzen baitzuen aurrera jotzeko gogo. Eredugarri bezain harrigarri gizon haren portaera...

*«Ibiñabeitiko Andima iaupaltsein antxulak.*

*Zaitegiko Ioakin iaupalandi mintzul eta idatzulari zorion, barrion eta agurron.*

Lengo batean nere bakartegiko leize zakarrean otoitzean sorta lar arkintzen nintzalarik Iainkoaren Aingerua agertu zitzaidan eta auxe esan zidan:

— Andima, esna adi eure otoialdi sakon ortatik, eta bertan esnatu eta irudi ezagun bat ikusi nuen betaurrean:

(1) 1965.eko Ekainaren 23.koan, Andimari.

— Gabirel zaitut, Iaunaren mezulari azkarra. Zeruan zer barri?

— Zeruan barri onak orain eta beti.

Eta ala iarraitu zuen bere autua: «zure antxinako adiskide iaupalandia, Zaitegineko loakin, oroituko zera, noski, naizta luzaro aren berririk izan ez, zuri gomutaraztera nator-kizu Iainkoak bialduta eta, bidenabar, aren berriak zuri ematera: itzeman sendo bat egin baitzion Iaunari mintzul eta idatzul gañerontzeko bizigaraian irauteko, neroni, Goi-ingeru Gabirel, biali nau zuregana iaupalandiaren albistez gañiera. Oraingo ontan buru-belarri ari da bere artaldea zeruko bazka gozoetara zuzentzen. Mirariak ere egin ditu: bere lobe-mendela ikutu baikoz, itxuak betargi gelditu dira, legenardunak garbi, gaixoak oro sendo tan iauzkari. Batikano-noko Bigarren batzarra ezkeroztik, aski izaten dute edonolako goixaoek praka-barrenean Iaupalandiari ikututxo bat egitea, eta bertan gelditzen dira osatuta. Inditartxoak, ezin sinistuta dagoz beren izkuntza ederrean ain ederki mintzatzten zaielako: lurrun ontziak eskuetan eta buruak makur iartzen dira iaupalandia beaien artetik igarotzen dan ba-koitzean.

— Ondo nekizkian nik berri guztiok, Gabirel, Besterik ez al duzu?

— Bai, badira aundiagoak ere. Bide zabal eta eder bat eragin die bere ardiei eta inolako pozik dago erri guztia. Ez-takite nun ezarri zure adiskidea; mirariak bañon askoz indar aundiagoa izan du bide berriak.

— Aundia benetan, esan nion: aren errian esaten duten lez, katapaz biurtu zaigu beraz.

— Bai, orixe, eta ez nolanaikoa...

Eta aibeza, Gabirel: inditarren izkuntzaz gainera beste izkuntzarik erabiltzen al du? Entzuna dut bada, antxinako euskera baztertu ez ote duen.

— Bai zera ere... Baztertu ez orixe, aztertu baizik.

— Abejon daiola. Luzarago ere ariko zen Gabirel eta beste nonbaitera ioan bear zuela eta, begietatik aldendu zitzaidan eta etzidan betarik ere eman zuri mezu bat bialtzeko.»<sup>1</sup>

Eskutitz hau amaitu eta urtebetera, 1967.ko Hazilaren 2.an, Karakas-etan bertan hil zen Andima, Zaitegiren lagun handia.

(1) 1966.ko Hazilaren 3.an.

El Personal Docente y Alumnado del  
Instituto de Educación Básica  
Confiere el presente Diploma de

Honor al Mérito

Al Reverendo Dr.

**JOAQUÍN de ZAITEGUI Y PLAZAOLA**

Por su valiosa contribución en la creación de este Centro  
de estudios.

San Martín Jilotepeque 12 de Julio de 1968.

*M.ª A. Rivera*  
por el alumnado M.ª Albertina Rivera

*Emilio Navas*  
Prof. Emilio Navas Parasolli.  
-director

*Mario Arnoldo*  
Prof. Mario Arnoldo Gosman G.  
Catedrático de, e. e. s.




Trabajar en favor de la cultura vasca fue el lema de Zaitegui durante toda su vida. De su larga y fecunda bibliografía merecen ser resaltados los cinco tomos dedicados a traducciones de los «Diálogos de Platón». Sus casas de Guatemala, Biarritz, Mondragón y —últimamente— Oñate, han sido testigos de un quehacer diario y sin pausa, que confirman a Iokin como uno de los gigantes que ha dado la lengua vasca. Esta labor debe ser conocida por las nuevas generaciones vascas que —sin duda— apreciarán mejor que sus antecesores el mérito de uno de los hijos más preclaros que ha dado el pueblo de Mondragón.

El Infrascrito Secretario Municipal de la Villa de SAN MARTIN  
JILOTEPEQUE del departamento de Chimaltenango, CERTIFICA: Que  
para el efecto ha tenido a la vista el libro de Actas de Sesio-  
nes Ordinarias de la Municipalidad, número ocho (8), en el que  
a folios del ciento cuarenticinco (145) al ciento cuarentinue-  
ve (149), se encuentra la que copiada en lo conducente dice: -  
"Acta Número 33. Cuadragésima Séptima Sesión Pública Ordinaria  
celebrada por la Honorable Municipalidad de San Martín Jilote-  
peque, del departamento de Chimaltenango, a los veintitrés días  
del mes de junio de mil novecientos sesenta y ocho. Presidida -  
por el Ciudadano Alcalde Municipal don Carlos Roberto Archila  
Morales; con asistencia de los Señores: Síndico lo. don José -  
Humberto Martínez Roca; Concejales, lo. don José Gilberto Roca  
Gonzaga, 2o. don Porfirio Hernández Batz, 3o. don Enrique Mal-  
donado Alvarado, 4o. don Julián Xiguac Perez, 5o. don Laureano  
Perez Estrada, 6o. don José Nazario Tapaz y 7o. don Felipe her-  
nández Galán; faltando .....; y siendo las nueve y -  
treinta horas, se procedió como sigue: PRIMERO:.....  
SEPTIMO: El Concejo Sesionante, considerando que la labor des-  
plegada en ésta Comunidad Sanmartineca por el Señor Cura Párro-  
co encargado de la Parroquia Presbítero Don Joaquín de Zaiteguf  
y Plazaola, ha sido encomiable bajo todo punto de vista, por -  
cuanto que, debido a su esfuerzo, buena voluntad y gran entu-  
siasmo, el municipio se ha favorecido con innumerables logros,  
tanto en el aspecto material como en el cultural, que represen-


ten un manifiesto progreso en la vida de este pueblo; por lo -  
que por unanimidad de opiniones, ACUERDA: Consignar un voto de  
RECONOCIMIENTO a tan ilustre prelado, por su desinteresado em-  
peño en beneficio de nuestro conglomerado; y que en visita por  
miembros de éste Concejo a tan digno personaje, se le haga en-  
trega de copia certificada de este acuerdo. OCTAVO: Siendo las  
once horas de la fecha de su iniciación y no habiendo mas que  
tratar, se suspendió la sesión, cuya acta se firma por el fun-  
cionario que presidió y secretario respectivo. Doy fé. (firmas)  
R. Archila M.---Facsimil-C.Roberto Archila M-Alcalde Municipal.-  
-----Anibal Alburez h."-----

Y, para entregar al Respetable Señor Presbítero Don Joaquín de  
Zategui y Plazaola, como está acordado por la Honorable Muni-  
cipalidad de ésta Villa, se expide la presente copia certifica-  
da, en ésta hoja útil, confrontada con su original, en San Mar-  
tín Jilotepeque, a los veintinueve días del mes de junio de mil  
novecientos sesenta y ocho.

  
Anibal E. Alburez P.  
Secretario Municipal.



Visto Bueno:

  
Carlos Roberto Archila Morales.  
Alcalde Municipal.-----







EL PROGRAMA DE DESARROLLO DE LA COMUNIDAD  
"ACCION CONJUNTA"  
DE LA PRESIDENCIA DE LA REPUBLICA

OTORGA EL PRESENTE DIPLOMA DE  
HONOR \* AL \* MERITO

A: *Dho. Dr. Joaquin de Laitegui y Plazahola*  
POR *Su valiosa colaboracion en beneficio del*  
*Desarrollo de las comunidades rurales de San*  
*Martin Tilotepeque*

*Chimaltenango, Julio 12 de 1968*

*[Signature]*  
Director Regional

*[Signature]*  
Coordinador Centro Local No. 5

*[Signature]*  
Director General

Samindurarik gogorrenak hartu zuen Iokinen bihotza elantxobeerra galtzean, urte askotako adiskide zintzo, eta bide batez euslea, baitzihoakion. Iokinek Ameriketara eramandakoak ez zituen ostera bere Euskal Herriko mendiak ikusi ahal izan. Hezurak hantxe utzi zituen Andimak, bere gogoaren kontra.

Baina honek ez du Iokinen martxa geldierazten. Aitzitik, geroago eta sartuago ikus daiteke herrixka hartako arazoetan. Eta bere lana begi onez izango da hartua San Martin Jilotepeque ko bizilagunen aldetik. Eta hauen aurrerapenaz hainbeste kezkatu den gizonak bere fruitua jasoko du. Hain zuzen ere, 1968. an sariztatua izango da Zaitegi, ondoko agiriek darakusten bezala.

San Martin Jilotepeque herri hau 1976. ko Otsailaren 4. an Guatemala osoan izandako lur-ikaran erabat ondatua gelditzen zen. Hau zela eta, Guatemalako «Centro Vasco»-ak kanpaina bat ideki zuen kalte gehien izandako tokian ikastetxe bat eraiki ahal izateko. Iokinek, ordurako Arrasaten bizi arren, ez zituen hango bere lagunak ahanzi eta ederki lagundu zien hemendik.

1968. ko udazkenean Alta Verapaz departamenduko Coban herrira bialtzen dute. Hango bazterrek Euskal Herriko irudia dakarkiotte gogora, bere arima zeharo lasaiturik azaltzen duelarik.

Herri xeheak onartu egin du eta honek pozez betetzen du Iokin. Gizonarekiko fidantza berreskuratu du. Indioek zabalerazi dizkiote bihotzaren atea. Eta itxaropen haundiaz jartzen da berriro euskararen onerako lanean.

Platon-en elkar hizketak azaldu ditudan kapituluan Coban. en lan asko egin zuela nioen. Hango paketasunean irudimena ere hegaka zebilkiola dirudi.

Dena dela, elkar hizketetaz aurrera egin baino lehen zenbait euskaltzaleren eritziak jaso nahi izan zituen. Ez da bat ere harrigarri Iokinen joera hau, aurretik ere nahiko ordu eta diru baitzeuzkan galduak euskal kulturaren arloan. Jean Mirande, Juan San Martin, Aita Berriotoxa eta abar luze batek hitz adoretuak igortzen dizkio Zaitegiri, honen baitan lanerako gogo berpiztuz.

Bestalde, Alta Verapazko orduko gotzaia zen Juan Gerardi'k ere biziki bultzatu zuen Zaitegi Platonenak euskara liman.

## ...ZAARTZAROAN BADA ERE, ETXERATU EGIN NAIZ

Hirurogei eta sei urte ditu beteak Iokinek. Hamar daramatza Guatemalako bigarren etapa honetan eta urteek —dirudienez— heuren eragina dute arrasatearrarengan. Zaitegi ez da sekulan osasun haundiko gizona izan. Birika eta bronkioek nahiko gerra eman diote betidanik, baina ez da osasunarekiko arduratsu izan. Tabakoak larregi tiratzen du. Askorretzen du eta honek ez dio gauza onik ekarriko.

Ba da gertaera bat tabakoari dagokiona eta hainbestek bezala Iokinen izakera nolabait mugatzen duena. Amaren hauzokide zen Sabina Aginagaldek kontatu dit:

«Guatemalatik bigarren aldiz etorri zenean erre eta erre egoten zen Iokin etxean. Behin tabakoa amaitu zitzaion eta estankotik ekartzea eskatu zidan. Nere etxean ez da erretzen eta exer gutxi nenkien nik horretaz. Beraz, enkargua idatzita eskatu nion. Baita berak egin ere, Estankora ailegatu eta dendariari luzatu nion papera. Haren harridura! Euskaraz zegoen eta ez zuen tutik ulertzen. Tabako barik itzuli behar izan nuen etxera.»

Bestalde, Zaitegiren paper artean ez da ezertxo ere harrigarri zigarroren txinarrez bat baino gehiago erre eta zulatua aurkitzea.

Osasunak ez diola laguntzen, alde batetik, eta —aukera honetan baietz uste dut—, amaren dehadarrari jaramonik eginez bestetik, Arrasaterako bidea hartzen du Iokinek, 1972.ko Uztailaren 20.an.

Amarekin biziko da Zaitegi hura hil arte. Hain zuzen ere, Arrasatera iritsi eta hiru hilabetetara, Urriaren 28.an, hil zen Francisca Plazaola, 92 urte zituelarik.



Madrid, 21 de febrero de 1973

Rvdo. Padre D. Joaquín de Zaitegui y Plazaola  
Ph. D. Consulado de España en Bayona  
BAYONA (P.A.) - Francia

Reverendo Padre:

Acuso recibo de su escrito fecha 3 de los corrientes y le participo que, en atención a las razones que en el mismo alegaba, he ordenado quede sin efecto su prohibición de entrada en España.

Sin otro particular y haciendole llegar, conforme a su interés, este escrito a través del Consulado Español en Bayona, le saluda attmte. y b.s.m.

F/ Eduardo Blanco Rodríguez.

Bakartasunean gelditzen da Zaitegi ama hil ondoren. Baina ez da horregaitik arduratuko. Bere izakera berezia dela eta lanean murgiltzen da ostera, esku artean dauzkan Platon-en elkar hizketei irtenbide eman nahian.

1973.an Arrasateko Gau Eskolan antolatzen den «Euskal Literaturaren Historia» hitzaldi-zikloan parte hartzen du Koldo Mitxelena, Aita Villasante eta beste zenbait hizlarirekin batera.

Aurreko beste aipamen batetan Iokinek berak jakinerazi digun bezala Espainiako Segurantzarako Zuzendariak eragotzi omen zion hemengo aldera igarotzea, euskal apaizen gutunaren egilea zela leporatzen baitzioten.

1973.ko Otsailaren 3.an Iokinen eskabide bat zuzentzen dio orduko zuzendari zen Eduardo Blanco Rodriguez-i eragozpenak jaso liezazkion. Erantzuna hil berdinean iritsi zitzaion, Baionako kontsulatuaren bidez, honela zioelarik:

«Reverendo Padre: Acuso recibo de su escrito fecha 3 de los corrientes y le participo que, en atención a las razones que en el mismo alegaba, he ordenado quede sin efecto su prohibición de entrada en España».

Zaitegik Guatemalako nazionalitatea gordetzen zuen. Guatemalatik irten eta hiru urtetara berriztatu behar izan zuen bere egoera eta horretarako eskabidea egin zion nazio hartako ministraria zen Adolfo Molina Orantes jaunari, 1975.eko Uztailaren 10.ean.

«El infrascrito Joaquín de Zaitegui y Plazaola, ciudadano guatemalteco por naturalización, Res-3367, de fecha 13-8-48, pudiendo recibir sus apreciables órdenes a mi nombre en Mondragón, Guipúzcoa, España, Calle Grmo. Franco, n.52, 2 Iz. o en el Consulado de Guatemala en Bilbao, Vizcaya, España, Plaza del Sagrado Corazón n. 1, 3 dcha. ante su Excelencia respetuosamente expone:

1.—Que gozando de pasaporte guatemalteco n. 346456, extendido por el Director General de Migración el veinte de Junio de 1972.

2.—Que habiendo salido de Guatemala el veinte de Julio de mil novecientos setenta y dos, como consta en el sello de la Delegación de Migración, Aeropuerto de la Aurora.

3.—Que queriendo conservar la nacionalidad guatemalteca de que he gozado estos veintisiete años por patriotismo guatemalteco.

4.—Que pueden atestiguar de mi guatemaltequismo fervorosi si lo juzgare oportuno y necesario:

Monseñor Juan Gerardi Conedera, obispo de Verapaz, a cuyas órdenes trabajé en Cobán; el Dr. Carlos Martínez Durán ex-rector de la Universidad de San Carlos donde dí clases de griego en la Facultad de Humanidades, y ex-ministro de Educación en el Gobierno de Guatemala; El Lic. René de León, quien enseñó largos años en Colegios que dirigí en la Capital; el Lic. Luis Valladares Aycinena.

5.—Que de acuerdo con el artículo 9. inciso 2. de la Constitución de la república, «el extranjero naturalizado que permanezca tres años consecutivos fuera del territorio centroamericano perderá la nacionalidad guatemalteca, salvo que comprobare estar dentro de los casos de excepción contenidos en el artículo 53 de la nacionalidad».

6.—Que cree estar dentro de los casos de excepción contenidos en el artículo 53 de la Ley de nacionalidad, como hace constar el médico de cabecera que juzga sería nocivo para mi quebrantada salud el traslado a Guatemala, por mi bronquitis crónica e hipertensión arterial acompañada de insuficiencia cardíaca.

Por lo tanto suplica a su Excelencia dé las declaraciones y órdenes correspondientes para que pueda gozar por otros tres años más de dicha naturalización guatemalteca, permaneciendo los tres años consecutivos fuera del territorio centroamericano.

Esperando sus respetables órdenes me es grato suscribirme de su Excelencia.»

Eskabide hau onartua izan zitzaion Iokini eta beste hiru urtetan zehar guatemaltarra izanez jarraitu ahal izan zuen. Ostera berriztatu beharrean aurkitu zenean, 1978.an hain zuzen, nazionalitatea aldatu behar zuela aholkatu ei zioten Zaitegiri. Irakur diezaiogun berari:

«Guatemalatic ekarritako dirua urritzen zihoan eta bestalde, nire osasun txarrak xahupide haundiak sortu zizkidan. Sendagailu, Arrasateko Centro Asistencial.ean egin nuen egonaldia... pagatu behar nituen eta diru-iturririk ez. Herriko apaizek Espainiako nazionalitatea hartzea aholkatu zidaten. Hemengo Segurantzak Sozialak zama hori pixka batez arinduko zidalakoan egin nuen aldaketa.»

Eta 1978.ko Irailaren 14.an Bilboko Kotsulatura abiatzen da Antonio de Echevarri y Llano Guatemalako kotsularekin mintzatu nahian. Kotsulak berak idazten zidan:

«Vino para presenciar su renuncia a su condición guatemal-

teca, por naturalización, lo que dijo hacía con gran sentimiento por su parte, habiendo dejado en Guatemala muchísimos amigos. Adució para esta renuncia su edad y no pensar regresar ya a Guatemala, reintegrándose a su tierra de origen y permanecer en el País Vasco el tiempo que le quedase de vida.»<sup>1</sup>

Iokinen azkenengo hitzetatik puntutxo bat argitu behar dela iduritzen zait. Diru-iturririk eza aipatu du berak. Eta baietzapen hau zehaztu behar da. Dakusagun:

1975.ean, Jose Maria Arizmendiarieta zenak Kooperatiben Arautegia euskaratzea eskatu zion Iokini. Eta baita honek lanari ekin ere.

KOPERATIBEN ELKARGOEN LEGE OROKORRA deitzen zuen lau kuadernotako bilduma aurkitu dut Zaitegiren liburutegian. Haietan arau-arau ematen digu arauetako euskarazko itzulpena. Behin lan hau amaituz azaldu ei zion Arizmendiarietari. Eta jakin ahal izan dudanez, Zaitegiren hizkera berezia zela eta ez zen berak agertu bezala erabilia izan. Estandarizatu behar izan zuten irakurketa errezagoa egiteko. Dena dela, Zaitegik egindako lan honetan oinarritu zen Arautegiaren euskarazko itzulpena azaltzeko.

Beste behin ere, Iokin lehen aldiz Arrasateko Centro Asistencial. era eramana izan zenean —1976.an— lanpostu baten eskaintza egin zion Kooperatibetako sortzaile zen Arizmendiarieta apaizak. Eskaintza hau ez zion azken honek berari otutako erreakzio batek eraginda edo egin, Kooperatibetako Batzorde Zuzentzaileak gaia erabili eta onartu ondoren, baizik. Lana, euskararekin lotua zegoen, jakina.

Baina Zaitegik ez zuen, dirudienez, inongo loturarik nahi. Eta eze-tza eman zion Arizmendiarietari.

(1) 1979.ko Urriaren 9.koan.

## ARRASATEKO SEME KUTTUNA

1975.eko amaiera zen Arrasateko Gau-Ikastolaren inguruan genbiltzan batzuek Iokini omenaldi bat eskaintzeko ideiaz lehen aldiz mintzatzen hasi ginenean.

Iokinen moduko erraldoi bati bere jaioterriak eskerroneko antolakizuna eskaintzea bidezkoa zela zirudien. Plazaratu behar genuen Iokinen irudia Arrasateko herriak bere semerik haundienetakoa ezagut lezan.

«Neri eskain diezadakezuen omenaldirik ederrena Udal Etxeko balkoitik ikurrina jartzea da»<sup>1</sup>.

izan ziren bere hitzak asmoaren berri eman genionean, Oinatiko Egoitzan ba zegoelarik.

Baina, jakina, abertzale bezain euskaltzale genuen Iokinek beste motako ekintzarik ere merezi zuen. Eta herriak «Ohorezko Semea» izenda liezaion iruditu zitzaigun biderik egokiena.

Lehendabizi 1976.ko Uztailean eratzea hartu genuen zuzenentzat, hil horretan betetzen baitzituen Iokinek 70 urte. Baina Uztailean bertan elebitasunari buruzko simposium bat zen eta hau eragozpen txiki bat izango genukeela, batez ere izendapenera etor litezkeen euskaltzaleentzat, pentsatu genuen. Beraz, Arrasaten hain harrera ona duten Santomas jaietako bezperan egitea erabaki zen.

Nahiz eta baietza aurretik euki ekintzari ofizialtasuna eman ahal izateko eskabidea egin behar zitzaion Udalari. Eta biderik onena Juventud Deportiva.ko «Danok» Kultur Taldearen bitartez egitea zen.

(1) ZERUKO ARGIA, 1976 Abenduaren 12.



Beraz, talde honek eraginda Arrasateko gainerako elkarte eta Txoko gehienek izenpetutako txosten bat igorri zitzaion Udalari. Bertan «Herriko Ohorezko Semea» titulua eskatzen zen Iokinentzat, honen bizi-tzaren gaineko laburpena igortzen zion batera. Udalak onartu egin zuen eskaria izendapena Abenduaren 19.an izatea erabakitzen zuelarik.

Dena dela, ez zen ia-ia inoiz burutu ahal izan. Argi dezadan:

Lehenago esan dudan bezala eta Iokinek berak adierazi digunez, osasuna ez zuen bat ere ona. Bizimodu desagokia zeraman ama hil geroztik osaketari ardura gutxi ziolarik. Bazkaldu egiten bazuen afaria alperrikakoa zeukan. Zenbat bider ilunabarreko solasaldia genuen birtartean hiruzpalau galeta jan... eta bapo! Horixe zeukan afaria!

1976.ko Urriaren 13.an, etxeko lanak egiten zizkion neskamea egunero bezala Iokinegana azaldu zenean lurtean erorita aurkitu zuen. Nola edo hala oheratu ahal izan zuen zenbait hauzokideren laguntzaz pixka batez hobeagotu zutelarik. Arratsaldea ohean ematea aholkatu arren ez zien jaramonik egin eta ondorioz beste ondoeza batek jo zuen. Biharamonean, 14.an, herriko Centro Asistencialera eraman zuten. «Insuficiencia cardíaca» irakur dezakegu Etxezarreta sendagileak zabaldu zion fitxan.

18.an komunean erorita aurkitzen dute beste bihotz-eraso bat zela eta. Sendabide egokia jartzen diote eta ba doa poliki-poliki hobeagotzen. Centro-ko bere gela lanleku bilakatu du. Hantxe dauzka Platonen liburuak, itzulpenak gertutzen jarraitzen duelarik. Gustoz aurkitzen da Centro-an eta Etxezarretak atzeratu egiten du alta, bere etxean hango girorik aurkituko ez zuelako osterara gaixotuko ez ote zen beldurrez. Sendagile honek kontatzen zidan, Iokin Centro-ra eraman zutenean, gorputz inguruan, barrengo elastiko azpian egunkari-orriak zeramatzala, hotzik ez izateko, jakina.

Beraz, Hazilean Centrotik irten orduko, hilabete lehenago hildako Iokinen erretore eta lagun genuen on Jose Luis Iñarra ahantzezinak, Oinatiko «San Martin Egoitza»-n gela bat zion aurkituta. Hara joateko Iokinek jarri zuen baldintza bakarra bere gelatik Udalaiz mendia ikusi ahal izatea izan zen.

Eta hara joan zitzaigun Zaitegi. Eta egia esan behar da, Oinatiko mojek ederki ondo zaindu zutela aitortu daiteke. Iokinek ere honela baieztatzen zuen, nahiz eta betidanik mojei holako mesprezuz begiratu. Iokinen osasunak ere igerri zuen aldaketa.

Eta iritsi zen eguna. Goizeko lehen orduan eta aurreko egunetan Iokinekin gelditu bezala, bere bila joan ginen Oinatira Mikel Lasa, Xabier Bengoa eta hirurok. «Beste Iokin bat» aurkitu genuen: hura zen dotoretasuna! Hunkipenak hartuta zegoen.

Goizeko hamaikak eta apur bat geroxeagotan Meza izan zen Arrasateko Eliz Nagusian. Emaleak Zaitegi bera, Satrustegi, Villasante, Larraokoetxea, Garaialde, Markaide, Aranegi, Etxebarria eta San Migel apaiz-fraideak izan ziren. Sermoia Josemari Satrustegik egin zuen, Zaitegiren bizitza-aipamen zoragarria eskaintzen zigularik.

Meza ostean Iokin eta Jose Antonio Altuna alkatea aurretik zihozelarik, Udaletxera abiatu ginen, omendua eta agintariak «Lore Gazteak» dantza taldearen arkupeetatik igarotzen zirelarik. Aurreksua egin zen eta, Iokinen pozarako!, gazte batzuek ikurrin bat eskaini zioten.

Udaletxeko Areto Nagusian Plenoa ospatu zen jarraian. Aurretik alkateak zenbait hitz bota zituen euskaraz, ia-ia Iokini parkeske zetorkiolarik:

«Saio honeik ezin leikezalako oraindik euskaraz egin, baina Iokin, zuk ezagutuko dozuz gauza honeik euskaraz.»

Ondoko lerroetan, Plenoan irakurritako txostena eta hartutako erabakia irakur ditzakegu. Ideia osoago bat egin dezagun ez dut laburtu nahi izan:

«D. Ioakin Zaitegi Plazaola, nacido en Mondragón (Guipúzcoa) el 26 de Julio de 1906.

La importante influencia ejercida por Zaitegi en el movimiento cultural de Euskadi puede enfocarse desde tres aspectos diferentes:

1.—Como helenista, Zaitegi ha demostrado un conocimiento profundo de los clásicos griegos, como se puede ver en su libro PLATON-ENEKO ATARIAN, que constituye una investigación sobre la figura de Platón y su obra. Este aspecto estudioso investigador, sin embargo, se ha visto obligado a relegarlo y sacrificarlo en aras de una labor más pragmática cual es la traducción de las obras de los clásicos griegos, ante la necesidad vital que tenía el euskera de reforzar su gran cultura con elementos básicos del acervo común al área cultural que le rodea. Zaitegi, por estas razones, formó la decisión firme de dedicarse a la traducción de los clásicos griegos, todo con especial dedicación a dos de sus autores más preferidos: Sófocles y Platón.

El trabajo realizado por él en este sentido ha sido admirable por su tenacidad y por las dificultades de todo tipo que ha tenido que vencer y por el hecho de que finalmente las traducciones que ha realizado ha sabido hacerlo en un euskera rico y flexible.

Parte de estas traducciones fueron publicadas en la revista



El 17 de agosto de 1979 expira el último Quijote de la literatura vasca. Dedicó la vida a su Patria haciendo del euskera el vehículo de transmisión de su ideario. Muere con la esperanza depositada en las nuevas generaciones vascas, confiando en que quizás algún día se logre lo que él no ha podido ver hecho realidad: una Euzkadi euskaldunizada.

Será difícil —muy difícil— llegar a las cotas de entrega y sacrificio que marcó Iokin Zaitegui en el transcurso de su vida en pos del mencionado ideal. Mas es deber de todo patriota el intentarlo. De lo contrario, estaríamos contemplando la extinción de la esencia misma de Euskal Herria.

EUZKO GOGOEA, por él mismo dirigida. Pero un trabajo más importante ha ido elaborando en estos últimos años, las obras completas de Platón estaban en manuscrito. El propio autor, por su cuenta y riesgo, publicó un primer tomo con las traducciones de «El Banquete», «Protágoras» y «Menón».

En el futuro es su intención continuar con el resto de las obras de Platón hasta su publicación íntegra.

2.—Como poeta la labor e influencia de Zaitegi ha sido también importante, como lo demuestran sus dos obras:

GOLDAKETAN y BERRIZ ERE GOLDAKETAN.

3.—En los años de la postguerra, en uno de los períodos más luctuosos de la historia de nuestro pueblo, la revista EUZKO GOGOEA, publicada y dirigida por Zaitegi, fue durante largos años la única publicación periódica en euskera. EUZKO GOGOEA fue una magnífica revista cultural en torno a la cual se agrupó prácticamente toda la «inteligentzia» vasca del momento, la del interior y la generación del exilio desparrramada entre los más diversos países del mundo. EUZKO GOGOEA contó con más de 80 colaboradores y jóvenes de la más variable procedencia ideológica y de creencias, unidos por el mismo amor a la cultura vasca, en una atmósfera de tolerancia liberal que Zaitegi supo defender y fomentar con escrupulosidad.

A través de la revista, Iokin Zaitegi realizó un magnífico trabajo de entronque generacional, evitando así para nuestra cultura una ruptura que pudo en aquel momento serle mortal.

Por primera vez después de la guerra, y a través de la praxis de la revista se definió, al menos implícitamente, una auténtica política cultural, que en nuestro pueblo la labor de aquellos años, con la perspectiva que ahora poseemos, nos parece profética y vanguardista. La política cultural que actualmente persigue Euskadi, fundamentalmente sigue los mismos pasos entonces marcados: una política cultural nacional que intenta llegar a la madurez y plenitud, rehusando en todo momento la marginación y el reduccionismo. Como resumen final recalcaremos una vez más que la labor realizada por Zaitegi ha sido desarrollada en uno de los momentos más difíciles y desesperanzadores de la historia de nuestro pueblo, cuando eran muy pocos los vascos que creían en la posibilidad de un resurgimiento cultural. La postura que Zaitegi en todo momento ha mantenido, ha

estado carente de toda ambigüedad y desaliento, como le corresponde a un patriarca de la cultura vasca.»

Eta era honetaz amaitzen da Udalaren agiria:

«A lo largo de su disertación fue interrumpido con frecuentes aplausos de la concurrencia, que se convirtieron en ovación al terminar la misma.

A la vista de los muchos merecimientos contraídos por D. Iokin Zaitegi Plazaola, el Sr. Alcalde propone a sus compañeros de Corporación, la adopción de los siguientes acuerdos:

- 1.—Nombrar a D. Iokin Zaitegi Plazaola hijo predilecto de Mondragón.
- 2.—Contribuir con la cantidad de 100.000 ptas. a la edición de sus obras.
- 3.—Subvencionar con 5 ptas. por habitante y año a la Academia de la Lengua Vasca.

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acuerda, con el aplauso de la numerosa concurrencia hacer suya la propuesta del Sr. Alcalde.»

Alkateak plaka baten emaitza egin zion Iokini. Izendapena eta emaitza izan ondoren Euskaltzaindiko orduko idazkaria zen Juan San Martín Zaitegiren lanaz mintzatu zitzaion Aretoa gainezka betetzen zuen entzulegoari. Bere hitzetatik hauexek aukeratu ditut:

«...Izan ere, gure gizaldi honetan euskararen alde lan egiteko beharrezkoa zen kementsu izatea, eta kementsurik aski ezagutu dugu gure inguruan, baina hoiere artean ere bakana dugu gaur omenaldia eskaintzen zaion gizon hau. Beronek lan asko egin badu ere, beste asko lanbidean jartzen egin duena ezta izan txikiagoa.

Historiako ilunaldietan argi bila dabilenak berakin izaten ditu arriskuak, eta holako urte ilunak ezagutu ditu Iokin Zaitegi jaunak ere.

...Urte ilun haietan, oraindik, konprometigarri bihurtzen zen euskaraz idaztea, eta batez ere atzerriko aldizkari batean. Honegatik, gerra aurretiko idazleetatik gehientsuenak herbesteraturik, deserrietan bízi zirenak ziren, batez ere, EUZKO GOGOAN idazten zutenak. Hemen bizi zirenak, bel-durrez, ixil. Baina, hemendik, gerraondoko lehen idazle berriak sortzen dira, euskararen egarriz, EUZKO GOGOAN idaztera. Zaitegi jaunak harrera ona egin zien, eta eroapenik

aski izan zuen hainbeste pertsona desberdin bere aldizkarian biltzen zituelarik.

...Eskerrak EUZKO GOGOARI-ri, bertan ba genuen poeta on bat gidari, gure gogoia beherako hasten zenean iratzartze berri bat ekarriko ziguna, hau zen aldizkariaren zuzendaria. Euskal Herria, Aresti berak baino lehenago landu zuen «Argin zarra». Honela titulako zuen bere olerki bat eta hara hola-ko profeziak egiten zituen euskaragatik inork ezer espero ez zuen garaian:

Erriko arrobian  
ari nauzu argin,  
eten gabe diardut  
gau ta egun, ekin!  
nekeak leporatuz  
biotz-eskuak min,  
nere amets ederra  
egi biur dedin.

Oraingo euskaldunek  
ezin dute uler  
zoritxarrez damurik  
nere lanen ezer.  
Geroko olerkariak  
adituko laster  
eta alegin gorriok  
iritziko eder.

Eskuko daitenean  
Euskal-Aberria,  
artu, olerkariok,  
nik landu arria:  
Andragoi-burutzean  
bedi ezarria,  
nere zain-odoletan  
gorritu-pitxia.

...Bere ekintza, ordea, ez zen hitz hutsezkoa. Lehen ikusi dugu zenbat euskarazko liburu eskaini dizkigun. Baina, gainera, ideiarenean asmorik sakonetik joango zaigu, berak bere lanez adibiderik ederrena eskainiz. Honegatik, bere lana herri xehearen mailak baino gorago eramango digu. Herri xehearena lantzeko bada idazle gehiago, baina Ikastetxe Nagusietarako, Unibertsitatetarako, materialak prestatzeko ez da aski idazle. Honegatik, berak Eladerako klasikoak, griegoak, euskeratzea hautatuko zuen.

...Bide zehatza erakutsi zigun jaun honi, gaurko egun hon-tan, eskertu beharrean gaude. Eta, esan dezagun, Profeta bat bezala izan dugula euskararen etorkizunari begira.»

Euskaltzaindiaren lehendakari zen Aita Villasantek hartu zuen hitza gero. «Zaitegi euskaltzaleek aztertuta» deritzan kapituluan doa Aita Villasantek irakurritako txostena. Amaitu ondoren Aita Villasantek berak gerturiko AXULAR-EN HIZTEGIA obraren ale bat eskaini zion oparitzat, «beronen balio urri baino gehiago opariaren beraren esangura eskaini nahirik».

Bide batez, Euskaltzaindiaren hurrengo Batzarrean Zaitegi Ohorezko Euskaltzain izendatzea proposatuko zuela jakinerazi zuen. Ondorengo hitzak proposamena aurkeztu zuen eguneko txostenetik aterata dira:

«Platon-en elkarrizketa guziak itzuliak ditu eta argitaratze-ko diru laguntza beharrean, Orain arteko guziak bere patrikatik ordaindu dituenek, ahalegindu behar gara itzulpen lan horiek argitaraturik ikusteko diru biltzen. Lanok, euskarak behar beharrezkoak baiditu, bai literaturaren aurreapenerako eta bai euskarari goi mailetako ikastaroetan laguntzeko.

...1976.ko Abenduaren 19.an Arrasateko Udal-etxeak eta herriak ondo merezia zuen omenaldi bat eskaini zion. Euskaltzaindia ere han agertu zen, eta euskaltzainburuak bere gorasarrez egin zituen hitzetan esan zuen Iokin Zaitegi jaun-a euskaltzain ohorezko izendatzearen eskaria eginen zuela gure batzarrean. Gaur egun, eskari hau onartuz, ohorezko izendatzea erabakitzen da.»<sup>1</sup>

Aita Villasantek eta Juan San Martinek eman zuten erabakiaren fedea, heuren sinaduren bitartez<sup>2</sup>.

Iokinen omenaldiaz jarraituz, Aita Villasanteren hitzaldiño ondoren Iokinek berak hitzegin zuen. Luis Alberto Aranberri «Amatiño»-k ho-

(1) 1977.ko Urtarrilaren Batzarrean proposatu eta Otsailekoan izendatua izan zen.

(2) Zaitegiri buruzko zenbait aipamenetan euskaltzain urgazle 1953 tutean izan zela aukeratua irakur daiteke. Baieztapen hau ez dago ondo, Iokinek berberak esaten baitigu noiztik den, Andimari 1951.ko Apirilean bidalitakoan: «Lengoan, Azkue euskaltzainburuak eta Oleaga Nazariok idatzi zidaten, Euskaltzaindiak urgazle aukeratu nauela. Urrilean aukeratua izan eta yoan dan Aste Gurenean eskuratu erabakiaren agiria, legorrez ta itxasoz igorri baitzidaten idazkia. Alakorik!»

Beraz, Euskaltzaindiak 1950.eko Urrilean izandako batzarrean izan zen Euskaltzain Urgazle aukeratua.

nela idazten zuen 1977.ko Urtarrilaren 2.ko ZERUKO ARGIA-n omenaldiko aipamena egiten zuelarik:

«Amaitzeko, Iokin Zaitetik bere eskertza azaldu zuen, bere hainbat gogoeta agertu, eta saio aurretik plazan agerturiko ikurriñaz zenbait burutapen eskaini, «dana subersioa zaneke denborak» gogoratuz.

Puntu honetaz, gazteek ikurriña atera zioten berriz, aurrean jarri, eta Iokin Zaitetik, duela hogeitaka urte buruturiko «Ikurriñari» bertso sorta irakurri zuen, urbitzetan eta bukagaitz. Bere eguna zen.»

Izendapenari jarraipena eta behin-betiko bukaera emateko bertso jaialdi bat eskaini zitzaion Iokini handik bi egunetara, Abenduaren 21.an, Arrasateko Gurea zinean. Bertsolariek bertso bana bota zuten Zaitegiren ohorez.

Honela ixten zen, Zaitetik esan bezala, «herriko seme kuttuna» izendapenaren ospakizuna.



## ZAITEGIREN HERIOTZA

1978.ko Abenduaren 26.an honela idazten nuen nere egunero-koan:

«Iokin Zaitegirekin egon naiz, botela bat whisky eraman diodalarik. Makal xamarra aurkitu dut. Azkenengo egune-tik hona beherapenik egin duela uste dut».

Urte hartako Eguberri jaiak Lemoan eman zituen Iokinek, Pelikene Arreseren etxean. Baina Errege Egunean ondoeza batek jotzen du eta Arrasateko Centro Asistencial-era dakarte berriro. Betikoa; bronkiok eta birikek ez diete behar bezala erantzuten.

Otsailaren 15.ean Zaitegiri bere biografia egiteko beharrezko dugun datu-bilkura hasi behar dugula proposatzen diot. Eta bere onarpena ematen duelarik astean bizpahiru bider eskaintzen diogu solasaldia lanari.

Zaitegiren liburutegiaz Juan Karlos Gerra zenarenaz gerta ez ledin, Arrasaten eta Baionan zeuzkan liburu guztiez zer egin nahi zuen galdetu nion behin. Bere hitzak, testigantza bezala geldi litezen, DEIA egunkarira aldatu nituen, ondoko lerroetan ikus daitekeen bezala:

«G: Iokin, bizitza osoan bildutako liburuen zenbakia handia izango da, duarik ez. Bihar-etziko belaunaldiek nora jo ba dute, liburutegia zainduz gero. Erabaki al duzu zer egin berarekin?

I. Z.: Euskaltzaindiari eman diot baimena Baionan dauzkan liburuak hona ekartzen hasteko. Baina nik beste gauza bat egingo nuke.

Arrasaten gaurregun ez da Kultur-Etxerik. Eta herriak ho-

nelako zerbait behar du. Seriotasun guztiaz Kultur-Etxe bat eraikiko balitz bertara botako nituzke nere liburu denak, Arrasateko herriak erabili ahal izateko. Seriotasuna aipatzen dudanean Kultur-Etxea herrikoa izan beharko zela esan nahi dut, eta inolaz ere talde edo alderdi baten edo bestearena.»<sup>1</sup>

Apirilaren 2.an etxea erretzen zaio Iokini, ezbehar honek areago mintzen duelarik. Aseguratu barik zeukan etxea, polizak ostilamendua bakarrik estaltzen ziolarik. 321.120 pezeta kobratuko zituen guztiarengatik.

Hil berdinean, 24.an, uzten du Iokinek Centro Asistencial.a, gaitza menderaturik, Oinatik San Martin Egoitzara ostera doalarik. Baina laster eroriko da berriro, gaixotasunak gorputzean arrastroa uzten duelarik. Ekainaren hasieran erdi galdua du oroimena. Dena dela, ianearan darrai PLATON V kaleratu behar du eta, nola edo hala.

Ezin asma Iokinek ordu haietan, bere ezinean, sentitzen duena. Egoitzako gela hartan, bakarrik, lurreratzen ari da euskal eredu-zutabe bat.

Nahiz eta berak ezetz eskatu Ekainean Donostiara daramate, Probintziko Hospitalean hobeto zainduko ote duten itxaropenean. Baina gaitzak ez du amorerik ematen. Sufrimendu haundiak jasan behar izan ditu Iokinek bizitzan zehar eta, aurrekoa gutxi baitlitzan, azkenengo egunetan ere oinazeak indartsuki hartzen du.

Abuztuaren 8.an konortea galdu du. Ez du berriro bere jaioterriko Udalaitez ikusi ahal izango. Hainbeste eta hainbeste ameslariri gertatu bzala, Iokinen ametsik gehienek amets izaten jarraituko dute, itxaropen bakarra txanda har dezakeenarengan gelditzen delarik.

Burmuinean gelditzen zaion bizi-izpi indargea Abuztuaren 17.an itzaltzen da betiko. Erlojuak goizeko 4.ak markatzen zituen.

Biharamoneko egunkariak berri samina ematen zuten. Joseba Intxaustik sinatuta, honela zioen EGIN.en, hiru zutabetarako artikuluak:

«...Une triste honetan, fededunok otoitza eta denok oroitzen haundi bat zar dizkiogu Iokin euskaltzale paregabeari.

Hura bezalako gizon guti izan ditu Euskal Herriak bere hizkuntzaren aintzinamendua bultzatzeko. Gerrate aurreko euskal loraldiak eman zituen fruiturik mamintsuenetako bat izan da Zaitegi.

(1) 1979.ko Otsailaren 24.koan.

...Indarrak, diruak, gizatasuna eta bizitza osoa Euskal Herriari emanda hil da Zaitegi. Holako gizonek ematen diote herri baten Historiari etengabeko segida».

Abuztuaren 21.ean «Euskal Literaturaren azken Kixoteari, beti arte» titulupean DEIA egunkarian idatzi nuenetik lerroaldi hauek aldazten ditut hona:

...Ameslari eta kixotea joan zaigu. Gizarte euskaldun batekin amets egiten zuen gizona. Durangoko ikastetxeko egunetatik amets berdina erabili izan duen gizakumea. Baina zure amets hori ez dela alperrikakoa izango berresaten dizut —zenbat bider?— Iokin. Laster arkipielago oso bat moldatuko duten zu bezalako ugarteak —apalagoak, txiroagoak— sortzen ari dira gure egunotan. Hauek ere zure amets hura darabilte, meritoa —noski— txikiagoa, orduko baldintzak ez baitira oraingoak. Nolanahi ere, ugarte hauk zeuk utzitako zuziaz baliatu beharko dute heuren bideetan argi egokia edukitzeko. Bihar etzika Euskal Unibertsitatean gaur Ugarte-txiki hoi en eskuetan bakarrik dabilzan Platon-en aleak testuliburuak litezke, urte luzeetako lanak lehen loreak emanaz.

Iokin, ameslari izan zara. Bai, baina ameslari baikorra, ez baituzu hondar-gaztelurik diseinatu. Aitzitik, harkaitz baten gainean harrizko blokez eraikitako jauregi beroa utzi diguzu. Maitekiro jasotakoa, «gogorik denean aldarrik ez» baitzenuen esaldirik gogokoena. Jauregi horren leihoetatik borroka zelaia berdeago ikusiko dugulakoan naukazu, bere garbitasunean gure etsaiak itsueraziko dituen berde paregabea. Auskalo zer izango zatekeen denak zu bezain ameslari iaioak bagina!

...Euskara eta Aberriarenganako amodioa batera hazi ziren zugar, euskaldunok hizkuntza euskara baitugu eta ezin da bata bestearengandik berezi. Sebero Altuberen mendeurrena ospatzera goazelarik, konparaketa bat egin nahi nuke zure eta haren artean. Biak herkide, biak herbesteratuak, biak euskaltzale, biak abertzale... baina desberdintasuna dago argi zuen bion artean. Seberok bere lan gehiena erdaraz eman bazuen, zure hizkuntza, beti, amaren altoan ikasitakoa, bere bularretatik xurgatutakoa dugu.

Kixote bihurtu zinen. Baina ez zenuen haizerroten aurka burukatu, erraldoiak zeintzu ziren eta non zeuden baitzenekien. Behin eta berri eraso zenuen, luma lantza gisa, erraldoien artean zure izenerako beldurra sortzen zelarik. Eta zure gudariek —Santxo Panzak ez besteek— gur egi-

ten zintuzten Zaitegirengan ortze beltzeko artizarra nabaritzen baitzuten.

Iokin, ezagutu zaitugunok ez dugu etsiko zerorrek eman baitiguzu aurrera egiteko gogoia. Eta horretan ihardungo dugulakoan naukazu. Utzi gaituzu eta, ezpairik ez, kale bat eskainiko dizute herrian. Ez dut esan nahi gaizki dagoenik, ezta urrik ere. Zure bizitzaren lanak ondo merezi baitu honelako ohore bat.

Baina zuk ba dakizu, ondo jakin gainera, era honetatik bakarrik ez dugula ezer aurreratzen. Gogoratzen al duzu zure erantzuna Arrasateko herriak omenaldia eskaini nahi zizula jakinerazi genizunean? «Omenaldirik onena ikurriña balakoian eta euskara Udaletxean».

Zure azken idazkiak Oinatiko gelaren mahai gainean daukazu. Hantxe eladerazko hiztegi mardul eta erabilia. Office. ko armarioan whisky botella —zure edaririk gogokoena— beste «euskararen osasunerako» brindis zai. Inork ez die idazki hoiei bukaerarik eman ahal izango. Ez du hiztegia beste inork erabiltzen jakingo. Urteak ematean whiskyak irabazi egingo du, uzten diguzun obra guztiak denboraz irabaziko duen bezala. Zu gu baino aurrerago bizi izan baitzara. Iokin, utz nazazu lerro hauk zuk biribildutako bertso baten apalaz amaitzen. Eta gero, zain eta gida gaitzazu.

Nere antzera ari aiz,  
i, nekazaria.  
Ondalan lurperatu  
itxaro-azia.  
Neuk bezela maite duk  
datorken euzkia:  
siñestez ikusten duk  
giza-udaberria.

Hil berberaren 27.an Juan San Martinek Donostiako HOJA DEL LUNESEAN idatzitako «Iokin Zaitegi joan zaigu» artikularen zati hauek dakartzat:

«...Baina herriak, bereziki herri abertzaleak, oraindik ez daki nor galdu duen.

Gure hizkuntzaren alorrean goraipenik merezi baldin baidu, lehenetakoa dugu orain joan zaigun Iokin Zaitegi jauna.

Gure historiaren ilunalditik, etorkizunera begira ari zen gure gizon hau, profeta baten gisa, herria bere mintzairarekin zuzpertz nahirik.

...Fariseorik ez zuen maite eta publikanoekin adiskidetasu-  
nez ibili zen. Apostolu grina zeraman.

...Sofokles, Euripides, Platon... hor ditugu euskaratuak.  
Biharko lanak, lan ilunak; gaur egun gutik haintzat hartzen  
baditu ere, biharkoan ezagutuko dira bere merituak. Eus-  
karak, biziko bada, hain beharrezko dituen lanak.

Bukatzeke esan dezadan, gure gizaldiko unerik nekegarrie-  
tan Iokin Zaitegik egin zuen lana oso nekez sinestekoa dela  
izan ere. Honegatik, gaur, Euskal Herriko bazter honetan,  
doluminezko egun triste honetan, agur!, Iokin.»

Azkenik, Abuztuaren 31.an DEIA.n Eusebio Erkiagak argitaratuta-  
ko «Zaitegi, Euskal-mistika zale» izeneko artikulutik honako hitz hauek  
ateratzen ditut:

«...Bai, jauna, «Kixote» izugarria zan arrasatearra. Gazte-  
txu zalarik, «gure» mundua ezagutzeke Iesuren Lagundian  
sartu, eta geroetan Europako eta Ameriketako atzerrietan  
emon zituan urte mordoak. Anartean, aren adimen-lapikoan  
asmoek borbor irakiten ziarduen, egin-eginean «euskaldu-  
nen Erri» onen errealidadeaz bat ez etozanak.

Amesa amesaren ostean!

Orraitio, euskal lana egiteko gogoa, kemena, adorea ikara-  
garrian ekarren. Gurasoen izkuntza au zeharo indartu gu-  
raz, arako berbere asmakizun eitekean «euskal mistika».  
Orixe zan aren ideiaburu, Guatemalatik lehenbizi onera za-  
nean. Alabeharreko euskeragintzan jardutea, euskeraz baka-  
rrik mintzatzea eta idaztea.

Aren lillurazko munduak ez eban emen izaterik, azur-mami-  
ñik, bitartean. Arrituta, Bilbon euskerarik ez entzunaz, min-  
gostu egin zan gure gizona. Jakina!

Donosti aldean ibili ondoren, bardintsu; an, ostera, ka-  
lerik kale, jende adiñekoengandik aren euskal-agurrari eus-  
keraz erantzuteak... orduan ere, erdi-etsipen aure bazterre-  
ra... eta barriro ere, Zaitegi, arako bere «euskal mistika»  
egingarri ete eitekean, arnasea zabalduz eta begiak argituz.  
Laiñoarteko lilluraren mamintzegatxa!

Ameriketean irabazi diruak, EUZKO GOGOIA-ren bigarren aldian  
ondata zituan gehienbat. Aren txanponen zatirik andiena,  
euskeraren alde eralgia izan da.

«Orixe» euskeraren nekazalea, idatzi genduan noizbait. Zai-  
tegi, euskeraren mistika ames egin ebana, diñogu gaur. Esa-  
gun orain: Arek ereindako aziak, lehenetan baiño lur ohea,

aitorragoa, emonkorragoa izan begi, biar etziko euskaldunen bihotzetan.

Ba doaz, eta ba goaz, urteen menpe. Gero arte, ba, Iokin».

Iokinen gorpua, Donostian hil ondoren, Oinatiko Egoitzara izan zen ekarria. Biharamonean, arratsaldeko seietan, kapera izekia ipini zen Arrasateko Udaletxean. Handik herri osoa igaro zela esan daiteke. Zazpietan, Argaia gotzaiak eta beste hemeretzi apaiz-fraidek hileta zuzendu zuten, herriko Eliza Nagusia jendez gainezka aurkitzen zelarik.

Hileta amaitu ondoren zerraldoa ikurriñ batez estali zen. Iokinen ikurriñaz.

Arrasaten sortutako lorea Arrasateko lurrera izan zen itzulia. Oroitzapena gelditu da gure artean. Oroitzapena eta lurrin zoragarritzko lana.

## ZAITEGI, EUSKALTZALEEK AZTERTUA

Euskal kulturaren alorrean izenik irabazita duten zenbait pertsonen eritziak dakartzat lerroalde hauetan zehar, Iokin Zaitegi zenari buruzko heuren usteak zeintzu diren ezagut dezagun. Aitormenaren iturria zein den jartzen ez dudanean, eritzia eskutitzez jakinerazi didala ulertu behar da.

PIARRES LAFITTE: «Iokin Zaitegi gizon bat zen bere xedeeri jarraikia, bazterretako egoeraz hanbat kezkatu gabe. Olabide zenak bezala geroa zukan gogoan eta duda izpirik ez zuen gure ondokoek eredutzat hartuko zutela haren hizkuntza garbi baino garbiagoa. Langile suharra izan da, bere euskara sakonki ikertu zuena, hitz bakanen ondotik zebilena, erakutsi nahiz gure mintzaiaren oporatasuna».

JOSE MIGEL BARANDIARAN: «Ezagutu Miarritzen egin nuen, Guatemalatik etorri zanean. Berak euskal ikaslanetan gebiltzen batzuek bildu giñuzten EUZKO GOGOA-ri jarraipena emateko asmoan, batez ere.

Geroztik Garagartza'ko Leze-Txiki'n azterketak egiten ari nintzala jua zitzaidan eta luzaro mintza giñan euskal lehen gizakieraz. Zaitegi gizaki banazkoa, burutsua eta apala iduri zitzaidan beti».

EUSEBIO ERKIAGA: «Gizon osokoa zan, bera betekoa, asmoetan trinkoa, agian setatsua, ez zetatia. Beharbada, bere burua goiko jarriale eitekean. Baiña gizon ona, zintzoa, jatorra, portaera garbiakoa, maitagarria, batez ere euskaltzaleontzat. Ameslaria, ori bai, kixote samarra aurki.

Gazte denporan garbiminak jota ibili zan. Ugari izan dira bardin-tsu jardun izan dabenak. Batzuek, gerorantz, mordoilloegira jo izan dabe. Geure ditugun berbak eta abar batipat erabiltea, orixe izan zan aren asmo-buruak eskatzen eutsana, asmo-burua ain zuzen, euskal mistika izan eban eta. Beraz, itz arrotzak ahaleginez, eskas eta urri sartzea gure liburu eta lanetan.

Bestalde, arek aukeratu bidea, gerkeratiko itzuliak egitea izan zan, nabarmenik. Batzuen iritziz, erbesteko oraingo literaturetako pitxiak euskeratzea izan eitekeela guretzat praktikuago? Auxe da aren kaltetan zenbait aldiz jaso dodan zurrumurrua».

ALFONTSO IRIGOIEN: «Nortasun handiko gizona zen, bere eritziei sendo eusten ziena. Lege zaharreko jesuiten formazioa zuen, baina geure hizkuntzaren alde makurtua, eta hori, agian, Konpainia uztearen arrazoien artean egotea ba liteke, apezgoa utzi gabe orain gehienetan gertatzen den bezala. Bere burua gizon handitzat zuen, bereziki ezagutu nuenean. Nigatik idatzi zuen: «Arratiako zekorria txikerra baina gogorra».

JUSTO GARATE: «Borondate andiko idazlea eta biotz-zabalekoa dugu Zaitegi, duen ezaugarriarik nabarmenena ia bakardadean lanean ari- tzea delarik».

NIKOLAS ALTZOLA: «Gure belaunaldientzako, behintzat, Zaitegik bere izatea euskal kulturari ematean du garrantzia, euskal literatura arloan, goimailako neurrian. Sustatzail eragile gazteentzako eta orduko urteetan sakabanaturik eta azpiraturik zeudenentzako berbiz- tailea. Lehen mailako pertsonaia genuen gure denborakook eta goi mailan jartzen genuen bere nortasuna».

JOANMARI TORREALDAY: «Zaitegi euskaltzale amorratu bat izan da, bere izerdia eta dirua euskal gauzetan eman dituen. Bide ire- kitzaille izan zen EUZKO GOGOIA-rekin: hemengo katakonbetako eus- kal idazleei irteera eman zien. Euskara eta kultura edo filosofia ezkontzen saiatu zen eten gabe. Hortxe dagoke EUZKO GOGOIA-ren meriturik handienetakoa; eta horixe da baita bere itzultzaile-lanaren arrakasta».

TXOMIN PEILLEN: «Izakeraz gizon baketsua, barea zirudin, bakarrik euskaragatik sututzen ikusi dut. Bere portaera, bestelan, pazentzia zen; jendeen bildu beharrez ordu luzeak «galduko» zituen. Luzaro hitzegitean —eta hori Biarritzen behin gertatu zitzaigun, buruz-bu- ru— barrengo etsipena ixilarazi behar zuela aitortzen zuen. Garai hartan euskaltzaleak harpezulo batetan idazten genbiltzan eta inguru- menaren ezaxola handia zen.



Zaitegi euskalzale bezala supertzailea izan da, oroz gain. Idazle askok zor diogu idazle izatea. Zaitegi —Mitxelenarekin batean— izan da euskara hirirtatu, kaleratu duena eta Andimarekin batean euskara aintzinako Erroma eta Greziatar Kulturei lotzen saiatu den gutietatik; beti entzun diot euskara gai zela eta behar zuela «goi mailletara iritxi», mailla horietan baita benetako hizkuntza baten lekua».

MARTIN UGALDE: «Zaitegi, poeta guztiak bezala, ameslari bat zen, baina amets bakarrekoa: euskara. Hauxe zion «Orixe»-k, euskara hartu zuela andregaitaz; ba berdin esan genezake Andimaz eta Zaitegiz ere. Izan ziren guztia euskarari eman zioten. Zaitegi, pertsona la zen. Borrokan bakarrik egiten ohitua zegoanez, barrukoia zen, eta hor aurkitzen zituen behar zituen kemen guztiak; lagunak ba zituen, eta onak, aitatu dizkizuten hoiek lekuko, baina behar zuen hainbat laguntz ez zuen izan.

Euskararen egoera trixte eta luzea izanik, ba zekien egiten ari zen eginak baino zerbait gehiago behar zuela, eta honek kezkatuta, barruko bere indarrei, bai ispiritualei, bai lan-bidez behar zuen dirua ateratzeko kemenei begira jarri zen.

Gizon atsegina zen, apala; askotan ba zirudin, batez ere azken urte hoietan, etsi-etsian bizi zela, euskararen irtenbiderik ikusten ez zuelako gehien bat; baina apala zen bezala zorrotza zen askotan. «Orixe» zen bezala, nik uste. Hiruen artean Andima zen apalena, nik uste, bihotz apalena. Ez dakit hau esatera nola ausartu naizen, zaila baita hontaz hitzegitea, baina irten egin zait, eta ez dut ezabatuko, nire asmo pertsonal bat besterik ez baita».

JOSEMARI SATRUSTEGI: «Euskal Literatura itorik eta pizteko bide gutxi ikusten genuen garaian arnasaldi bulartsua zen EUZKO GOGOAREN ale bakoitza. Nik uste asko zor diola gure literaturaren pizkundeak Zaitegiren denbora harretako lanari. Idazle askoren tzat lehen saioen aldizkaria izan zen, eta beste batzuentzat bultzagarri eta eragin sendoa.

Baina bere lan nagusia klasikoetan murgildurik bizitzea izan da. Itzultzailearen lan astun eta zaila hartu zuen bere gain eta bere bizi osoa helendarren literatura betikoa euskaraz ematen erre zuela esan dezakegu.

Lan hau egiteko, beste alde, prestaera oso bereaia behar delarik, unibertsal mailara heltzen garelarik euskal kulturaren askoz ere estimatuago eta erabilkorrago gertatuko dira bere liburuak».

PIERRE NARBAITZ: «Harritua nago oraino orhoituz nolako *langile*

*gaitza* zen! Zer karrarekin eta zer atenez izigarriarekin egiten zuen lan hori... Baiona-ko Inprimeria batean elgar ikusten ginuen, anai-adiskide bezala, eta beti zagon bere buruaren jabe ta nagusi... eta denbora berean Inprimeriako guziekin zoin adiskide umil maitatua! Nolako etsenplua ez dauku eman eskuararen ta Eskualerriaren adiskide, seme ta langile guzieri!»

BERNARDO ESTORNES LASA: «Zaitegi es para mí, más que nada, un promotor de la literatura euskérica en los momentos más difíciles de su existencia. Se puede ser mejor o peor poeta, mejor o peor traductor, pero la promoción requiere una cualidad humana trascendental: fe y corazón».

TELESFORO MONZON: «Zabala agertu zen EUZKO GOGOAN. Ez zen hain euskara batua aldizkarian agertzen zena, gai honi dagozkion kontuak geroko txoriak dira eta. Nork bere aldera idatzi behar zuela esan zidan behin.

Konpaini oneko gizona zen, lagun bezala oso ona. Sufritu egiten zuen Euskal Herrian euskararik ez entzutean».

JAIME KEREXETA: «Zaitegi'k, bere aldizkariak, euskeraren alde beste inok baino lan aundiagoa egin dau orain arteko guztian; inok ez dau egin euskerazko lan aundiagorik, ez guda aurrean ez ostean. Ori, argi ta garbi ikusi daiteke euskal literatura benetan eta egoki aztertu ezker. Bakoitzari berea, begiak estaldu ezik».

PATXI ETXEBARRIA, S. J.: «Adiskide eta aren iritzikoekin oso gizon atsegina zanik nik ezin ukatu. Baita ere, Zaitegi iauna oso bere buruaren jabe genduan. Ezin erbestean luzaro ibiliz, Zaitegi ere aberria utziz beste lurretako eguzkiak berotu izan gaitunoi gertatua gertatzen zitzaiola. Ontarako Kanpion agurgarriak idatzi zigun «Errotazarreko Txistularia» ikasgai degu. Erritar asko gu baño gerogokoak izan eta beste iritziko ere bai. Gerok ere aberrian arrotz gertatzen gera. Sinistuko al didazu?

Eta ni arekin biltzen nintzaneko euskotar askok Zaitegi ez zuten aintzakotzat artzen. Gañera olako oiek Zaitegi *arroa* zala uste. Dakizunez, euskaldunon artean *guztia* dakitenak ba-dituzu... eta iaun oriek Zaitegi begi okerezez so egiten: aiek uste Zaitegi itzala egin lezaietekela... Bañan, bai zera! Zaitegi ez degu antustez inori itzala egitekoa. Bestek ori uste ba zuten errua berena zuten».

PELI KORTA, S. J.: «Iokin bere erabakietan oso sakona zen. Berak uste zuan, Jainkoak nai-ta, bere bizitzaren elburua zala euskeraren alde lan egitea. Ortan «A.M.D.G.» jardungo zuala: bere kemena, be-

re iraunkor ardura, bere jasan-bear izugarriak ontzat zituan tontor ara eldutzeko»<sup>1</sup>.

ANTONIO MARIA LABAIEN: «Zaitegik marka guztiak apurtu zituen Guatemalan aldizkaria argitarazian. Benetan gizon sendo, giartsu, langile aspereaina, ameslaria zala!»

GAIZKA BARANDIARAN, S. J.: «Zaitegi'ren asmoa Euskera zabaldu ta iraunerazten izan zan. Ori arrasatearraren eskutitzetan lelo bat bezela irakurtzen degu. Baiñan ori soilki ez zan aren asmoa izan. Ori, ba, gutxienik izan zan. Zaitegi'ren eta bere aldiko taldearen jomugarik bikaiñena Euskera Elertibidean ipintzea izan zan. Euskeragintza izan zan, gure izkuntza gaurkotu, larre izkuntza beste Europa'ko izkuntzetan gerkel eta latel klasikoen bidez gertatu zana, izkuntza landu ta eder baten mailara jaso.

Abertzaletasunak, batez ere, ta bere erro errotik sorrerazten duna Jenderriaren Nortasuna da. Orixe litzake Arana Goiri'ren abertzaletasunak sortu zuen buruyakiterik (consciencia) jatorrena. Barneko ats berria zan gizamendeko ayek Elertiaren yakiñean Euskerari ixuri zioten sena. Antziñakoen itzez eta joskeraz zetorren Euskera erdaldunduari euskal sena irion zioten. Ayetako taldekoa zan Zaitegi ere, «Orixe», «Lizardi», «Lauaxeta», Ibinagabeitia, Olabide, Eguzkiza, Iburgutxi ta besteen artean.

Epikan nagusiena ta gailenena «Orixe» da, ta Lirikan, berriz, «Lizardi» ta «Lauaxeta». Zaitegi euskal iztegian, «Orixe»-k aitortu zuen bezala, eta bat nator iritzi ontan, beste edozein baiño jabeagoa da. Erruz daki euskal itz jatorretan. Okerrik esan du batek, Zaitegi'k bere garbikeria arren ez duela onartze aundirik izan. Platon euskeratzea ta irakurtzea egunkarietako gorabera errexak eta ume ipuinak idatzi ta irakurtzea baiño zailagoa da.

Bizitzako bide zakarrean atzerabide gogorrek edun izan zituen arren, begiak elburutik itzuri gabe, bekokia tente, ta gaiñeko zaparradak bizkarra ubeldu arren, bere yomugara ekiñalean jo zuen. Egonarri izugarria izan zuen, orixe izan bai zan gure belaunaldikoen zeñezkorik nabariena ta... gaiztoena? Bein batean denok ukabila jaso izan bear genuela, deritzat, ainbesteko infamia gure kaltetan ikusita».

NORBERT TAUER: «Gu biren arteko korrespondentzia 1950.garren urtean hasi zen. «Zaitegi» izena dakarren karpetan dauzkat Zaitegi Aitaren aldetik jaso ditudan euskarazko eskutitzak, baita ere ne-

(1) A.M.D.G.: «Ad maiorem Dei gloriam», Jainkoaren aintza haundirako. Josulagunen banderetan aurkitzen den ohiu-ots bizia.

ronek berari bidalitako karten kopiak. Zaitegi Aitari zuzendutako nire lehen eskutitza 1950.eko Urtarrilaren lehenengoan datatua dago. Eskutiz horrekin «Diosala» sutsu bat bidali nion EUZKO GOGOIA izeneko errebistan argitaratzeko. Orduandanik EUZKO GOGOIA-ren lankidea gelditzen nintzen errebista hau agertzen zen bitartean. Bertan argitaratutako artikuluak garrantzi handikoak ziren —nire iritiz— orduko denbora ilunetan euskara bizkortzeko.

Nire liburutegian gordetzen ditut Zaitegi Aitaren euskarazko lanak. Guzti guztiak euskal literaturaren egiazko bitxiak dira. Guztien artean, nire ustez, PLATON'ENKO ATARIAN izena duena onena da. Ongi konprenitzen dut nolako galtze handi-handia den euskal literaturarentzat gure Aita euskaltzale porrokatuaren desagertzea bizien artetik.

«Guztien ahaleginez euskara iraun erazi, edertu eta zabaldu dezagun» hitzekin bukatu du gure adiskide zenak hemen daukadan bere eskutiz bat eta hitz hauetatik agertzen da bere euskaltzaletasun sakona.

Segur naiz euskaldun zintzo guztien oroimenean Zaitegi Aita betiko biziko dela».

PATXI KORTA, S. J.: «Buru azkarrekoa ta jakintsua zan. Bere beste lagun zar, Muxika'tar Plazido'ren elburua: *eziña ekiñaz egiña*, beretzat josita zeukala esan zezakean. Bere asmoetan tinko, bere eginkizunetan beti iraunkorra izan zan.»

JUAN SAN MARTIN: «Historiako ilunaldietan argi bila dabilenak berakin izaten ditu arriskuak, eta holako urte ilunak ezagutu zituen gure gizon honek. Arriskuari aurpegia emanaz, eginahalak egin, euskara bizi dadin, eten gabeko borrokari helduak aritu zen, ekin eta eragin. Hau bezalako beste bat ez dut ezagutu» <sup>1</sup>.

«Bere gaiak Unibertsitaterako euskarak beharrezko dituen tresnak, herri xehearentzat hain ulerterrezak ez izan arren, bere ekintza erdugarri honegatik, bere sorterriaren begiramena irabazi du. Hala dirudi, ta txalogarria deritzagu arrasatearraren jokabide honi.

Holako lanak egiteko gizonak urri dira edonon ere, eta holako lanak beharrezkoak izaki euskara Ikastetxe Nagusietara eramango badugu, eta eraman beharra dugu euskarak luzaroan iraungo baldin badu. Iraupen honi begira dago gure herriaren izan edo ez izana» <sup>2</sup>.

MIKEL LASA: «Iritzi orokor eta arruntok eman ondoren, berehala gal-

(1) 1978.ko Ekainaren 19.ko Donostiako HOJA DEL LUNES.

(2) 1978.ko Uztailaren 3.ko Donostiako HOJA DEL LUNES.

dera datorkit burura: zenbaiteraino du gaurko euskal kulturak beharrezko Platonena bezalako obra? Zorionez, badirudi gure kultur politikaren planteamendu tazitoetan, kultur modernu orok darabilzkian oinarri zabalak onartzen direla, errazkeriaren aitzaki liraketekeen reduktionismoak baztertuz. Horretaz konturaturik gaur egun (ditugun indar eskasak kontuan harturik) izugarritzko ahaleginak ari gara egiten didaktismoaren bide lehorretatik zehar, bihar edo etzi itomenik gabeko kultur bizitza eroso bat izan dezagun.

Hain zuzen Zaitegiren-eta belaunaldia gaurko etapa honen aintzindari bezala dakusat, euskal kulturgintzan diharduten gure anaia zaharrak bailiren. Orainarteko euskal literatur kondairetan ez zaio belaunaldi honi, belaunaldi bezala duen meritu hau onartu, ene ustez.

Ez dut zalantzarik gaurko gazteriak onartu eginen duela bai Zaitegi (benetako zubigilea) bai beronen Platonen itzulpena»<sup>1</sup>.

JESUS GAZTAÑAGA: «Bekoki ez ezik, kopetean bina azal ere ba-ditugu euskaldunok eta... ez gera lotsaz gorritzen. Euskal alorrean lan aundiak egin aal izatea, ez dago guzti-guztien esku. Baiña, norberak ezin duana bestek egin aal izan dezan, nolarebait lagundu ez lezakeanik ez da. Eta laguntza orixe falta izan zaio Zaitegi agurgarri eta arrigarriari. Milla eratara, baiña... bazterturik utzi izan dugu. Eta alperrik dira orain, il dan ondorengo ai-eneak eta zotiñak. Nork esan lezake, bear aiña lagundu dionik? Zaitegiri ta arek bere eskuz zeraman lanari zor zitzaion aiñean lagundu dionik, nor ausartuko da esaten»<sup>2</sup>.

IÑAKI AZKOAGA: «Bitxia dirudi baina hona hemen gizon honengan orain euskal kultura hain beharturik dagoen lan bi (EUZKO GOGOIA eta Platon-en itzulpenei dagokie); alde batetik, «mass mediak» ego-kitu, euskal irakurle goari euskaraz irakurteko ahalbideak emanaz, eta beste aldetik Euskal Unibertsitateko zutabeak ezarri, textuak apainduz eta ikerketa lanak euskaraz eginez»<sup>3</sup>.

JOXE AZURMENDI: «Beraz, arro senti diteke gure Zaitegi langille trebe porrokatua Platon gure artean presentatzen, aurkezten eta jendarterazten leenengoa izan delako. Ta nai ta oi duen bezala egin duelako. Berak bakarrik daki zer kosta etzaion... Ezertarako ezta-nik ezta», dio egilleak, eta irakurleak, begi bien gainean bekokia ta entelegua duen irakurleak laister ikas dezake liburu onen lezioa...»<sup>4</sup>.

(1) 1976.ko Apirilaren 11.ko ZERUKO ARGIA.

(2) 1979.ko Irailaren 8.ko GOIZ ARGIA.

(3) 1976.ko Abenduaren 1.eko ANAITASUNA.

(4) 1962.ko Iraileko ARANZAZU.

JOSEBA INTXAUSTI: «Beste planeta batetik zetorren dohain bat bezalaxe zen guretzat euskal kultur aldizkari libre bakarra. Etorri ere ez zetorren hura etxekoanetik, Guatemalatik baino!

Bizitzaz eta ekintzaz Euskadiren desterraldi haretako testigu eta langilerik leialena izan zen Jokin. Gizon jantzia, jakituna, azken urteetara arte bere arlo bereziari (mundu klasiko ederrari lotua: nola maite izan duen gero Platon hura) lotua. Euskaltzale askok sofritzen ditugun zimbili-zanbulu antzuetik urrun, noizbait aukeratu zuen bideari irmoki eutsi dio Zaitegik azkeneraino» <sup>1</sup>.

YON ETXAIDE: «Halaber, ezin gaitezke ahantzi euskaldunok Zaitegi-ri zor diogunaz. Honek, estatu espainolaren barruan ezin egin zitekeen lanari, kanpotik ekin zion, EUZKO GOGOEA euskal aldizkaria argitaratuz Guatemala-n eta bere inguruan bilduz orduko euskal idazlerik ezagunenak. Honek ez zuen zensuraren kontra borrokatu behar izan, baina bai diru problema izugarrien kontra, aldizkaria Euskalerrian saldu behar baitzen eta debekatua baitzuen sarrera. Isilpean eta kontrabanduz sartu behar izaten zen. Zenbait aldiz pakete osoak erori ziren poliziaren eskuetan eta zabaltzen zen guztia ez zen kobratzen zoritxarrez. Horrela, Aita Zaitegik lur jota bukatu zuen eta aldizkaria ateratzeari utzi behar izan zion» <sup>2</sup>.

«LAGUNA» IZENGOITIZ «HERRIA» ALDIZKARIAN: «Nahi du halere Eskual-Herria zerbitzatu, eta iduri zaio eskuaraz egin ditazkela lan serioak edozoin bertze mintzairaz bezala.

Zertako eskualdun argituek ez lukete nahi eskuaraz atsegin bera hartu? Eta egun batez idek baledi eskualdun «uniberzitatea», ez othe litake egoki eskuaraz erakats ditzen bai Platon, bai Jondoni Paulo, bai Bergson, bai Aristoteles, bai Sartre, bai Unamuno, bai Lavelle, bai Kant, bai San Tomas, bai Zubiri?

Lan zaila, nahi dut; baina zertako egon haiduru, gerochagoko peskizan? Zaitegi jaunak bidea idekitzen du, eta mementoan hainitzek ez badute konprenitzen nora doan, nork daki egun batez Eskualdun eskola handietan ez dutenentz eskualdun jakitatearen lehen arbasoa bezala goraiapatuko? Esker mila, Zaitegi adichkidea, zure etsenpluaz!, Eskual-herriak gu bezalako langile peon chumeak errechkiago atchemanen ditu, zure heineko, zure hedadurako, pentsazaleak baino. Emazu aintzina zure ildoan: ez barka!

Lavoisieri lepoa moztu zioten Pariseko basek erranez: «La Répu-

(1) 1979.ko Abuztuaren 18.ko EGIN.

(2) 1979.ko Apirilaren 29.ko ZERUKO ARGIA.

blique n'a pas besoin de savants»! Eskual-herriak jakintsuak ere behar ditu!»<sup>1</sup>.

JESUS MARIA LEIZAOLA: «L'ouvrage de Zaitegi («Platon'eneko atarian» liburuari dagokio) est un nouveau jalon dans l'oeuvre de ce grand animateur de la culture de notre langue. Helléniste, il s'est d'abord fait connaître comme poète basque puis comme traducteur de Sophocle, dont il a publié en «eusquera» une version de tragédies, comportant deux volumes

Ce sont les événements de 1936 qui dans le tourbillon général ont rejeté cet auteur loin d'Euzkadi et l'on laissé dans un isolement qui allait l'obliger à manifester sa vigoureuse individualité en Amérique Centrale, se voyant seul et dans la nécessité de subvenir à ses propres besoins il a révélé un patriotisme d'exception, grâce auquel en même temps qu'il travaillait dans l'enseignement, il mettait ses revenus à la disposition d'une revue qu'il avait fondée et dont il assumait la direction»<sup>2</sup>.

AITA VILLASANTE: «Gizon batek euskeraren alde bere bizitza osoa erre baldin badu, gizon hori Zaitegi jauna izan da. Horregatik, gaurko omenaldia, bere jaioterriak eta euskaltzaleek egiten dioten gorazarre hau, alegia, ongi irabazi eta merezia du, inork izatekotan, Zaitegi jaunak. Gaurko gazte askok beharbada ez dakite zuzen nor den edo zer egin zuen Zaitegik. Eta hunekin ez dut esan nahi hori ez dakitelako errudun direnik. Bakoitza bere garaiko semea izan ohi da, eta beste denbora bateko kontuak nekez jakiten ditu. Ez dakitenek jakin dezaten ere beharrezkoa zen, bai, jaialdi hau eratzeari. Gerra ondoko urte latz haietan, euskeraz ezer egiterik ez zegoenean, gau beltzaren erdian, izar bat agertu zen, nun eta Guatemala-n. EUZKO GOGOIA aldizkaria esan nahi dut. Eta hara bildu ziren euskeraren alde zerbait egin nahiez zebiltzanak.

Ekonomi aldetik begiratuaz, dirua errekaratzen botatzea bezala izan zen aldizkari hura han eta orduan ateratzea. Bai. Diruaren atzetik ibili balitz, gure Zaitegik egin dituen guztiak erokeriatzat, kijotekeriatzat jo beharko genituzke. Zorionean Arrasate hunek, ekonomi aurrerapenaren eta komenientzien sentidua hain zoli eta bizkor duen herri hunek, bestelako semeak ere badaki ematen.

Neurri handi batetan Zaitegiren eraginari zar zaio oraingo euskal berpizte hau. Gero hor ditugu olerki lanak, exegesi lanak eta Gre-

(1) 1962.ko Otsailaren 1.eko HERRIA.

(2) 1963.ko Maiatza-Ekainaren EUZKO DEYA.

ziako pentsalari handien obrak euskeraz jartzen eta argitaratzen berregain hartu duen lan eskerga. Eta guzti hori bera bakarrik, inoren laguntasunik gabe, herbesteko ogi garrama jaten zuen bitartean. Benetan horrelako seme erraldoiak Arrasatek bakarrik eman ditzake, Garibai, Bañez eta Sebero Altuberen herriak, alajaina!

Zaitegi adiskidea: uste dut beharturik nagoela Euskaltzaindiaren izenean eskerrak zuri ematera eta aitortza hau egitera. Bakoitzari berea zor zaio, eta zurekin Euskal Herriak duen zorra nolabait aitortzeko beharrezkoa zen gaurko egun hau.

Zaitegi adiskidea: hau zeuk jakingo duzu nik baino hobeki, noski, baina iruditzen zait bizitza ez dela gozoegia izan zurekin. Gurutzbide latza izan duzula. Arantzak loreak baino ugariago. Saminak, nekeak eta atsekabeak maizago bildu dituzula, atseginak baino. Baina horrek ez du zure zuzentasuna hautsi. Beharbada findu eta sendotu egin du. Eta zu baitan harritu nauena eta miretsi dudana izan da idealari leial egoten agertu duzun zintzotasun hori, eta sinestean beti erakutsi duzun ermotasuna. Gizaki aldetik ere, dohain eder hoiengatik, ispilu eta eredu zaitugu egungo Euskal Herriko gizaldi berriarentzat. Guzti hunengatik, bada, neure izenean eta guztion izenean: Eskerrik asko!»<sup>1</sup>.

(1) Iokini Arrasateko herriak eskainitako omenaldian, 1976.ko Abenduaren 19.an. Bide batez, egun horretan Euskaltzaindiak Zaitegi euskaltzain urgazle oho-rezkoa izendatzeko proposamena egingo zuen ezagutarazi zuen Aita Villasantek.



## ZAITEGIREN EUSKARA

Kapitulu berezi bat eskaini nahi izan diot Zaitegik bere obran zehar erabilitako euskarari buruz. Asko da berak idatzi zuena eta ez dena era edo hizkera berdinean. Idazki honen orrialdeetan barna gabiltzalarik aukera izan dugu honez gero, Iokinen jokaera zernolakoa izan zen jakiteko, noizean behin puntu honen gaineko aipamenik egin baita. Dena dela, Iokinen lan guztiak irakurrita euki eta, gainera, alderdi honi buruz jakintsu izan beharko nuke eritzi zehatza eman ahal izateko. Eta ez dut baldintza bietatik bat ere betetzen. Hau dela eta, pisuzko eritziak ekarri nahi izan ditut honetara, irakurleak Iokinen idaztankera nolakoa izan zen hobeto ezagut dezakeen.

Zaitegiri berari irakur diezaiokegu ondoko lerroetan, bere euskara aztertzen duelarik:

«Beti izan naiz garbizale. Baina Sebero Altubek honela esan zidan behin: Bai, zu garbizale zara, baina garbizaleen artean ez duzu aurkituko beste bat hain jatorrik»<sup>1</sup>.

Beraz, Zaitegik erabilitako euskarak muga ezagunak ditu haren hitzei bagagozkie. Eta mukageta egiteko, nork hobe interesatua baino? Izan ere, hasierako euskaratik Platon'en liburuetan azaldutakoraino al daketa nabaria iger dakioke Iokini. Honen ikaskide izandako Patxi Korta josulagunak honela aitortzen digu:

«Askotan ikusi nuen Azkue'tar Erresurrezion Jaunaren iztegi galanta aztertzen. Iztegi osoa edan nai zuela zirudien.

Iokin, euskal-langille porrokatua izan arren, gaztetandik akats bat oar izan genion: bere lagun zar bat, orain euskel-

(1) ZERUKO ARGIA, 1976.ko Apirilaren 18/25.koan.

idazle bikaiñetakoak dan Zubiaga tar Mikel Jesulagundiakoak askotan esaten zion: orain gure erriak bear duen idazkera, errexa, garbia eta erri guztiak ulertu leikena izan bear da. Baina berak bere erara jotzen zuen. Zubiagaren antzera Iokiniek lan egin izan balu, erriaren biotzeraño joko zukean» <sup>1</sup>.

Antzerako hitzak erabiltzen ditu Aita Piarres Lafitte kalonjeak:

«Erraiten nionean irakurleen ugaltzeko behar ginuela euskara erreztu, ihardetsi zautan errextuz jendea alpertzten nuela eta euskara bera hurritzen» <sup>2</sup>.

Lafittek PLATON'ENKO ATARIAN liburuko hitzaurrean,

«jori, nasai eta eder».

bezala mugatzen du Iokinen euskara, liburuaren egilea «Nere asmoa» delako sarreran era honetaz mintzatzen zaigularik:

«Egungo idazleok euskera zernaitarako egokierazi nai izango genuke. Naiz ta gairik sakonenak izan, euskera garbiz irauli nai izango genituzke. Eztugu ortzak izerdi ta esteak igeri egon nai. Gainera, errez eman nai izango genituzke: *tour de force* au ezta erreza, noski.

Ea nai nukezko asmo utsa danentz irakurleak erabakiko du. Alabaina, urliak auxe ziraustan: gai zailak euskeraz irauli nai izateari bertan bera utz ezaiozu, neurdin gauza garbirik eztuzu egingo-ta».

On Nemesio Etxaniz-ek hurbildik jarraitu zuen Zaitegiren lana. Eta harenak dira ondoan datozen hitzak, arrasatearraren euskaraz galdetu diodalarik:

«Zaitegiren euskara jatorra, jaiotzakoa, zeredozer jesuitetan makaldu egin zen. Eta gero egin zuen pixka bat akademikoa, pixka bat gogorra. Azkue-ren lexikoa erabiltzen zuen maiz, hitz-berri bila. Egundoko aberastasuna zuen alde honetatik. Nolanahi ere, oso gogor egiten zitzaidan berak idatzitakoa. Ez dut askotan Zaitegiren esanahia entenditzen. Eta galde-tzen banion zatiren batek zer esan nahi zuen, «horixe baka-rrik falta dugu» izaten zen bere erantzuna, ulertzen saiatu behar nuela erantsiz.

Zaitegi purista sabiniano dugu, ene ustez. Zaitegi, «Orixe» eta Andimaren hizkeretatik bat aukeratu beharko banu «Ori-

(1) Egunik jartzen ez duen Karakasetatik neri bidalitakoan.

(2) 1979.ko Urriaren 24.koan.

xe»-rena egingo nuke. Andimarena ere nahiko akademikoa-goia da, herriarengan ez hain sustraitua. Zaitegiren parekoa».

PLATON-EN ELKAR-HIZKETAK kapituluaren esan dudana bezala Iokinek haien orijinaletan H.a erabili zuen.

*Nondik nora, Iokin, euskaltzaleen artean hainbeste ixkanbila sortu duen H. ospetsua erabiltzea?*

«H.a Guatemalan hasi nintzen erabiltzen. Hura zela eta sortu zen ixkanbila nigana ere heldu zen. Euskaltzainditik idatzi zidaten, zenbait aholku ematen zitzaizkidan. Eta oinarri txiki hori zelarik, nere kabuz hasi nintzen. H.z idazten.

Geroxeago Jon Mirandek idatzi zidan H.ak ken nitzan esanez, ez baitnuten behar bezala erabiltzen.

Ostera hemen nagoela, eta zen giroa ikusirik, garbiago sumatu nuen H.ren beharrik ez genuela, erreztasuna, baizik.

Jon Mirandek Iokini igorritako eskutitzak irakurri ahal izan ditut. Gaiari dagozkion lerroaldeak bakarrik aldatuko ditut hona:

«...Halaz ere, ortografiaren aldetik, ez naiz puntu guztietan zurekin konforme. Lehenik, irudi zait obe da *j*-idaztea *i*-baino. Ba dakit gure autore klasikoek *i* erabiltzen zutela; bainan *c*, *qu*, *e.a* ere erabiltzen zituzten; eta horiek aldebat utziak ditugu; zergatik ez *i* hori ere bai? Gero, irudi zait, *h*-ak gaizki ipintzen dituzula zenbait aldiz. Esate baterako: iguingarri; lap. klasikoan higuigarri da (ene zuberotar euskeltian hüğüingarri). Beraz, obe da, edo iguingarri idatzi, giputz-bizkairaz euskeltietan bezala, edo higuigarri, gure aldeko euskeran bezala.

Baina horiek garrantzi gutxiko puntuak dira eta ez diote ezer kentzen zure itzulpenaren gallentasunari»<sup>1</sup>.

«...Ortografiaz denaz bezainbatean, jakina, ez naiz beti zurekin irizkide, ene azkenengo eskutitzean esan nizkizun zioak gatik (ene ustez, edo gipuzkera hutsean idatzi behar da, hots h'ik batere gabe, edo bestela, h'ak ipini behar dira gure hizkuntza klasikoan ipintzen ziren bezala. Edo behintzat, kh, ph sh aldera utzi ba ditezke ere, bi vokalen artean eta lh, rh, eta rrh'etan *h* beti idatziz. Gero, *i*'en ordez *j* idatzi behar dugula uste dut).

Baina horiek gauza tikiak dira, hizkuntzaren mamia iku-

(1) 1969.ko Uztailaren 1.ekoan. PHAIDON elkar-hizketaren euskarari buruz mintzatzen zaiolarik.

tzen ez dutenak. Eta, berriz ere diotsut, Platon'en graikera ederki euskeratu duzula deritzait»<sup>1</sup>.

Zaitegik malgutasun haundia erakutsi du beti euskerari dagokionez. Horra hor, bestela, EUZKO GOGOIA, diodanaren lekuko bezala. Kapitulu honi amaiera emateko, 1979.ko Hazilaren 25.ean Bizkaiko Larrean izandako «Olerti Eguna»-n irakurri nuen hitzaldiñoaren azken zatia dakart. «*Iokin Zaitegi*», *belaualdi gazteentzat eredu*» zuen titulua irakurritakoak eta honela bukatzen nuen:

«Zaitegik andregaitzat euskera hartu zuela dio «Orixe»-k. Honela baldin bada —eta egia delakoan naukazue— Zaitegik ez zuela zintzo jokatu pentsatu behar dut, nik beste andregai bat ere ezagutu baitnion: ABERRIA.

Gazteen amodioaz maite izan zuen beti Iokinek bere Aberria. Eta maitaleekin gertatu ohi den bezala, berari ere, sarrri, maitasuna negarra bihurtu zitzaion. Bere orduak oro eskaini dizkio. Areago oraindik, euskara-andregaiak baliatu da Aberri-andregaiarengana hurbildu ahal izateko. Baina azken honek ez dio indar berdinez ordaindu, maiz arromen laguntasuna nahiago izan duelarik.

Nolanahi ere, Zaitegik ba daki nondik nora doan. Ba daki bere Aberria diruginerako aurreratua izan arren ikas-gaietarako atzeratua dena. Ba daki Aberriak bere burua hornitze-ko libururik ez duena. Ba daki lehen liburu ondoren Ikastola Nagusia, Unibertsitatea, datorrena. Ba daki, ondo jakin ere, Aberri maitea guzti honetaz umezurtz hutsa dena. Baina, ba daki ere, gaztedi berri bat jaio dena. Eta, azkenik, ba daki gaztedi honek —«Orixe».k aipatzen duen beste andregaiaren koolaborazioaz— Aberriaren maitasuna irabazten lagunduko diona. Zaitegik berak dioen legez:

Herri bezala nahi baldin badugu iraun, euskara garbia, nahiz euskara jatorra, nahiz euskara zatarra... nahi duzuna, *baina euskaraz*»<sup>2</sup>.

(1) 1969.ko 13.koan, EUTIFRON eta SOKRATE-APOLOGIA-Z diharduelarik.

(2) ZERUKO ARGIA-n, 1976.ko Apirilaren 18/25.koan.

## IOKIN, IOKIN ZEN

Aurreko beste zati batetan ere aipatu dut Zaitegik eskutitzak idazteko azaltzen zuen, dasagun, alperkeria. Norainokoa zen eta eredu gisa, on Nemesio Etxanizekin gertatu zitzaiona irakur dezagun:

1963.ko Martxoaren 6.an bidaltzen dio On Nemesiok bilduma honetako lehenengoa:

«Aspaldi ontan mutututa zaitugu. Neri, beiñepein, etzait nere azkenengo idazki bien erantzunik eldu. Nun sartu zera? Inditarrak garbitu al-zaituzte? Andima'k ere zurerik ez duela artu, dio. Bideak lenengoak izango dira, ba.»

Urte bereko Ekainaren 15.ean ostera idazten dio:

«Laugarren idazkia dijoakizu. Ia oraingoan zure berri izaten degun. Gaixorik al zera? Ala zer dezu orrela mututzeko? Zure etxeokak ere ezer ez dakite.»

Gabonetan berriro gogoratzen dio egoera Iokini:

«Zorretan zaude nirekin.»

Baina Zaitegiren patxada horrelakoxea genuen eta handik bi urtetara ere idazteke zeukan On Nemesiori zar ziona:

«Gabonetan bi urte izango dira idatzi nizula. Eskutitz aren erantzunik ez det izan oraindik. Urrerago ba-zindut, belarrietatik tirako nizuke gogor. Lagun arteko gizabidea nolatan ulertzen dezu? »

Aldaterazi al zuen karta honek Iokinen jokabidea? Bai zera! Irakur, irakur ...:

«Adiskide mutu ori: Aizu! Mesedez, erantzun zaidazu lenbailen eta etzaite basatia izan».

Azkenengoz, 1970.ko Ekainean!!!, erantzuna jasotzen zuen azkoi-tiarrak. Hona hemen ordain-gisa arrasatearrari bidalitakoa:

«Adiskide xelebren ori: Azkenean, asmatu nian ik erantzuteko bidea. Azkoitian ere, ba uan sendagille bat, oso aldrebesa bere jokaeratan. Bein Marraktxenean norbait gaixotu uan. Joan dituk, ba, sendagille orri deitzera, ta beti ere: «Ba-natxiak», mediku orrek.

Baiña ez uan etxe aretan agertzen. Alako batean, etxeko semea joan zitzaiokan eta esan:

«Etorriko al aiz, txarri ori?»

Eta sendagilleak, parre algara bat egin eta jaiki ta joan ukan etxe artara bereala.

Ire kontua ere, onelatsu bukatu dek, Jaunari eskerrak. Nik lengoan «adiskide basati» jarri nialako, ire erantzuna iritxi diat bereala. Eskerrak, bada, kontu au bukatzen lagundu didakelako.»

\* \* \*

Datozen bi gertaerek ere ederki mugatzen digute Iokinen «patxa-datasuna». Dakusagun:

Omenaldi eguna zen. Ekintza honi eskainitako kapituluan zenbait xehetasun artean Meza chamaikak eta apur bat geroxeagotan» hasi zela ipini dut. Oinatiko Egoitzatik genekarren berebilean gogoratu zigun: «aurreko batean esan nizuen bezala, Arrasateko herriarentzat eskerron gisa «Euskal Ikurriñari» nere olerkia irakurri behar dut, seme kuttuna izendapenaren ondoren».

Baietzkoan gelditu ginen; baina ez genekiena etxera joan behar zuena zen, BERRIZ ERE GOLDAKETAN liburuxka bila. Hamaikak bost gutxiagotan Eliza aurrean geunden eta ez zigun berera gutariko inor joaten utzi. Berberak hartu behar zuen. Eskerrak Elizatik Iokinen etxera ehun metro baino gehiagorik ez zegoela...

Bigarren gertaera berdintsua da. Pablo Urrutia bere lehengusuaren urrezko eztaiak ospatu ziren egunean jazotakoa. Ordurako ere Iokin Oinatín zeukan egoitza.

Sendia Elizan ba zegoelarik Pablo eta Iokin oraindik... «Hire» liburudendan. Iokinek Arrasatera zetorren guztietan denda honetara bisitaldi bat egitea derrigorrezkoa zuen.

«Ioakin, goazen!, Meza hasteko ordua pasatu da eta...» Pabloren erreguari, «Joango gara, joango gara» izan zen Zaitegiren patxadazko ihardespena.

\* \* \*

Iokinen etxeetan, Arrasate, Oinati, Miarritze..., dakidenez, desordena izugarria izan da beti, haren lantresnei dagokien aldetik. Liburuak, esaterako, ehundaka pilatzen ziren Arrasateko sukaldean, nahiz logeletan. Jangelan, berriz, Iokinen lanleku bihurturik, irudi berbera ikus zitezkeen. Mahai gainean denetariko gauzak aurki zitezkeen: galleta zati batzu, eskuzapi bat, kortxoa kentzeko gailua, etxeko eskriturak, eskutitzak, liburu mordoa...

Iokini lehen elkar hizketa egin nion egunean, mahai hartan utzi nuen, ahantzia, kasete baten azala. Geroztik, Iokinenean sarri egon arren, ez nintzen azal hartaz gogoratu. Baina bost urte geroxeago, etxea erre zitzaionean gauzarik gehienak kanpora atera behar izan genituela-ko, utzitako lekutik berberatik jaso nuen azala.

\* \* \*

Aita Jon Goikoetxea S.J.ak hurbildik jarraitu zituen Iokinen San Salvador-eko urratsak. Biak lankide izan ziren nazio hartan eta, gainera, lagun. BIDALIEN EGINAK libururako Iokinek gerturiko idazkiak makinaz pasatu zizkion Aita Goikoetxeak.

Honela mugatzen zuen honek Iokinen nortasuna, 1980.ko Martxoaren 17.an Donostian izandako mahai-borobilean. Hitz egokiak Zaitegiren jokaera hobeto ezagutzeko:

«Zaitegi oso gizon koherentea zan. Bere mundu guztia hontantxe biltzen zan: euskaran. Honegatik, eutsi nahi izan zion hizkuntzari. Berarentzat euskara zan Aberriaren gilitza. Nahiz eta zapalduta bizi ikusten zuan Euzkadi bere hizkuntzaren jabe baldin bazan etsai guztiak baino gehiago izango zala.

Azken aurreko oporrak San Salvadorren elkarrekin igaro genituan, Izalko izeneko herrian. Izalko hori sumendi baten magalean dago eta gauez askotan esnatu egiten ginan ateko krisketearen ikarakin.

Indio herri bat dago han, Izalko; izugarritzko zigorra eta jipoia hartu cuten gu joan baino zenbait urte lehenago. Dirudienez, jaiki egin ziran eta... azkenengoetan utzi zituzten.

Behin Zaitegik esan zidan: Aizak, hoiengana joan behar

diagu eta ikusi nola dabilzan, zernolako laguntasun daukaten, heuren gogoia zein dan...

Eta joan ginan. Aurretik galdera batzu prestatu genituan, hitz batzu... «aita», «ama» eta antzerakoetatik hasita. Hiru bider edo joan ginan. Eta hirugarrenean etsita gelditu ginan. Zaitegi zan ni baino gehiago ibiltzen zana eta halako batean atso zahar batek esan zion:

«No aoles Padre que te desonraz»

Halegia, haien hizketa erabiltzen hasi ginan eta erabat peto geldituarazi gintuan atso honek, esanez: ez jarraitu bide honetatik.

Jo ninduan Zaitegik eta esan zidan: goazen hemendik! etzegoek zer eginik bere hizkuntza deshoretzat daukan herriarekin.

Herri zapalduak bezala, gure Herriaren ahaide bezala topatu nahi genduan; hartarako joan ginan haiengana, baina hori ikusiaz alde egin genduan.

Beti Euskal Herria gogoan. Zaitegik ez zeukan beste gauzarik. Dikotomia ikaragarrian bizi zan han Ameriketean. Soinez hantxe bizi bazen ere espirituz dana honera ekarri nahi zuan.

Hango Sinagoga-ko judioekin izugarrizko adiskidetasuna zeukan. Ikasi zuan hebraiera, oso ondo gainera. Eta karta batzu idatzi zituan judioen alde, Pio XII.gnak han zeukan bulegora.

Azken urtean minduta zegoan. Nagusiek oporretan ere lan ez bete baitzuten. Berak esan zidan: Ez dute nahi nik ez judioekin ezta ditudan adiskideekin ere hartuemanik izatearik. Etsita zegoan.»

\* \* \*

Arratsaldeko 7.etakoa Meza ematen zuen Iokinek egunero Arrasateko Eliza Nagusian. Behin Elizara iristen dela On Jose Luis Iñarra parrokoa zenak arestian hildako baten alde eman behar zuela Meza esan zion.

«Erdaraz ala euskaraz» galdetu ei zion Iokinek. «Erdaraz» erantzuna. «Bada, orduan zeuk eman» esanez etxerako bidea hartu zuen ostera.

Hildakoa hauzokide zeukan Iokinek.

\* \* \*



Euskarekiko ardura nolakoa zeukan ideia egin dezagun, ondoko gertaera honek errazten digu:

Behin Bilboko Erosetxe Haundi hoietako batetara doa erosketa bat egitera. Dakusan lehen neskari nahi zuenaren berri ematen dio, euskaraz. Neskak ez zuen tutik ulertzen.

Handik ordubetera Iokin Erosetxetik irtetzen zen besapean pake-tetxoa zeramalarik. Euskaldun bat ekarri behar izan zuten bezero «es-trainu» harek eskatutakoa zer zen jakiteko.

## ZAITEGI FLASH-*ez* AZTERTUA

Ondoan datozen galderak bat-batean dira Iokini eginda. Erantzunak ere, noski, horrelakoak ditugu. Eta Zaitegiren barne-barnetik irten-dako ihardespren hauek, haren mugaketa areago zorrotzagoa egiten digute. Zenbaiti emandako erantzunek epe luzetxoagoa behar izan zuten baina gehienak aurretik gertuta eukiko balitu bezala irten zitzaizkion. Arrasatearraren ispilutzat har daitekeelakoan nagoelako ematen dut hemen galde-erantzunketa:

- 1.— *Zein da Zaitegi?* Ameslari bat. Euzkadi euskalduna ikusi nahi izango lukeena.
- 2.— *Zure gogoko liburu baten izena?* Asko irakurri dut.
- 3.— *Eta musiko batena?* Beethoven.
- 4.— *Idazleen artean?* Bi emango dizut: Txomin Agirre eta Dostoiiewski.
- 5.— *Politiko bat?* Arana Goiri. Dena dela, Jose Antonio Agirre da azken honetan izan dugun gizonik aipagarriena eta politikoena.
- 6.— *Aukera ezazu artista bat.* Aurelio Arteta. Velazquez eta Zuloaga ere nere gustokoak dira.
- 7.— *Izan duzun lagunik handiena?* Andima Ibinagabeitia.
- 8.— *Gehien harritu zaituen Herria?* Euskal Herria.
- 9.— *Euzkadi ala Euskal Herria?* Bietara.
- 10.— *Zure bizitzako egun bat.* Euskaraz idazten hasi nintzen eguna.
- 11.— *Francisco Franco.* Espainiari kalterik haundiena egin dion gizona.
- 12.— *Espainia?* Bere burua aurkeztu ezin duen Herria.
- 13.— *Lore bat?* Larrosa.

- 14.— *Lorea ala fusila?* Lorea.
- 15.— *Zer adierazten dizu berde koloreak?* Etorkizuna.
- 16.— *Eta zuriak?* Euskal Herriaren jatorrasuna.
- 17.— *Gorriak?* Euzkadiren alde ixuritako odola.
- 18.— *Noiz egon da euskara osasuntsuago, zure denboran, lehenago, gure egunotan?* Oraingo aldian sendoago dator, ikasi eta baita ez ikasiaren artean ere.
- 19.— *Zer da pakea?* (gehien pentsatu duenean). Guztion artean izan behar dugun elkartasun zintzoa.
- 20.— *Eta gerratea?* Bi gerrate mota bereiz ditezke: 1) Norberaren buruaren aldekoa. 2) Inori eskubide gabe egiten zaiona. Dena dela, gerratea orobat hartuta ezin ikusia dut.
- 21.— *Haur bat.* Etorkizuneko gizona.
- 22.— *Nola ikusten duzu aisia?* Alperkeriak dakarrena; baina, hain zuzen, alperkeria horrek on haundiak ekar ditzake: gizadiaren onerakoak.
- 23.— *Zer izango zinateke ostera jaioz gero?* Izan naizena.
- 24.— *Josulagundia?* Euskal Herrian euskaldunen sortzerik harrigarriena. Hor ditugu Loiolako Iñaki eta Xabierreko Frantzisko, besterik ez aipatzearren.
- 25.— *Loiola ala Xabier?* Biak.
- 26.— *Tabakorik?* Bai, habanoa.
- 27.— *Edaririk?* Whisky.a.
- 28.— *Fidel Castro ala Mao?* Ez bata ezta ere bestea.
- 29.— *Pinochet ala Videla?* Ez bata ezta ere bestea.
- 30.— *Fidel Castro ala Videla?* Ez bata ezta ere bestea.
- 31.— *Zer da karitatea?* Elkarrenganako maitasuna, Jainkoarengandiko maitasunak eraginda.
- 32.— *Ba al da karitaterik?* Bai, benetakoa gainera.
- 33.— *Zorionbide bat?* Zorionekoak Jesukristoren irakatsirik beharrezkoena mamitzen dutenak: nork bere buruari agintzen diona.
- 34.— *Apostolu bat?* Kepa eta Paul Deunak. Elizaren aurreko aldiak zoragarriro ematen dituzte.
- 35.— *Ez al zaitu inoiz munduak deitu?* Ez. Ni neure arazoetan murgilduta bizi izan naiz.
- 36.— *Zer da dirua?* Gauza askotarako beharrezko dugun zera.
- 37.— *Dirua ala ohorea?* Ohore eta Osasuna. Ohorez beterik eta dirurik gabe bizi daiteke.

- 38.— *Heriotza?* Etxe aldaketa.
- 39.— *Zer idatziko zenuke zure bilobian?* Bego Jaungoikoaren atsedenean.
- 40.— *Zer da olerkari izatea?* Ederra Eder-begiz ikusi eta adieraztea.
- 41.— *Olerkari baten izena?* Lope de Vega.
- 42.— *Izan al duzu etsairik?* Neuk dakidanez, ez.
- 43.— *Amerika ala Europa?* Biak beharrezkoak ditugu. Bata itxaropena. Europa iragana.
- 44.— *Guatemala?* Etorkizun haundiko Herria.
- 45.— *Zein eserierazi duzu zure mahaian, txiroa ala aberatsa?* Bietatik izan ditut.
- 46.— *Aukera ezazu herri bat jaiotzeko.* Arrasate; ez nuke aldatuko.
- 47.— *Emakume bat zure bizitzan.* Dударик ez, nere ama.
- 48.— *Zure bizitzaren ardatza?* Euskara. Eta gure Aberria indartzeko erabili ahal izan dudan guztia.
- 49.— *Atsotitz bat.*— Gogorik denean aldaparik ez.
- 50.— *Zer izan da Iokin Zaitegi bizitzan?* Kixote bat.